HERRITARREN **PARTAIDETZA** **GIPUZKOAN** 2016-2017



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ERAIKIZ

Nabigatu
KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

Nabigatu
KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ERAIKIZ

HERRITARREN PARTAIDETZA GIPUZKOAN 2016
Lege Gordailua. SS-137-2018
ISBN: 978-84-7907-779-2



HERRITARREN **PARTAIDETZA**

GIPUZKOAN 2016-2017

Nabigatu
KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

hitzaurrea

Liburu honetan, 2016-2017an Gipuzkoan gauzatutako herritarren partaidetza prozesuen nondik-norakoak topatuko dituzu. Foru Aldundiak, Udalek, eta herritarren elkarteek martxan jarritako prozesuen edukia eta xehetasunak ezagutu ahal izango dituzu. Tipologia eta metodologia ezberdinetako proiektuak, baina guztiak ere pertsonak jomuga eta protagonista dituztenak, herritarrak ahalduntzeko eta proiektu komunak eraikitzeko balio izan dutenak. Eta batez ere, kudeaketa publiko parte-hartzaileago bat mamitzeko bidean, irakaspen ugari eta ondorio mamitsuak utzi dituztenak.

Harrokeriarik gabe, baina harrotasunez esan behar dugu Gipuzkoa badela eredu hainbat alorretan. Eta partaidetzan ere, uste dut pixkanaka egiten ari garela bidea. Izan ere, bat gatoz politika eta erakundeak eraberritzeko, lehenik eta behin, gizartearekin erlazionatzeko dugun modua aldatu behar dugula. Konfort esparrutik irten eta herritarren eta gizarte antolatuaren nahiak barne hartuko dituen eredu baterantz egin behar dugula. Gizarteak bere etorkizuna eraiki nahi duela ulertzen dakien eredu bat, etorkizuna ez baitago aurrez zehaztuta, pertsonek eraikitzen dugu. Are gehiago, guztion ideiak, talentua, energia eta ekarpena beharko ditugu esku artean dauzkagun erronka garrantzitsuei aurre egin ahal izateko.

Bide horretan estropezu egingo dugu askotan, baina horrek ere ikasteko aukera emango digu. Badakigu alor honetan ez dagoela errezeta magikorik. Partaidetzan ezinbestekoa dela elkarrengandik ikastea. Esperientzia arrakastatsuak eta praktika egokiak partekatzea. Etengabe aldatzen ari den alorra da, gu ere aldatu egiten garen heinean. Erabakiak hartzeko prozesuak gero eta konplexuagoak diren honetan, indibidualismoaren mehatxua bizi dugun honetan, badakigu partaidetzaren alde egiteak, adostuz, eztabaidatuz eta espazio komunak sortuz, gure erakundeen legitimitatea indartzen duela, eta gizarte bezala ere sendotu egiten gaituela.

Erabakiak hartzerakoan zenbat eta ikuspegi gehiago aintzat hartu eta jendea zenbat eta gehiago inplikatu, orduan eta eraginkorragoak eta zilegitasunezkoak izango dira politika publikoak, eta hobeto erantzungo diete dauden beharrei. Partaidetza erraztea, politika anitzagoa eta aberatsagoa egitea da. Partaidetzaren alde egitea, Gipuzkoa proiektu kolektibo eta partekatu gisa finkatzea da. Uste dut konbikzio hori liskar politikoetatik salbu uztea lortzen ari garela denon artean eta horren erakusgarri dira liburu honetan topatuko dituzun prozesuak, kolore guztietako eragile eta udalek abiarazitakoak.

Ildo horretan, aurrerapauso handia eman dugu denon artean duela gutxi: Gipuzkoako Udalak organo bakar batean elkartzea, partaidetza indartzeko indarrak batuz. Horri esker, partaidetza bultzatu ahal izango dugu herriz herri, politika publikoen diseinu, garapen eta ebaluazioan. Sarean lan egin ahal izango dugu. Elkarlanean. Tokiko esparruak herritarrak inplikatzeko eta partaidetzan berrikuntza sustatzeko duen potentzialtasun apartari zukua atera ahal izango diogu. Babes berezia eskaini ahal izango diegu Udal txikienei, baliabide gutxiago dituztenei. Diru laguntzak adostu eta indartu ahal izango ditugu. Eta, batez ere, elkarrengandik ikasi ahal izango dugu. 2018. urtea mugarri izango dugu, zalantzarik gabe.

Jarrai dezagun ate eta leihoak zabaltzen, etorkizuna denon artean eraikitzeko.

IMANOL LASA ZEBERIO

Bozeramalea eta Gobernantza eta Komunikazio Diputatua
Gipuzkoako Foru Aldundia
2015-2019 legegintzaldia

aurkibidea

1. UDALERRIAK

BIDASOA 8
Irun 10

DEBA BEHEA 16
Elgoibar 18
Soraluze 24

DEBA GARAIA 30
Aretxabaleta 32
Arrasate 38
Elgeta 42
Eskoriatza 48

DONOSTIALDEA 54
Donostia 56
Hernani 62
Oiartzun 68
Pasaia 74
Urnieta 80

GOIERRI 86
Altzaga 88
Arama 94
Beasain 100
Itsasondo 106
Lazkao 110
Legazpi 116
Legorreta 122
Ordizia 128
Segura 134
Urretxu 138

TOLOSALDEA 142
Abaltzisketa 144
Aduna 148
Baliarrain 152
Orendain 156
Tolosa 160

UROLA KOSTA 166
Azpeitia 168
Getaria 172
Zarautz 176
Zestoa 180

2. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

GFA 188

Aurrekontu Irekiak 2017 187
Berrikuntza palankak 2016 194
Partaidetzako Foru Arauaren berritze prozesua 198
Zarauzko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren diseinua 200
Gipuzkoan Jarduera fisikoa bultzatzeko proiektua 203
Kultur proiektuen eragina 205
Lankidetza politikak 2017an 207
Lehen sektorearen etorkizuneko erronkak 209
Marko estrategikoaren inguruko prozesua 211
Pasaiako Portuko Plan Bereziaren kontrastea 213
Gipuzkoako Foru Aldundian telelanaren txertaketa 215


3. HERRITARREN ELKARTEAK

ELKARTEAK 216

Bai Txo! Elkartea 217
Zuhatza Euskara Elkartea 219
Eusko ikaskuntza 221
Landetxa 223
Kale Dor Kayiko 225
San Agustin 226
Airez 228
Politki 230
Txatxilipurdi 232
Jam espresio kulturalaren promozioa 234
Zerainlab 236

BIDASOA

Hondarribia eta Irun





HERRIAK

2

BIZTANLEAK

76.765 (gipuzkoarren %10,82)

AZALERA

71,6 km^2 (Gipuzkoaren %3,61)



ETORKIZUNA ERAIKIZ

Lur eremu txikiena hartzen duen eskualdea da (71,6 km^2), hori horrela delarik, eskualde osoa dena batera begi bistan eduki daiteke, bertan diren talaia zoragarriren batetik. Gipuzkoako ekialdean dago, eta hauek ditu mugak: iparraldean Bizkaiko itsasoa, ekialdean Frantzia, hegoaldean Nafarroa, eta mendebaldean Donostialdea eskualdea. Bidaso ibaia da eskualde honetan Gipuzkoa eta Frantziaren arteko muga naturala. Txingudiko badian itsasoratzen da 66 km-ko bidea egin ondoren, batez ere nafar lurretan barna. Badiara bertara heldu aurretik, padurak sortzen ditu itsasoko urarekin nahasirik, nahiz eta azken urteotan padura horien luze-zabalera asko urritu den. Eskualdearen barruan Bidasoa ibaiaren adar garrantzitsuenak Errolasarko eta Jaizubia dira.

Bidasoa Beherean bi udal bakarrik daude: Irun, Gipuzkoako bigarren herririk handiena, eta Hondarribia. Lehendabizikoa eskualdearen barnealdean dago eta bigarrena, berriz, badiaren alboan. Bi udal horien herriguneak elkarturik daude gaur egun, eta elkargune hori Donostiaren eraginpean dagoen azpimultzo baten buru gertatzen da.

Frantziako mugakide izanik, ekonomia jardueraren zati handi bat aduanaren burokraziaren ingurukoa izan da, baita eskualdea zeharkatzen duten bide azpiegituren ingurukoa ere: A-8 autobidea (Bilbao-Behobia) eta N-I errepidea (Madril-Irun), gero Pariseko bidea hartzen dutenak. N -121 eskualdeko errepideak Bidasoa Beherea Nafarroarekin lotzen du; errepide horri esker eskualde honek harreman estuak ditu ipar-ekialdeko nafar herriekin. Trenbide komunikazioetarako geltoki handi bat dago Irunen, mugaren beste aldean, Hendaian, jarraipena duena. Bada bide estuko trenbide bat, Eusko Tren, enpresaren mendekoa, Donostia eta Hendaia lotzen dituena. Topo. izenez ezaguna da. Bi trenbide horiei, baliteke agian denbora gutxi barru Abiadura Handiko Trena ere gehitzea. Garraiobideen azpiegituraren barnan, azkenik, Hondarribia ondoan berrogeita hamargarren hamarkadaren amaieran eraikitako aireportua dago. Pista bakarrekoa da, txikia, eta handitzea, bestalde, ia ezinezkoa da, lehendik ere itsasoari kendutako lurren gainean baitago egina.

IRUN

AZALERA: 42,8 km² | **BIZTANLEAK:** 59.673 | **UDALBATZAREN OSAERA:** PSE-EE (10), EAJ-PNV (5), SPI (5), EH Bildu (3), PP (2)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

PEDRO ALEGRE (Arloko zinegotzia)

AURREKONTU PARTE HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 794 (445 emakumezko, 349 gizonezko)


GAIA:
AURREKONTUAK



Badira urte batzuk Irunen parte hartze prozesuen bidez erabakiak hartzen direla. 2015. urteko aurrekontuetan, aurrera pauso bat eman zen; udal aurrekontuetako 1.500.000 euro zertan inbertitu erabakitzea herritarren esku utzi baitzen. Ekintza arrakastatsua izan zen eta geroztik urtero errepikatu da ekimena.

2017. urteko aurrekontuetako 1.500.000 euro zertan inbertitu erabakitzeko, beraz, berriz ere parte hartze prozesu bat abiarazi zuen Udalak. Irungo Udalak, 70 milioi inguruko Aurrekontu Orokorra du. Diruaren %70 udal funtzionamendura bideratzen da eta %12 inguru inbertsioetara. Hortaz, herritarrek, Aurrekontu Orokorraren %3a zertara bideratu erabakitzeko aukera izan dute, lehenik proposamenak eginda eta ondoren bozkatuta.

Parte hartze prozesua bitan banatu da. Alde batetik, Prozesu Orokorrak 1.300.000 euro zertan erabili erabakitzeko balio izan du eta bestetik, Gazteen Prozesuak gainerako 200.000 euroen erabileran izan du erabakimena. Prozesu Orokorrean 16 urtetik gorako edozein irundarrek izan du parte hartzeko aukera, Gazteen Prozesuan aldiz, 16 eta 30 urte bitartekoek. Prozesuek ondorengo metodologia jarraitu dute:



Prozesu Orokorra

Prozesu honetan proposamenak aurrez aurre nahiz online egiteko aukera izan zen. Lehen fase batean, proposamenak aurkeztu ziren eta horietatik 48 proposamen bozkatu ziren azken fasean.



Online proposamenak egiteko epea, aurrez aurreko proposamenak aurkezteko egin ziren bileren tarte berdinean egon zen irekita, hau da, urriaren 5etik 19ra. Proposamenek ondorengo galderei erantzun behar zieten: Zer proposatzen duzu? Zertarako edo zeinentzat? Non? Eta zenbat balio dezake? Online egindako proposamenen artean 12 aukeratu ziren azken aukeraketarako.

Aurrez aurreko proposamenak egiteko 3 bilera egin ziren: lehenengoa, urriaren 5ean Belaskoeneako LHIn; bigarrena, urriaren 13an Luis Mariano Gizarte Zentroan, eta azkena, urriaren 19an Ospitale Zaharreko hitzaldi aretoan. Bileretako lan metodologia aurreko urteetako berbera izan zen: lehenik laneko dinamiken azalpena, gero lan dinamika taldean eta azkenik, bozketa. Bilera bakoitzetik 12 proposamen bozkatuenak aukeratzea aurreikusi bazen ere, hirugarren saioan puntutara berdinduta gelditu ziren azken hiru proposamenak, ondorioz, 14 proposamen onartu ziren.



Lehenengo bileran 15 pertsonak hartu zuten parte, 3 taldetan banatuta; bigarrenean 5ek talde bakarrean; eta azkenekoan beste 15 parte hartzaile izan ziren 3 taldetan banatuta.

Bileretan nahiz online jasotako proposamenen bideragarritasuna aztertu ondoren, 34 proposamen onartu ziren azken bozketarako eta behin-betiko zerrenda hori beste bilera batean aurkeztu zen azaroaren 2an Ospitale Zaharreko hitzaldi aretoan. Bozketa azaroaren 4tik 10era bitartean egin zen online eta 716 herritarrek eman zuten beren botoa.

Prozesu honen emaitzak azaroaren 11n argitaratu ziren. Guztira, 1.229.100 euroko aurrekontua banatu zen 13 proposamenetan:

1.	IRUN-go BIDEGORRI SAREA HANDITZEA **350.000€**	293 boto
2.	MENDIBIL PARKEAREN BIRGAIKUNTZA **350.000€**	219 boto
3.	KUADRILLATEGI. EUSKARAZKO GAZTEENTZAKO AISIA EKIMENA **103.000€**	153 boto
4.	KOLON PASALEKUAN EUSKO-TREN BIDEEN ESTALTZE PROIEKTUAREN KONTRATAZIOA **70.000€**	146 boto
5.	UDAL LUDOTEKA SAREAREN HOBEKUNTZA **93.500€**	145 boto
6.	SEKTORE KULTURALERAKO LAGUNTZA HANDIAGOA **100.000€**	141 boto
7.	IRUNGO ZEBRA-BIDEAK ALTXATZEA, bereziki eskola guneetan **60.000€**	106 boto
8.	FILME KLASIKO ETA GAURKO FILMAK JATORRIZKO BERTSIOko ZINEMAKO ZIKLOAK **20.000€**	98 boto
9.	"FAMILIAN AISIA" PROGRAMA SORTZEKO DIRU-LAGUNTZA" **6.000€**	96 boto
10.	ARTIA ZUBIA ETA HILERRI BIDEGURUTZEAN BIRIBILGUNE BATEN ERAIKUNTZA EGITEKO IKERKETA **60.000€**	85 boto
11.	FAMILIA UGARIETARAKO IRUNGO KIROLDEGIETAKO PREZIO PUBLIKOEN HOBARIAK **35.000€**	77 boto
12.	EKINTZAILEENTZAKO KO-WORKING LEKUA **40.000€**	76 boto
13.	KATU-KALE KOLONIETAKO ESTERILIZAZIORAKO DIRU-LAGUNTZA **11.600€**	60 boto

Gazteen prozesua

Prozesu honetan proposamenak nahiz bozketak online egin ziren. Hala ere, interneten eztabaidatzeko foro ireki bat sortu zen eta CBA liburutegian ere eztabaidarako aurrez aurreko foro bat egin zen.

Prozesu Orokorrean egindako galdera berak egin ziren, baina prozesu honetan aurrekontuetako 200.000 euro zertan inbertitu erabaki zen. Proposamenak online jaso ziren urriaren 5etik 19ra bitartean eta foro presentziala urriaren 11n izan zen. Online jasotako proposamen guztien artean 20 aukeratzeko lehen bozketa bat egin zen, eta Prozesu Orokorrean bezala, proposamen hautatu horien bideragarritasuna aztertu ondoren, behin betiko zerrenda osatu zen azken bozketarako.



Kasu honetan, azken bozketan 78 pertsonak hartu zuten parte eta bakoitzak 5 boto eman zitzakeen. 8 proiektu bozkatuenen artean 199.500 euro banatu ziren:

1. UDAKO ZINEMA **12.000€**	42 boto
2. KONTZERTUETARAKO AURREKONTUA HANDITZEA ETA KOKAPEN DESBERDINETAN EGITEA **60.000€**	39 boto
3. ENPRESEKIKO HITZARMENAK GAZTE ENPLEGUA BULTZATZEKO **30.000€**	38 boto
4. AZTERKETA ALDIAN CBAren ORDUTEGIA HANDITZEA **15.000€**	32 boto
5. "AISIALDI-MONITOREA" ETA "AISIALDI-ZUZENDARIA" IZATEKO DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROA IRUNEN" **15.000€**	27 boto
6. EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZAK **20.000€**	22 boto
7. ESTALITAKO HAUR-PARKEA **21.500€**	18 boto
8. BIDERAGARRITASUN AZTERLANA SAN MARTZIAL GUNEAN BIZIKLETAZ JAITSIERAKO PISTAK PRESTATZEKO **6.000€**	7 boto

Azken hausnarketa

Aurreko urteekin alderatuta parte hartzea jaitsi bazen ere, 2017ko aurrekontuetarako ekarpenak areagotu egin ziren. Parte hartzearen beherakada bereziki nabaria izan zen gazteen artean, ondorioz, gazteen interes taldeekin parte hartze baxu honen arrazoiak aztertu beharra ikusi zen. •



PEDRO ALEGRE
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Zinegotzia

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Funtsean, hurrengo urteko udal aurrekontutik Irungo herritarren esku milioi bat eta erdi euro jartzean datza. Bi prozesu paralelotan banatzen da: bat gazteei (16-30 urte bitartean) zuzenduta 200.000 euroko aurrekontuarekin, eta, bestea, orokorra gainontzeko 1,3 milioiekin. Taldean eztabaidarako saio presentzialak antolatzen dira; parte hartze prozesuak, alegia.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Helburua herritarrak proiektuen kudeaketan eta herria eraikitzeko eta hobetzeko laguntzan erantzunkide egitea da. Herriari ahotsa ematean datza, aurrekontuko zati garrantzitsu batekin beraiek nahi dutena egin dezaten, gobernu taldeak jarraitzen dituen ekintza ildoei jarraitu ala ez. Herritarrek dute boterea diru horrekin zer egin erabakitzeko. Hori bai, joko-arau batzuk ezartzen dira, oinarrizko irizpide batzuk, ekarpenak eta proposamenak onartuak izan daitezen: ezarritako aurrekontua ez gainditzea, Udalaren eskumena izatea, interes pertsonaletik harago hiriarentzat interesgarria izatea eta teknikoki bideragarri izatea.

Zein metodologia erabili duzue?

Lehenengo urteetan saio presentzialak besterik ez genituen egin. Horietan jendeak ekarpenak egiten zituen eta talde txikitan eztabaidatzen ziren. Ondoren, talde bakoitzeko bozeramaileek interesgarrienak iruditzen zitzaizkien proposamenak aurkezten zituzten saiora gerturatu ziren guztien aurrean. Jarraian, kartelak eta pegatinak erabilita bozketa egiten genuen partaide bakoitzak bost pegatina erabilita, hau da; bakoitzaren aburuz bost proiektu interesgarrienei bozka emanda. Era horretan lehenengo urtean bakarrik egin genuen lan, baina talde dinamika horietan herritar batzuk ez zirenez eroso sentitzen, edo arrazoi desberdinengatik saioetara gerturatu ezin zutenez, Internet bidez ekarpenak jasotzeko bidea zabaldu genuen. Ordura arte Internet bidez bileretan landutakoaren informazioa helarazi besterik ez genuen egiten.

2016an saio presentzialak egiten jarraitu zen eta, gainera, Internet bidez jaso ziren proposamen guztiekin atariko bozketa egitea ahalbidetu zen. Horrela, boto gehien jaso zituzten 12 proposamenak saio presentzialetan barneratu ziren eta, guztira, 48 proposamen pasa ziren amaierako bozketara. Azken bozketa hori Internet bidez egin zen eta sarera konektatzeko gaitasunik ez zutenentzako Herritarren Arreta Bulegoaren laguntza eman zen prozesuan parte hartu zezaten.

Lehen urteetan, bozketan lobby efektu garrantzitsu bat egon zen. Kolektibo batzuk auzoetan laguntza bilatu zuten auzotarrek euren botoa talde horien esku utzi zezaten. Bidezkoa zen, baina prozesuak nortasuna galtzen zuen. Hori ekiditeko 2016an Irun Txartelaren bidez egiteko aukera bakarrik eman genuen. Era horretan, parte hartzea ia zortziren batera jaitsi zen, baina partaidetza errealagoa izan zen.

Parte hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Parte hartzera datorrenak ziurtasunez eta itxaropentsu egiten du. Jendea bere ideiak defendatzeko gogoz etortzen da antolatzen ditugun bileretara. Partaideen arteko interakzioa jatorra da eta ez da inongo arazorik izaten. Parte hartze gehiago egotea gustatuko litzaiguke, eta hori lortzeko lanean ari gara. Prozesu honek duen aspektu garrantzitsuenetako bat gardentasuna da eta partaideek hori gustuko dute. Proposamen bozkatuenak hurrengo urteko aurrekontuen plan estrategikoan barneratzen dira. Webgunean, gainera, proposamenen eboluzioaren jarraipena egin daiteke.

Zein ondorio atera dituzue prozesuari esker?

Asko, batez ere zaila dela. Lan eta denbora asko eskatzen duen prozesu konplexu bat izateaz aparte, oso zaila da jendea mugi araztea. Proposamen txiki asko dago, pertsonalak, eta ez horrenbeste hiriaren aspektu orokorren ingurukoak. Interes handiagoa ez pizteak harritzen gaitu. Gainera, lobby efektua kontuan hartu beharrekoa da. Ez da txarra era horretako iniziatibak sortzea, baina norbanakoen borondatea errespetatu behar da beti. Bestalde, ikusi dugu bozka elektronikoak segurtasuna bermatzen duela, baina era berean mugatu egiten du prozesu. Hori dela eta, Irun Txartela ez dutenei bozka tutoretzarekin egiteko aukera eskaintzea pentsatzen ari gara.

Zer ikasi duzue etorkizuneko prozesuetarako?

Komunikazioa garrantzitsua da. Ahalik eta irundar gehienengana iristeko gehiago eta hobeto egin behar dugu. Gazteei dagokienez, haiek dauden lekuetara joan behar dugula ikasi dugu. Ezin ditugu bakarrik ohiko bilerak antolatu liburutegian edo Kultur Zentroan gai zehatz batzuen inguruan. Haiengana jota erantzuna bestelakoa da.

Zer hobetuko zenuke?

Kale dinamizatzaileak bidali behar dira, izan ere gazteak prozesuan barneratzeko haiengana joan behar dugu. Ideia landua eman behar diegu parte hartu dezaten, bestela zailagoa zaie prozesuan ekarpenak egitea eta haien inplikazioa behar dugu.

DEBA BEHEA

Deba, Eibar, Elgoibar, Mendaro, Mutriku eta Soraluze





HERRIAK

6

BIZTANLEAK

55.307 (gipuzkoarren %7,79)

AZALERA

180,3 km² (Gipuzkoaren %9,10)



ETORKIZUNA ERAIKIZ

Deba Behereko eskualdeak 180,3 km²-ko lur eremua hartzen du Gipuzkoako hego-mendebalean. Markina-Ondarroa eta Durangaldea ditu mugakide mendebaletik; ekialdean, Urola-Kostaldea; hegoaldean, Deba Garaia; eta iparraldean, itsasoa. Eibar da eskualde honetako herririk nagusia. Eibarren eraginpean bizi dira: Elgoibar, Deba, Soraluze, Mutriku eta Mendaro. Bizkaiko Ermua eta Mallabia ere Eibarren eraginpean sartzen dira guztiz; halaber, Bergarak gisa bereko eragina du Soraluzeri buruz. Eskualde honetako hondartzarik garrantzitsuenak dira: Mutrikun, Ondarbeltz, Mutriku, Zazpi Hondartzak eta Saturraran, eta horiei Debako hondartza gehitu behar zaie. Deba ibaiak bere ur barrenean bihurgune handiak egiten ditu Altzolara heldu bitartean; hortik aurrera, Arnoko alderdira sartzen da berriro ere, itsaso aldera jo aurretik; 58 km egin ondoren, estuario bat sortzen du itsasoratzean.

Komunikabide egokiak ditu eskualde honek. A-8 (Bilbao-Behobia) autobideak eta kostaldeko N-634 errepideak lotzen dituzte herri nagusiak, eta euskal itsasaldearekin nahiz Donostia edo Bilborekin harreman bideak jartzen dituzte. Bizkaiko hiriburua hurbil izanik, merkataritzaren aldetik eskualde honetako herri gehienek Bilbora dute joera, ez Donostiara. Oinarrizko sareko GI-638 errepideak Mutriku eta Ondarroa Debarekin lotzen ditu. GI-2634 errepideak Elgoibar Azpeitiarekin lotzen du, eta GI-2636 errepideak Elgoibar Markinarekin. Eskualdea burdinbide bakarrak zeharkatzen du, Donostiatik Bilboraino doan bide estukoak; garrantzi handia dauka Elgoibar, Eibar eta Ermua bitarteko aldiriko zerbitzu gisa.

Deba Beherean industrian ari diren langileak biztanleria aktiboaren erdia dira gutxi gorabehera; hirugarren sektoreak ehuneko berrogei hartzen du, eraikuntzak ehuneko bost eta lehen sektoreak ehuneko hiru. Pisurik handiena metalen transformazioko industriak dauka. Turismoari lotutako jarduerak Deban eta Mutrikun bakarrik dauka pisurik. Mendaron dago eskualdeko ospitalea, eta Eibarrek eskualde osoko epai barrutiko buru gisa jokatzen du; lehen instantziako eta lehen instrukzioko bina epaitegi ditu. Itsasoko arrantza Mutrikun egiten da bakar-bakarrik.

ELGOIBAR

AZALERA: 39,2 km² | **BIZTANLEAK:** 11.481 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (9) EH Bildu (6) PSE-EE (2)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

ANDREA ARRIOLA (Zinegotzia)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
Elgoibar
Soraluze
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

ELGOIBARKO GIZARTERATZE MAHAIA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 16 (13 emakumezko, 3 gizonezko)

GAIA:
GIZARTERATZEA

Herrian, gizarte bazterkeriaren aurka eta gizarteratzearen alde lan egiten duten eragileen topaketarako, hausnarketarako eta elkarlanerako gune bat sortzeko eta sendotzeko helburuarekin, Elgoibarko Udalak, Elgoibarko Gizarteratze Mahaia sortu zuen 2014an. Lehendabiziko urte horretan, jardueraren ardatz nagusia, bereziki, Mahaian parte hartu zuten eragileek, erakundeek eta zerbitzuek elkar ezagutzea izan zen.

2015. urtean, Elgoibarko gizarte bazterkeriari eta gizarteratzeari buruzko diagnosia egin zen. Helburua, dokumentu hori urteko jarduera planak egiteko oinarri eta motorra bilakatzea zen eta 2016ko otsailean elgoibartarrei aurkeztu zitzaien. Diagnosiaz baliatuta, aipatu Mahaiak 2016. urterako Ekintza Plana egin zuen. Plan horrek emakumea eta kultur aniztasuna izan zituen ardatz.



2016an, Elgoibarko Gizarteratze Mahaiak ekintza desberdinetan parte hartu zuen. Esaterako, otsailean, arestian aipatutako Elgoibarko gizarte bazterkeriari eta gizarteratzeari buruzko diagnosiaren aurkezpenean. Halaber, martxoaren 8rako Udaleko Berdintasun Sailak antolatutako ekintzetan ere era aktiboan parte hartu zuen eta beste hainbat ekintza sustatu zituen; Feminismo islamiarrari buruzko hitzaldia Maya Amraneren eskutik, Elgoibar Loreak kulturartekotasunaren aldeko elkartearen aurkezpen ekitaldia edota "Indian emakume izatea" erakusketa. Apirilean Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemari buruzko hitzaldia ere antolatu zuen Mahaiak.



2016. urteko Ekintza Planak jasotako gai ardatzak kontuan hartuta urrirako programazio berezia antolatu zen ELGOIBARREN ELKAR(-)BIZI! astea, hain zuzen ere.

Mota desberdinetako ekitaldiak izan ziren, besteak beste, "Fatima" eta "El Cairo 678" filmen proiekzioa, Munduko arrozen dastaketa, Emakume migratuen kulturarteko topaketa, "Simbad marinela" ipuin saioa edota "Belo islamikoa eskolan" eta "Zurrumurruei stop" hitzaldiak.



Elgoibarko Udalak balorazio oso positiboa egiten du proiektuaren inguruan. Mahaia gizarteratzea lortu da, elgoibartarrek ezagutzen dute eta harrera ona egin diote gainera. Herrian, arlo berean lan egiten duten eragileen arteko elkar-ezagutza eta koordinazioa hobetzea ere lortu da. Gainera, elkarlanean abian jarritako ekimenetan talde osoak horien gaineko erantzukizuna hartu zuen, nahiz eta hainbat kasutan hausnarketa egitea beharrezkoa izan zen, batzuetan gehiegizko ahalegina egin baitzen. Elgoibarko Gizarteratze Mahaia anitza eta egonkorra bilakatu da bi urte hauetan. •





EXUADOR







ANDREA ARRIOLA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Zinegotzia

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Gure aldetik esan dezakegu positiboa izan dela. Kolaborazioa sortu da elkarteen, udal sailen eta parte hartu duten herritarren artean. Zaila izan da oreka mantentzea. Jende asko zegoen hasieratik eta oso zaila izan da normaltasuna lortzea. Baina, pozik gaude azkenean nahi genuena lortu ahal izan dugulako.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Elgoibarren gai berak landu, baina elkarrekin lanik egiten ez zuten elkarte desberdinak zeudela uste genuen Udaletxean. Bakoitzak ahal zuen neurrian egiten zuen lan eta gure helburua zen guztiak elkartu, diagnosi bat egin eta denon artean erabakitzea nola lan egin hemendik aurrera.

Zein metodologia erabili duzue?

Bilerak hilero egitea erabaki genuen. Gure nahia zen Udalak gainontzeko elkarteen pare parte hartzea, kide bat gehiago besterik ez izatea, eta, horregatik, Ongizate Sail bezala parte hartu genuen bileretan. Hori dela eta, kanpo enpresa bat kontratatu genuen eta horiek arduratu ziren bilerak bideratzeaz. Enpresa bi urtez egon zen gurekin lanean eta oso zorrotz betetzen zituzten bileren egiturak. Bileretan gai baten inguruan luzatzen ginenean edo apur bat gaitik aldentzean moztu egiten gintuzten. Alde horretatik, enpresa horrek asko lagundu zigun parte hartze prozesua aurrera eramaten.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Prozesuak harrera ona izan zuen. Elkarteak asko poztu ziren parte hartze prozesu hau abiarazi genuenean. Herritarren artean eskaria eta beharra zegoen Elgoibarren gizarte-inklusioaren egoera aztertzeko: pobrezia, emakumeak, etorkinak… hori guztia lantzeko. Guretzat oso aberasgarria izan da, positiboa, baita elkarteentzako ere. Hilero biltzen jarraitzen dugu. Lehen ekitaldi gehiago egiten genituen. Lehenengo urteetan lanez gainezka ibili ginen, baina apur bat lasaitzea pentsatu genuen. Orain, urtean bizpahiru ekitaldi antolatzen ditugu, izan ere elkarteetan ez dago jende asko lan egiteko, bi edo hiru

Nabigatu KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
Elgoibar
Soraluze
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

pertsona daude batzuetan. Bileretara etortzeko arazorik ez dute, baina urtean zehar programazio luzea osatzen bada azkenerako jendeari denbora asko kentzen dio. Ikusi dugu gauzak ondo egiteko denbora behar dela eta horregatik, urtean bizpahiru ekitaldi antolatzeko erabakia hartu genuen.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Elgoibarren badira elkarte batzuk pertsonen integrazioaren alde lan handia egiten dutenak. Guztien arteko elkarlana ezinbestekoa da prozesuak ahalik eta fruitu emankorrenak eman ditzan. Konturatu gara Elgoibarren laguntza gehien behar duten pertsonak pobrezian daudenak direla, gehienak emakumeak eta etorkinak. Horiei laguntza eman behar diegu, irtenbide bat.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Nahiz eta helburuak ondo ezagutu ikasi dugu mahai gainean jarritakoa landu behar dela, ezin direla ideiak bota eta landu gabe utzi. Horretarako, guztion konpromisoa beharrezkoa da eta, hori lortzeko, poliki-poliki joan behar dugu ahal duguna egiten. Ezin ditugu helburu handiegiak ezarri hasieratik gero bete ezingo baditugu.

Zer hobetuko zenukete?

Baliteke aldaketak egiteko momentua iritsi izana. Orain arte mahai bat izan da eta beste formatu bat ematea pentsatu dugu, baina oraindik ez dugu argi nola egin. Agian foro baten bitartez.

SORALUZE

AZALERA: 14,22 km² | **BIZTANLEAK:** 3.877 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (5) EAJ-PNV (4) PSE-EE (2)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

PATRICIA BORINAGA (Arloko zinegotzia)

LUDOTEKA ETA GAZTETXOKOA MARGOTZEN

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 36 (22 emakumezko, 14 gizonezko)

GAIA:
HAURRAK-NERABEAK-GAZTEAK



Soraluzeko Udalak aspalditik ditu martxan ludoteka eta gaztetxokoa, eta zerbitzu hauen inguruan kezka desberdinak sortu dira: kudeaketa eredu desberdinak, ludotekako langileen aldaketak, heziketa proiektuak eguneratzeko edo sortzeko beharra, zerbitzua ez dutela adin guztietako haurrek erabiltzen, azken ikasturtean herrian garatu den hezkuntza proiektuarekin lotzeko beharra…

Horiek horrela, Bizkaiko Urtxintxa Eskolarekin harremanetan jarri zen Udala, urteetan aurrera eraman den dinamika eta heziketa ereduaren inguruko hausnarketa egin eta espazioen erabilera aztertu eta adosteko parte hartze prozesua garatzeko.

Orain arteko lanaren diagnosia egitea izan zen lehen urratsa, errealitatea ezagutu gabe ezin baita etorkizuna eraiki. Behin diagnosia osatuta, Gaztematika eta Soraluzeko Hezkuntza proiektuak oinarri hartuta ludotekaren eta gaztetxokoaren etorkizuneko eredua zirriborratzea izan zen bigarren lana.

Prozesu honek, beraz, helburu zuen orain arteko ludoteka eta gaztetxokoaren ereduaren inguruan Soraluzeko haurren eta familien iritziak, nahiak eta interesak ezagutzea eta Soraluzeko ludoteka eta gaztetxoko eredu berria adostea eta zehaztea. Baita Soraluzeko haurren eta gazteen parte hartzea sustatzea eta haurren, familien eta gazteen ahalduntzea indartzea webgunean ere. Prozesu hau haurrak eta gazteak erdigunean jarrita eta metodologia parte-hartzaile eta ludikoak erabilita, baina familiak ere kontutan izanda, aurrera eraman da.

Lehen aipatutako lehen pausoa, hau da, diagnosia, elkarrizketen bidez egin zen. Elkarrizketak 2016ko martxoa eta apirila bitartean egin ziren, kasu batzuetan banaka eta besteetan taldeka; galderak irekiak izan ziren. Ludotekako hezitzaileak, gaztetxokoko hezitzaileak, udal teknikaria, gurasoak eta gaztetxoko eta ludotekako ez parte-hartzaileak izan ziren elkarrizketatuak.



Elkarrizketen ondoren, saio parte hartzaileak antolatu ziren 2016ko apirilean; haurrekin ludotekan, gazteekin gaztetxokoan, gurasoekin ludotekan eta teknikari eta hezitzaileekin Udalean. Talde bakoitzarekin erabilitako metodologia desberdina izan zen.

Haurrak arkitekto paperean jarri zituzten, Soraluzeko ludoteka

baloratzera eta diseinatzera animatuz. Saioaren lehen atalean, gaur egungo ludoteka baloratu zuten (zer da gehien gustatzen zaidana eta zer gutxien) eta, bigarren atalean, bakoitzak banaka bere ametsetako ludoteka eraiki zuen. Gazteekin ere antzeko dinamika egin zen, gaur egungo gaztetxokoa baloratuz lehen atalean eta bigarrenean, ametseko gaztetxokoa imajinatuz.

Gurasoek ludotekaren aspektu desberdinak (proiektua, espazioa,..) baloratu zituzten kartulinetan beren balorazioak idatzita. Azkenik, saio teknikoan ere, Udaleko teknikari eta zerbitzuetako hezitzaileekin arlo desberdinak (proiektua, harremanak, hezitzaileak eta baliabideak) aztertu eta, denen artean, hausnartu eta komentatu ziren.

ONDORIO OROKORRAK

PROIEKTUA

- Ludotekak eta gaztetxokoak ildo berak jorratzea, hau da, zerbitzu integrala izatea.
- Jarraipena eta koordinazio eguneratua izatea.
- Oinarrian proiektu bakarra izatea, nahiz eta gero zerbitzu bakoitzak bere eguneroko jardueretara eta eskaintzetara egokituko duen bere eskaintza.
- Proiektua herriari ezagutaraztea.
- Jarduera desberdinak antolatzea.

HEZITZAILEAK

- Hezitzaileen formazio/esperientzia aintzat hartzea.
- Urtean pare bat formazio saio egitea herrian, gaiak beharren arabera aukeratuta.
- Gaztetxokoko eta ludotekako hezitzaileen arteko koordinazioa.
- Zerbitzu bietan lan baldintzak parekatzea.

HARTZAILEAK

- Ludoteka 12 urte arte.
- Gaztetxokoa 13-17 urte bitartekoentzat.
- 16-17 urtekoen laguntzaile figura ofiziala egin, metodologian txertatu.
- Eskaintza eta ordutegia lantzea, hartzaileen beharretara egokituta.

HARREMANAK

- Udala-Gaztetxoko-Ludoteka harremana mantentzea eta Ludoteka-Gaztetxoko harremana sendotzea.
- Hezitzaile guztiek formazioa elkarrekin egitea.
- Bilera desberdinak eginez familiekin harremana sendotzea: Asmoak, zalantzak, gatazkak, lekua…

BALIABIDEAK

- Espazio falta sumatu da.
- Espazioen erabilera aztertu beharra dago.
- Azpiegiturak hobetu behar dira.
- Adin desberdinetara egokitutako baliabideak behar dira.
- Lan baldintza egokiak bermatu behar dira.
- Parte-hartzaile eta familiek baliabideen eta guneen ezagutza falta dute.

ORDUTEGIA - EGUTEGIA

- Ordutegiak luzatzea bi zerbitzuetan.
- Horretarako, taldekatzeak eta eskaintza mota birmoldatu beharra dago.

ESPAZIOA

- Espazioak irekitzea, familiek ezagutzea, denona sentiaraztea.
- Espazio desberdinak sortzea parte-hartzaileen nahiak eta beharrak aintzat hartuta.
- Espazioak parte-hartzaileenak sentiaraztea. Dekorazioan parte hartzea.
- Espazio faltak sumatu dira bi egoeretan eta kanpo espazioaren beharra.
- Ekintzak kanpoan egitea, ekintzak herrian zehar egitea.

Sarreran aipatu den bezala diagnosi hori eskaintzen diren zerbitzuen inguruko (ludotekako eta gaztetxokoko) kezka desberdinen ondorioz garatu zen. Diagnosian zehar landutako eta ateratako emaitza desberdinak eta jasotako informazio guztia kontuan izanik, etorkizunean garatu eta aurrera eramango diren proiektuetarako proposamen, gida edota orientabide batzuk aurkeztu ziren. Orientabide hauek garatzeko, diagnosian zehar jasotako informazioaz gain, herriko hezkuntza proiektua eta Gaztematika hartu ziren aintzat. •



PATRICIA BORINAGA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Zinegotzia

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Prozesua zentzuzkoa izan zela esan daiteke egin ziren proposamenak Udalak bere gain hartu zitzakeelako. Gorabeherak izan arren prozesua erraz bideratu zen eta emaitzak lortu ziren. Prozesutik ateratako ondorioak bete zituen Udalak, beraz, parte hartze prozesua bide onetik joan zela esan daiteke.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Udaletxean gauden alderdi politiko bakoitzak bere ikuspegi eta pentsaera du, eta, hori dela eta, pentsatu genuen egokiena zela proiektua esparru politikotik kanpo uztea. Horretarako, kanpo eragile batengana jo genuen. Haiek ardura zitezen prozesuaren koordinazioaz, kudeaketaz eta ondorioak aurkezteaz.

Guztiontzat onuragarria den zerbitzu bat hobetu beharrean ginen. Beraz, aurrera begira landu eta gauzatu nahi genuen prozesu hau abiarazi nahi genuen, gobernuan edozein alderdi egonda ere aurrera egin zezan. Horregatik pentsatu genuen egokiena zela Udaletik kanpo zegoen norbaitek herritarren iritzi eta gogoetak jaso eta horiek kontuan hartuta prozesua gauzatzea guk gaia nola bideratu jakiteko.

Zein metodologia erabili duzue?

Lehenengo elkarrizketak egin ziren eta horiek, txostenetan jaso genituen Udaletxean. Prozesua Udaletxeak gidatu ez bazuen ere, une oro, Haur eta Gazteria Batzordean prozesuaren berri eman zen. Baina, esan bezala, Udaletik kanpo kudeatu zen.

Lau parte hartze saio egin ziren: haurrak arkitekto paperean jarri ziren, Soraluzeko ludoteka baloratzera eta diseinatzera animatuta. Gazteekin ere antzeko dinamika egin zen gaztetxokoaren inguruan hobekuntzak identifika zitzaten. Gurasoek ludotekaren inguruan zuten balorazioa jakin nahi zen eta horretarako arlo desberdinak landu ziren. Saio teknikoan, azkenik, Udaleko teknikari eta zerbitzuetako hezitzaileekin ere arlo desberdinak aztertu ziren.

Prozesua amaitu zenean ondorioen berri eman ziguten, bai Udalari baita Batzordeari ere. Hortik aurrera, ekintzen eta proiektuen aurrekontuak prestatu ditugu eta horiek burutzen ari gara.

Nabigatu KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
Elgoibar
Soraluze
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Harrera ona izan dute, Soraluzen jendeak parte hartzeko eta iritzia emateko gogoa duela argi gelditu da. Jendea pozarren zegoen, izan ere, zer egin erabakitzeko aukera eman zitzaien. Parte hartze prozesuek frustrazioa sortzeko arriskua ere badute, baina ez da horrelakorik gertatu, batik bat, ekintzak eta proposamenak burututa Udaletxeak gaitasuna izan duelako atera diren ondorioei erantzuna emateko. Gainera, gurasoen oharrei erreparatu zaie eta, hemendik aurrera, Eguberrietan eta Aste Santuan ludoteka eta gaztetxoko zerbitzua eskainiko da; horrelako gauzek herritarrak prozesuarekin pozik egoten laguntzen dute.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Herritarrak herriari eragiten dioten kontuetan murgiltzeko bide aproposa da. Herritarrek gustuko dute Udalak haien iritzi eta ekarpenetan oinarrituta erabakiak hartzea, nahiz eta herri guztia ez egon parte hartzeko prest.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?


Proiektuarentzat xede publikoetan fokua jarrita errazagoa da prozesua garatzea eta ondorioak ateratzea. Parte hartze prozesuak herritar guztiei zabaltzeak batzuetan baliagarria da, baina ez beti. Herritarren interesa piztu behar da eta, horretarako, garrantzitsua da xede publikoak identifikatzea. Gainera, parte hartze prozesu bat abiaraztean argi eduki behar da ondorioak betetzeko gai izan behar dela.

Zer hobetuko zenukete?

Komunikazioa eta koordinazioa. Zentzu horietan beti dago zer hobetu, barnera zein kanpora begira. Udal langileok mila gauzetan gabiltza eta beti ez dugu nahi beste denbora. Horregatik, komunikazioa eta koordinazioa hobetzea aurrerapauso esanguratsua litzateke parte hartze prozesuen funtzionamenduan.

DEBA GARAIA

Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati





HERRIAK

8

BIZTANLEAK

62.734 (gipuzkoarren %8,84)

AZALERA

348,4 km² (Gipuzkoaren %17,58)



ETORKIZUNA ERAIKIZ

Gipuzkoako hego-ekialdeko 348,4 km²-ko lur eremua hartzen du. Iparraldean Deba Beherea du muga; ekialdean, Goierri; mendebalean, Araba eta Bizkaia; eta hegoaldean, Arabako lurraldea. Zortzi udal dira eskualde honetan, Arrasate buru dutelarik. Arrasaterekiko mendekotasun urbanoa oso agerikoa da Aretxabaletan, Oñatin, Eskoriatzan eta Leintz-Gatzagan. Bergarak berriz eskualdeko bigarren buru izateko joera dauka; Bergararen eraginpean dira Antzuola eta Elgeta, nahiz azken herri hori nolabait Eibarrekin ere lotua egon. Soraluze Deba Behereko eskualdean egonda ere, Eibar eta Bergararen eraginpean bizi da.

Donostiarekiko komunikabideak kaskarrak direnez, eskualde honetako hego-mendebaleko muturra askoz ere gehiago lotzen zaio Arabako hiriburuari. Deba Garaiko komunikabide nagusiak oinarriko errepide sareko GI-632 (Beasain, Zumarraga, Bergara eta Durango lotzen dituena) eta GI-627 errepideak dira (Maltzaga, Bergara, Arrasate eta Gasteiz lotzen dituena); azken errepide hori aurki Maltzagatik Urbinarainoko autobideak hobetuko du. Abiadura handiko trenak eskualdea E-W norabidean zeharkatuko du, Bergararen inguruan, esku artean den proiektuaren arabera.

Industriak eskualde honetan duen pisu nabarmena neurri handi batean kooperatiben mugimenduari zor dio. Mugimenduaren sorlekua 1941ean Arrasaten zabaldutako Lanbide Eskola izan zen; eskolan ari izandako bost ikaslek ULGOR sortu zuten, lehendabiziko kooperatiba. Kooperatibetan lanean ari ziren langileen behar sozial eta ekonomikoek eraginda, 1959an kreditu kooperatiba sortu zuten, Lankide Aurrezki Kutxa , hortik aurrera, kooperatiben mugimenduak urrats handiak egin zituen, langintza anitzagoetara zabalduz eta Arrasatez kanpora hedatuz. Gaur egun, Mondragon Korporazioakn berrehun bat kooperatiba elkartzen du industrian, agro-elikaduran, irakaskuntzan eta zerbitzuetan. Osasun zerbitzuen atalean nabarmentzekoa da Arrasaten dagoela Euskal Herriko ospitale psikiatrikorik handiena.

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
Aretxabaleta
Arrasate
Elgeta
Eskoriatza
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

ARETXABALETA

AZALERA: 26 km² | **BIZTANLEAK:** 6.987 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (6) EH Bildu (5) Irabazi (1) PSE-EE (1)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

UNAI ELKORO (Alkatea)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
Aretxabaleta
Arrasate
Elgeta
Eskoriatza
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

ARETXABALETAKO PARTE HARTZE ORDENANTZA DEFINITZEKO PROZESUA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 74 (35 emakumezko, 39 gizonezko)

GAIA:
PARTE HARTZEA



Aretxabaletako Udalak "Herritarren partaidetza arautzeko ordenantza osatzeko partaidetza prozesua" garatu zuen 2016ko ekaina eta 2017ko otsaila bitartean. Prozesu honek herritarrak izan ditu abiapuntu hasieratik, Aretxabaletako parte hartze dinamiken sortzaile eta protagonista izan zitezen.

Planteamendua erraza izan zen zentzu horretan: herritarren partaidetzaren inguruan hitz egiteko eta erabakiak hartzeko protagonistak herritarrak berak izan behar zuten. Oinarri hori kontuan hartuta, herritarrak eurak izan dira proposamenak egin, landu eta lehenetsi dituztenak.

Baina, prozesu honetan Udalak ere izan du bere papera, egin ditu proposamenak eta Udalari dagokio, beraz, proposamen horiek egikaritzea. Zentzu horretan ordezkari politikoak ere aktibo garrantzitsuak izan dira prozesuan. Aurrerantzean ere, neurri horiek egikaritzea prozesu partekatua izango da, herritar eta udal ordezkarien artean garatu beharrekoa.

Aretxabaletan parte hartze prozesua zehazteko, prozesu honek helburu zehatz gisa izan du herritarren partaidetza arautzeko marko teoriko-praktikoa (ordenantza) herritarren artean adostea. Bestalde, helburu nagusi izan du herritarren parte hartzearen eta hori sustatzeko moduen inguruko gogoeta egitea, baita behar komunitarioak asetzeko modu eta bideen inguruko gogoeta burutzea eta hau bideratzeko markoa proposatzea ere.



Prozesu honetan herritarren partaidetza bilatzeko metodologia desberdinak garatu dira, batez ere saio irekiak eta zuzeneko elkarrizketak tartekatuz. Prozesuaren gidaritzaren ardura izan duen Talde Eragilea izan da prozesuaren motorra eta erdigunea.

Prozesuaren hastapeneko urrats gisa, Aretxabaletan egiten den parte hartzearen inguruko gogoeta orokorra burutu zen. Gogoeta honen helburua parte hartzearen inguruko argazki eta abiapuntu komun bat marraztea izan zen.



Prozesu honen protagonista nagusiak herritarrak izanik, prozesua bera gizarteratu aurretik politikarien artean adostasunak bilatzea izan zen abiapuntua. Ordenantza honen erabilgarritasuna bermatzeko ordezkari politikoak izan ziren prozesuaren mugak zehaztu zituztenak herritarrek hasieratik jakin zezaten prozesuaren markoa zein zen.

Herritarrek ordenantza sortzeko, aldez aurretik ezagutu behar zuten zeren inguruan erabaki zezaketen eta zeren inguruan ez. Hasierako eskema hori mantentzea garrantzitsua izan zen: lehendabizi, muga politikoak marraztu eta, horren arabera, ordenantzaren beraren edukia osatu zen. Horretarako, Udaleko ordezkari politikoen arteko bi lan saio burutu ziren eta bertan prozesu honen baldintzak nolakoak izango ziren erabaki zen. Bigarren saio irekia burutu ostean osatu zen Ordenantzaren zirriborroa, ekarpenak jasotzeko 2-3 asteko epea utzita.

Prozesu honek, herritarren partaidetzaren inguruko hausnarketa orokor eta zabala burutzea ahalbidetu du. Hausnarketa honetan iritzi, behar, abiapuntu eta ikuspegi desberdinak jarri dira mahai gainean. Demokrazia ordezkatzailea demokrazia zuzenaren praktikekin osatzeko ibilbide posiblea irudikatu du prozesuak, hau da, herritar eta ordezkari politikoen eskubide eta betebeharren inguruko elkarrizketa gurutzatua eman da. Finean, eztabaida honela planteatu daiteke: zeren inguruan dute herritarrek erabakitzeko eskubidea? Zein neurritan bultzatu behar ditu udal egiturak eskubide horiek? Eta eskubide horiek ze erantzukizun dakartzate berez? Ordezkari politikoak al dira herritarren erabakien erantzule zuzenak?

Hau ez da eztabaida estatikoa, etengabe aldatzen doana baizik. Prozesu honetan ere hala gertatu da, ikuspuntu batzuk aldatu dira, eta eztabaida baliagarria izan da herritarren partaidetzari protagonismoa eskaintzeko.

Prozesu eta ordenantza honek erronka zehatz batzuk jarri ditu mahai gainean. Ordenantza, alde batetik, herritarren eskubideen bermea izango da eta, bestetik, erronka eta aldaketa batzuk ekarriko ditu. Bereziki zaindu beharreko elementuak izango dira: arreta zerbitzuaren antolaketa, Udala eta herritarren arteko komunikazio estrategia, herritarren eskaera, iradokizun eta kexak bideratzeko mekanismoak, elkarteen erregistroa sortzeko prozedura eta, baita ere, elkarteekin egin beharreko lanketa. •



UNAI ELKORO
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Guretzat esperientzia berria izan da, ordenantza lantzeko helburuarekin aurrera eraman duguna. Aberasgarria izan da niretzat, baina baita gazi-gozoa ere, jendea parte hartzera bultzatzea ez da batere erraza izan eta.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Helburua parte hartze ordenantza bat garatzea izan da. Zaborren gatazka zela eta, 5. edukiontziaren edo Atez Atekoaren arteko kontsulta egin aurretik garatzen saiatu ginen parte hartze ordenantza. Baina luze joko zuela ikusirik, kontsulta egitea erabaki genuen, ondoren ordenantza garatzeko konpromisoarekin eta prozesu honek, esan bezala, parte hartze ordenantza hori garatzen lagundu digu.

Zein metodologia erabili duzue?

Aholkularitza izan dugu prozesua aurrera eramateko, Talde Eragile bat sortu genuen, udal ordezkari, herritar eta elkarteetako ordezkariekin, prozesuaren gidaritzaz arduratu den taldea. Bestalde bilera irekiak egin dira herritarrek bere ekarpenak egin zitzaten Aholkularitza juridikoa udal idazkariaren esku egon da.

Parte hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Egia esan, tamalez, ez da oso arrakastatsua izan. Alde batetik, iraganean antzeko esperientziak jendearengan sortutako mesfidantza gainditu beharra izan dugu, parte hartzeko eskatu eta beraien ekarpenak ezerezean gelditzen direnean jendeak ilusioa galtzen baitu.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Herritarrak parte hartzera erakartzea uste baino zailagoa dela. Eta behin inplikatzen direnean, benetan erabakigarriak behar dutela izan, bestela, aurreko prozesuetan egindako ekarpenek ezertarako balio izan ez duten sentsazioarekin eta ilusioa galdurik, hurrengoetarako ez baitira itzuliko.

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
Aretxabaleta
Arrasate
Elgeta
Eskoriatza
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Prozesua azaltzerakoan, aukerak eta mugak zein diren hasieratik argi uztea oso garrantzitsua dela.

Zer hobetuko zenukete?

Ez da erraza galdera horri erantzutea, metodologia bera hobetzean baino gaiak berak sortzen duen interesean edo erakargarritasunean dagoela gakoa esango nuke.

ARRASATE

AZALERA: 34,2 km² | **BIZTANLEAK:** 21.903 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (8) EH Bildu (7) PSE-EE (3) Baleike Arrasate (2) Irabazi (1)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

IBON ARRUPE (Alkateordea eta arloko zinegotzia)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
Aretxabaleta
Arrasate
Elgeta
Eskoriatza
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

KULTUROLA PROIEKTUA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 28 (13 emakumezko, 15 gizonezko)

GAIA:
KULTURA

Arrasateko Udalak Kulturola proiektua definitzeko parte hartze prozesua 2015 urte bukaera aldera hasi zuen, herriko kultur eragileen beharrak identifikatu eta Erlojuaren eraikineko birgaitze lanetan kontuan izateko. Arrasateko Udalaren asmoa da eragileek prozesu guztian zehar modu aktiboan parte hartzea, horrela, horien ikuspuntu eta proposamenak gertutik ezagutzeko. Prozesua dinamizatzeaz Bagara Herrigintzan enpresa arduratu zen. Bagararen lehendabiziko lana kultur eragile guztiekin banaka biltzea eta horien beharrak identifikatzea izan zen eta, ondoren, bi batzar orokor egin ziren.

Prozesuaren helburu orokorra, kultur taldeek beren jarduerak baldintza duinetan eta egonkortasun batekin garatzeko espazio balio anitz bat definitzea izan zen, bide batez, Arrasateko kulturgintza oparoa dinamizatzen duten eragileen lana ezagutzera emanez eta balioan jarriz.

Etorkizuneko kulturgune honen kokaleku izateko Aprendices eraikina aukeratu zen eta, prozesu honen bidez, birgaitze proiektua idazteko oinarriak eta kudeaketa eredua landu ziren. Eraikin berrian kultur eragile desberdinak kokatzeak horien arteko sinergia eta konfiantza lortzea du helburu, baina baita Zalduspeko eraikin zaharrean egoera egokian ez dauden taldeak birkokatzea ere.

Bagarak egindako lehendabiziko lana, esan bezala, kultur eragileekin banaka biltzea izan zen, beraien beharrak zein ziren jaso eta Arrasateko kulturaren egoeraren diagnosia egiteko. Urtarrilaren 27an egin zen lehenengo bilera eraikinaren birgaitze proiektuaren oinarriak definitzeko, hau da, kultur elkarteen zein beharrei erantzun definitzeko. Herriko 17 eragilerekin egindako bileran, Bagarak kultur taldeekin bakarka bildu ondoren egindako lana azaldu eta jasotako informazio guzti hori partekatu zuen eragile guztiekin.

Otsailaren 23an egindako bigarren batzarrean, kudeaketa eta koordinazio gaiak izan ziren hizpide. Arrasateko Udalaren eta kultur taldeen arteko koordinazioaz eta erabilera komuneko guneen kudeaketaz hitz egin zuten, besteak beste.

Prozesuak emandako emaitza oso positiboa izan zen, bai parte hartze aldetik baita ezartzea lortu den oinarrien aldetik ere. Elkarte eta eragileen beharrak aztertu ondoren, proiektu arkitektonikoa idazteko beharrezko informazioa jaso zen. Gainera, kudeaketa ereduaren oinarri nagusiak adostea eta finkatzea ere lortu zen. Prozesuak, beraz, bere helburua bete zuen. •





IBON ARRUPE
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Zinegotzia

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Parte hartze prozesu oso aberasgarria eta oso eraginkorra izan da. Hain handia den eraikin batean adostasun osoz hainbat aspektu definitzea eta lotzea lortu dugu. Baita ere, elkarte guzti hauen arteko harremana sustatzea lortu da eta harremanik ez zutenen artean lortura berriak sortu dira. Izan ere, lehen herriko beste eraikin batzuetan kokatuta zeuden eta ez zuten elkar ezagutzen.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Azken finean Udalaren asmoa kultur elkarte guztiak Kulturola eraikinean kokatzea zen. Baina Udalak ezin zuen erabaki zein behar dituen elkarte bakoitzak ezta zein ezaugarri eduki behar dituen eraikinak elkarte bakoitzak bere jarduera modu egokienean aurrera eramateko. Beraz, helburua zen erabakiak guztien artean hartzea etorkizunera begira eraikinaren kudeaketa adosteko.

Zein metodologia erabili duzue?

Lanerako erabili dugun metodologia taldekako saioetan oinarritu da. Hainbat saio egin ditugu guztion artean, Bagarak dinamizatuta. Metodologia hau nahiko klasikoa da, talde desberdinetan banatuta lan-saioak egiten genituen panelak, post-itak... erabilita. Lehenengo, talde txikitan egin genuen lan eta, gero, talde handitan partekatzen genuen landutakoa erabakiak hartu aurretik.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Oso harrera ona izan du ekimenak, jendeak parte hartu nahi duela erakutsi du. Hasiera batean apur bat mesfidati egoten dira, hau "paripe bat" izango delakoan, Udaletik bakarrik argazki bat ateratzeko lanean ari garelakoan. Baina konturatzen direnean eurak direla protagonistak, beraiek proposatzen dituztela ideiak eta ideia horiek kontuan hartzen direla, prozesuan asko murgiltzen dira. Orokorrean, prozesuarekin oso pozik eta gustura amaitu dute. Gainera, horrelako proiektuen bitartez konfiantzazko harremana sortzen da herritarren eta Udal administrazio publikoaren artean.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Atera dugun ondorio nagusia izan da jendeari aukera eman behar diogula herriko erabakietan parte hartzeko. Ezin dugu pentsatu guk dena dakigula eta hauteskundeak irabazteagatik guk hartutako erabaki guztiak onak direla. Jendeari parte hartzeko eta protagonista sentitzeko aukera eman behar diegu hartzen diren erabakietan. Agintari edo gobernu moduan ez da galdetzeko beldurrik izan behar.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Ikasi dugu parte hartze prozesu guztiak desberdinak direla eta kasu bakoitzerako diseinatu behar dela prozesua. Lehenengo hausnarketa fase bat egin behar da prozesua lantzeko; parte-hartzaileak eta horien ezaugarriak identifikatu behar dira eta zertan parte hartu behar duten zehaztu. Horren arabera diseinatu behar da parte hartze prozesua. Ez dago parte hartze prozesuek nolakoak izan behar duten dioen formularik, malgutasunez jokatu behar da prozesu bakoitzean zein diseinuan ere.

Zer hobetuko zenukete?

Partaideen arteko komunikazioa hobetuko nuke landutako hausnarketak bakoitzak bere taldean partekatu ditzan, elkarteen barne komunikazioa, alegia. Bilera guztietan ezin izan zuten ordezkari berdinek parte hartu, hori dela eta, aurreko saioetan hitz egindako hainbat gai errepikatzen ziren. Era berean, jada erabakiak zeuden gaien inguruan ideia berriak ere plazaratzen zituzten eta hori ekiditeko elkarteko kideen arteko komunikazioa hobetzea beharrezkoa da.

ELGETA

AZALERA: 16,9 km² | **BIZTANLEAK:** 1.099 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (5) Gu Geu (4)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

JANIRE LAZKANO (Partaidetza zinegotzia)
eta EIDER ETXANIZ (Udaleko administraria)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
Aretxabaleta
Arrasate
Elgeta
Eskoriatza
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

ELGETA, DANON ARTIAN, DANON HERRIXA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 23 (13 emakumezko, 10 gizonezko)

GAIA:
PARTE HARTZEA



Elgetako Udalak, "Elgeta: danon artian, danon herrixa" parte hartze prozesuaren baitan, programa politikoa aberasteko herritarren iritziak, kezkak eta proposamenak jaso zituen 2015eko azaroan. Aurreko agintalditik zetorren asmo bat ere izan zuen esku artean: parte hartzeko ordenantza lantzeko oinarriak ezartzea.

2015ean abiatutako prozesuak helburu zituen Elgetako herritarren eta eragileen parte hartzea aktibatzea eta parte hartze kultura sustatzea. Prozesuak, xede zuen baita ere, herritarrek euren herriaren eta guneen inguruko iritziak, kezkak, nahiak eta proposamenak plazaratzea eta Udalak horiek jasotzea, bere plangintza eta aurrekontuetan kontuan hartzea eta herritarrei gauzatuko direnen eta ez direnen arrazoiak jakinaraztea.

Era berean, aurrerantzean Elgetan parte hartzeko prozesuak arrakastaz garatzeko ordenantzaren oinarriak jarri nahi zituen Udalak prozesu honen bitartez.

2016/2017rako, "Udal esparruan herritarren parte hartzerako ordenantza" gizarteratzea eta herritarrei euren eskubide eta aukeren berri ematea beharrezkotzat jo zuen Elgetako Udalak. Horretarako, ordenantzak berak jasotzen zituen puntuak banan bana egikaritzea izan zen lehen urratsa; iradokizun postontzia erosita, adibidez.

Ikasturtea hasi berri zegoenez, kirol eta hezkuntza jarduerak iragartzen zituen eskuorria atera zuen Udalak, herritarrek parte hartzeko eta Udalarekin harremanetan jartzeko dituzten bideak aipatzeko ere aprobetxatuta.

Urria eta azaroa bitartean, aurrekontuak modu parte hartzaileago batean lantzeko proposamena luzatu zitzaien herritarrei, Udalaren arlo ekonomikoa modu garden batean azalduz, eta aurreikusitako inbertsioekin zer egin galdetuz. Horretarako, batzar ireki baterako deialdia egiteaz gain, landutako informazioa publiko egin zen web orrialdean eta sare sozialetan.

Udalak "Ateak irekiz" bezala ezagutzera eman zuen prozesua aipagarria da. Horrela, udal eraikin hutsen ateak herritarrei zabaldu zitzaizkien, eremu horiek nola biziberritu hausnartzeko.

Era horretan, lekuak bisitatu eta auzolanean egokitu ostean, beharra zuten eragileei utzi zitzaizkien lokal gisa erabili zitzaten. Ostean, parte hartze ordenantzaren puntu nagusiak biltzen zituen eskuorria gauzatu zen herritarrei modu argi eta errazago batean azaltzeko ordenantzak jasotzen dituen nondik norakoak. Eta azkenik, Udal Aldizkariaren lehen alea ere landu zen, herritarren interesekoa baita Udalak egindakoak biltzen dituen dokumentu bat eskuartean izatea.



PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK

Talde eragilea: parte hartzeko batzordea izan zen, Udalean dauden alderdi guztien ordezkariez osatua. Guztira bost bilera egin ziren eta prozesuaren gaineko erabakiez, koordinazioaz eta komunikazioaz arduratu zen.

Inkesta: herriko etxe guztietara bidali zen. Horietatik,102 erantzun jaso ziren.

- 47 paperean(%46) eta 55 (%53) Internet bidez.
- Datu orokorrak bete dituztenen artean:
  - %47 emakumeak eta %53 gizonak izan dira
  - %12a, 25 urtetik beherakoak
  - %40, 26-40 urte artekoak
  - %38, 41-65 urte artekoak
  - %10, 66 urtetik gorakoak
  - %93ak euskaraz daki

Elkarrizketak: guztira profil desberdineko 7 elkarrizketa egin ziren: jubilatuen ordezkaria, gazteak, Goibeko elkartea, Guraso elkartea, udaletxeko langilea, baserritarra, kanpotik etorritakoa eta aurreko agintaldietan lan egindako ordezkari politikoa.

Herri batzarrak: lehena, inkesten eta elkarrizketen emaitzak aurkeztu eta herriko diagnostikoa lantzeko. Bigarrena, aurrera begirako hobekuntza proposamenak egiteko eta ordenantzaren oinarriak kontrastatu eta

lantzeko. Hirugarrena, itzulketa izan zen, hurrengo urterako asmoak eta lehentasunak azalduta.

Guztira 25 herritar desberdin egon ziren hiru batzar horietan, %64 emakumeak eta %36 gizonak. Horien artean, alkateak eta bost zinegotzik parte hartu zuten.

Komunikazioa: Herritarrek prozesuan parte hartzeko hainbat komunikazio ekintza egin ziren:

- Logoa eta leloa sortzea: Elgetako Udalak, 2008an herritarrak udalgintzan inplikatzeko parte hartze prozesu bat jarri zuen martxan: Elgeta danon artian. Udalak, hau, prozesu horren fase berri bat dela ulertu du, eta leloa eta logoa aprobetxatu ditu prozesu honetarako. Horregatik, "Elgeta, danon artian danon herrixa" leloa aukeratu du. Logoa ere aurreko prozesutik abiatutako da.
- Prentsa oharra: prozesuaren berri emateko. Goienara eta Diario Vascora.
- Gutuna: etxe guztietara inkestan txertatuta prozesuaren berri emateko.
- Kartelak: herriko toki esanguratsuenetan batzarren egunak, ordua eta tokia jakinarazteko.

Prozesuak eman zuen bere uzta. Zenbait herritarrek modu anonimoan egin nahi izan zituzten beren ekarpenak eta, horiek, postontzi berrian jaso ziren eta parte hartze batzordeak zegokion udal sail bakoitzera bideratu zituen.

Herritarrei jardueren eskuorria oso lagungarria izan zitzaien zituzten aukeren berri izateko eta izen emateak gauzatzeko.

Aurrekontuen lanketan, Udalak gardentasuna eta parte hartzea bultzatu zituen, herritarrak aurrekontu horien parte senti arazteko. Edonork izan zuen aukera aurrekontuen lanketan inbertsio bat planteatzeko, jarduera bat kentzea eskatzeko… Web orrialdean eta sare sozialetan Udalaren egoera ekonomikoaren eta urteko asmoen berri emateak ere harrera ona izan zuen herritarren artean.

"Ateak irekiz" ekimenari erreparatzen badiogu, guztira hutsik zeuden Udalaren 5 lokal biziberritu ziren auzolanari esker, eta horietako 2 herriko eragile ezberdinek zituzten espazio beharrak asetzera bideratu ziren.

Aldizkariari eta eskuorriari dagokionez, herritarrak informatzeko balio izan zuten; zer egin den, zer egingo den, zein aukera eta betebehar dituzten eta abar jakin zezaten.

Parte hartze mailari dagokionez, ekimen batzuen eta besteen artean badira desberdintasunak. Herritarrek batzar formal edota teorikoetara joateko zailtasun gehiago dutela ondorioztatu da. Aldiz, auzolan deialdiek, "Ateak irekiz" ekimenak eta jarduera ezberdinak, harrera oso ona izan zuten, aurreikuspenak gaindituta. •



JANIRE LAZKANO
eta **EIDER ETXANIZ**
Zinegotzia eta administraria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Emaitzak ematen dituen prozesu bat da. Bide asko zabaltzen gabiltza, adibidez; herritarren artean parte hartzea sustatzeko aplikazio bat sortu dugu. Ulertzen dugu herritarrei asko kostatzen zaiela Udaletxearekin dagoen muga gainditzea, baina horrekin amaitzeko prozesua da hau.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Herritarren artean parte hartzea sustatzea eta, geroz eta gehiago, herritarrak aktibatzen joatea Udaletxeak hartzen dituen erabakietan eragin dezaten.

Zein metodologia erabili duzue?

Alde batetik, iradokizunak egiteko postontzi bat dugu. Bestalde, ateak zabalik ditugu herritarrak bileretara etortzeko eta bisitak egin ditugu lokal guztietara herritarren egoera eta beharrak ezagutzeko. Auzolan deialdiak ere egin dira, baita inkestak etxeetara bidali ere. Gaiaren arabera, formatu desberdinak erabili ditugu bilerak egiteko, baina orokorrean alkateak edo zinegotzietakoren batek gaia aurkezten zuen eta, gero, herritarrek iritzia eman eta ekarpenak egiten zituzten. Adibidez, jasotako proposamenak panel batean jartzen ziren eta pegatinak erabili genituen batzuk lehenesteko. Laburbilduz, herritarrak ziren ekarpenak egiten zituztenak eta horiek baloratzen eta lehenesten zituztenak.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Kosta egiten da herritarrek parte hartzea, batez ere hasieran. Badira batzuk hasieratik parte hartzen dutenak, baina badira beste batzuk pixkanaka prozesuan sartzen doazenak. Nahiz eta saioetara agertu, kosta egiten zaie berba egitea, batez ere lehenengo aldiz hurbiltzen direnean. Kontua kultura sortzea da, parte hartze kultura, alegia.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Apurka-apurka parte hartze kultura sortzen ari dela esan daiteke. "Ate irekiak" egiten direnean eta auzolana antolatzen denean herritarrak gerturatzen dira. Jendeari

interesatzen zaizkion gaiak jorratzen direnean izaten da erantzun hobea. Gai ekonomikoak edo direnean parte hartzea txikiagoa izaten da, gaiak ez direlako horren ulergarriak.

Ondorioak oso positiboak dira. Jendea modu egoki batean gerturatzea iritzia ematera oso interesgarria da Udalarentzat. Herritarrekiko gertutasun hori da lortu eta egonkortu nahi dena. Modu honetan herritarren beharren berri izaten dugu.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Herri bat ez da bat-batean parte-hartzaile bihurtzen eta Udaletxe bat ez da egun batetik bestera zabaltzen. Lanerako modu batzuk daude eta horiek aldatzea kosta egiten da. Poliki-poliki doan prozesu bat izan du, eta herritarrak zein Udalak geroz eta gehiago eskatzen duten zerbait da.

Zer hobetuko zenukete?

Egin beharreko hobekuntzak denborarekin agertzen dira. Sortzen diren zailtasun eta arazoei irtenbideak bilatzea da gakoa. Hobetu beharrekoa irekiago izatea da, baina hori poliki-poliki lortzen den zerbait da.

ESKORIATZA

AZALERA: 40,4 km² | **BIZTANLEAK:** 4.097 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (5) EH Bildu (4) EEE-AAE (1) Irabazi (1)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

JOSE RAMON ZUBIZARRETA (Alkatea)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
Aretxabaleta
Arrasate
Elgeta
Eskoriatza
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

HIRIBERRITZE PLANA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 7 (4 emakumezko, 3 gizonezko)

GAIA:
HERRIGINTZA

HIRI BERRITZE PLANA
Hobetu dezagun Eskoriatza denon artean

eskoriatzako udala

Eskoriatzako Udalak 2015ean abiatutako Hiriberritze Plana parte hartze prozesu orokor bat da, urtez urte adar berriak dituen enbor nagusi bat. 2016ean, enbor honek adarrak izan ditu esparru desberdinetan, hala nola; kiroldegia, elizateak, teknologia berriak, udal eraikinen erabilera eta Eskoriatza Lagunkoia.

Hiriberritze Plana, herrian egin beharreko hobekuntzak identifikatzeko eta herritarren iradokizunak jasotzeko helburuarekin sortu zen. Herritarren 253 iradokizun jaso zituen Udalak 2015eko urrian zehar egindako 4 bileretan.

Gainera, posta elektroniko bat jarri zuen Udalak herritarren eskura; iradokizun, kexa edota bestelako edozein zalantza jaso eta ahalik eta epe laburrenean (3-4 egun batez beste) erantzuteko helburuarekin.

Hiriberritze Planak, oro har, udal erabakietan herritarren parte hartzea bultzatzea du xede eta, horretarako, herritarren iradokizunak jasotzera, parte hartzea bultzatzeko benetako tresnak martxan jartzera eta herritarrak beraiei eragiten dieten erabakien protagonista egitera zuzendutako ekimenak martxan jartzen ditu.

Esan bezala, 2016an, zenbait esparru lehenetsi dira Hiriberritze Planean:

KIROLDEGIA

Erabiltzaileen artean inkesta bat egin zen beraien asebetetze maila eta eskainitako zerbitzuei zein kiroldegiko funtzionamenduari buruz zuten iritzia ezagutzeko. Emaitzen berri emateko eta jasotako iradokizunak partekatzeko bilera bat deitu zuen Udalak. Bilera horrek helburu zuen iradokizun horiek lehentasunaren arabera sailkatzea eta egin beharreko jardueren kronograma bat egitea. Jasotako ekarpenak bi motatakoak izan ziren; alde batetik, programazioa eta bertako materiala eta, bestetik, hornikuntzari buruzkoak; hau da, konpondu beharrekoak.

ELIZATEAK

Eskoriatzako herriak zazpi elizate eta auzo bat ditu herrigunetik kanpo, bakoitza bere nortasun propioekin. Elizate eta auzo bakoitzak bere auzo-alkatea du gainera. Bertako bizilagunen parte hartzea bideratzeko elizate eta auzo guztietan izan zen Udala 2015ean euren kezka eta iradokizunak jasotzeko. Horietako asko auzo-alkateen bidez bideratu ziren 2016an zehar. Horretarako, bi hilean behin egin ziren bilerak jasotako beharren zerrendaren egoera aztertzeko. 2016an ere bilerak deitu ditu elizateetan Udalak, bizilagunekin elkartu eta beren ardura eta kezkak zuzenean jasotzeko. Bileretan, oro har, oso parte hartze maila handia egon da, kasu batzuetan ia %100ekoa, hau da, baserri guztietako ordezkari bat gutxienez. Mendiola elizatea izan da salbuespen bakarra.

TEKNOLOGIA BERRIAK

Aurrez aurreko bilerak emankorrak izaten dira udal hautetsi eta herritarren arteko elkarrizketak beti direlako aberasgarriak, baina bilera hauek badituzte zenbait eragozpen ere. Adibidez, bilerak egun eta ordu jakinean izanik, joan ezin duenak ekarpenak egiteko aukera galtzen du, edo bileran hitz egitera ausartzen ez direnak isilik egoten dira eta beren ekarpenak jaso gabe geratzen dira. Beraz, urte guztian zehar modu eraginkorrean eta pertsonalean ekarpenak egiteko aukera ezin hobea eskaintzen digute gaur egun teknologia berriek eta edozein parte hartze egitasmotan ezin ahaztu daitezke aplikazioak.

Hori jakinda, berrikuntza teknologikoen bidea egin zuen Eskoriatzako Udalak. Udalak herritarrekin harremanak errazteko mugikorrerako aplikazio bat aurkeztu zuen eta aplikazioa garatzearekin batera, intraneta garatu eta antolatu zuen ekarpen horiek udal barruan kudeatzeko.

UDAL ERAIKINEN ERABILERA

2015ean egindako lehenengo Hiriberritze Planeko bileretan, herritarrek eta, batez ere, eragileek behin baino gehiagotan aipatu zuten ez zutela argi Udalak zein lokal dituen, zertarako erabiltzen dituen eta erabiltze banaketa hori zein irizpideren arabera egiten den. Hori horrela, 2016an Udal teknikariek eta politikoek beharrezko informazioa jaso zuten. Lokal guztiak bisitatu eta txosten bat egin zuten bakoitzaren egoera, erabilera posibleak eta abar jasotzeko eta, ondoren, eragile eta herritarrekin kontraste lanak egiteko. Helburua eztabaida guneak irekitzea da, lokalen erabilera optimizatu eta ahalik eta aprobetxamendu eta etekin handiena lortzeko.

ESKORIATZA LAGUNKOIA

Hiriberritze Planean Udalak berak sortutako egitasmoez gain, beste eragile batzuk bultzatutako eta Eskoriatzaren onurarako izan daitezkeen egitasmoek ere badute lekua. Horixe da, hain zuzen ere, "Eskoriatza Lagunkoia" egitasmoaren kasua. Izan ere, Munduko Osasun Erakundeak aspaldi adierazi zuen inguru lagunkoia lantzea oinarrizko neurria dela adineko pertsonen ongizatea eta zahartze aktiboa bermatzeko.

Eskoriatzak bat egin du ekimen horrekin eta helburu horiek landu eta garatzeko taldea sortu zen herrian. Taldea mistoa da, jubilatuta dauden 23 lagunek osatzen dute, hilean behin elkartzen dira kultur etxean eta bileren ostean aktak Udalera bidaltzen dituzte. 2016an bitan elkartu dira Udal ordezkariekin bileretan landutakoaren berri emateko. Horri esker herriko adineko pertsonen beharrak, ikuspuntuak eta desioak ezagutzeko aukera du Udalak.

ONDORIOAK

Eskoriatzako Udalak, parte hartzeari nahiz asebetetze mailari dagokionez, oso balantze positiboa egiten du. Kudeaketa herrikoiaren aldeko apustu sendoa egin du Udalak eta, nahiz eta oraindik bide luzea dagoen egiteko, herritarrek parte hartzeko aukera ilusioz eta gogoz hartzen dutela jabetu da. Funtsezkoa izan da, gainera, Udalera iristen diren kexa edo iradokizun guztiei erantzuteko protokolo bat ezartzea eta prozesua kontrolatzeko neurriak jartzea. Ekarpen ugari jasotzeaz gain, herritarren jarrera eta ekarpenak egiteko era oso positiboa eta eraikitzailea izan da. •



JOSE RAMON ZUBIZARRETA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Oso gauza interesgarria da, ekimen polita benetan. Politikarientzat oso nekagarria da gure kasuan 10 bilera egiten ditugulako bi astetan, hau da; ekimen garrantzitsua da. Baina, era berean, jendea bere gaiak bilera horietara bideratzen ohitzen ari da eta hori oso aberasgarria da. Bestalde, aipatuko nuke herritarrek parte hartzeko duten lasaitasuna, ez dago inolako krispaziorik. Laburbilduz, lan neketsua baina interesgarria da.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Helburua da herritarrek parte hartzea eta herritarren ahotsa entzutea.

Herritarrek beren ikuspegitik antzeman dituzten arazoak eta hobekuntzak identifikatu nahi dira guztien artean herri hobea eraiki dezagun.

Zein metodologia erabili duzue?

Batez ere, bilerak egiten ditugu. Baina, horretaz gainera, App bat dugu martxan, prentsaurrekoa egin genuen eta nola parte hartu jakinarazteko eskuorria buzoneatu egin genuen herriko etxe guztietan.

Aplikazioa gero eta herritar gehiagok deskargatzen eta erabiltzen dute. Ez da bakarrik iradokizunak egiteko, baita ere ikusi daiteke kultur mailan ze egitarau dagoen, albisteak… Apparen bitartez informazio asko helarazten zaie herritarrei.

Lanerako dugun beste modua bilerak dira. Udaletxeak aurkezpen labur bat egiten du eta, gero, herritarrek iradokizunak egiten dituzte ikusten dituzten arazo edo kezken inguruan, guztion artean konponbideak bilatu ditzagun.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Harrera positiboa dute. Adibidez, lehenengo bi bileratan 70 pertsonak parte hartu zuten, eta gutxi dela iruditu dezakeen arren, gure herrian egiten diren ekintzetan 70 pertsona pilatzea ikaragarria da. Gainera, pasa garen elizate guztietatik baserri

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
Aretxabaleta
Arrasate
Elgeta
Eskoriatza
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

bakoitzeko ordezkari bat egon da gutxienez. Udalak herritarrei harremanetan egoteko aukera eskaintzea asko eskertzen den zerbait da.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Oraindik lan asko dugu egiteko, hori da ondorioetako bat. Baina, gainontzean ondorioak positiboak dira, izan ere, sumatu dugu herritarrek eskertu egiten dutela. Parte hartzen dute. Lehenengo urtean krispazio handiagoa zegoen, hauteskundeak pasa berri ziren eta, agian horrek, liskar giro txiki bat sortu zuen. Baina, momentu honetan jendeak lasai asko hitz egiten du, euren artean ados ez badaude ere hitz egiten dute. Askotan gure lana ez da informatzea bakarrik, batzuetan moderatzaile lana ere egin behar izaten dugu. Zentzu horretan, oso balorazio positiboa egiten dugu. Herritarrak oso gustura daude parte hartze prozesuaren nondik norakoarekin.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Batez ere, nola antolatu beharko genukeen, horri buelta asko eman behar dizkiogu oraindik eraginkorragoak izan gaitezen.


Gauza askotarako oinarritzen gara jasotzen dugun informazioan. Esan bezala, 70 pertsona guretzat asko dira, baina oraindik herritar asko daude parte hartzen ez dutenak. Erabaki bat hartzen denean herritar asko etortzen dira horren berri izan ez dutela esatera; era horretako komentarioak izaten ditugu oraindik.

Zer hobetuko zenukete?

Erronka da herritar gehiagok parte hartzea, batez ere talde desberdinetako pertsonak bilduta: herria bere aniztasun osoan. Herritar asko oraindik ez dira ausartzen parte hartzera, eta beldur edo lotsa hori gainditu dezaten lan egin behar dugu.

DONOSTIALDEA

Andoain, Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil





HERRIAK

11

BIZTANLEAK

324.511 (gipuzkoarren %45,74)

AZALERA

305,2 km² (Gipuzkoaren %15,40)



ETORKIZUNA ERAIKIZ

Gipuzkoako ipar-ekialdean dago. Iparraldean itsasoa du muga eta ekialdean, Bidasoa Beherea eta Nafarroa. Hegoaldean, Nafarroa eta Tolosaldea ditu mugakide; mendebaldean, Urola-Kostaldea eta Tolosaldea. Guztira 305.2 km^2 ditu. Oiartzun, Urumea eta Oria ibaiek jasotzen dituzte eskualdeko urak; erliebea perpendikularki zatikatzen dutelarik, airetik ikusita koadrikula itxura ematen diote. Donostialdea da Gipuzkoako eskualdeetan biztanleriarik handienekoa. Hamaika udal dira: Donostia, Pasaia, Lezo, Errenteria, Oiartzun, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbil. Eskualde hau izaera metropolitanoa hartzen ari da pixkana-pixkana, baina prozesu hori Bilbon baino astiroago doa oraindik. Bidasoa Behereko eskualdearekin harreman hain estuak direnez, esan daiteke bi eskualdeok area funtzional bakarra osatzen dutela.

Errepideko komunikabideetan, A-8 autobidea (Bilbao-Behobia) aipatu behar da lehen-lehenik; ekialdera, Bidasoa Behereko eskualdearekin lotzen du, eta mendebalera, berriz, Zarautz, Eibar eta Bizkaiarekin. N-I errepidea (Madril-Irun) autobia bihurtzen da Beasain-Donostia tartean; bertatik abiatzen da A-15 Nafarroako autobia, Iruñearekin eta Ebroko arroarekin lotzeko. Itsasaldeko N-634 errepide bihurriak kostako herriak lotzen ditu, Eibar eta Bilbo aldera jotzeko. Trenbideetan Madril-Irun burdinbide zabala nabarmendu behar da alde batetik, RENFEk ustiatzen duena, eta Donostia-Hendaia (Topoa) nahiz Bilborainoko bide estukoak bestetik. Bilbora doan azken trenbide horrek nekez egin diezaioke lehia errepide gaineko garraioari, joan-etorri laburretan ez bada. Abiadura handiko trenaren proiektuak eskualdea zeharkatzeko asmoa dauka. Itsas garraioa Pasaiako portuaren bitartez egiten da, batez ere txatarra, autoak eta petroliotik eratorritako gai finduak higiarazten ditu portuak.

Ekonomiaren aldetik ikusita, eskualde hau Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren gunea da eta zerbitzuena da indar gehien duen sektorea. Donostian administrazio-jarduera handia dago: Estatuko, Erkidegoko nahiz administrazioaren ordezkaritzak daude. Justizia-administrazioak ere Donostian dauka Probintziako Auzitegia eta gainerako epaitegiak. Hiriburuan daude baita ospitaleak, unibertsitateak eta hainbat komunikabideren egoitzak.

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
Donostia
Hernani
Oiartzun
Pasaia
Urnieta
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

DONOSTIA

AZALERA: 61,5 km² | **BIZTANLEAK:** 180.179 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (9) PSE-EE (7) EH Bildu (6) PP (3) IRABAZI (2)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

AMAIA AGIRREOLEA (Partaidetza saileko arduraduna)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
Donostia
Hernani
Oiartzun
Pasaia
Urnieta
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

DONOSTIAKO KLIMA ESTRATEGIA 2050

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 911

GAIA:
INGURUMENA



Klimaren inguruko Pariseko goi bileraren ondoren, Donostiako Udala 2030 eta 2050 urteetara begira klima aldaketaren inguruko bere estrategia egokitzen hasi da, baita ekintza lerro nagusiak definitzen ere. Horretarako, parte hartze prozesu bat abiatu zuen 2016an, herriko eta lurraldeko hainbat gizarte- eta ekonomia-eragilerekin. Parte hartze prozesu hau, alde batetik, Elhuyar Aholkularitzak gidatu du, eta bestetik, Udalak berak: Herri Partaidetza Zuzendaritzatik, Ingurumen Zuzendaritzatik eta Cristina Enea Fundaziotik.

Partaidetza prozesuaren helburu orokorra, foro presentzial nahiz digitalen bidez ekarpenak jasotzea eta eztabaidatzea izan da, diagnosi bat egin eta klima aldaketari aurre egiteko estrategia definitzeko. DSS2050 deritzon Klima Estrategia, aipatutako Pariseko Goi Bilerako akordioen baitan kokatzen da.

Xede orokor honetaz gain, prozesu honek klima aldaketaren inguruko erronkak eta helburuak definitzea du helburu, baita ere Udala, gizarte eragileak eta herritarrak elkarlanean aritzeko espazioak bultzatzea.

PROZESUA

Prozesuaren hasierako planteamenduak, lau partaidetza foro aurreikusi zituen honako partaideak elkartzeko: Udaleko pertsonal tekniko nahiz politikoak, Aholku Batzordeak, mahai sektorialak, herriko gizarte eragileak (bereziki gaiarekin lotutakoak), eragile ekonomikoak (enpresak, klusterrak, profesionalen elkargoak) eta gaian interesa duten herritarrak, oro har. Hala ere, prozesuak aurrera egin ahala, eta agente gehiagoren iritzia jasotzeko helburuarekin, tailer eta lanerako espazio gehiago irekitzea egoki ikusita, azkenik, agente desberdinekin 40 bilera eta elkarrizketa inguru egin dira, koordinazio taldearen bilerez gain.

Bilera gehienak Udaleko Ingurumen Sailak gidatu ditu, batzuetan Partaidetza Sailaren laguntzarekin. Elhuyarrek, bestalde, 3 foroak dinamizatzeaz gain, tailerretarako metodologia definitu du eta hauetako lehenengoa, hondakinena, dinamizatu du. Tailer eta foroez gain, #PartaidetzaOn plataforma digitala ere erabili da prozesuan zehar. Informazio guztia Udaleko sail desberdinetara egoki bideratzeko koordinazio mahai bat ere sortu zen, Klima Aldaketaren Aurkako Komando Zentralizatua izenarekin.

Udaleko Ingurumen sailak abiatutako eta gaiarekin lotutako hainbat ekintza, proiektu beraren baitan jaso dira baita ere, hitzaldiak, tailerrak eta lehiaketak, besteak beste.



PARTE HARTZEA

Aurrez aurre 911 pertsonak parte hartu dute, nahiz eta datu hau ez den erabat zehatza, kasu batzuetan pertsona berak ekintza batean baina gehiagotan parte hartu du eta beste kasu batzuetan ekintza bakarreko parte hartzeak izan dira. Gizonezkoen parte hartze maila handiagoa izan dela esan dezakegu, parte hartzaileetatik %66,25 gizonezkoak izan baitira eta %33,75 emakumezkoak.

Partaidetza digitalari dagokionez, lehen aipatu bezala, #PartaidetzaOn plataforma sortu zen. Plataformak ondorengo edukiak jaso zituen:

- Prozesuari buruzko informazioa
- Nola parte hartu
- Lan saioak
- Dokumentazioa
- Agenda
- Klima aldaketaren inguruko berriak
- Partaidetzarako atala

Guztira, 21 pertsona erregistratu ziren plataforman, gehienak gizonezkoak, kasu honetan ere, eta %64 41-65 adin tartekoak. 8.921 bisita jaso baziren ere, ez zen plataformaren bidez ekarpenik egin.

EKARPENAK



Lehenengo foroan, prozesuaren nahiz diagnosiaren ondorioen aurkezpena egin zen, eta parte hartzaileei Donostiak klima aldaketaren aurrean dituen erronka nagusiak identifikatzeko eskatu zitzaien.



Bigarren foroan, aldiz, lehendik tailerretan parte hartutako pertsonek berriro ere hartu zuten parte eta esparru desberdinetako helburuak zehaztea eta lehenestea izan zen egin beharreko lana, erronkei zein ardatzei begira.



Hirugarren foroan, beste bi foroetan parte hartu ez zuten kontseiluetako kideak izan ziren gonbidatuak eta beste taldeetan landutakoa aztertu ondoren, diagnosia osatu eta alorrez alorreko ekarpenak egin zituzten: mugikortasuna, eraikuntza, zorua, kontsumoa eta energia. Ekainean zehar, 6 gairen inguruko 6 tailer monografiko egin ziren: mugikortasuna, hondakinak, energia, hirigintza, osasuna eta lurra-ura-bioaniztasuna. Tailer bakoitzean, gai bakoitzean klima aldaketarekiko diagnosi bat aurkeztu zen eta parte hartzaileei diagnosiari ekarpenak egin eta erronkak, aukerak eta erresistentziak identifikatzeko eskatu zitzaien.

PROZESUAREN BALORAZIOA



Esan bezala, hasierako planteamendua 4 foro egitea bazen ere, behin prozesua hasita, Ingurumen Sailak agente gehiagorekin kontrastea egitea eta fokua zabaltzea egoki ikusi zuen, horrela ikuspegi eta eragile gehiago biltzeko. Beraz, hasierako 4 foroen planteamendutik era eta tamaina desberdinetako 50 ekintza baino gehiagoko planteamendu batetara pasa zen.

Agente desberdinekin izandako harremana ere desberdina izan zen, batzuk soilik bukaeran izan ziren gonbidatuak parte hartzera, eta beste batzuk aldiz, prozesu guztian hartu zuten parte. Etorkizuneko prozesuetara begira, honi arreta berezia jartzea komenigarria litzatekeela ondorioztatu du Donostiako Udalak. Batez ere, prozesuaren diseinuan hasieratik identifikatzeko zein agenterekin zein fasetan lan egitea komeni den erabakitzeko eta, horrela, parte hartzea mailakatzeko.



Prozesuan ikusi da, baita ere, ate ugari ireki eta gutxi itxi direla, ikuspegi eta informazio asko sortuz, eta ondorioz, prozesua asko sakabanatu da eta edukien balorazio bat egitea zaila gertatu da.

Komunikazio plangintza bat eduki gabe soilik ekintza komunikatibo solteak egin dira, eta horrek, parte hartzaileek prozesuaren emaitzen ikuspegi globala edukitzea zaildu du, baita parte hartu ez dutenek prozesua bera eta emaitzak egoki ezagutzea.



Parte hartze maila bera ere hobetu beharra ikusi du Udalak hurrengo prozesuei begira. Parte hartzearen sakabanatzeak eta denboran luzatzeak ez du mesedetu partaidetzak jarraitasuna izan dezan. Horrela, parte hartzaileen gehiengoak ekintza bakarrean edo bitan baino ez du parte hartu.

#PartaidetzaOn plataformari dagokionez, emaitzak ez dira espero zirenak izan, nahiz eta espero baino pertsona gehiago sartu den plataforman, ez da ekarpenik jaso kanal honen bidez. Batez ere, informazioa zentralizatzeko eta edukiak deskargatzeko balio izan du.

Parte hartzaileek egin duten balorazioa, oro har, ona izan bada ere, gabeziak antzeman dituzte. Lehen foroan, esaterako, informazioa orokorregitzat jo zuten, diagnosi asko eta ekintza gutxirekin. Bigarren foroan, prozesuaren inguruko beren iritzia islatzen zituzten hitzak aukeratzeko eskatu zitzaien eta gehien aipaturikoenen artean interesgarria, aberasgarria eta parte hartzailea aurki ditzakegu. Hirugarren foroan, parte hartzaileen iritzia termometro modura irudikatu zen, eta 0tik 100era egindako balorazioren media 60koa izan zen, balorazio altuena 80 izan zen eta baxuena, aldiz, 40. •



AMAIA AGIRREOLEA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Teknikaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Zerbait azpimarratu beharko banuke anitza izan dela esango nuke, hori hasieratik bilatu genuen. Prozesuaren helburu nagusietako bat zen orain arte eman ez ziren elkarrizketa berri batzuk sortzea, eta lortu dugula uste dugu. Bilatu duguna izan da gai desberdinetako arduradunek elkarren artean hitz egitea, bakoitza bere lan esparrutik aterata.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Udal honetan partaidetza sustatzen da proiektu askotan, izan ere, partaidetza ardatz garrantzitsu bat da. Bestalde, oso argi genuen horrelako proiektu batean herritarren, enpresen eta eragileen presentzia egon behar zela. Denon esku dago klima aldaketaren kudeaketa eta ez badugu denon artean lan egiten ez dugu lortuko. Beraz, helburua izan zen denon artean lan egitea, bestela ez du ezertarako balioko.

Zein metodologia erabili duzue?

Edukia dela eta, lehenengo abiapunturako dokumentu bat sortu genuen, hau da: diagnosia. Erronka nagusiak zehaztu ziren momentuan ez ginen joan orri txuri batekin, izan ere, informazio eta adierazle asko dago eta pentsatu genuen beharrezkoa zela abiapunturako informazio sakon bat edukitzea. Metodologiaren baldintzetako bat zen abiapuntuko informazio hori gizarteratzea denon eskura egon zedin. Hortik aurrera, erabili genuen metodologia beti izan zen zerbait indibidualki lantzetik pixkanaka zabaltzera. Horrela, zirkulua zabaltzen joan nahi genuen, denon artean partekatu arte. Gainera, ikusi genuen beharrezkoa zela gai guzti horien ardura zuten udal-sailek parte hartzea.

Gaikako tailerrak egin genituen, baina eragileak ez zeuden bakarrik gai horiekin lotuta. Hau da, energiaren inguruan tailerra antolatu genuenean ez zuten parte hartu bakarrik energiaren munduan lan egiten dutenak, zabalagoak izan ziren, alegia. Beraz, tailerrak gai desberdinen inguruan egin genituen gai desberdinen inguruan lan egiten duen jendearekin eta, ostera, guztiak elkartzen genituen tailer handietan. Erronka garrantzitsuak zehaztu behar ziren momentuan zailtasunak izan genituen, izan ere, oso eduki teknikoak lantzera iritsi ginen. Parte-hartzaileen ezagutza maila oso handia zen, baina bakoitza bere eremuan zentratzen zen, eta guk une oro talde lana bilatzen genuen, baina asko kostatu zen bisio globala lortzea.

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
Donostia
Hernani
Oiartzun
Pasaia
Urnieta
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

Hori kanpora begira, baina barrura begira ere sortu ditugu lanketarako espazio iraunkorrak. Talde Eragile bat sortu dugu, pilotaje taldea deritzoguna. Horretan, zuzenean inplikatuta dauden sail guztiak daude. Bestalde, Udal mailan talde zabalago bat sortu dugu zuzendaritza guztiekin.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Harrera oso ona izan zuen. Beharrezkotzat jotzen dute gai honen inguruan parte hartze prozesu bat egitea. Baina, zaila da edukiak pisu handia duelako. Beti du pisu handia edukiak, baina honetan garrantzia handikoa da, oso erronka potenteak dira eta gure lan egiteko moduan aldaketa handiak eragingo ditu.

Zein ondorio atera dituzue prozesuari esker?

Kostata, baina posible dela elkarrizketa anitzak ematea. Horrelako prozesuak egiten jarraitu behar dugu denok muskulua atera dezagun, nahiz eta zaila izan. Herritarrek eskertu egiten dute bileretan jende desberdina egotea. Asko balio izan du denok bestearen tokian jartzeko eta, baita ere, orain Ekintza Planarekin ari garela hori guztia gogorarazteko; hau da, norberak ez egiteko aurrera inguruan zer dagoen kontuan hartu gabe.

Zer ikasi duzue etorkizuneko prozesuetarako?

Ez dugu ondo kudeatu. Gaizki irtendakotik ikasi dugu horrelako prozesu luzeetan nola lan egin behar dugun. Bagenuen parte bat diagnosia egiteko, beste bat erronka estrategikoak identifikatzen hasteko eta, ondoren, erronka horiek zein lan ildo hartzen zituzten erabakitzeko. Horrela, lanerako agertoki desberdinak planteatu genituen, adibidez; gaikako tailerrak eta Udalak gaika dituen kontseiluak. Prozesua urte betekoa izan zen, baina guztiekin ez ginen une berean lanean hasi. Lehenengo hiru hilabeteetan diagnosia itxi nahi izan genuen, baina ezin izan genuen talde guztiekin egin, batzuekin beranduago hasi ginen. Kasu horietan errepikatu egin behar genuen prozesuaren atal hori, baina gu ez ginen berak, teknikariak behin prozesuaren zati hori pasata ez dute perspektiba bera. Beraz, lanean hasi behar zuten taldeak beste modu batera tratatzen dituzu. Beste gauza batzuk eskatzen dizkiezu, dagoeneko prozesuaren beste puntu batean zaudelako.

Orduan, ikasitakoa izan da ibilbide bat zehazten badugula edukien fase desberdinak lantzeko epe horietan mugitu behar garela, bestela Udalak ez du era berean jokatzen, hortik pasa delako dagoeneko. Zeuden espazio guztiekin desoreka sortu da. Ikasi dugu prozesu luzeetan oso zorrotzak izan behar garela faseak ixterako orduan. Prozesua gehiago zabaltzeko aukera ikusi genuen, emozionatu egin ginen, eta hiruzpalau bilera egin beharrean askoz ere gehiago egin genituen. Gu ez gaude horretarako prest baliabide asko behar direlako. Parte hartze prozesuak malguak izan behar dute, baina non moztu jakin behar da.

Zer hobetuko zenukete?

Aipatutakoa, plangintza bat jarraitu behar da modu zorrotzagoan. Bestela, ez dira prozesuak behar bezala dokumentatzen. Hau da, erritmo desberdinean lan egiten da, izan ere, jendea eta gu ez gaude beti puntu berean.

HERNANI

AZALERA: 42 km² | **BIZTANLEAK:** 20.013 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu(9), EAJ-PNV (4), OH!(2), PSE-EE (2)



www.hernani.eus

PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

ESTIBALITZ ALDEITURRIAGA (Zinegotzia)

HERNANIKO 2017KO UDAL AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 961 (526 emakumezko, 435 gizonezko)

GAIA:
AURREKONTUAK

Udal Aurrekontuen inguruko prozesu hau Udal Gobernuaren eskutik iritsi zen urtez urte errepikatzeko borondatearekin. Hori dela eta, bigarren urtez antolatu da prozesu hau. Helburu nagusia, Hernaniko Udalaren 2017ko aurrekontuen harira, herritar guztiekin batera, 500.000€ zertan inbertitu eztabaidatzea eta erabakitzea izan da.

Prozesu hau aurrera eramateko, hiru lan talde sortu ziren: Koordinazio Taldea, Talde Eragilea eta Jarraipen Batzordea.

Koordinazio Taldea bi astez behin biltzen zen prozesuari jarraipena emateko. Bilera horietan udal teknikariek, komunikazio arduradunak, alkateak eta Aztikerreko teknikariak parte hartzen zuten.

Beste zenbait eginkizunen artean, Talde Eragilearen ardura izan zen prozesua diseinatzea, eman beharreko urratsak zehaztea, prozesuari jarraipena ematea eta balorazioa egitea. Azkenik, Jarraipen Batzordeak prozesu osoaren jarraipena egiteko eta aurreko urtean jasotako proposamenen betetze maila kontrolatzeko ardura izan zuen.

Lehenik eta behin, Udaleko prentsa arduradunarekin batera Komunikazio Plangintza diseinatu eta garatu zen. Prozesua ezagutzera emateko eta parte hartzeko modu ezberdinak azaltzeko eskuorria sortu eta zabaldu zen. Prozesuak iraun bitartean, bloga, sare sozialak, posta elektronikoa eta prentsa bidezko komunikazioa erabili ziren herritarrek prozesuaren berri izan zezaten.



Lehendabiziko fasearen helburua ahalik eta proposamen gehien jasotzea zen, eta horretarako, 16 urtetik gorako herritarrei zuzendutako fitxa bat sortu zen. Bertan, herriaren inguruko gogoeta orokor batetik abiatuta, Hernanik zituen beharrei buruzko galderak jaso ziren.

Herritarren proposamenak jasotzeko 3 bide nagusi erabili ziren: saio irekiak (11 saio egin ziren), udalerriko gune ezberdinetan jarritako postontziak (Kultur Etxean, Kiroldegian, Udaletxean, Euskaltegian, Ongintzan, Musika eskolan, Jubilatuen etxean, Institutuan eta auzo ezberdinetan jarri zirenak) eta Hernaniko Udalaren webgunea. Aipatzekoa da aurreko urteetan egindako eta ez onartutako proposamenak berriz ere aurkezteko aukera eskaini izana.



Horrela, 666 proposamen jaso ziren: 80 saio irekietan, 322 postontzietan, 236 Internet bidez, 8 e-postaz eta aurreko urtean atera ez ziren 20 proposamen.



Parte hartzeari dagokionez, saio irekietan 91 pertsonak hartu zuten parte: 40 emakume eta 51 gizon.

Herritarren proposamenak bideragarriak ziren ala ez egiaztatzeko teknikoki eta politikoki baloratu ziren. Balorazio politikoan, jada Udal aurrekontuetan aurreikusiak zeuden proiektuak baztertu ziren, baita Udalaren eskumenekoak ez zirenak ere. Balorazio teknikoan berriz, proposamenak ekonomikoki eta teknikoki aztertu ziren. Gauzak horrela, fase honetan, 442 proposamen baztertu ziren eta 225 proposamenek egin zuten aurrera.







Ondoren, proposamenek aurrera egin zezaten bi irizpide bete behar zituzten: eremu horretan aurretik inbertsiorik ez egin izana eta ingurumena babesteko neurriak izatea. Aipatutako irizpideak herritarrekin egindako 3 saio irekietan adostu ziren eta, azkenik, 34 proposamen iritsi ziren hautaketa prozesura.

Azken prozesuan, herritarren partaidetza areagotu nahi izan zen. Hori dela eta, bozka emateko 3 bide desberdin jarri ziren herritarren eskura: galdetegiak, postontziak eta webgunea. Galdetegiak etxez etxe banatu ziren, proposamenak jasotzeko postontziak herriko hainbat lekutan kokatu ziren eta galdetegia online betetzeko aukera ere eskaini zen. 34 proposamenetatik 10 hautatu behar zituzten herritarrek.

Guztira, 1.036 boto jaso ziren eta, horietatik, baliagarriak 961 izan ziren. 523 emakumek eman zuten botoa eta 435 gizonek. Aukeratutako 10 proposamenak azaroaren 24an egindako aurkezpen publikoan azaldu ziren. •

ELKARRIZKETA



ESTIBALITZ ALDEITURRIAGA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Zinegotzia

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Laguntzen du, alde batetik, bakoitzak dugun erabakitze eskubideaz jakitun izaten eta, bestalde, parte hartzetik at, herriaren beharrak azaleratzen. Udaletxean lanean gabiltzanen eta herritarren artean, herria eraikitzen laguntzen duen prozesu bat da hau, hau da; ditugun beharrez jabetzen laguntzen digu.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Denon artean erabakitzea zer nahi dugun Hernanirako era parte-hartzailean, guztion artean eztabaidatuta eta erabakita. Hori orokorra da, baina zehatzak ere badira. Prozesu honek ere, herritarrei bizi ez diren beste auzoetako errealitatea ezagutarazten die. Herri kontzientzia garatzen laguntzen du.

Zein metodologia erabili duzue?

Prozesua hurrengoa da: lehenengo, proposamenak egiteko deialdi irekia egiten da eta 16 urtetik gorako edozein hernaniarrek parte hartu dezake. 2015an 100 proposamen jaso genituen, baina 2016an 600 inguru izan dira. Proposamenak jaso ostean balorazio politikoa egin zen Udaletxearen eskumena zen ala ez jakin genezan. Ostera, gai bakoitza zegokion sailera bideratu zen bertan balorazio teknikoa egin zezaten. 600 proposamenetik 400 inguru gelditu ziren aztertzeko eta, horrek, gure udal baliabideak gainditu zituen, ezin izan genuen guztietara iritsi. Gerora, talde eragileak bi galdera proposatu zituen eta, horien arabera, proposamen bakoitzaren balorazioa egin zen. Horrela, herritarrek proposamenak lehenetsi zituzten. Alde batera utzi ziren proposamen asko, baina hernaniarrentzat interesgarrienak lehenetsi ziren. Aurrera doazen proposamenak eskuorri batean aurkezten zaizkie herritarrei horien arteko bozketa egin dezaten. 500.000€ bideratzen dira herritarrek aukeratutako proposamenak garatzera. Herritarrentzat garrantzitsuena denetik hasita diru kopuru hori amaitu arte.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Poliki-poliki joan gara ikusten geroz eta harrera hobea duela, bai proposamenetan baita saio presentzialetan ere. Gainera, ikusi dugu balio izan duela jendeak parte

hartze gehiago eskatzen duten proposamenak egin dituelako. Prozesu hau erreminta izan da jendea geroz eta parte hartzaileago izateko, hau da; parte hartze kultura herritarrengan txertatzen joan dadin. Kaletik jendeak galdetu egiten digu noiz hasten den proposamen fasea euren ekarpenak egin ditzaten. Gainera, proposamenak egiteko ere elkartzen hasiak dira elkarte desberdinetako ordezkariak, eta hori oso aberasgarria da.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Ondorioak positiboak dira. Poliki-poliki doan zerbait da, oraindik lan asko egin behar dugu ez gaudelako erabakiak hartzeko hezita. Urteak pasa ahala hori gainditzen goaz eta eboluzio hori ikustea polita da, baita emaitzak ikustea ere.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Teknikariek ikasi dugu udal baliabideak hobeto kudeatzen. Lanean hasi eta 600 proposamenekin aurkitu ginen. Horrek kudeaketa hobeto nola bideratu erakutsi digu. Udaletxe barruan ikusi dugu teknikariak parte hartzea barneratzen hasi direla, herriaren nahiak entzuten Udalaren beharrak alde batera utzi gabe.

Zer hobetuko zenukete?

Parte presentziala hobetu behar dugu. Oraindik ez dakigu nola iritsi herritar guztiei. Horrekin batera, parte hartze parekidea lortu behar dugu, izan ere emakumeek gehiago parte hartzen dugu bozketetan eta online bidez, baina ez da hala gertatzen saio presentzialetan. Bestalde, hobeto komunikatzen ikasi behar dugu herritarrek egunero egiten dugun lanaren berri izan dezaten.

OIARTZUN

AZALERA: 60 km² | **BIZTANLEAK:** 10.211 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (9) EAJ-PNV (4)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

ENERITZ ARBELAITZ (Alkateordea)

HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEKO UDAL SISTEMA OSOA ERAIKITZEA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 367 (253 emakumezko, 114 gizonezko)

GAIA:
PARTE HARTZEA

Oiartzungo Udalak abiatutako "Herritarren partaidetza sustatzeko Udal sistema osoa eraikitzea" egitasmoak, helburu bikoitza izan du. Batetik, zinegotzi eta teknikarien artean parte hartzean oinarritutako lan kultura sendotzea eta bestetik, herritarren partaidetzarako Udal sistema osoa eraikitzea eta baliabidez hornitzea.

Bi helburu orokor horietara iristeko, helburu zehatzak ere ezarri ziren egitasmo honetan:

- 2017ko martxora bitarteko parte hartzea plana xehatzea, partekatzea eta gauzatzea.
- Herritarrei begirako parte hartze ekimen zehatzak modu eredugarrian aurrera eramatea eta horietatik parte hartze sistema osorako ikasgaiak hartu eta erabakiak hartzea.
- Parte hartze batzordearen gidaritza eta bere jarduna sendotzea.
- Parte hartzearen udal eskuliburua osatzea.
- Zinegotziak parte hartzean eta gobernantza irekian trebatzea.

Udalaren funtzionamenduari begira, batez ere bi lan eremu landu ziren, batetik, Udaleko parte hartze batzordearen ibilia finkatzea eta bestetik, teknikari eta zinegotzien artean eskuliburuaren erabilera egonkortzea. Udaleko parte hartze batzordean, jarraipen eta erabakitze bilerak egin ziren. Bilera hauetan, lau zinegotzik (gaiaren arabera, Alkateak), Udal idazkariak eta aholkulariak hartu zuten parte, baita arlo bakoitzeko teknikariek, beharren arabera, parte hartzea Udaleko beste edozein gai bezala tratatua izatea eta dagokion garrantziarekin lantzea helburu hartuta. Teknikari eta zinegotzien trebakuntza helburu zuen teknikari eta zinegotzien praktika komunitatean, aldiz, alkateordeak, 5 teknikarik (hirigintza, kirola eta gazteria, kultura, euskara, komunikazioa) eta aholkulariak hartu zuten parte. Gune honetan landu zen parte hartzeari buruzko udal eskuliburua.



Eredu modura eta parte hartze sistema osorako ikasgaiak eta erabakiak hartzeko helburuarekin, herritarrei begira aurrera eramandako parte hartze ekimenak honakoak izan ziren:

2017ko aurrekontuetarako auzoetako bilerak



Udaleko Gobernu Taldeak azaroaren 7tik 16a bitartean, herriko zortzi auzoetan 2016ko Udalaren jardunaren balorazioa egin eta 2017ko aurrekontuen inguruko azalpenak eman zituen. Bilera hauetan, 110 herritarrek parte hartu zuten, aurreko urteetako kopuruari eutsiz. Hala ere, auzoz auzo parte hartze hori desberdina izan zen eta hutsune bat ere sumatu zen, gazteena (16-30 urte artekoak), hain zuzen ere, beraz, gazteak erakartzeko eta hauen parte hartzea indartzeko planteamenduak egiteko beharra ondorioztatu zen.

Auzo batzarretan, 2016an herrian egindako lanak azaldu eta baloratu ziren. Ildo nagusiak, mantenu lanak, Elorsoro kiroldegia, aparkalekuak eta Lurbizi, etxebizitza eta Larre Plan egitasmoak izan ziren. 2016ko aurrekontua 16 milioi eurokoa izanik, horietako 2 milioi euro auzo batzarretan azaldu eta adostutako egitasmoetara bideratzea proposatu zen.

Ildo orokorrak mantentzeko Udalaren proposamena begi onez ikusi zuten parte hartzaileek: udal eraikinen mantenua, Lintziringo eremuaren hurrengo faseak, hoditeria eta argiteria berritzen segitzea, errepide eta espaloiak txukuntzea eta poligonoen mantenua. Baita etxebizitza, Lurbizi eta Larre Planaren egitasmoei jarraipena ematea eta merkataritza txikia suspertzeko egitasmoa bultzatzea.

Oiartzuarren mugikortasun ohiturei buruzko azterketa

Herri barruko garraio publiko zerbitzua baloratu eta hobetzeko pistak jasotzeko helburuarekin, beste ekimen bat ere burutu zuen Oiartzungo Udalak. Etorkizun hurbilean herri barruko garraio zerbitzua hobetzeko, ezinbestekoa da herritarren ohiturak eta beharrak ezagutzea, horregatik, herritarren mugikortasun ohiturak ikertu zituen Udalak. Lehen urratsak barne mailako batzordea sortzea, datuak jasotzea, adituekin elkarrizketak egitea eta herritarren artean galdeketa egitea izan ziren. Ondoren, profil ezberdinetako herritarrekin taldekako elkarrizketak egin ziren, azterketan sakontzen jarraitzeko.

206 lagunek erantzundako galdetegiaren arabera, herritarrek desplazamendu gehienak herri barruan (%38) edo eskualdean (%22) egiten dituzte eta Oiartzunen bertan, Elizaldera egiten dira desplazamendu gehienak (%66,7). Horietatik gehienak (%53) ibilgailu pribatuan egiten dituzte eta %29a bakarrik dira herri barruan garraio publikoan egiten direnak. Azken urteetan, herri

barruko garraioaren erabilera igotzen ari dela, erabiltzaile gehienak emakumezkoak direla eta gehienek Xorrola autobusa erabiltzen dutela ere erakutsi zuen galdetegiak. Gainera, %70ak oso ongi baloratu zuen herri barruko garraio publikoa, batez ere erabiltzaile direnek. Hoberen baloratu ziren irizpideak ibilbidea eta tarifa politika izan ziren, puntuazio kaxkarrena, berriz, beste garraioekiko koordinazioari eman zioten herritarrek.

Merkataritzaren biziberritzea suspertzeko plana



Merkataritza txikia suspertzeko helburuarekin, Ekintza Plana osatzeko prozesua martxan jarri zuen Udalak, Hiritik At eta Aztikerren laguntza teknikoarekin. Hiru hilabeteko azterketak, Oiartzungo tokiko merkataritzari hauspo emateko plana definitzea izan zuen helburu.

Prozesu honek, merkatari nahiz herritarrak hartu zituen kontuan, izan ere, merkataritza txikia ez baita merkatarien kontua soilik, herritar guztiei eragiten die, merkataritza txikia ezinbesteko baldintza baita herri bizi bat edukitzeko. Lehenengo fasean, merkataritza txikiaren diagnostiko zehatza lortzea izan zen helburua. Horretarako, herriko merkatari txikiekin bildu zen Udala, ondoren, herritar talde bati inkesta egin zitzaion eta osatzeko, urriaren 22an, azterketa kolektiboa egin zen. Honen helburua merkatari, elkarte, eragile eta kontsumitzaileen artean Oiartzungo merkataritza txikiaren indarguneak, ahulguneak eta mehatxuak identifikatzea izan zen. Taldeka, Oiartzungo mapa handi baten laguntzarekin aztertu ziren tokiko merkataritza eta herri bizitza suspertzeko bideak. Bigarren fasean, Ekintza Planaren lan-lerro nagusiak definitu eta epe ertainera begira antolaketa eredua eztabaidatu zen, azaroaren 9an eta 23an egindako foro irekietan. Azkenik, abenduan, prozesutik ateratako ondorioak merkatari eta herritarrekin partekatu ziren ekintza publiko baten bidez.

Gazteekin egindako parte hartze ekimenak

Gaztetxe ondoko skate parkaren lanak amaituta, Udalak, erabiltzaileekin batera, parkearen erabilera arauak adostu eta aurkezpen ekitaldia auzolanean antolatu zuen. Arautegia definitzeko bilera irekian, 22 lagunek hartu zuten parte.

Gazteak etxebizitzaren inguruan duten egoera ezagutzeko azterketa ere egin zen, egoera ezagutu, zein aukera dauden aztertu eta aurrera begirako ildoak zehazteko. Honen baitan eta aurrera begira Udalaren politikak zein izan beharko lukeen argitzeko, egoeraren diagnosia egin eta egungo beharrak identifikatu ziren. Gazteen diskurtsoak ezagutzeko eta Oiartzungo adituen iritzia jasotzeko saioetan, 14 pertsonen iritziak jaso ziren. Ondoren 306 gazteri inkesta egin zitzaien eta amaitzeko, emaitzen itzulketa jardunaldiak egin ziren herritar guztiei zabalduta. •

ELKARRIZKETA



ENERITZ ARBELAITZ
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkateordea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Parte hartze prozesu guztiek izaten dituzte berezitasunak partaideen arabera. 2016an Udaletxean oinarrizkoena barne mailako lanketa izan da, zinegotziekin eta teknikariekin egindako lanketa, parte hartze prozesuetan lan egiteko moduaren inguruan. Horren baitan garatu ditugu bitartekoak parte hartze prozesuak diseinatzeko, irizpideak finkatzeko etabar. Hori oso aberasgarria izan da guztiok ahaldundu garelako, parte hartzearen inguruan informazioa jaso dugulako eta, aurrera begira, ahalmena dugulako prozesuak diseinatzeko. Hori izan da 2016an lortu dugun gaitasunetako bat. Horren baitan, praktika komunitarioa deitzen den foro bat dugu Udaletxe barruan eta Ekintza Plan bat diseinatu genuen. Ekintza Plan horren betetze maila eta hobekuntzak praktika komunitate horren bidez bideratu ditugu.

Zeintzuk izan dira helburuak?

2014an Udaletxean sortu zen plangintza bat parte hartzea gehiago bultzatzeko helburuarekin, eta 2016a bukaera izan da. Oiartzunen ikusten zen bazegoela parte hartzeko ohitura, herri honen ezaugarriei esker naturalki atera zena, baina Udaletxe barruan hori sistematizatzeko beharra ikusi genuen. Parte hartze prozesuak naturalki sortu beharrean Udaletxean monitorizatzeko beharra ikusi genuen. Ekintza Planak egitea, alegia.

Zein metodologia erabili duzue?

Hasteko, kanpo aholkularitza eduki dugu. Emun izan da aholkularitzaz arduratu dena eta Udalaren esku baliabideak jarri dituena. Horretarako, 2012an formakuntza saioak hasi ziren eta praktika komunitatea sortu zen. Hori, hilabetean behin biltzen den foroa da eta, bertan, sail bakoitzeko parte hartzearekin lotura duten proiektu guztiez hitz egiten da. Beraz, Oiartzunen ditugun parte hartze prozesu guztien jarraipena egiten da. Ekintza Plan batean, taula batean, kokatzen dira gauzak: zein helburu ditugu zein epetan. Teknikariek prozesu bakoitzaren faseak deskribatzen dituzte eta, fase horretan, beste teknikarien aholkuak jasotzen dituzte. Azken finean, 2014an sortu zen foro bat da eta bilerak hilero egiten ditugu. Hori da oinarria parte hartze prozesuak aurrera eraman eta arrakastatsuak izan daitezen. Izan ere, herritarren parte hartzea Udaletxe barruraino iristen da, eta teknikariak prozesuen parte dira hasiera hasieratik. Horrela, Udaletxearen funtzionamenduan txertatzen ditugu parte hartze prozesuak.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Parte hartzen duten pertsonek eskertzen dute eta ekarpenak egiteko aprobetxatzen dute libre duten edozein momentu. Badira batzuk prest daudenak beti parte hartzeko, edozein prozesu dela ere, herriaren alde lan egiteko aukera ikusten dute. Horiek ez dute ikusten hau guk eskaintzen dugun aukera bat bezala, baizik eta herritar batzuek sentitzen dute beraien behar bat dela herrian parte hartu eta nork bere aldetik jartzea. Agian herri mailan ez da asko baloratzen, baino parte hartzen dutenek asko baloratzen dute. Bada kolektibo bat ohituraz auzoetako edo udal aurrekontuetako batzarretara joaten direnak, orokorrean helduak. Erronka bat dugu gazteekin lanean nola hasi jakiten.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Asko dira. Prozesu hauen bitartez ikusten dugu zeintzuk diren herritarren beharrak. Askotan errepikatu egiten dira eta horietatik ondorioztatzen dugu aurrekontuetan zer landu behar dugun. Erabakiak hartu behar ditugunean gure oinarria parte hartze prozesuak dira. Parte hartze prozesuak ez ditugu besterik gabe egin behar direlako egiten, baizik eta Udaletxean lan egiteko erreminta batzuk izan ditzagun. Guretzat parte hartze prozesuak oinarri dira herrian zerbitzuak eman eta Udaletxean funtziona dezagun. Hemen zinegotzi batzuk gaude, baino guretzat ezinbestekoa da jakitea herritarrek zer nahi duten eta zer eskatzen duten, eta herritarrekin egitea prozesuak. Ez dugu nahi herritarrek bere gauzak guri esatea bakarrik, nahi duguna da joan etorri bat lortzea eta herritarrekin lan egitea.

Zer ikasi duzue etorkizuneko prozesuetarako?

2016an praktika komunitarioan egindako lanetik Oiartzungo gidaliburu bat sortzea lortu dugu. Denboran zehar ikasitako guztia gida batean txertatzea lortu dugu. Modu eskematikoan azaltzen dira Oiartzungo parte hartzearen ideia batzuk eta parte hartze prozesu bat diseinatzeko eman behar diren oinarrizko pausoak eta erabili ditzakegun baliabideak. Horrela, edozein prozesu berrirekin hasi aurretik lehenago egindakoaz ere baliatu gaitezke. Horrek bere eragina izango du kanpora begira, izan ere, oinarri batzuk finkatzea lortu dugu hurrengo parte hartze prozesuak hobeto diseinatuta egoteko eta baliabideez hobeto hornituta egoteko.

Zer hobetuko zenukete?

Lortu behar dugu herritarrekin betiere harremanak sendotzea. Askotan gertatzen zaiguna da prozesu bat nahiz eta ongi diseinatu eta baliabide guztiak jarri, kontuan hartu behar dugu herritar guztiak ez direla berdinak eta herritar guztiengana ezin dugula berdin iritsi, izan ere, herritar guztiek ez dute informazio bera berdin barneratzen.

Bestalde, parte hartze prozesuetan ahaztuta gelditzen den arloetako bat komunikazioa da, eta hori hobetzen joan behar dugu herritar guztiengana iristeko. Izan ere, komunikazioa hobetzen badugu parte hartzea ere aberatsagoa izango da. Baliabideak baditugu eta horretan hobetzea litzake.

PASAIA

AZALERA: 11 km² | **BIZTANLEAK:** 16.587 | **UDALBATZAREN OSAERA:** PSE-EE (5) EAJ-PNV (5) EH Bildu (4) Pasaia Ahal Dugu (3)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

ELISABETE ASTIASARAN (Arloko teknikaria)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
Donostia
Hernani
Oiartzun
Pasaia
Urnieta
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

PASAIAKO HAUR ETA NERABEEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO PLANA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 655 (358 emakumezko, 297 gizonezko)

GAIA:
HAURRAK-NERABEAK-GAZTEAK

Pasaiako Udalean 2008. urtetik indarrean dagoen plan hau, urtez urte, eta parte hartzen duten eragileen behar, nahi eta eskaeren arabera osatuz, zabalduz eta egokituz joan da. 2016. urtean hainbat ekintza eta lan lerro sistematizatuez gain, erronka berriak ere definitu eta gauzatu ziren. Burututako egitasmoak, Plan Orokorraren lan-ildoei jarraiki, lau alorretan koka daitezke:

Tratu onaren aldeko prebentzioa eta sustapena



Herrira begirako ekintzak eta prestakuntza ekintzak egin ziren alor honetan. Herrira begirako ekintzetan, alde batetik, lau barrutietako jaietan haurren tratu ona bultzatzeko ekintzak eta, bestetik, azaroaren 20ko astearen bueltan burututako ekintzak aurrera eraman ziren. Prestakuntzari dagokionez, aldiz, hezitzaileak lanerako trebatzeko bi saio ere egin ziren.

Barrutietako jaietan, ekintza desberdinak egin ziren: haur edo familien lasterketak San Pedro, Trintxerpe eta Donibanen; futbol txapelketak Antxon eta San Pedron eta Pala txapelketa Antxon.

Haur eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna azaroaren 20an ospatzen da eta egun hori zela eta aste osorako egitarau berezia antolatu eta gauzatu zen. Egitarau hori antolatu eta burutzeko elkarlanean aritu ziren udal zerbitzu, elkarte eta ikastetxeak. Azaroaren 15etik 18ra bitartean, lau barrutietan, adin tarte desberdinetako haur eta nerabeei zuzendutako ekintzak antolatu ziren, hala nola; jarduerak liburutegietan, antzerkia, dantza, batukada ikastaroa, jolasak, txokolate-hartzea, kalejira…

Arestian aipatutako prestakuntzaren alorrean, udal zerbitzuetako 20 hezitzailek haurren babesari buruzko prestakuntza teoriko-praktikoa jaso zuten bi saiotan.

Elkarteak biziberritzea



Elkarteen jarduera ezagutzera emateko xedearekin bi ekintza antolatu ziren: elkarteen eguna eta elkarteen gala. Gainera, hezitzaileen belaunaldi erreleboa eta hezitzaile euskaldunen beharrak lantzeko begirale ikastaroa eskaini zen Pasaian bertan.

Elkarteen eguna Antxon ospatu zen apirilaren 30ean. Aurreko


urteetako formatua aldatu zen. Ibilbide moduan egin zen eta aldaketa horrek balorazio positiboa zuen. Parte hartze aldetik ere arrakastatsua izan zela esan daiteke 12 elkartek, 47 hezitzailek eta 110 haurrek parte hartu baitzuten. Barrutiko familia eta elkarteen parte hartze maila izan zen arrakastarako gakoa.

Maiatzaren 29an, berriz, elkarteen gala ospatu zen Trintxerpeko Ciriza etxean. 13 elkarteetako 53 ordezkarik parte hartu zuten bertan. Ekintza honen helburu nagusietako bat hezitzaileen lan boluntarioa balioan jartzea zen eta galaren formatuak gertutasun giroa sortu zuen. Politikari eta elkarteen arteko harremana lantzeko aukera emateaz gain, elkarteen arteko harremanak ere estutzeko balio izan zuen.

Prestakuntzaren ildotik, begirale ikastaro homologatua egin zuten 14 gaztek 2015/2016 ikasturtean. Horietatik 12 pasaitarrak edo herriko elkarteren bateko kideak ziren. 12 ikasle horiek herriko elkarte edo udal zerbitzuetan egin zituzten praktikak eta ikastaroari esker, 12 begirale euskaldun prestatu gehiago daude Pasaian.

Adingabeen aldeko harrera egokia sustatzea, jatorria edozein dela ere

Lan-ildo honek, Harrera On programa eta Ongi etorri gazte! programak hartzen ditu bere baitan. Harrera On programa, udalerrira iritsi berri diren haurrei eta gazteei harrera egiteko eta haien aldeko aitorpena ezagutarazteko eskolaz kanpoko gunea da. Bertan, jolasaren eta jardueren bitartez, zein gizartetan biziko diren ikasten dute, ezeri uko egin gabe eta ezer ahaztu gabe, bakoitzaren kulturaren eta hizkuntzaren aberastasuna gordeta. Programa hau herriko haur guztiei irekitzeko asmoz, liburutegiekin elkarlanean esperientzia pilotua landu zen Antxon, martxotik aurrera hasteko asmotan. Nerabeekin gaztetxo etorri berrien harrera lantzeko,



aniztasunaren lanketa eta gazteen parte hartzea oinarri dituen aipatutako Ongi etorri gazte! programa gauzatu zen ikasturte osoan zehar. 18 gaztetxo inguru ibili ziren antolakuntza lanetan eta horiek proposatutako ekintzak martxoa eta apirila bitartean burutu ziren. Ekimen honek helburu zuen 12 eta 17 urte bitarteko gazteak biltzea herrira etorri berri diren beste gazte batzuei harrera egokia egiteko. Gazteek hainbat ekintza proposatu zituzten, hala nola; bideo bat egitea, futbol txapelketa antolatzea edota Ongi-etorri tour-festa antolatzea.

Lan-ildo honetan ere prestakuntzak bere tartea izan zuen, izan ere, aniztasunaren inguruko prestakuntza jaso zuten antzerki eskolako irakasleek. Irailean, eskolako 9 irakaslek antzerkiaren bidez aniztasuna eta haurren parte hartzea lantzeko tekniken inguruko prestakuntza jaso zuten.

Azkenik, ekainaren 1ean ospatzen den Euskal Herriko aniztasunaren aldeko astearen egitaraua osatzeko ikastetxe, elkarte eta udal zerbitzuek elkarrekin lan egin zuten.

Haurren parte hartze prozesuak



2016an, bi parte hartze prozesu egin ziren: gazteekin harrera protokoloaren lanketa eta LH 5. eta 6. mailako ikasleekin planaren logoa egiteko prozesua. Gainera, hirigintza Plan Orokorraren prozesu parte-hartzailean haurren eta nerabeen parte hartzea bermatzeko diseinuaren proposamena landu zen.

Pasaiako haur eta nerabeen eskubideak bermatuko dituen planaren logoa egiteko parte hartze prozesua apirilean abiatu zen. Prozesuan hiru ikastetxek parte hartu zuten: Anunciata, Karmengo Ama eta Pasaia Lezo Lizeoak. Zehazki, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak aritu ziren zeregin horretan. Guztira, 200 ikasle inguru. Prozesua aurrera eramateko eta azken erabakiak hartzeko ikastetxe bakoitzeko 8 ikaslez osatutako talde eragilea osatu zen. Talde eragilearen zereginak izan ziren prozesuaren arauak eta norabidea zehaztea, beste ikasleei prozesuaren berri ematea eta logoen hautaketa



nola egin adostea. Ikasleek hasieratik argi izan zuten, ez zutela logo irabazle edo galtzailerik nahi. Elkarlana lehenetsi zuten. Horrela, egindako logo guztietatik, hiru hautatu zituzten; logo bana ikastetxe bakoitzeko. Aukeratutako hiru logoak aztertu eta planaren logoak izango zituen ezaugarriak zehaztu zituzten ikasleek: elkartasunaren eta adin tarte desberdinen sinbolo gisa tamaina desberdineko eskuak eduki behar zituen, baita kolore biziak ere.

Esan bezala, nerabeek beren adin-tartekoei herrian harrera egiteko parte hartze prozesua ere aurrera eraman zuten. Prozesu horren baitan, hiru ekintza proposatu eta antolatu zituzten, horien artean, arestian aipatutako bideoa. Bideo horrek, Trintxerpe eta San Pedro nerabeen begietatik nolakoa den, zer gustatzen zaien eta abar azaltzen zuen eta sare sozialen bidez zabaldu zen.

Pasaiako hirigintza Planaren parte hartze prozesuaren definizioan familiek, haurrek eta nerabeek nola parte hartu ere zehaztu eta onartu zen; horien parte hartzea lehentasunen artean kokatuta.

Arlo honetan, esan bezala, formazioak ere izan zuen bere tartea. Urrian antolatutako jardunaldi batean prestakuntza teoriko-praktikoa jaso zuten Planean lanean ibili ziren eragileetako 45 ordezkarik. Bestetik, Unicefek online antolatutako hiru prestakuntza saiotan parte hartu zuten udal teknikariek. Jasotako prestakuntzari esker, eragileak prestatuagoak daude haurren parte hartzea lan metodologian barneratzeko, baita ere prozesu zehatzak baldintza egokietan eta ziurtasun gehiagorekin burutzeko. •

ELKARRIZKETA



ELISABETE ASTIASARAN
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Teknikaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Parte hartze prozesu iraunkor bat da eta ardura partekatuaren ideiaren baitan egiten da. Ditugun gune guztiak erabakigarriak dira, hau da; Udalak ez du erabakitzen zer egingo den. Momentu batzuetan Udala, dituen baliabideengatik, motorra izan daiteke proposamenak eginez, baina erabakiak guztion artean hartzen ditugu. Udal mailan lan egiteko modu berri bat da eta eragileekin harreman zuzena eta gertutasuna bilatzen ditugu. Hori guztia, Udal baten kudeaketan eredu berritzailea da eta denboran luzatzen da momentuko beharretara eta errealitatera egokituta. Berritzaileena da haurren parte hartzea ere sustatu dugula eta, horretarako, haurrak prozesuaren erdigunean jarri ditugu.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Haur eta nerabeekin lan egiten dugun eragile guztion beharrak lantzeko haur eta nerabeen parte hartze zuzena eta aktiboa sustatzea. Hau da, beraien estatus politikoa eta eskubideak nolabait bermatzea.

Zein metodologia erabili duzue?

Lan-mahai bakoitzak bere bilerak egiten ditu eta, ostean, guztiok elkartzen gara lanean jarraitu dezagun. Bilera horietan, Planaren inguruko proiektuetan lan egiten da. Gainera, bileretan haur eta nerabeen hitza jaso dadin ikastetxeetara joaten gara, eta horien parte hartzea sustatzeko organo propioak sortu nahi dira haurrekin zein nerabeekin.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Oso harrera ona izan du. Ez daude ohituta gu haiengana joatera proposamen bila eta horiek balioan jartzea. Berria da guztiontzat; gu ez gaude ohituta, politikariak ez daude ohituta eta haur eta nerabeak ere ez. Ardura izateari erantzun aproposa eman diote. Egin ditugun bi prozesu zehatz horietan gustura inplikatu dira.

Nerabeekin zailagoa da emaitzak berehala nahi dituztelako, denborak desberdin ulertzen dituzte.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Haurren parte hartzearen alde apustu egin genuen eta apustu hori mantentzen dugu. Haurren beste erabaki-gune bat sortu nahi dugu orain. Lan egiteko modu honek eta Udal antolaketa honek sare bat sortzen dute eta zeharkakotasunez lantzeko aukera ematen digute, teknikariak 15 egunean behin elkartzen garelako. Hainbat aliantza sortzen dira gauzak aurrera eramateko, eta horrek ere ditugun baliabideak hobeto erabiltzeko aukera ematen digu.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Haur eta nerabeei eragiten dieten gai eta eremuetan ezin ditugu erabakiak hartu beraien parte hartzea kontuan hartu gabe. Bestalde, prestakuntzak duen garrantziaz jabetu gara. Inguruan ditugun hezitzaileak prestatuta egotea ezinbestekoa da egunerokoan sortuko zaizkien kezkei eta gainerakoei erantzuna emateko gaitasuna izan dezaten.

Zer hobetuko zenuke?

Alde batetik, haurren parte hartzea erabat txertatzea Planaren barruan. Bestalde, nolabait sistematizatu nahi dugu egiten ari garen lan guztia. Ebaluazio iraunkor bat egiten saiatzen gara, baina egunerokoak gainditzen gaitu. Horretaz gain, lan egiteko modu honek herrian duen eragina neurtu nahi dugu.

Komunikazioa ere hobetu beharreko kontua da. Gauza asko egiten dira, baina horiek komunikatzea kostatzen zaigu. Egiten den lan hori balioan jartzea da lortu beharreko gauza bat. Haurren eta nerabeen organo bana sortu nahi dugu, izan ere, haur eta nerabeak hazi egiten dira. Organo horiek iraunkorrak izango dira.

URNIETA

AZALERA: 23 km² | **BIZTANLEAK:** 6.169 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (7) EH Bildu (4) PSE-EE (2)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

MIKEL PAGOLA (Alkatea)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA

DEBA BEHEA

DEBA GARAIA

DONOSTIALDEA

Donostia
Hernani
Oiartzun
Pasaia
Urnieta

GOIERRI

TOLOSALDEA

UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

PARTE HARTUZ

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 961 (526 emakumezko, 435 gizonezko)

GAIA:
PROIEKTUAK LEHENESTEA



Urnietako Udalak datozen urteotan udalerrian garatuko diren proiektu gehienak auzokideekin partekatzeko beharraz jabeturik, partaidetza-prozesu bat jarri zuen abian. 2015eko abenduan prozesuaren oinarriak ezarri ondoren, 2016eko urtarriletik aurrera, pauso desberdinak eman ziren.

- 2016ko urtarrilean, prozesua eta erabiliko zen metodologia aurkeztu ziren.
- Otsailean zehar herritarren ekarpenak eta proiektu-proposamenak jaso ziren. Proposamen horiek udal teknikarien esku jarri ziren bideragarritasun teknikoa aztertu zezaten.
- Martxoan, partaidetza-fasean auzokideen balorazioa jasoko zuten proiektuak aurkeztu ziren.
- Azkenik, partaidetza-prozesuan mahai gainean jarritako proiektuei lotutako informazioa azaltzeko, etxe guztietara informazio-txosten bat helarazi zen.

Partaidetza prozesuaren azken pauso hura, apirilaren 22tik maiatzaren 9ra gauzatu zen eta horretarako honako bide hauek erabili ziren:

1. Online inkesta: udal webgunean apirilaren 22tik maiatzaren 9ra erabilgarri egon zen.
2. Informazio-karpak: apirilaren 22an, 25ean eta 26an udalerriko hainbat tokitan.
3. Udalerrian zehar kokatutako postontziak, kalean bertan zein udal-bulegoetan, herritarrek apirilaren 22tik maiatzaren 9ra bitartean prozesuan parte hartu zezaten

Gainera, udal webgunean eskuragarri jarri zen proiektuen inguruko informazioa, baita partaidetza prozesua zein puntutan zegoen jakiteko informazioa ere.

Bozkatzeko aukeratutako prozedura, mahai gainean jarri ziren 11 proiektuen lehenespen taula betetzea izan zen. Herritarrek proiektua taulan kokatu eta horren arabera puntu jakin batzuk eskuratzen zituen.



Parte hartze emaitzak

Prozesuan 1411 galdera sorta jaso ziren, nahiz eta beharrezko datuak balioztatu eta egiaztatu ostean, azkenean 1326 galdera sorta izan ziren baliagarriak. Horietatik, 148 online aplikazioaren bidez jaso ziren, 288 informazio karpetan aurrez aurre jaso ziren eta 890 udalerriko hainbat lekutan kokatutako postontzietan bildu ziren.

Partaidetza datuak ikusita, benetan prozesu arrakastatsua izan zela esan daiteke, 16 urtez gorako Urnietako biztanleen %26ak parte hartu baitzuen.

Lehenetsitako proiektuak

Arestian azaldutako bozkatzeko sistema honen bidez, puntuaziorik altuena lortu zuen proiektua, kiroldegiaren eraberritzea izan zen: 39.962 puntu guztira. Bigarren postuan, Eteneta-San Juan igogailuaren proiektuak 39.885 puntu lortu zituen eta 31.663 punturekin Aranzubi kaleko mugikortasun proiektua geratu zen hirugarren.



Auzokideek, proiektuak lehenesteaz gain, proposatutako proiektuen inguruan ekarpen irekiak egiteko aukera izan zuten. Aipu gehien kiroldegiaren inguruan egin ziren, baina irisgarritasunaren inguruan, auzoen inguruan eta beste zenbait gairen inguruan ere jaso ziren ekarpenak. •

ELKARRIZKETA



MIKEL PAGOLA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Anitza, sakona, gogorra eta aberasgarria. Urrats handia da parte hartze ekintza sakabanatuak sistematizatzea. Horrelako dinamikek pistak ematen dizkigute eta lan ugari erraztu dizkigute. Adibidez, herritarrek erakutsi digute ez diegula itxaron behar, hau da; ahalik eta erraztasun gehien jarri behar dizkiegu, puntu bakar bat eskaini beharrean auzoz-auzo joan behar gara. Parte hartze prozesua martxan dagoen bitartean herriko 10 auzotan buzoiak jartzen ditugu eta, horrela, herritarrek badakite buzoi horiek kalean dauden bitartean Udala zerbait galdetzen ari dela. Prozesua oso aberasgarria da guretzat.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Helburua izan da, batez ere, herri guztiari eragin diezaioken zerbait zela kontuan izanda, erantzunkidetasun puntu bat bilatzea kudeatzaile publikoen eta herritarren artean. Hain zuzen ere, gestore publikoek hartu genitzakeen erabakiak izan zitezkeen, baina beharra sentitzen genuen herriarekin kontrastatzeko eta herriari aukera hori emateko. Beraz, helburua zen etorkizuneko Urnieta diseinatzeko garaian, azpiegitura garrantzitsu batzuk egiteko garaian, erabakia Udalak bakarrik hartu ordez herritarrekin batera erabaki horiek bideratzea.

Zein metodologia erabili duzue?

Ibatuz enpresarekin egin dugu lan, beraiek adierazi ziguten hasieratik fasez fase nola egin prozesua. Hasieran, prozesuaren inguruko erabakiak hartu eta helburuak definitu genituen eta herritarrei helburu horiek komunikatu genizkien. Jarrain, gobernu taldeak aurrez-aurre aurkeztu zien herritarrei prozesua hainbat saiotan. Aurkezpenetan, gobernu taldeak aurretik landutako proposamenak azaldu zituen, Udaleko talde politiko desberdinekin landutakoak, alegia. Beraz, proposamenak teknikoki eta politikoki landu ziren herritarrei aurkeztu aurretik. Gero, herritarrek euren proposamenak aurkezteko aukera izan zuten. Herritarrek aurkeztutako proposamenak Udaleko hirigintza teknikariek aztertu zituzten aurretik erabakitako irizpideen baitan txosten bat osatuz baliagarriak zirenak eta ez zirenak identifikatuta. Txosten horren berri herritarrei eman zitzaien, proposamenen behin betiko zerrendak osatu ziren eta, horrekin batera, bozka sistema aurkeztu zitzaien herritarrei. 11 proposamen pasa ziren

behin betiko bozkara eta herritarrei horien guztien gaineko informazioa emateko panel batzuk osatu ziren, guztietan irizpide berdinak jarraituta. Ahozko aurkezpenak egin ziren, erakusketa egin zen kultur-etxean eta bideo bana egin zen proiektu bakoitzarekin. Komunikazioa asko landu nahi izan genuen oso garrantzitsua baita. Lortutako emaitza positiboa izan zen, izan ere, 1.400 herritar inguruk (zentsoaren %28ak) puntuatu zituzten proposamenak.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Hasieran kosta egin zitzaigun jendeak ulertaraztea zergatik hauteskundeak pasa eta 6 hilabetera berriro ere hasi ginen horrelako galdetegi batzuk egiten. Baina, gerora egindako hitzaldietan, proposamenak egiteko garaian eta emaitzetan herritarren aldetik, gutxienez batzuen aldetik, parte hartzea ona izan da.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Ikusi dugu herritarrei azalpenak ongi emanez gero beraien aldetik jarri beharrekoa jartzeko prest daudela, hori bai, ezin dira parte hartze prozesuak erabaki guztiak hartzeko abiarazi, bestela indarra eta zentzua galtzen dute. Gainera, dagoeneko administrazio prozesuak motelak badira, horrelako gradu batera iritsita kudeaketa ikaragarri zailduko litzateke. Beraz, atera dezakegun ondorio garrantzitsuena hau da: herritarrei aukerak, informazioa eta erraztasunak ematen badira parte hartzeko jarrera hartzen dute.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Ikasi dugu beldurra galdu behar dugula. Izan genitzakeen zalantzak alde batera utzi behar ditugu horrelako parte hartze kontuetan murgildu aurretik. Jendeak parte hartzeko gogoa du, baina gizarte parte-hartzailea gehiago dago oraindik marko teorikoan praktikoan baino. Parte hartu nahi da, baina oraindik ez dakigu parte hartzen, ez dago horretarako kultura. Baina, garbi dugu parte hartze kultura sustatzeko parte hartzea errazten duten prozesuak abiarazi behar direla. Prozesu horiekin pixkanaka-pixkanaka ikasiko dugu eta geroz eta hobeto egingo ditugu parte hartze prozesuak.


Bestalde, ikasi dugu parte hartze prozesu guztiek ez dutela herritar guztiei zuzenduta egon behar. Egon daitezke parte hartze prozesu sektorialak, eta horiek ere egin behar dira.

Zer hobetuko zenukete?

Oso konstanteak izan behar dugu. Jendeak informazioa jasotzen du, baina ez du bereganatzen. Ez du balio behin informazio bat plazaratzea, baizik eta atzetik bideoak, diptikoak eta gauza gehiago egin behar dira jendearengana iristeko.

GOIERRI

Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legazpi, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zerain eta Zumarraga.





HERRIAK

22

BIZTANLEAK

67.855 (gipuzkoarren %9,56)

AZALERA

340,5 km^2 (Gipuzkoaren %17,18)



ETORKIZUNA ERAIKIZ

Gipuzkoako probintziaren hego-ekialdean dago; 340,5 km²-ko lur eremua hartzen du, Urola eta Oria ibaien ur goien eta erdibidean. Iparraldean Urola-Kostaldeko eskualdea du muga; ipar-ekialdean, Tolosaldea; mendebalean, Deba Garaia; eta hegoaldean, Araba eta Nafarroa. Urola eta Oria ibaiek jasotzen dituzte eskualdeko urak.

Beasaingo, Ordiziako eta Lazkaoko herriguneek izan duten zabalkundearen indarrez, hiru udal barruti horiek elkartu egin direla esan daiteke, eta eskualdearen buru egiten duen konurbazioa sortu. Bere eraginpean bizi dira Olaberria, Arama, Ormaiztegi, Mutiloa, Zerain, Zegama, Segura, Idiazabal, Ataun, Zaldibia, Gaintza, Altzaga eta Itsasondo. Zumarraga eta Urretxu ia elkartu daudenez, halako konurbazio txiki bat sortu dute; esan daiteke eskualdeko bigarren burua dela hori, eta bere eraginpean bizi direla Legazpi, Gabiria eta Ezkio-Itsaso.

Komunikabideetan, eskualdeko bizkar hezurra N-I (Madril-Irun) errepidea da; Nafarroa nahiz Alaba aldera lotzeko bidea da, Arsuaran haranean zehar. Beasaindik GI-120 errepidea abiatzen da, Nafarroarekiko lotura egiteko. Zumarraga eta Deba Garaiarekiko lotura GI-632 errepidearen bitartez egiten da. Zumarragatik Urola-Kostaldera jotzeko GI-631 errepidea erabil daiteke, eta Legazpi edo Deba Garaira jotzeko, berriz, GI-2630 errepidea. Trenbideak ere garrantzi handia izan du eskualdearen bizitza eta egitura sendotzeko, Oriako haranetik sartzen da Gipuzkoara trenbidea, Urolan barrena Urretxu eta Zumarragara heltzen da, eta handik ostera Oria aldera jotzen du, Irungo bidean Beasain eta Ordizia zeharkatuz. Abiadura handiko trenak Goierri E-W norabidean zeharkatuko du, gutxi gora-behera gaur egungo bidean Urretxuraino; handik Antzuola eta Elorriora joko du, Gasteizetik eta Bilbotik datozen adarrekin elkar lotzeko. Ezkio-Itsason bazterbide bat egiteko asmoa dago.

Goierriko ekonomia, batez ere, metalgintzarekin lotutako industriaren gainean dago antolatua. Lantegi handiak kokatzen dira bertan eta horien inguruan enpresa txikiagoak sortu dira.

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

ALTZAGA

AZALERA: 2,53 km² | **BIZTANLEAK:** 173 | **UDALBATZAREN OSAERA:** AAT (5)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

BELEN MENDIZABAL (Idazkaria)

ALTZAGAKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 17 (3 emakumezko, 14 gizonezko)

GAIA:
AGENDA 21

Altzagan Agenda 21eko lehen pausoak 2004. urtean eman ziren Ekintza Plan bat onartuta. Lehen plangintza onartu zenetik hainbat urte igaro zirela-eta Altzagako Udalak Ekintza Planaren berrikuspena egiteko parte hartze prozesua abiatu zuen 2016an. Plan berri honi izaera estrategikoa eman nahi izan zitzaion, izan ere, herriaren garapenerako beharrezkotzat jotzen diren helburu estrategikoak eta iraunkortasun irizpideak uztartzen ditu. Horretarako abiatutako prozesuak fase ugari izan zituen.

FASEAK

1. **Prozesuaren prestaketa eta plangintza:** prozesua martxan jartzeko beharrezko lanak egitea; prozesuaren oinarriak zehaztuz eta ikuspegia eta lehentasunak adostuz.
2. **Diagnosi fasea:** Ingurumen, ekonomia eta gizarte egoeraren diagnosia osatzea II. Ekintza Planaren lehentasunezko esku-hartzeak erabakitzeko.
3. **Barne nahiz kanpo partaidetza:** Barne (udal arduradun politikoak), nahiz kanpo partaidetza (herritar, elkarte eta gizarte eragileak) bermatzeko mekanismoak martxan jartzea.
4. **Planaren diseinu fasea:** Diagnosiak lehentasunezkotzat jotako jarduera eremuak oinarri hartuta, II. Ekintza Planaren ikuspegia, xedeak nahiz helburu estrategikoak eta jarduera programa zehaztea.
5. **Jarraipen plana idaztea:** II. Ekintza Planaren jarraipena egiteko dokumentua osatzea. Dokumentu hori tresna baliagarria izango da Udalak II. Ekintza Planaren jarraipena egiteko, izan ere, Plana aurrera eramateko gidalerroak barneratuko ditu.

HELBURUAK

Prozesuaren helburu orokorra, Altzagako Tokiko Agenda 21aren II. Ekintza Plana diseinatzea izan da. Horretarako honako helburu zehatzak ezarri ziren:

- Altzagako Udaleko sail edo arlo desberdinen kudeaketa errazteko tresna garatzea.
- Udalak egiten dituen lanen inguruko informazioa zabaltzea herritarrei gerturatzeko.
- Udalerriaren garapen mailaren egoerari buruzko datuak jaso eta interpretatzea (iraunkortasunaren aspektu desberdinak kontuan edukita).
- Herrigintza jasangarria garatzeko irizpideak definitzea eta barneratzea.
- Udal kudeaketan herritarren parte hartzea txertatzeko beste esperientzia aberasgarri bat garatzea.

Prozesua ongi bideratzeko eta aurrez aipaturiko helburuak betetzeko nahitaezkotzat jo zen beharrezko informazioa eskuragarri izatea eta gardentasunez jokatzea.

PARTE HARTZE PROZESUA

Ekintza Planaren berrikuspen prozesutik eratorritako dokumentuak 10 bat urterako udal egitasmoak bildu eta herriaren etorkizuna definituko zituenez, ezinbestekotzat jo zen udal eta herri eragileek prozesuan parte hartzea. Horretarako, herri eragileak prozesura erakartzeaz gain, udal esparruetako arduradunen inplikazioa bilatu zen. Besteak beste, Altzagako arduradun politikoen parte hartzea bilatu zen antolatu ziren saioetan. Era horretan, Udalaren eta herritarren arteko lotura bermatu eta udal egitasmoen inguruko azalpenak modu zuzenagoan eman ziren.

Horrela, Altzagako Udalak herritarren parte hartzearen inguruan egin nahi zuen bidea kontuan hartuz eta Agenda 21eko prozesuen filosofiarekin bat etorriz, Ekintza Planaren berrikuspenerako lanen fase desberdinetan parte hartzeko bide desberdinak erabili ziren, nahiz eta bilerak izan ziren lanerako baliabide erabiliena.

BARNE PARTAIDETZA

1. KOORDINAZIO BILERAK

1. koordinazio bilera: Prozesua hasieratik behar bezala koordinatu eta udal barnean ahalik eta adostasun zabalena lortu asmoz, barne partaidetzarako organoa (Talde Eragilea) osatu zen. Horrela, 2016ko irailean bilera bat antolatu zen eta, horretan, prozesuaren plangintza adostu zuten.

2. koordinazio bilera: Altzagako iraunkortasunaren inguruko diagnosiaren azken bertsioaren idazketa egin ondoren, ordura arte egindakoaren balorazioa egin zen eta, horrekin batera, Ekintza Plana diseinatzeko parte hartze prozesuaren antolaketa adostu zen.

3. koordinazio bilera: hirugarren bilera honetan, prozesu osoaren balorazioa egiteaz gain, udal teknikariarekin batera Ekintza Planari lotutako jarraipen planaren kudeaketa zehaztu zen. Hau da, behin Ekintza Plana onartuta, Udalak etorkizunera begira aurrera eraman beharrekoak zehaztu ziren Plana beteko zela ziurtatzeko.

2. TALDE ERAGILEA

Talde eragilearen lehen bilera 2016ko urriaren 24an antolatu zen prozesuaren plangintza adosteko eta hurrengo pausoak zehazteko. Organo honek prozesuaren pauso bakoitzaren gidaritza izan zuen eta udal sailen, udalaz gaindiko erakunde publikoen, nahiz herritarren partaidetzarako mekanismoen arteko koordinazioa eta zubi-lana egitea egokitu zitzaion. Talde Eragileak 4 bilera antolatzea aurreikusi zuen.

1. bilera: prozesuaren plangintza adosteko eta hurrengo pausoak zehazteko.

2. bilera: diagnosiaren ondorioak aurkezteko eta eman beharreko hurrengo pausoak zehazteko.

3. bilera: Agenda 21eko lan taldeek Plana landu eta herritarren ekarpenak jaso ondoren, II. Tokiko Ekintza Planaren zirriborroa aurkeztu eta ekarpen gehigarriak egiteko.

4. bilera: aholkularitza taldeak prestatutako II. Tokiko Ekintza Planaren jarraipen plana aurkeztu eta, bide batez, prozesu osoaren balorazio orokorra egiteko.

3. TEKNIKARIEI ZUZENDUTAKO GALDETEGIAK:

Diagnosiaren zirriborroa osatzeko banakako galdetegiak prestatu ziren diagnosian identifikatutako irizpideen ardura teknikoa zuten udal edo eskualde mailako langileek erantzun zitzaten. Elkarrizketa horiek, teknikariei korreo elektroniko bidez bidali zitzaizkien galdetegiak erantzunez gauzatu ziren.

KANPO PARTAIDETZA

1. ELKARRIZKETAK

Herritarrei elkarrizketak egin zitzaizkien diagnosiaren aspektu kualitatiboa osatzeko, prozesuan eragile desberdinen inplikazioa bilatzeko eta II. Ekintza Plana garatzerakoan ildo estrategikoen definizioa errazteko.

Elkarrizketa horiek hiru biztanleria segmentu desberdinei zuzendu zitzaizkien: GURASO, GAZTE ETA BASERRITARRAK. Elkarrizketak presentzialak izan ziren eta 3-5 laguneko taldetan banatuta egin ziren. Elkarrizketak informalak izan baziren ere gidoi bat jarraitu zuten. Gidoia iraunkortasunarekin lotura zuten gaiak jorratzeko lagungarria izan zen eta betiere zegokion biztanleria segmentuari egokitu zitzaion saioan zehar.

Guztira, beraz, 3 elkarrizketa saio antolatu ziren:

GURASOAK (2016ko abenduak 16an): 5 gurasok parte hartu zuten 2 orduko elkarrizketa saioan.

GAZTEAK (2017ko otsailak 4an): Zaila izan zen gazteak elkartzea. Azkenean 2 gaztek parte hartu zuten ordu eta erdiko saioan.

BASERRITARRAK (2017ko otsailak 22an): Herriko 3 baserritarrek parte hartu zuten 2 orduko saioan (guztira 5 dira jarduna lehen sektorean dutenak).

Bide batez, elkarrizketara bertaratu ziren herritar eta elkarteei herri-batzarrean parte hartzeko gonbita luzatu zitzaien eta, horrela, horietako bizpahiru partaideren konpromisoa lortu zen.

2. HERRI-BATZARRAK

Prozesuan zehar 3 herri-batzar edo bilera antolatzea aurreikusi zen.

Lehenengo herri bileran diagnosia aurkeztu eta gaikako taldeetan herriaren egoeraren pertzepzioaren lanketa egin zen, horrela, guztien artean Altzagako argazkia irudikatuz. Bigarren bilera Ekintza Planaren formulazio estrategikoa lantzera bideratu zen, horretarako, gaikako taldetxoak eginda. Azkenik, hirugarren bileran, berriz, lehentasunezko ekintzak aukeratu ziren eta hurrengo urterako jardueren zerrenda adostu zen. •

ELKARRIZKETA



BELEN MENDIZABAL
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Idazkaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Agenda 21 barruan aurretik egina zegoen plana berritzeko proiektua izan da.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Herritarren ekarpenekin Agenda 21aren Ekintza Plana berritzea, horrela, herriko beharrei erantzuna emateko. Bestalde, herritarren parte hartzea bultzatu nahi zen.

Zein metodologia erabili duzue?

Laia enpresa arduratu zen prozesuaren gidaritzaz. Barne zein kanpo mailan bilerak egin ziren prozesua koordinatzeko eta proiektua aurrera eramateko. Eskualdeko teknikari batzuei galdetegi batzuk pasa zitzaizkien informazioa eskuratzeko eta herritar ugariri ere elkarrizketak egin zitzaizkien. Gainera, 3 herri-batzar ere antolatu ziren prozesuaren berri emateaz gain erabakiak hartzeko.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Badira herritar batzuk herriko ekintzetan beti parte hartzen dutenak, baina hortik aurrera ez da gehiegiko partaidetzarik izaten. Baina, prozesu honetan, partaideek gogoz egin zuten lan.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Parte-hartzaile guztien artean adostutako plana bete egingo dela eta jarraipena emango zaiola.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Udaletxetik herritarren parte hartze handiagoa lortu nahi da eta hori bultzatu beharra ikusi da. Espero da prozesu hau hein batean abiapuntu izatea, parte hartze handirik ez delako lortzen.

Zer hobetuko zenukete?

Udalak bilkurak maizago egitea bultzatu behar da herritarrek parte hartzen jarraitzeko eta pixkanaka herritarrengandik gertuago egoteko. Egiten diren udal bilkurak irekiak izatea nahi da. Badira herritar batzuk parte hartzen dutenak, baina oso gutxi dira.

ARAMA

AZALERA: 1,33 km² | **BIZTANLEAK:** 210 | **UDALBATZAREN OSAERA:** AHB (3) AH (2)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

BELEN MENDIZABAL (Idazkaria)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

ARAMAN HERRITARREN PARTAIDETZA SUSTATZEKO PROIEKTUA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 24 (17 emakumezko, 7 gizonezko)

GAIA:
HIRIGINTZA



Aramako Udalak parte hartze prozesu hau abiatu zuen bi gairen inguruan erabakiak hartzeko. Bata, Udaletxe zaharra eta frontoiaren aurrean dauden plazen arteko eustormari egin beharreko hobekuntzen inguruan eta bestea, Aramako Plan Orokorrak aurreikusten zuen etxebizitza eremu berriaren garapenaren inguruan.

Eustormaren inguruko prozesua

Udaletxe zaharra eta frontoiaren aurrean dauden plazen arteko eustormari egin beharreko hobekuntzen kasuan; lehenik eta behin, araudiari buruzko informazio bilketa, egoeraren azterketa eta indarrean zeuden segurtasun arauen aplikazio mailaren azterketa egin zen. Agente ugarirekin elkarrizketak egin eta herri batzarrean informazioa azaldu zen. Bigarren herri batzar batean eustormari zer nolako babes elementua jar zitzaiokeen aztertu zen, aukera desberdinak planteatu ziren eta, azkenik, herritarrek irtenbide egokiena zein zen erabaki zuten teknikarien laguntzarekin. Horrela, eustormaren gainean metalezko babes elementua jartzea erabaki zen. Eustormaren segurtasun baldintzak bermatzearekin batera, garrantzia handia eman zitzaion estetikari. Horrela, egokitze lana zati batean bakarrik egitea erabaki zen, hau da, arriskua handiena zen zatian. Gazteak teilatura joandako pilotak hartzeko frontoitik gertuen geratzen zen zatian eustormara igo eta bertatik teilatura salto egiten zuten. Eta bestalde, frontoiak barruko aldean duen argien mantenurako pasabidera ere eustormaren zati horretatik pasatzen zen jendea. Arazoa batez ere puntu horretan zegoela uste zenez segurtasun hobekuntzak zati horretan egitea erabaki zen. Bertan, igarobidea oztopatzen zuen elementua jarri zen. Azkenik, babes elementuaren diseinua ere erabaki zen eta, horrela, metalezko babes elementua jartzea

erabaki zen. Elementu hori haur eskolaren eremua mugatzen duen itxituraren antzekoa da eta teilatuaren malda berdina du.

Jarritako babes elementuari esker arriskua ekiditea lortu zen eta baita estetikoki era egokian integratzea ere.





Plan Orokorraren garapenaren inguruko prozesua



Aramako Plan Orokorrak aurreikusten zuen etxebizitza eremu berriaren inguruan parte hartze prozesua burutzea planteatu zuen Udalak. Hasieran, egoerari eta aurreikuspenei buruzko informazio bilketa egin zen eta, hori zela eta, aurretik egindako esperientziak eta etxebizitza tipologia desberdinak aztertu ziren.

Herri batzarrean herritarrekin landu zen gaia eta herritarren etxebizitza inguruko beharrak ezagutu ziren. Ondoren, etxebizitza eremu berriak beteko zituen helburuak eta jarraituko zituen irizpideak finkatu ziren. Etxebizitzen tipologiak eta ordenantzak ere landu ziren bigarren batzar batean. Azkenik, bi familiatako eraikin posible bat eta bloke tipologiako beste eraikin posible bat definitu ziren. Horrela, herritarren etxebizitza beharrak kontuan izan zituen antolaketa definitzea lortu zen.

Beste aukeren gainetik bi familiatako etxebizitzak eraikitzea aurreikusi zen, baina aukera desberdinak eskaintzeko, bi etxebizitza bloke ere planteatu ziren. Bi familiatako eraikuntzen kasuan, autoen aparkalekuak sotoan edo eraikuntzaren aldameneko partzela pribatuan izan zitezkeela erabaki zen. Eremu berriaren antolaketa nolakoa izango zen ere adostu zen parte hartze prozesu honen bitartez; etxebizitza blokeak herriaren behealdean kokatuko ziren eta eraikin txikiagoak, berriz, mendi aldera.

Dena den, aukeratu zen bloke tipologiaren neurriak Plan Orokorraren dokumentuak orientagarritzat ezarritakoak baino askoz ere txikiagoak ziren eta, beraz, ezin ziren bi familiatako eraikuntzak baino askoz handiagoak izan.

Prozesu honen bidez, herritarren beharrak aztertuta behar horiek asebeteko zituzten etxebizitza motak aurreikusi ziren eta herriaren baitan ahalik eta egokien txertatuko zen antolaketa berria adostea lortu zen. •



BELEN MENDIZABAL
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Idazkaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Urte asko dira Araman parte hartze prozesuak egiten direla eta 2016an bi prozesu desberdin egin ziren. Alde batetik, etxebizitzen premia zegoen herrian eta Udalak horien eraikuntzarako herritarren hitza entzun nahi zuen. Bestalde, frontoiaren inguruan arrisku egoera antzeman zen eta herritarren ekarpenetatik erabakiak hartzeko egin zen parte hartze prozesu hori.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Herritarren behar eta premietan oinarrituta etxebizitza berriak eraikitzeko eta frontoian zegoen arrisku egoera bat hobetzeko Udalak hartu behar zituen erabakiei aramarren babesa ematea.

Zein metodologia erabili duzue?

Etxebizitza guztietara gutun bat bidali zen bilera batera deialdia zabalduz. Bilkurak egin ziren herritarrei galdetzeko, alde batetik, nortzuk zuten etxebizitzaren premia eta zein behar zituzten eta, bestetik, frontoiaren kasuan, segurtasuna bermatzeko zein neurri hartu behar ziren. Arkitektoak gidatu zituen prozesuak eta AMIA egin zen herritar guztien artean, gerora, horretan oinarritutako erabakiak hartzeko. Horrela, jendearen ikuspuntuak kontuan hartuta, eta arkitektoaren gidaritzarekin, hartu beharreko erabakiak hartu ziren.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Herritar bakoitzak interesatzen zaion gaian parte hartzen du. Partaide horiek ekarpenak egiten dituzte, baina, halere, parte hartze maila handiagoa lortu nahi da Udaletik prozesuak aberatsagoak izan daitezen.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Parte hartze prozesuak egin behar direla, nahiz eta herritar gutxik parte hartu. Arama herri txikia da eta biztanle gutxi ditu. Horrek herritarren inplikazio handiagoa eskatzen du parte hartze prozesuetan herritar gehienen iritzia kontuan har dadin.

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Batez ere, Udalak parte hartze prozesuak bultzatu behar dituela. Udalak ez baditu horrelako ekimenak sustatzen herritar bakoitzak bere aldetik joko du eta, horrela, ez da herri kontzientzia garatzen, herri txikietan oso beharrezkoa dena.

Zer hobetuko zenukete?

Beste era batera planteatu behar da parte hartzea herritarren aldetik harrera hobea izan dezan. Urtean zehar beste parte hartze ekimen batzuk izaten dira, adibidez; festak direla eta. Horietan parte hartzea zabalagoa izaten da beste aspektu bat dutelako. Udalak guztiak bultzatu behar ditu parte hartze maila parekoa izan dezaten.

BEASAIN

AZALERA: 29,9 km² | **BIZTANLEAK:** 13.863 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (9) EH Bildu (6) PSE-EE (2)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

ELIXABETE MANTEROLA (Teknikaria)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

EUSKARA ETA GENEROA UZTARTUZ, KIROL ARLOKO DIAGNOSI KUALITATIBOA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 105 (85 emakumezko, 20 gizonezko)

GAIA:
BERDINTASUNA-EUSKARA-KIROLA





Beasaingo Udalak 2016an gauzatutako proiektu honen helburu nagusia Beasainen euskara eta generoa uztartuz, kirol arloko diagnosi kualitatiboa burutzea zen. Lan hori egiteko parte hartze prozesua abiarazi zuen.

Proiektu honek, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan zein euskara arloan aurretik Udalak antzemandako gabeziak baieztatzeko eta beste hainbat behar antzemateko balio izan zuen. Kasu batzuetan hobekuntzak nola egin zehaztu zen eta, beste batzuetan, aldiz, Udalak zituen tresnen erabilera hobea egiteko beharra sumatu zen, esaterako; kirol elkarteekin zituen hitzarmenetan aipatutako bi zehar lerro horietan ezarritako neurriak betetzen zirela ziurtatzea.

Beasaingo kirol arloan euskararen erabilera eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko hainbat aspektu hobetzeko beharra antzeman da. Behar horiek hiru arlotan identifikatu dira: partaidetzako kirolean, errendimenduko kirolean eta eskola kirolean.

ATZEMANDAKO BEHARRAK

Partaidetzako kirolean

- Adinekoen kirol jarduera sustatzeko arrail digitala kontuan hartzea.
- Kiroldegiko jardueretan hizkuntza eskubideak bermatzea.
- Kiroldegiko instalazioetan hobekuntzak: saunaren erabilera, zerbitzu osagarriak (armairuak, lur irristakorrak, etab.).
- Argiztapena eta irisgarritasun aldetik hainbat espazio urbano eta natural egokitzea.

Errendimenduko kirolean

- Kirol elkarteek emakumeen partaidetza sustatzea.
- Udalak elkarteekin dituen hitzarmenetan azaltzen diren berdintasun inguruko baldintzak betetzea, baliabideen banaketa berdintasun irizpideen arabera egiteko eta komunikazio ez sexista bermatzeko.
- Kirol elkarteek euskara sustatu dezaten neurri zehatzak ezartzea (diru-laguntzen bitartez), pixkanaka aurrera pausoak emanez Udalarekin konpromisoak hartuz.
- Herrian emakume kirolarien ereduak ezagutaraztea.

Eskola kirolean

- Nesken partaidetza sustatzea estereotipoak apurtuz eta ereduak sustatuz.
- Udalak eskola kiroleko kudeaketarako berdintasun arloan ezarritako baldintzak betetzen direla bermatzea.
- Begiraleen euskara maila eta euskararekiko konpromisoa sustatzea, diru-laguntzen bidez eta eragile aliatuen bitartez.

Prozesu honen bitartez kirol arloan euskara eta berdintasuna sustatze aldera zeuden oztopoak identifikatzea, idatziz jasotzea eta egoera hobetzeko norabidea zehaztea lortu zen. Helburua, euskara eta berdintasuna uztartuz, kirol arloko diagnosia egitea zen eta helburua bete zela esan daiteke, nahiz eta agente ezberdinen inplikazio maila handiagoa lortu izan balitz eragin handiagoa ere lortu zitekeen. Genero ikuspegitik lan egiteko eta, batez ere, euskara eta berdintasuna bezalako gaiak lantzeko metodologia kualitatiboak ezinbestekoak dira, izan ere, sentsibilizazioa eta konpromisoa eskatzen duten gaiak dira. Baina, inplikazioa, energia, lana eta denbora eskatzen zuten gaiak ziren eta parte hartu zuen sektore bakoitzak parte hartze maila desberdina izan zuen.

Zailtasunak zailtasun, 100 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten prozesuan. Bide batez, prozesuak berak ere sentsibilizaziorako eta hainbat eragileen konpromisoa eta hobetze nahia agerian jartzeko balio izan zuen. Lortutako emaitzek norabidea zehaztu zuten eta nahikoa zehatzak ziren kirol arloan berdintasuna eta euskara sustatzeko neurriak abian jartzeko, hots, politika diseinatu eta ezartzeko.

Teknika kualitatiboak aplikatzeko eta zeharkako politikak egiteko, aldez aurretik eragile guztien arteko (politikari, tekniko, bestelakoak) adostasunak lortzeak eta horien beharrak antzemateak duen garrantzia ikustarazteko ere balio izan zuen prozesu honek. •

ELKARRIZKETA



ELIXABETE MANTEROLA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Teknikaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Ilusioz planteatutako egitasmoa izan da, baita berritzailea ere, izan ere, aurretik ez da antzeko proiekturik egin.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Proiektu honen helburu nagusia Beasainen euskara eta generoa uztartuz, partaidetza prozesu baten bitartez, kirol arloko diagnosi kualitatiboa burutzea izan da.

Zein metodologia erabili duzue?

Proiektu hau burutzeko, batik bat, metodologia kualitatiboa aplikatu da, hau da; informazioa jasotzeko estrategia nagusiak elkarrizketak eta talde dinamikak izan dira. Halaber, jasotako datuak osatu asmoz hainbat datu kuantitatibo landu dira eta galdeketa erdi egituratuak burutu dira. Gainera, kasu batzuetan bilerak Whatsapp bidez ere egin izan dira.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Oso beharrezkotzat baloratu dute, nahiz eta aldaketak ez diren errazak izan. Jendea biltzeko zailtasunak izan ditugu.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Garrantzitsua bezain zaila izan da parte-hartzaileei ikusaraztea, gure prozesuan behinik-behin, hausnarketan lagungarri izateko zela, hau da; bertan hitz egindakoa ez zegoela zertan gauzatu. Lehenengo prozesuak hausnarketa sakonago baterako balio izan zigun, eta egindako lan horrek ondorioak ulergarriak eta partekatuak izaten lagunduko digu.

Gazteekin zaila denez bilerak antolatzea Whatsapp bezalako tresna bat erabiltzea oso lagungarri da. Tresna oso dinamikoa eta azkarra da. Guztiak bertan daude, denek irakurtzen dituzte bertan jarritako mezuak eta, eroso sentitzen direlako, iritzia emateko erraztasuna dute.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Parte hartzean, askotan, erabakian baino bidean dago interesa. Bestalde, gazteekin askoz errazagoa da parte hartzea eguneroko dinamikatik atera behar ez badute.

Zer hobetuko zenukete?

Bilerek aurrera egin ahala parte-hartzaile kopuruari eustea. Halere, oso gustura gaude egin dugun bidearekin.

ITSASONDO

AZALERA: 8,94 km² | **BIZTANLEAK:** 657 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (5) EAJ-PNV (2)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

BELEN MENDIZABAL (Idazkaria)

ITSASONDO, HAURREN HERRIA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 36


GAIA:
HAURRAK-NERABEAK-GAZTEAK

Goierriko herri txiki honetako Udala haurrek eta nerabeek duten garrantziaz jabeturik haiei eragiten dieten inguruko gaietan erabakiak hartzeko gizarte-talde horien parte hartzea lantzen dabil azken urteotan.

2016 hausnarketarako urtea izan zen, izan ere, gaia nondik jo jakin gabe zebiltzan. Beraz, geldiune bat egin zen, aurretik egindako lana sakonki aztertu eta hartu beharreko erabakiak bide zuzenetik hartzeko intentzioarekin. Baina, une oro argi izan zuten haur eta nerabeen parte hartzea sustatzea ezinbestekoa zela.

Parte hartze prozesuak, ordea, ez ziren bertan behera gelditu. Sei eta hamar urte bitarteko haurrekin otsailetik irailera bitartean lau bilera egin ziren eta horietan 2017rako parte hartzearen inguruko Ekintza Plana zehaztu zen. 10 eta 17 urte bitarteko nerabeekin ere egin zen lanketa, gaztelekuan ostiralero elkartuta. Gazteen kasuan aldiz, liburutegi zerbitzuaren inguruko ekarpenak jasotzeko saio bakar bat egin zen. Hausnarketarako urtea izan bazen ere parte hartze prozesuak antolatzen jarraitu zuten, erritmo motelagoan izan bazen ere.

2017ra begira, haurren kasuan, mugikortasunaren inguruko parte hartze saioak antolatzea erabaki zen. Nerabeen bileretatik, berriz, egitasmo txiki batzuk



zehaztu ziren: espazioaren antolaketa berria egitea, oporraldietako ekintzak antolatzeko saioak egitea, herriko festa batzordean parte hartzea eta liburutegi zerbitzuaren inguruan lanean jarraitzea. Gazteekin bilera bakarra egin bazen ere, horien interes eta beharrak ezagutzeko asmotan saioak antolatu ziren 2017rako, baita gurasoentzat ere. Hausnarketarako tarte horri esker aurrera pauso handia eman zen, izan ere, nerabe zerbitzuak ordura arte zuen aurrekontua bikoiztu zen. •

ELKARRIZKETA



BELEN MENDIZABAL
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Idazkaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Elkarte desberdinak, eskola, gazteak, haur eskola, Udala, jaiak antolatzen dituzten kultura taldeak… nahiko prozesu zabala da. 2016a urte desberdina izan zen hausnarketarako urtea izan baitzen. Halere, prozesu horri esker lortutako emaitzak interesgarriak eta baliagarriak izan ziren.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Herrian dauden elkarteen arteko parte hartzea sustatzea. Bestalde, talde horietan dauden gazteen beharrak ezagutu nahi ziren, herri nortasunaren kontzientzia hartzea lortu nahi zen eta elkarteei, nolabait, hitza eman nahi zitzaien.

Zein metodologia erabili duzue?

Prozesuaren arduradunak bilerak antolatu zituen haurrekin. Alde batetik, 6 eta 10 urte bitartekoekin eta, bestetik, 10 eta 17 bitartekoekin. Gazteekin ere elkartu zen. Adin-tarte bakoitzeko bileretan metodologia desberdina erabili zuen. Txikienekin jolasen bitartez lortzen da benetan dituzten beharrak ezagutzea. Nerabeekin jolasez aparte bilera formalagoak ere egiten dira eta gazteekin bilera bat egitea nahikoa izan zuen haien beharrak ezagutzeko.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Itsasondon parte hartzea ona izaten da. Gazteek ere parte hartu ohi dute. Gaztelekuan astero elkartu zen prozesua sustatzen ibili zen arduraduna. Haurrentzat ludoteka dago eta bertan ere prozesu aurrera eraman zen.

Zein ondorio atera dituzue parte-hartze prozesuari esker?

Itsasondon txertatuta dagoen zerbait da parte hartzea eta ondorio nagusia da zentzu horretan lanean jarraitu beharra dagoela. Ahalik eta herritar gehienen parte hartzea bilatzen da eta prozesua guztiei irekita dago.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Jendearen ekarpenak jasotzeko beti egon behar da prest, berdin du nork egiten duen proposamena. Prozesua irekia da eta edonork parte hartu dezake, beraz, guztien ideiak dira probetxuzkoak.

Zer hobetuko zenukete?

Beti dago zer hobetu, baina Itsasondon hain txertatuta dago parte hartze prozesua aldaketak planteatuz gero posible dela partaideen aldetik harrera desberdina izatea, eta orain oso ona da. Beraz, hobekuntzaren bat egin liteke, seguru, baina dagoen parte hartzea eta lortzen diren emaitzak horren positiboak dira ez dugula aldaketa esanguratsurik planteatzen.

LAZKAO

AZALERA: 11,4 km² | **BIZTANLEAK:** 5.426 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (7) EH Bildu (6)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:
FELIX URKOLA (Alkatea)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

GURUTZEKO BERRURBANIZATZEAREN DEFINIZIOA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 300

GAIA:
HIRIGINTZA

Lazkaoko Udalak, Gurutzeko berrurbanizatzearen inguruan herritarren ekarpenak eta iritziak jasotzeko, parte hartze prozesu bat abiatu zuen. "Gurutzeko Berrurbanizatzearen definizioan parte hartzea" lelopean Udaletik parte hartzea sustatuz eta landuz gauzatu zen proiektua. Hau, parte hartze eremuan Udal gobernuak 2015-2019 agintaldirako idatzitako Udal Kudeaketa Planean barneratuta zegoen ekimenetako bat zen.

Lazkaoko Udalak bere kudeaketan, eta gobernu ona indartzeko eta finkatzeko asmoarekin, arrazionalizazioa, sinplifikazioa, efikazia, eraginkortasuna, irisgarritasuna, gardentasuna eta herritarren inplikazioa parte hartze prozesuetan islatzeko borondatea du. Bide horretan, parte hartze prozesu hau pauso bat gehiago izan da.

Lehenik eta behin azpimarratu behar da parte hartze prozesua bera, helburu izan den proiektuak soziologikoki eta ekonomikoki duen dimentsioa kontuan harturik, erabakigarria izan dela proiekturen dimentsioari mugak ezartzerako orduan. Hasiera batean eta lehen zirriborro modura, herritarrei orokorrean eta auzokideei bereziki eginiko proposamenak jasotako erantzun positiboa eta egin ziren ekarpenak, esan bezala, erabakigarriak izan ziren eztabaida foroetan. Esaterako, lurpeko garajeak eraiki behar ziren edo ez eztabaidatzeko orduan baita hartutako azken erabakian ere.

Hori esanik, eta azken emaitza balioan jartzearekin batera, prozesuaren metodologiari dagokionez esan behar da helburu nagusia herritarrengana hurbiltzea, informatzea, beraien iritziak, ekarpenak eta ikuspegiak jasotzea eta ezagutzea, iritzi, ekarpen eta ikuspegi horiek aztertzea, eztabaidatzea eta ahalik eta prozesu parte-hartzaileena egitea izan dela ondoren behin betiko proiektua zehazteko.

Horretarako lehen urrats modura joko arauak ahalik eta argien azaldu ziren prozesuak desilusiorik sor ez zezan.

Nagusiki honakoa izan zen joko eremua:

- Erabakia Udaleko organo eskudunari dagokiola hasieratik argi utzi zen.
- Informazio guztia, une oro, edonorentzako eskuragarri egon zen.
- Edozein herritarrek fase ezberdinetako edozein unetan egin ahal izan zituen bere ekarpenak.
- Eztabaida guneak irekiak izan ziren eta parte hartzeko baldintza bakarra ohiko jarraipena egitea izan zen.
- Hartutako erabakiak ekarpenetan oinarritu ziren eta ekarpen guztiek jaso zuten erantzuna, aldekoa zein aurkakoa izan.
- Azken erabakia, helarazi zaie prozesuaren ondoren gauzatu den proiektua eta erabakien justifikazioa, herritar guztiei.

FASEAK

Informazio fasea

Lehenik eta behin eztabaida gaia izan zen proiektua aurkeztu zen. Nagusiki aldizkari modura etxe guztietara helarazi bazen ere, Udal web orrialdearen bidez, webari lotutako sare sozialen bidez (Facebook, Twitter...) eta aurrez aurre ere eman zen informazioa. Fase horretan proiektuaren aspektu teknikoak eta ezaugarri nagusienak azaldu ziren.

Prozesuaren fase horretan ekarpenak egin nahi zituen edonori eta prozesuan parte hartu nahi zuen orori, parte hartze hori nola eta zein bidetatik egin zezaketen azaldu zitzaien.

Bide horiek, hain zuzen ere, informazioa zabaltzeko erabilitako berberak izan ziren: etxeetan jasotako informazioak zeramatzan orriak betez, Udal web orrialdearen bidez, webari lotutako sare sozialen bidez (Facebook, Twitter...), aurrez aurre, eta telefonoz egin ahal izan ziren. Horretarako, prozesuarentzako helbide eta zenbaki propioak ahalbidetu izan ziren.

Ekarpenak egiteko eta iritzia eman eta jasotzeko fasea

Esan bezala informazioa zabaltzeko erabili ziren kanal edo bide berak izan ziren ekarpenak egin ahal izateko ahalbidetu zirenak. Prozesuaren fase horretan auzoan gune berezi bat egokitu zen eta herritarrek hogei egunetan zehar bertara gerturatzeko aukera izan zuten. Bertan, teknikariengandik informazioa jasotzeko eta beraiekin iritziak partekatzeko, eztabaidatzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten.

Gune hau kalen izateak, sarritan Udalera gerturatzeak dakarren zailtasuna gainditzeko balio izan zuen. Gunea egon zen bitartean 300 pertsona inguruk azaldu zuten interesa ziren, normala den eran, bakoitza interes maila desberdinarekin, noski.

Eztabaida fasea

Aurreko fasetik jasotako ekarpen eta iritzi guztiak gaia aztertzeko izan ziren gune edo batzordean aztertu eta eztabaidatu ziren. Batzorde hori, Udal ordezkariez gain, parte hartu nahi zuen herritar orori irekia egon zen. Aipatzekoa da, batzordea osatzeko zailtasunak izan zirela, izan ere, ez zen lortu aurreko faseetako parte hartze kopuruetara gerturatzea. Fase honetan zehar 12 bat pertsonak parte hartu zuten. Eztabaida gune honek, lehenik eta behin, jasotako iritzi eta ekarpenen inguruan beharrezko azterketa teknikoa egin zuen.

Gaiari buruz lau bilera antolatu ziren. Lehen bileran partaideei ekarpenen inguruan azalpenak eman zitzaizkien. Aztertzeko denbora eman ondoren, bigarren bilera batean, iritzi ezberdinak azaleratu eta proposamen ezberdinak berriro ere teknikariei bideratu zitzaizkien alderatze lanak egin zitzaten. Hirugarren bilera batean, landutako guztiaren berri izanik, azken proposamenak landu ziren. Azkenik, teknikariek egokitutako txostenak oinarri hartuta, laugarren bilera batean, adostutako erabakiak proposamenen egileei zein modu eta norabidetan helarazi behar zitzaizkien eztabaidatu eta adostu zen.

Erabakitze fasea

Behin-behineko dokumentua kontuan hartuta, Udalean eskudun den organoek, Hirigintza batzordeak eta alkatetzak, azken erabakia hartu zuten. Erabaki horrek egin ziren ekarpen eta ikuspegi guztiak kontuan izan zituen. Aurreko fasean adostutako proposamenak ontzat eman ziren eta erabakiaren berri emateko bideak ere zehaztu ziren.

Erantzuna edo erabakiaren berri ematea


Azkenik, hartutako erabakiaren eta behin betiko proiektua izango denaren berri eman zitzaien herritar guztiei. Horretarako, aurrez informatzeko erabili ziren kanal eta sare berak erabili ziren (aldizkaria, web orria eta berari lotutako sare sozialak). Prozesuan zehar parte hartzeko aurrez aurreko espazioak eta teknologia berriak integratzearen aldeko apustua egin bazen ere, herritarren aldetik gehien erabili ziren bideak informazio gunea, hau da, aurrez aurreko komunikazioa, eta telefonoa izan ziren.

EMAITZA

Emaitza nagusia, abiapuntuan zalantza ugari sortzen zituen proiektu bat, prozesuaren ondoren, askoz ere modu sendoagoan ikustea izan zen. Horrek, zalantzarik gabe, udal kudeaketarako ardurak dituztenei aurrera jarraitzeko ziurtasun handiagoa ematen die.

Kasu honetan, beraz, parte hartze prozesua bera ez da helburu izan, tresna baizik. Prozesuan zehar 300 pertsona zuzenean interesatu izanak, ekarpen ugari egin izanak, ikuspegi eta problematika ezberdinak planteatu izanak, eta, azkenik, foroetan emandako eztabaidaren ondoren emandako erantzunak jasotako jarrera positiboak proiektuaren oinarriak askoz ere sendoago finkatzen ditu. Eta proiektuak soziologikoki eta ekonomikoki Udalarentzat duen eragina kontuan edukita ezinbesteko tresna izan zela esan daiteke.

Aurretik Lazkaon egin izan dira antzeko prozesuak, baina informazioa zabaldu eta erantzunak emateko ahalbidetutako baliabideek eta jarraitutako prozedurek ere ekarpenak egiterakoan eta iritzia ematerakoan nolabait sentsibilizazio tresna modura balio izan dute. •



ELKARRIZKETA



FELIX URKOLA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Prozesu zuzena izan da, positiboa, ekarpenak eduki dituena eta hasierako helburua betetzeko balio izan diguna.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Prozesuaren helburu nagusia da Lazkaoko Gurutze auzoko berrurbanizatze lanak definitzea. Gaur egun azpiegiturak nahiko zaharkituta daude eta irisgarritasun arazoak daude, horregatik, auzoko urbanizazio guztia berritzeko proiektu bat definitzea eta horren dimentsioa ezartzea ere izan da helburua. Azken hamabost urteetan zerbait egin beharra zegoela esaten ibili gara, betiere dimentsioagatik atzean utzi izan dena, eta dimentsio hori gehiago aberasten du bertan lurpeko aparkalekuak egiteko aukera izateak. Herriko etxe guztietara iritsi den aukera bat izan da, baina bereziki auzotarretatik jakin dugu parte hartze prozesu honen ondorioz zentzurik bazuen ala ez lurpeko aparkalekua eraikitzeak. 6 milioi euroko aurrekontuaz hitz egiten ari gara eta hori Lazkao bezalako herri batentzat kopuru oso garrantzitsua da.

Zein metodologia erabili duzue?

Parte hartzeko informazioa edukitzea ezinbestekoa da eta, horregatik, saiatu gara etxe guztietara proiektuaren inguruko informazioa helarazten. Behin informazio hori denok genuela, norberak egin duen ekarpena oinarri beretik egin dugu. Horren arabera, bideragarri diren ekarpenak jaso ditugu. Prozesu honen zati batzuk guztiz teknikoak izan dira, baina herritarrek ez bazioten planteatutako proiektuari baiezkoa edo erantzun positiboa ematen alferrikakoa zen da horrelako inbertsio batean murgiltzea.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Balorazioa positiboa da ekarpenak egon direlako. Batzuk aurrera eramatea posible da eta besteak ezezko justifikazio batekin ulergarriak dira. Batez ere, proiektuaren bideragarritasuna oraindik zehaztu gabe zegoenean, herritarren jarrera baikorra izan da

eta hori proiektua bideratzeko ezinbesteko kontua izan da. Sortu diren espektatibei erantzuna emateko pauso gehiago eman behar ditugu, baina erantzuna positiboa izan da.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Prozesu hau eman den eran, informazioa zabaldu den eran, pauso bat eman da parte hartu nahi zuten guztiei eskubidea emateaz aparte aukera bat eman zaielako beste edonoren pare iritzia emateko. Alde horretatik, aspektu hori positibotzat joko nuke.

Parte-hartzaileen kopuru aldetik positiboa izan da, izan ere, ez da bakarrik kontuan hartu behar batzarretan parte hartu duten herritarren kopurua, baizik eta, informazio banatu den eran, zeharka beste pertsona batzuen bitartez jasotzen den informazioa ere baliagarria da. Kalean herritarrengandik jasotako informazioa ere baliagarria da. Udalak zerbait entzun ahal izateko lehenengo pausoa informazioa helaraztea izan behar du.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Prozesu guztiak desberdinak dira. Lazkaon ez da lehenengo aldia horrelako prozesu bat egiten dela. Azpiegitura maila horretako inbertsioa eskatzen duen proiektuen definizioan eta sortzen diren beharren inguruan prozesuak egin dira aurrez ere azken 15-20 urteetan. Prozesu bakoitza desberdina dela diot, batez ere, zuzendu nahi zaren eragileen arabera, prozesuak desberdina izan behar duelako parte-hartzaileen aldetik ikuspegia desberdina izan behar duelako. Bestetik, hau prozesu oso irekia izan da. Nire auzoa nolakoa izatea gustatuko litzaidakeen? Edonork du bere iritzia, ez da iritzi espezializatua behar. Kasu honetan denok maila bereko informazioa dugu, denok gara kaleko erabiltzaile eta denok, gutxi gorabehera, gauza berdintsuak ikusten ditugu. Konponbide desberdinak edukiko ditugu, noski. Baina, alde horretatik, ez nuke esango ezerk ezustekoan harrapatu gaituenik.

Zer hobetuko zenukete?

Aurretik aipatutakoaren ildotik, ezerk ez gaitu ezustekoan harrapatu aurretik antzeko prozesuak egin ditugulako. Beraz, ez dut hobekuntza esanguratsurik ikusten.

LEGAZPI

AZALERA: 41,8 km² | **BIZTANLEAK:** 8.438 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (5) EH Bildu (5) PSE-EE (2) Irabazi (1)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

ERIC GÁLVEZ (Zinegotzia) eta INMA HERNANDEZ (Teknikaria)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

LEGAZPIKO AGENDA 21EKO HERRITARREN FOROAK

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 189 (105 emakumezko, 84 gizonezko)

GAIA:
AGENDA 21

Legazpiko Udalak 16 urte daramatza herritarren parte hartze prozesuak aurrera eramaten. Beraz, Gipuzkoa erdialdean kokatuta dagoen udalerri honetan ohikoa da Udalak burutuko dituen ekintzetarako herritarren proposamenak entzun eta guztien artean komenigarri diren neurriak erabakitzea.

2016. urtean, Legazpiko Agenda 21aren inguruko zazpi foro antolatu ziren. Foro horietan, edonork parte hartu zezakeen; herritarrek, udal arduradunek zein teknikari laguntzaileek. Saio bakoitzean gai desberdin bat landu zen arren, beharrezkoa izan zen kasuetan, gairen bati bigarren saio batean ere tarteren bat eskaini zitzaion.





Bilera guztien funtzionamendua antzeko izan zen. Prozesuan parte hartu nahi zuten herritarrak Legazpiko Udaletxeko Batzar Aretora hurbildu ziren aurrez ezarritako egun eta ordu zehatz batean. Bertaratuek elkarri begira eseri ohi ziren, borobil antzeko bat osatuz, eta erdian gaian aditua zen pertsona batek foroan eztabaidatuko zen gaiari buruzko azalpena ematen zuen, amaieran proposamen batzuk eskainita. Adituak (batzuetan aholkularitza profesionala kontratatu zen) aurkezpenarekin amaitutakoan herritarren txanda hasten zen eta guztien arteko solasaldi bat sortzen zen gaiaren inguruan proposamenak egiteko edo adituarenak moldatzeko ikusten ziren beharren arabera. Gaiaren arabera, bilera batzuetan parte hartzea sustatzeko dinamikak ere erabili ziren eta, lan horretarako, besteak beste; legoak, paper zurruna eta marrazkiak erabili ziren. Bitartean, idazkariak



oharrak hartzen zituen foroaren amaieran ideia eta proposamenak behin betiko biltzen zituen eskema bat osatzeko.

Bestalde, foroetara hurbildu ezin zitezkeen pertsonek euren ekarpenak egiteko galdetegiak prestatu zituen Udalak. Gainera, gazteen parte hartzea oso eskasa denez, eta hori bultzatzeko asmotan, Twitter eta Facebook sare sozialen bitartez prozesuan parte hartzeko aukera eskaini zen. Ahalegin horretan, baita ere, udalerriko ikastetxeetako (Haztegi ikastola, Olazabal institutua eta Domingo Agirre eskola) Batxilergoko lau ikasle ordezkariri gonbita luzatu zitzaien ekonomia jasangarriari buruzko diagnosia egiteko, hartutako konpromisoak azaltzeko eta udalari eskaerak egiteko.

2016an, lehenengo aldiz, Agenda 21eko foroa zabaltzeko eta legazpiarrak bertan parte hartzera animatzeko, errolda hartu eta ausazko zozketa eginez gonbidapen pertsonalizatua bidali zitzaien 16 herritarrei.

Parte hartze prozesuak jarraipena izan du azken urteetan, nahiz eta foroetara herritar gehiago hurbiltzea nahiko lukeen Udalak, izan ere, 30 lagun inguruk parte hartzen dute foro bakoitzean. Horregatik, bileretara bertaratzerik ez dutenei parte hartzea errazteko online foroa eta sare sozialak indartzen jarraitzeko asmoa du Udalak.









Prozesuaren emaitza bezala Udalak konpromiso zehatzak hartu zituen hurrengo gaietan: liztor beltzaren kontrola, berdintasuna, erosketa berdea, bidegorria eta Latxartegiko aparkalekua. Gainera, Legazpiko Klima 2030 Estrategia eta Baso Kudeaketako Planari egindako ekarpenak kontuan izan ziren. •



LIZTOR BELTZA

LEGAZPI KLIMA 2030




EKONOMIA JASANGARRIA





BASO KUDEAKETA JASANGARRIA

LATXARTEGI PARKEA



ELKARRIZKETA



ERIC GÁLVEZ eta
INMA HERNANDEZ
Zinegotzia eta teknikaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Guri parte hartze handiagoa egotea gustatuko litzaiguke, baina badakigu zaila dela herritarrak mobilizatzea horrelako foroetara etorri daitezen. 2016an, batezbestekoa 22 pertsona izan ziren foro bakoitzeko. Landutako guztia txostenean jasota gelditu da: foroaren iritzia, herritarrei egindako galdeketa eta lortutako informazio objektiboa. Adibidez, baso kudeaketarako saioan bertan erabaki zen zein zuhaitz mota landatu. Beraz, parte hartzea baliagarria da, izan ere, erabakiak hartzen laguntzen du.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Herritarren iritzia jasotzea ezinbestekoa da. Foroa zati bat da, baina beste parte hartze sistema batzuk ere martxan ditugu, adibidez; parkea nola egin erabakitzeko prozesua edo aurrekontu parte-hartzaileak, azken honetan erabakitzen da udal aurrekontuko 300.000 euro zein bost edo sei proiektutan inbertitu. Herritarren partaidetza eskatzea oso erabilgarria da. Foro honek duen berezitasuna da ez dela aukera desberdinen artean hautatzea, baizik eta herritarren iritziak jasotzea duela helburu.

Zein metodologia erabili duzue?

Normalean dinamika izaten da gaia aurkeztea eta dinamizatzaileen bitartez, Prometea enpresaren aholkularitzarekin, dinamika prozesuak hastea herritarren iritziak jasotzeko; normalean mural baten bitartez. Gainera, gaiaren arabera lan-taldeak sortzen dira. Diagnosi bat egiten dugu gaur egun jendeak herria nola ikusten duen ezagutzeko; jarraian ikuspegia lantzen da nolako herria eraiki nahi dugun eztabaidatuta; eta azkenik, Ekintza Plana lantzen da.

Parte hartzera animatzen den jendeak benetan parte hartzen du, ez da isilik gelditzen, eta erabakiak guztion artean adosten ditugu.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Beti dago nukleo egonkor bat eta horiek beti etortzen dira parte hartze ekimenetara, gaia edozein dela ere. Bestalde, gaiaren arabera interesa dutenak gerturatzen dira. Baina, esan bezala, foroetara etortzen direnek parte hartzen dute, ez dira isilik gelditzen.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Beharrezkoa da herritarren iritziak ezagutzeko eta ahalik eta modu egokienean guztion artean herria eraikitzeko. Benetan funtzionatzen duen bidea da.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Herritarrei gehien gustatzen zaizkien gaiak zeintzuk diren ikasten dugu, hau da, zeintzuk diren erakargarrienak. Beste gauza batzuk ez ditugu ikasten ez dakigulako nola eman buelta. Adibidez, nahiko genuke jende gehiagok parte hartzea, online foroak funtzionatzea edo gazteek ere parte hartzea horien iritzia ere jasotzeko. Azken urteotan saiakera egiten ari gara helburu horiek lortzeko, baina kosta egiten zaigu, ez da erraza. Gazteekin gabezia handia dugula ikusten dugu.

Zer hobetuko zenukete?

Aipatutakoa; herritar gehiago hurbiltzea eta gazteen parte hartzea lortzea. Gainera, prozesuak egonkorrak direnean gorabeherak egoten dira eta asko zaindu behar dira prozesuak. Badakigu zer hobetu behar den, baina hor gabiltza frogak egiten eta ea asmatzen dugun.

LEGORRETA

AZALERA: 8,62 km² | **BIZTANLEAK:** 1.485 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (5) EAJ-PNV (4)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

ZELAI AMENABARRO (Alkatea)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

PARTAIDETZAKO OINARRIAK FINKATZEN ETA SENDOTZEN

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 37 (21 emakumezko, 16 gizonezko)

GAIA:
PARTE HARTZEA

Legealdiz legealdi Legorretako Udalak ahalegin berezia egin du legorretarrei hitza eman eta entzuteko. Horrela, herritarrek udal kudeaketan eta erabakietan zer esana izan dezaten bilatzen da. Horren adibide da, besteak beste, 2015ean herriko zinema berritzeko egindako parte hartze prozesua.





Legorretako Udalak, ordea, beste urrats bat egiteko premia antzeman zuen etorkizunera begira. Izan ere, unean uneko prozesuak baino haratago joan nahi zuen Udalak, kuantitatiboki zein kualitatiboki herritarren partaidetza areagotzeko xedearekin. Horiek horrela, Legorretako Udalak herritarren parte hartze prozesuak aurrera eramateko oinarriak finkatzeko parte hartze ordenantza egiteari ekin zion eta, horretarako, legorretarren partaidetza ezinbestekoa zen. Prozesuaren nondik norakoaren proposamena Elhuyar aholkularitzaren esku utzi zen.



Horrenbestez, prozesuaren gidoia jarraitu besterik ez zuen Udalak, nahiz eta gidoiak aldaketa batzuk jasan zituen uda hurbil zegoelako, izan ere; Udalak ez zuen nahi udan luzatzea. Beraz, ez zen sortu beharreko talde eragilerik osatu eta alkatea eta aholkularitza taldea arduratu ziren hasierako proposamena egutegira egokitzeaz eta saioak antolatu aurretik erabaki behar ziren beste zenbait aspektu zehazteaz.

Prozesuaren une horretan hiru saio aurrez-aurreko aurreikusi ziren proiektua burutzeko, baina azkenean laugarren bat beharrezkoa izan zen.

Lehenengoan, udal teknikariek eta hautetsiek Legorretako Udalean parte hartzearen oinarriak zein izan behar zuten hausnartu eta finkatu zituzten, besteak beste; sistemaren ezaugarri nagusiak, mugak, pausoak eta auzolana.

Herritar guztiei bigarren saiotik aurrera ireki zitzaien prozesua, eta bigarren saio horretan parte hartzea arautzeko udal-ordenantzak jaso behar lituzkeen oinarriak landu ziren, hau da: parte-hartzaileak (elkarteak eta herritar taldeak) nortzuk izan behar zuten, prozesuak nolakoak izan behar zuten, zein organo eta mekanismo sortu behar ziren eta Udalaren informaziorako, arretarako eta komunikaziorako sistemak nolakoak izan behar zuten.

Hirugarrenean, aurretik landutakoa kontuan izanik, ordenantzaren zirriborroa landu zen. Espero baino lan gehiago egin behar izan zenez laugarren saio bat egitea erabaki zen, horrela, sistema ongi zehazteko eta hartu beharreko erabakiak ziurtasunez hartzeko. Bileretatik aparte Internet bidez parte hartzeko aukera eskaini zen #PartaidetzaOn tresna erabilita, baina bakarrik bederatzi lagunek izen eman zuten eta horietako bakar batek egin zituen bi ekarpen.

Prozesuan adin guztietako 37 lagunek parte hartu zuten eta guztietatik 9 azaldu ziren saio guztietara. Parte-



hartzaileen adinari erreparatuta gazteak, 25 urtetik berakoak, izan ziren prozesuan gutxien nahasi zirenak.

Halere, parte hartzea anitza izan zen. Prozesuan zinegotziek, langileek eta herritarrek parte hartu zuten; gazteek zein helduek, emakumezkoek zein gizonezkoek eta Legorretan jaioek zein beste jatorri batzuetakoek.

Herritarren artean egindako ordenantza osatzeaz Elhuyar aholkularitza taldeko kideak arduratu ziren. Egindako ekarpen horiek batez ere beste araudi batzuetan eta onartu berri zen Udal Legean oinarrituta zeuden, baina betiere kontuan hartu zen prozesuan zehar herritarrek adierazitakoa. •









ZELAI AMENABARRO
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Emaitza baino aberasgarriagoa izan zen prozesua bera, izan ere, parte hartze maila handia izan genuen. Herriko talde guztiek parte hartu zuten gutxienez ordezkari bana bidalita, nahiz eta kasu batzuetan gehiago izan ziren. Langile eta hautetsi guztiek parte hartu genuen eta oso aberasgarria izan zen herritar askok parte hartu zutelako. Partaideak herriko alderdi gehientsuenen isla ziren, horregatik izan zen prozesua oso anitza.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Helburua izan zen erabakitzea Udalak zein berme jarri behar dituen, hau da, herritarrei zein toki eman behar zaien Udal erabakietan parte hartu dezaten. Udalak berak erabaki beharrean noiz eman herritarrei iritzia emateko aukera eta noiz ez, helburua zen hori denon artean erabakitzea.

Zein metodologia erabili duzue?

Elhuyar aholkularitza enpresak gidatu zuen prozesua. Lehenengo udal mailan langileek eta hautetsiok saio batzuk egin genituen eta, gero, hautetsiok eta langileek herritarrekin egin genituen saioak. Bilera dinamikoak ziren: jolasak eta dinamikak egin genituen lehenengo haria mozteko. Gerora, lehenengo talde txikietan eta ostera handiagotan lan egin genuen.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Prozesu honek harrera ona izan zuen eta herritarrek gustura parte hartu zuten. Herritar guztiek ez zuten neurri berean parte hartu, baina orokorrean jendea prozesuan inplikatu zen. Adin-tarte handi samarra izan genuen; 20 urte ingurutik, gaztetxeko jendea zegoen, 70 urte arte, jubilatuak ere parte hartu zuten. Gizonak eta emakumeak antzeko kopuruan izan ziren, baita ere hemen jaiotakoak eta kanpotik etorritakoak. Herritar guztiek izan zuten ordezkariren bat saioetan.

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Hau izan zen parte hartze prozesu bat etorkizunean parte hartzea nola egin erabakitzeko, kasu berezia da. Herritarrei hitza eman genien jakiteko hurrengo prozesuetan hitza noiz eta nola eman behar diegun. Oso interesgarria izan zen eta herritarrek ikusi zuten beraien iritzia kontuan hartzen dugula.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Ikasi dugu interesgarria dela herritarrei hitza ematea eta ahalik eta jende desberdin gehien biltzea prozesua ahalik eta aberasgarriena izan dadin.

Zer hobetuko zenukete?

Erantzuna oso ona izan zen. Herrian parte hartze kultura dago eta deialdiak egitean jendeak erantzuten du. Baina, garrantzitsuena lortu genuen ordezkaritza maila izan zen.

ORDIZIA

AZALERA: 5,65 km² | **BIZTANLEAK:** 9.488 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (5) EH Bildu (5) Ordizia Orain (2) PSE-EE (1)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

JOSEBA ARAMBURU (Arloko zinegotzia)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

HONDAKINEN BILKETA EREDUA AUKERATZEKO HERRI GALDEKETA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 148 (75 emakumezko, 73 gizonezko)

GAIA:
HONDAKINAK

Herriko hondakinen bilketa eredua aukeratzeko Ordiziako Udalak herritarren partaidetza ezinbestekotzat jo zuen, hori dela eta, parte hartze prozesua martxan jarri zuen. Prozesuaren azken fasea ordiziarrei galdeketa egitea zen, baina horra iritsi bitarteko lanetan ere herritarrek parte hartu zuten.







Lehen urratsa, hondakin mahai bat eratzea izan zen. Talde horren helburua azterketa tekniko objektibotik ondorioak atera eta informazioa modu zuzenean eta gardenean herritarrei helaraztea izan zen, horrela, galdeketarako beharrezko informazioa eskura izan zezaten. Lan-taldearen osaera hurrengoa zen: alderdi politikoak, Landarlan Ingurumen elkartea, Ordiziako zabor bilketaren inguruan sortutako herri ekimena edo plataforma eta zozketa baten bitartez hautatutako lau herritar (2 emakume eta 2 gizonezko). Mahaiko kideek zazpi bilera egin zituzten galdeketarako komunikazio kanpaina, galdeketarako galdera bera eta jarraitu beharreko prozedura adosteko.


Otsailaren 29tik martxoaren 9ra komunikazio kanpaina antolatu zen. Horretarako, Udal aldizkarian hondakinen trataera ereduek dituzten gastuen inguruko informazioa helarazi zen. Gainera, aldizkarian ordezkari politikoek eta herritar batzuk gaiari buruz zuten iritzia argitaratu zen, baita bozketan parte hartzeko herritarrek jarraitu beharreko urratsak zeintzuk ziren ere.

Horretaz aparte, herritarrak informatuta egoteko 10 bilera antolatu ziren udaletxean, Urdaneta eskolan eta Oianguren institutuan.

Horien ostean, martxoaren 13an galdeketa egin zen. Bozketan parte hartzeko bi bide eskaini zitzaizkien ordiziarrei: presentziala eta ez-presentziala. Bozka presentziala egiteko lau gune ahalbidetu ziren (Institutua, Urdaneta, Lukusain eta udaletxea) eta bozka egunean aurrez-aurre parte hartu ezin zutenentzako hiru salbuespen bide aurreikusi ziren: aurretiazko bozka egitea martxoaren 9tik 11ra; posta ziurtatuaren bitartez; eta mugikortasun murritza dutenei botoaren bila udal langile bat etxera gerturatzeko aukera eskaini zitzaien.

Hilaren 17ko plenoan emaitza berretsi zen. Horrela, Sasieta Mankomunitateari hondakinen bilketa sistema aldatzeko eskaera egin zitzaion, hau da, atez ateko sistema kentzeko eta edukiontziak jartzeko. Ordiziako parte hartzea arrakastatsua eta baliagarria izan zen. Herritarren partaidetzari esker 2016ko irailaren azken astean etxeetako hondakinak biltzeko edukiontziak jarri ziren. •





GALDERA ETA PROZEDURA

Zein da galdera?

Ordizako hiritarrei, etxebizitzako hondakinen bilketarekin inguruan bizi diren herritarrei, eta ordezkatzen dituen elkarteei, iritzia emateko aukera eman nahi dugu. Ordizak bezalako herri batean, kilometro gutxiko bidaia batek ere eragin handia izan dezake ingurumenean, eta horregatik, bilketa sistema berria ezartzeko aurretik, herritarrek zer pentsatzen duten jakin nahi dugu.

Ordizan galduko ze hondakinen bilketa sistema erabili behar dela uste duzu?

- ☐ **BILKETA SISTEMA MISTOA. Errefusa eta organikoa aterako dira, eta gainontzeko frakzioak edukiontzi kolektiboetan.**
- ☐ **EDUKIONTZI KOLEKTIBOEN SISTEMA. Errefusa eta organikoa chip-a duten edukiontzi txikietan eta gainerako frakzioak edukiontzi kolektiboetan.**

Nork botatu dezake?

- 16 urtetik gorako pertsonek (bozketa hasierako urte horretan bete behar dutenak).
- Errolatuyrik daudenak gaikietara eginean edo aurrean.

Bozketa egunak

EGUNAK: 2019ko martxoaren 13an
ORDUA: 9:00etatik 20:00etara
Lekua: 4 mahai (Institutoa - Udaletxe Kalekoa - Lizeoaldeko Lizeoetxea)

Bozketa moduak

- **AURRETIAZKO BOZKA:**
  - Egunak: martxoak 9eta 11n.
  - Ordua eta lekua: 9:00-13:00 (udaletxean/gazteen 15:30-20:30 (udaletxean)
- **BOZKA EZ-PRESENTZIALA**
  - Eskaera: Udal web orrian bertan bete bidez edo telefono bidez. MARTXOAK 4 arte.
- **POSTA ZUZENEZ**
  - MARTXOAK 8 arte.
- **MUGIKORTASUN MURRIZTA DUTENEN BOZKA**
  - Eskaera: aurreko bulegoan edo telefono bidez.
  - Udal langilea etxera bozka bila (9:00-15:00).
    Egunak: martxoaren 11ra

PREGUNTA Y PROCEDIMIENTO

¿Cuál es la pregunta?

¿Qué sistema de recogida aceptaría de residuos consideras que debe utilizarse en Ordizia?

- ☐ SISTEMA MIXTO DE RECOGIDA. Rechazo y orgánica en contenedores individuales y el resto de fracciones en contenedores colectivos.
- ☐ SISTEMA DE CONTENEDORES COLECTIVOS. Rechazo y orgánica en contenedores individuales que tengan chip y el resto de fracciones en contenedores colectivos.

¿Quiénes pueden votar?

Día de la votación

Formas de votación

- VOTO ANTICIPADO:
- VOTO NO PRESENCIAL:
- MEDIANTE CORREO CERTIFICADO:
- VOTO DE PERSONAS IMPEDIDAS:



JOSEBA ARAMBURU
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Zinegotzia

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Positiboa izan da. Guztion artean erabaki ditugu gauzak eta ikuspuntu desberdinak landu dira. Gainera, herritarrek zuzenean parte hartzen dute. Herritarrei politikariengana iristea kosta egiten zaie eta herritarren artean komunikazioa eta lana egitea errazagoa da. Mahaian herritarrak daudenez beraien arteko komunikazioaren bitartez iristen zaizkigu politikariei herritarren arazo eta kezkak.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Atez ateko zerbitzuaren inguruko eztabaida zela eta, herritar guztien artean erabakitako bide bat jarraitu nahi genuen zaborren kudeaketan.

Zein metodologia erabili duzue?

Bileretan elkartzen gara eta aktan bildutako gaiak jorratzen ditugu. Lanean hasten garenean beti egiten da aurreko aktaren onarpena eta, gerora, bilera bakoitzean aspektu desberdinak lantzen ditugu, esaterako; zaborraren bilketarako ordenantza, garbiketa ordenantza edo edukiontzien ordainketa.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Parte-hartzaileen aldetik, orokorrean, harrera ona du parte hartze prozesuak, oso positiboa da. Adibidez, eskaera bat iritsi zitzaigun edukiontzi batzuk jartzeko, baina puntu oso zaila zen kokalekuagatik kamioiak ezin zuelako hara iritsi. Mahai horretan landu genuen gaia eta azkenean lortu genuen edukiontziak jartzea. Bizilagunek asko eskertu zuten mahaiak eman zuen erantzuna. Horrelakoetatik ondorioztatzen dugu positiboa dela.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Hitzak esaten duen bezala parte hartze prozesu bat da eta nahi duenak parte hartu dezake. Bertan ez dagoena parte hartu nahi ez duelako da. Nahi duen edozein herritar dago mahaian. Beti daude batzuk besteen ordezkari egiten dutenak, baina herritarren

Nabigatu KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

arazo guztiak lantzen eta guztion artean kudeatzen ditugu. Guretzat eta herritarrentzat oso aberasgarria da lan hori guztion artean egitea.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Gure kasuan, hondakinen gaiak lantzen ditugu eta gaiarekin zerikusia duen guztia mahaitik pasa behar duela ikasi dugu. Ezin dugu erabaki hondakinen inguruko gai bat lantzea eta bestea alde batera uztea. Filtrorik pasa gabe guztia mahaitik pasa behar da. Alde horretatik lan-taldeak gardentasunez jokatu behar duela ikasi dugu.

Zer hobetuko zenukete?

Hasiera batean Udal zerbitzuetatik gai batzuk ez zitzaizkigun mahaira iristen. Hori hobetu dugu eta hondakinen inguruan iristen den edozer, nahiz eta udal teknikariari garrantzia gutxikoa iruditu, berdin dio, herritar bezala guretzat garrantzitsua izan daiteke eta mahaitik pasatzen da.

SEGURA

AZALERA: 9,2 km² | **BIZTANLEAK:** 1.498 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (5) EAJ-PNV (4)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

EÑAUT TELLERIA (Alkatea)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

SEGURAKO PARTAIDETZA PROZESUEN PROIEKTU INTEGRALA 2016

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 962 (477 emakumezko, 485 gizonezko)

GAIA:
PARTE HARTZEA

Segurako Udalak gai ugariren inguruan erabakiak hartzeko herritarren partaidetza ezinbestekotzat jotzen du. Horrela, parte hartze prozesuen ondorio izan ziren 2016ko Udal aurrekontua, jaiak eta ekintzak, koadrilen arteko olinpiadak San Joanetan, herri antzerki komikia, Errebote herri eraikina, auzolana etab.

Parte hartze prozesuen bitartez erabaki ugari hartu eta zenbait proiektu aurrera eraman ziren eta, ikusi bezala, era guztietako gaiak baziren ere prozesuak antzekoak izan ziren kasu gehientsuenetan.

Prozesu guztien lehenengo urratsa herritarrei informazioa helaraztea izan zen, horrela, landu ziren gaien inguruko informazioa eskuragarri izatea eta parte hartzea ahalik eta handiena izatea lortu nahi zen. Informazioa helarazteko erabili ziren bitartekoak honakoak izan ziren: Errebote Udal aldizkaria, web orrialdea, lan-batzordeak, bandoak, e-posta eta etxez-etxe bidalitako informazio gutunak.

Behin herritarrek informazioa jasota hurrengo urratsa bilerak antolatzea izan zen. Bilera horiek talde txikitan antolatu ziren lehenengo eta, ondoren, talde handiagotan elkartu ziren egindako proposamenak gainontzeko taldeekin partekatu eta ekarpen sendoagoak lortzeko helburuarekin.

Era horretan, lore eta landare azoka antolatzeko bost bilera antolatu ziren, Aste Santuko egitaraua osatzeko hiru, San Joanetako egitaraua osatzeko lau, Euskal Herriko dantza txapelketako antolatzeko bederatzi, liburuaren eguna antolatzeko bi, "iparra-hegoa" aste kulturala antolatzeko bost eta euskararen eguna antolatzeko bi.

Bileren ondoren, horietan egindako ekarpenak aztertu eta horien inguruko hausnarketa egin zen. Adostutako ekarpen garrantzitsuenen artean bozketak egin ziren, eta emaitzen zabalkundea izan zen parte hartze prozesuen azken fasea.

Gai bakoitzaren parte hartze prozesuak berezitasunak izan bazituen ere, guztiek jarraitu zuten eredu hori. Hortik aurrera, proiektuak gauzatu (batzuk hurrengo urteetan gauzatuko dira) eta balorazioak egin ziren hurrengoetarako ondorioak ateratzeko eta, bide batez, parte hartze prozesua eta proiektuak hobetzeko. •

ELKARRIZKETA



EÑAUT TELLERIA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Prozesu asko egin ziren Seguran 2016an eta horietan garrantzitsuena Errebote prozesua izan zen. Prozesu honek hiru fase ditu eta lehenengoa aurreko legealdian egin zen. Bigarrena, eraikin zaharra zegoen lekuan zer egin erabakitzea zen eta, horretarako, herritar guztiei, eskolako umeetatik hasita, galdetegia egin zitzaien. Hortik zerrenda handi bat atera zen proposamenekin eta hemendik aurrerakoa zer egin erabakitzea da.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Udal gobernuaren ideia izan beharrean herritarrek bere sentitzea hor eraikiko dena. Herriarentzat den zerbait guztien ekarpenak kontuan hartuta egitea, alegia.

Zein metodologia erabili duzue?

Prozesua gidatzen duen herritarrez osatutako batzar bat dago eta, bertan, lantegi bat egiteko ideia atera zen. Lantegia arkitektura graduko ikasle gazteekin egin zen eta, horiek, herritarrekin elkartu ziren. Herritarrekin elkartu eta proposamen zerrenda aztertu ostean, lantegiak bere proposamenak egin zituen. Hemendik aurrera proposamen horiekin zer egin erabakitzea falta da eta, azkenik, proiektua gauzatzea.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Orokorrean harrera ona izan du. Arazo bakarra prozesua luzatu egin dela da eta horrek herritarrak apur bat urduritzen ditu. Herritarrek ilusioa ez galtzeko eta beraien parte hartzeak zerbaitetarako balio izan duela ikus dezaten, epe motzean azken emaitzan eraginik izango ez duen proiektu batzuk egiten saiatzen gara.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Oso garrantzitsua da gidatze-lana ongi egitea herritarrek parte hartzen duten dinamiketan. Bilerak ondo antolatuta egon behar dute eta helburu zehatz batekin egin behar dira. Denen ideiak dira onak, inork ez du alde batera gelditu behar, maila bereko ideiak dira guztiak.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Pazientzia handia behar da, garrantzitsua da epeak definitzea eta ahalik eta garbien uztea prozesuaren emaitza ikusteraino denbora pasako dela; izan ere, parte hartze prozesuak uste baino luzeago jotzen dute. Bestalde, Udaletxea eta herritarrak lotzeko modu apropos bat da. Horrelako prozesuetan bien arteko tartea murrizten da.

Gainera, Udala herritarrengana hurbiltzen bada parte hartzea eskatzera emaitza hobeak lortzen dira deialdiak egin eta bileretan asistentzia handia lortzea espero beharrean.

Zer hobetuko zenukete?

Orokorrean hartuta, parte hartze prozesuen bitartez funtzionatu nahi bada, herrian eta herrialdean dauden egiturak hobetu behar dira. Gu gure baliabideekin ari gara lanean eta horiek mugatuak direnez prozesuak luzatu egiten dira. Horretarako, diru-laguntza gehiago beharko lirateke, baita Udaletxetik ere.

Bestalde, garrantzia izugarria du bilerak gidatzeaz arduratuko den norbaiten laguntza izateak.

URRETXU

AZALERA: 7,9 km² | **BIZTANLEAK:** 6.850 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (5) EH Bildu (5) PSE-EE (2) Irabazi (1)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

JON LUQUI ALBISUA (Alkatea)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
Altzaga
Arama
Beasain
Itsasondo
Lazkao
Legazpi
Legorreta
Ordizia
Segura
Urretxu
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

GOBERNU IREKIRAKO ESTRATEGIAREN BARNEAN HERRITARREN PARTE HARTZEA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 269 (103 emakumezko, 166 gizonezko) + 768 online

GAIA:
PARTE HARTZEA

Urretxuko Udalak hainbat gai jorratzeko eskatu zuen herritarren parte hartzea 2016an, hain zuzen ere; euskalgintza, jaien antolaketa, haurrentzako jolasleku estali baten definizioa eta Udal aurrekontuak. Gai guztiak jorratzeko metodologia erabiliena bilerak egitea izan zen, baina Internet bidezko inkestak ere egin ziren eta horien bitartez jasotako erantzun kopurua handia eta baliagarria izan zen.

Euskalgintza lantzeko bi saio egin ziren. Lehena, herriko taldeen identifikazioa egiteko eta bigarrena, horiei zuzendutako ekintzak proposatzeko.

Jaien antolamendurako 50 lagun inguruko lan-talde bat osatu zen. Taldea, profil desberdineko eta lehentasuna duten kolektiboetako, kultur eta kirol elkartetako eta koadriletako ordezkariek osatu zuten. Hiru bilera antolatu ziren eta ekarpen interesgarriak egin baziren ere, aurreko urteetako egitaraua mantentzea erabaki zen. Jaiak amaitutakoan, online inkesta baten bidez balorazio orokor bat lortu zen eta identifikatutako taldeen eskutik ere egitaraua osatzen zuten ekintza desberdinen balorazioa egin zen. Balorazio hori, hurrengo urteko jaien antolaketan kontuan hartzeko xedearekin.

Haurrentzako jolasleku estaliaren definizioa egiteko bi lan-saio antolatu ziren eta horietan 11 lagunek parte hartu zuten. Batzar horietan gune estaliak bete beharreko irizpide eta ezaugarriak definitu ziren eta izan zezakeen kokapenerako bi eremu posible lehenetsi ziren. Informazio horrekin, Udalak bi aukera horien azterketa sakona egin zuen eta emaitzak berriro ere lan-taldearekin partekatu zituen azken proposamena egin aurretik. San Martin-Barrenkale auzoan eraikitzea erabaki zen, baina aurretik eginiko saioetara auzo horretako hiru kide besterik ez zirenez bertaratu auzoko portaletako presidente guztiei hots egin zitzaien batzar berezi batean parte hartu zezaten. Deituta zeuden 17 auzokideetatik 12k parte hartu zuten eta, horiek, aho batez erabaki zuten proiektua aurrea eramatea.

Esan bezala, Udal aurrekontuetarako ere burutu zuen parte hartze prozesua Urretxuko Udalak. Aurreko urtean egin zen bezala, komunikazio publikoa egin zen herritarrei parte hartzeko deialdia luzatzeko. Horretarako Udalak hainbat bide ahalbidetu zituen: web orria, gutunontzia, idatziak eta sare sozialak, baita internet bidezko galdetegi bat ere. Bestalde, 16 auzo-bilera antolatu ziren eta, guztira, 165 pertsonak parte hartu zuten. Horietan, bizilagunen iradokizun eta proposamenak jaso ondoren, ekarpen horien bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa eta Udal aurrekontuan sartzeko aukera aztertu zen. •

ELKARRIZKETA



JON LUQUI ALBISUA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Prozesuak baliagarriak izan direla esango nuke, bere emaitzak eman ditu. Guztien artean erabakitako proiektuak gauzatzen ari gara. Harremanak normalak dira eta Udaletxearentzat aberasgarria da herritarrek egunerokotasunean ikusten digutelako lanean. Askotan ez dugu eztabaida sortzen eta herritarren ahotsa entzuteko erreminta egokiak dira. Jendea gustura ateratzen da bileretatik, nahiz eta euren proposamenek ezezko erantzuna jaso.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Herrian egin beharrekoetan herritarren ekarpenak entzun eta horiei jaramon eginda hartu beharreko erabakiak hartzea.

Zein metodologia erabili duzue?

Prozesu bakoitzak bere metodologia du, bere berezitasunekin. Orokorrean, herritarrekin eta adituekin lan egiten da. Guk ez dugu lan egiten metodologia berritzaileekin, hau da, panelekin, post-itekin etab. Gureak bilera arruntak izaten dira eta, horietan, herritarrei azalpenak ematen dizkiegu. Beraiek guri euren iritzien berri ematen digute ekarpenak eginda. Bilera horietan, orokorrean, edozein herritarrek parte hartu dezake, baina batzuetan ere egin izan ditugu bilerak talde edo eragile zehatz batzuekin, adibidez; jaien egitaraua antolatzerakoan. Gerora, herritarren ekarpenak jasotzen dituen dokumentu bat egiten dugu eta, horrela, herritarrek egin dituzten ekarpen guztiak nola dauden azaltzen dugu, hau da, martxan dauden ala ez eta zein fasetan dauden. Gainera, web orrialdearen bitartez eta herritik dauden buzoien bitartez ere ekarpenak egiteko aukera eskaintzen dugu.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Prozesuetan egon den jendeak esan digu oso gustura dagoela parte hartze prozesuekin. Parte hartzearen bitartez egindakoaren emaitzak ikustean zerbait propioa bezala sentitzen dute. Bileretara etortzen den jendeak asko eskertzen du haien ekarpenak entzutea eta horiei erantzuna ematea, nahiz eta erantzuna ezezkoa izan.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Horrelako prozesuetan informazioa biltzea oso interesgarria da politikari batentzat, pertsona askoren arteko elkartasuna, bisibilitatea eta, neurri batean, Udaleko alderdi politikoen artean talde-lana lortzen delako. Gainera, parte hartze prozesuek asko errazten dute aurrekontuen edo beste proiektuen inguruko eztabaidak bideratzea.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?


Ikasi dugu ez dagoela parte hartze prozesuak egiteko eredu bakarra. Batzuetan ez da behar gehiegi parte hartze prozesu batean murgiltzeko eta hori aurrera ateratzeko, baina beste batzuetan asko pentsatu behar da zer lortu nahi den eta norekin eta nola lan egin behar den. Parte hartze prozesuak etengabeko zerbait bezala ikusi ditzakete batzuk, baina helburu baten atzetik lan egin behar da beti. Eztabaidak amaigabeak izan daitezke eta hori ekiditeko ateak ixten edo irekitzen joan behar da, batez ere ixten, eztabaida nolabait finkatzeko.

Zer hobetuko zenukete?

Esparru batzuetan lan metodologia. Hainbatetan ez ginen ibili garen bezala ibili beharko, egia da, hala ere, hori neurtuta dagoela. Plan Orokorraren gaia, parte hartze sistemaren eskema bat da, festetakoa, dagoen jendeagatik, beste bat, berezia izan beharko lukeena eta, horregatik, hurrengo urtean nabarmenki landu nahi dugu. Parte hartzearen inguruko ordenantzarena ere bereziki landuko dugu eta, horrek, jakinda iristen garenera iritsita hurrengo agintaldian beste alderdiren bat egon daitekeela alkatetzan, dokumentu amankomuna izan behar du.

TOLOSALDEA

Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil





HERRIAK

28

BIZTANLEAK

46.969 (gipuzkoarren %6,62)

AZALERA

332,7 km² (Gipuzkoaren %16,79)



ETORKIZUNA ERAIKIZ

Tolosaldeak, Gipuzkoako ekialdean, 332,7 km²-ko lur eremua hartzen du. Iparraldean mugakide du Donostialdea; ekialdean, Nafarroa; hegoaldean, Goierri; eta mendebaldean, Urola-Kostaldea. Tolosak eta Ibarrak elkarrekin sortzen duten herrigunea da eskualdeko buru; bere eraginpean beste 26 herri txiki bizi dira: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian (Bidania eta Goiatz), Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Orendain eta Orexa. Billabona eta Zizurkil dira bi mila biztanlez gorako herri bakarrak. Billabonak eragin handia du bertatik Zarautzeraino doan GI-2631 errepidean dauden herrietan, Donostiara nahiz Tolosara jotzeko bertatik pasa beharra dagoenez zenbait zerbitzu bereganatzen baititu.

Komunikabide sarearen elementurik nagusiak N-I (Madril-Irun) errepidea eta trenbidea dira. Ibilbide laburretan, trenak garrantzi handia dauka eskualde honetan. Abiadura handiko trenak oraingo trenbidearen bide berdintsua izango du. Gaur egun diren proiektuen arabera, Tolosatik adar bat abiatuko da Iruñea, Zaragoza eta Bartzelona aldera. Gipuzkoak Nafarroarekin aspaldidanik izan duen lotura zaharra, N-130 errepidea alegia, guztiz bazterturik utzi du A-15 (Andoain-Irurtzun) autobideak. Horren eraginez, eskualde honen zentroa ziur aski Tolosatik Andoain alderago joango da pixkanaka. Beste errepide nagusiak dira: Tolosatik Azpeitiraino doan GI-2634 errepidea; eta Tolosatik Leitzara doan GI-2130 errepidea.

Tolosaldeko industria gehienak txikiak dira, metalgintzan eta papergintzan ari direnak. Papergintzako lantegiak teknologia aldetik zaharkiturik gelditu dira oso, eta horren eraginez enpresa asko itxi eta beste asko berregituratu behar izan dira. Bestalde, Tolosak eta Billabonak industriagintzarako lurrak prestatzeko arazo larriak dituztenez, industria berri asko Oriako haraneko beste herrietara joan da (Aduna, Zizurkil, Anoeta, eta abar). Zerbitzuen sektoreak ere pisu esanguratsua du, batez ere Tolosan.

ABALTZISKETA

AZALERA: 11,2 km² | **BIZTANLEAK:** 314 | **UDALBATZAREN OSAERA:** HE (7)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

JON ZUBIZARRETA (Alkatea)

HERRIKO HONDAKINEN AZTERKETA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 39 (20 emakumezko, 19 gizonezko)

GAIA:
HONDAKINAK

Abaltzisketako Udalak parte hartze prozesu bat abiatu zuen herritarrak hondakin organikoen trataeraren inguruan informatzeko helburuarekin. Udalerria kokatuta dagoen eremuagatik herritarrek beren kabuz trataera hori egiteko aukera dutela kontuan izanik, horren inguruan herritarrak informatzea eta baliabide horiek erabiltzera animatzea zen Udalaren xedea.

Prozesu honen baitan informazioa eta argibideak jarri ziren herritarren eskura. Esaterako, hondakinak edukiontzi organikora bota beharrean norberak berea kudeatzeko aukerez informatu zuen Udalak, baita kudeaketa hori egiteko baliabideen inguruan (txerriak, konposta, oiloak…). Lorategietako hondakinak ongarri gisa erabiltzeko aukeraren berri ere eman zen eta hondakin horiek uzteko lekuak adosteko ere balio izan zuen prozesuak, baita gainontzeko hondakinen sailkapenaren inguruko argibideak emateko ere. Guzti horrekin, Abaltzisketako Udalak, errefusaren edukiontzian sortzen zen hondakin kopurua murrizteko pausoak eman nahi zituen, baita edukiontzi horretan soilik errefusa botatzea.

6 hilabete inguru iraun zuen prozesu honetan gaia herri batzarretan lantzeaz gain, herritar bakoitzaren egoera banan-bana aztertu zen eta identifikatu ziren arazoei irtenbideak bilatu zitzaizkien. Parte hartu zuten herritarrak, oro har, gustura aritu ziren prozesuan, izan ere, informazioa jaso zuten eta zalantzak argitu zitzaizkien. Hondakinen sailkatzeari dagokionez ere emaitza ona izan zen; errefusaren edukiontzian jasotako hondakin organiko kopuruak behera egin baitzuen. Herritarrek edukiontzien ondoan (lurrean) poltsarik ez uztea ere lortu zen. Beraz, parte hartze prozesuaren bitartez egoera hobetu zen, baina aurrerantzean ere lanean jarraitu beharra ikusi zuen Abaltzisketako Udalak. Hein handi batean norbanakoen jarrerarekin zerikusia duen gai bat izanik eta pertsona bakoitzak bere denborak behar dituela ulertuta, Udalak informazioaren eta kontzientziazioaren bidetik jarraitzeko apustua egin du zigorren bidea alde batera utzita.

Gainera, parte hartze prozesuak Udalari balio izan zion beste gai batzuen inguruan parte hartze prozesu berriak hasteko beharraz ohartarazteko. •



JON ZUBIZARRETA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Parte hartze prozesua oso positiboa izan da. Gainera, ohartu gara herritarrek Udalak daramatzan proiektu guztien berri dutela. Herri batzarrera etortzen direnean, bilera amaitu ostean zalantzaren bat badute lasai asko hurbiltzen dira galderak egitera. Interesa dago herriko gauzetan parte hartzeko.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Hondakinen inguruan herrian ditugun edukiontzi kopurua murriztea, kamioiek egiten dituzten bidaien maiztasuna murriztea eta, bide batez, kostu ekonomikoa murriztea herritarren beharretan oinarrituta erabakiak hartuta.

Zein metodologia erabili duzue?

Metodologia izan da alkateak herri bilerak egitea eta, gero, udal-langile bat etxez etxe joatea ezagutzeko zein ziren etxe bakoitzean euren hondakin organiko propioak kudeatzeko zituzten aukerak.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Oso harrera ona izan du parte hartze prozesuak, izan ere, Abaltzisketan parte hartzeko ohitura handia dago. Ez parte hartze prozesuek indarra hartu dutenetik, baizik eta hemen aspalditik dator herritarrei informazioa emateko eta ekarpenak jasotzeko ohitura. Udaletxeko ateak zabalik daude eta herritarrek ez dute beldurrik erakundera sartzeko, etxera joango balira bezala datoz hona. Parte hartze prozesu honekin lortu da hori areagotzea. Herritar asko ez ziren horrelako kontuetan nahasten eta, orain, etxez-etxe joaten garenean eskertu egiten dute Udala sortzen zaizkien kezken inguruan galdezka joatea.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Herritarrek Udalak haiengan interesa duela sentitzen dute. Sentimendu hori parte hartze prozesu honekin sortu da eta oso garrantzitsua da hori mantentzea.

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
Abaltzisketa
Aduna
Baliarrain
Orendain
Tolosa
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Parte hartze prozesuak egiten jarraitu behar da. Herritarrentzat erakargarriak diren gaiak landu behar dira eta, ahal den heinean, hartutako erabakiak bete behar ditu Udalak, izan ere, hartutako erabakiak betetzen ez badira jendeak ilusioa galtzen du. Herritar guztiei galdetu behar zaie guztiak direlako herri honen parte eta guretzat guztiak direlako garrantzitsuak.

Zer hobetuko zenukete?

Gazteek parte hartu ohi duten herria da Abaltzisketa. Beren kabuz ekimen asko egiten dituzte, adibidez; herriko jaien antolaketa. Baina bakarrik gai mota horietan parte hartzen dute dira. Gai serioagoak direnean, hondakinak edo herri bideen mantentzea esaterako, alde batera egiten dute eta helduei uzten diete parte hartzeko ardura osoa. Beraiek ere aritu beharko lukete prozesu hauetan, izan ere, ikuspuntu desberdinetik ikusi ditzakete gauzak eta proposamen desberdinak egin ditzakete. Kosta egiten da gazteak horrelako prozesuetan murgiltzea.

ADUNA

AZALERA: 7 km² | **BIZTANLEAK:** 465 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (7)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNAK:

JOSU AMILIBIA (Alkatea) eta EDURNE SIMON (Arloko teknikaria)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
Abaltzisketa
Aduna
Baliarrain
Orendain
Tolosa
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

2013-2020 PLAN ESTRATEGIKOAREN KUDEAKETA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 26 (10 emakumezko, 16 gizonezko)

GAIA:
PLAN ESTRATEGIKOA

Adunako Udalak herritarren parte hartzea dinamizatzeko 2013-2020 Plan Estrategikoaren kudeaketari eta Planean barneratutako ekintza zehatzei buruzko parte hartze saioak antolatu zituen. Hiru herritar-foro egin ziren 2016ko ekaina eta azaroa bitartean.

Lehenengo bileran (ekainaren 23an), 2016. urteko lehenengo seihilekoan Udalak aurrera eramandako jardueren berri eman zen, baita urtea amaitu aurretik aurreikusten ziren jardueren inguruko informazioa eman zen. Bestalde, energiaren erabilera izan zen saioaren ardatz nagusia: 2016ko udaberrian udal eraikinetako energiaren eraginkortasunari buruzko azterketaren emaitzak aurkeztu ziren eta sentsibilizazio-saioa egin zen herritarrei energiaren kudeaketan laguntzeko. Saio honi esker urte amaieran energiari buruzko tailerrak antolatzeko premia antzeman zuen Udalak.

Bigarren saioan (irailaren 18an), Udalak ordenantzen inguruko azalpenak eman zituen. Batetik, betelanak egiteko ordenantzak izandako aldaketa azaldu zen eta, bestetik, etxe eta merkataritza hondakinen ordenantzaren zirriborroa eta motordun ibilgailuen aparkalekua eta eremu publikoen erabilera arautzen duen ordenantzaren helburua eta edukia azaldu ziren. Azalpenekin amaitu eta zalantzak argitzean ordenantzei lotutako proposamenak jaso eta horien inguruan eztabaidatu zen. Hondakinen kasuan zirriborroari ekarpenak egin beharrean bilketa-sistemari buruzko hainbat hobekuntza proposatu zituzten herritarrek eta Udalak horiek aintzat hartu zituen; auzokonpostari buruzko ekarpenak, hain zuzen ere.

Hirugarren bileran (azaroren 24an), aurreko bileran egindako ekarpenak ordenantzen bertsio berrietan txertatuta aurkeztu ziren. Bestalde, Plan Estrategikoan lehentasun handiko edo ertaineko eta epe motzean garatzeko ekintzen zerrenda aurkeztu zitzaien herritarrei. Horrela, 2017an Udalak gauzatu zitzakeen jardueren proposamenak landu ziren talde-dinamika baten bidez. Ekarpenak aztertu ostean Udalak horietako batzuk 2017. urtean zehar gauzatzea erabaki zuen.

Prozesuan zehar, herritarrak herrigintza prozesuetan parte hartzea eta 2017an gauzatzeko inbertsio-aukeren inguruan inplikatzea lortu zen. Bileretara bertaratutakoen kopurua aurreko urtearekin alderatuz gero handitu egin zen, baina Udalak oztopo bat identifikatuta zuen: hizkuntza. Saioak euskaraz izan zirenez, herritarren zati baten parte hartzea bultzatzea zaila zela ikusi zen. Gainera, herrian kokatutako enpresei eta gazteei iristeko bideak aztertu behar ditu Udalak. Adunako Udalak argi du herritarrek proposamen interesgarriak azaltzen dituztela eta ekarpen bideragarriak egiten dituztela, eta horretan jarraitzeko asmoa du. •



JOSU AMILIBIA eta
EDURNE SIMON
Alkatea eta teknikaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

2016an hiru saio egin genituen. Herriak duen planaren inguruan eta hurrengo urteko proposamenen inguruan lan egiteko elkartu ginen. Horretaz gain, plan horretan jasotan zeuden ekintza zehatzen inguruan bilera monografiko bat egiteko beharrik bazegoen, lan-saio oso bat eskaintzen zitzaion gaiari, adibidez; hondakinen inguruan. Gaiak eskatzen badu gaikako batzarrak egiten ziren.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Planaren garapenean herritarren parte hartzea sustatzea.

Zein metodologia erabili duzue?

Herri batzarrak antolatzen dira. Normalean, bileraren lehen zatian informazioa ematen da eta bigarrenean herritarren ekarpenak jasotzen dira. Ekarpenak jasotzeko orduan talde-dinamikak egin izan ditugu, horretarako jende nahikoa bertaratu denean. Gainera, urtero gehien etortzen diren herritarrei gutun pertsonalizatua bidaltzen diegu. Gainontzekoek bandoaren bitartez jakiten dute parte hartze prozesuaren berri, horretarako posta bitartez informazioa helarazten dugu, normalean 15 egunean behin. Herritarrek egiten dituzten ekarpenak aztertzen ditugu eta izango luketen kostuaren arabera sailkatzen ditugu. Ekarpen batzuk zentzuzko kontuak izaten dira, kosturik izaten ez dutenak, eta, beraz, urteko plangintzan kontuan hartzen ditugu. Bestalde, kostua dutenekin kalkulua egiten dugu eta Udal aurrekontuan barneratzen ditugu. Normalean, ekarpenek Udalaren norabidea zehazten laguntzen digute.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Orokorrean, harrera ona izaten dute ekimenarekin. Hala ere, hobetu beharra dago ez baitira herritar ugari bertaratzen.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Egiten diren ekarpenak aberasgarriak dira eta Udalak bideragarriak direnak aztertzen ditu urteko jardueren programazioan aintzat hartzeko. Udalarentzat parte hartze

Nabigatu KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
Abaltzisketa
Aduna
Baliarrain
Orendain
Tolosa
UROLA KOSTA
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

prozesua aurrera eramatea oso baliagarria da, jendearen iritzia ezagutzen dugulako eta, horrela, Udaletik hartzen diren erabakiak herritarren babesa dute. Herritarrentzat ere baliagarria dela esango nuke, herriaren funtzionamenduan parte hartzen dute.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Herritarrekin herria eraikitzeko erabakiak hartuta bidea errazagoa dela ikasi dugu. Udaletxeak hartzen dituen erabakien oinarria parte hartzea izateak bermea ematen digu.

Zer hobetuko zenukete?

Herritar gehiagok parte hartzea nahi dugu, hori da hobetu beharrekoa. Formula bat aurkitu nahi genuke parte hartzea handitzeko. Gainera, parte-hartzaileak adin segmentu batetik aurrerakoak dira eta horrek ere badu bere alde txarra uneren batean etortzeari utziko diotelako seguruenik. Gazte jendea da erronka. Saiatu gara; ordutegiak aldatzen, batzarren lekuak aldatzen eta gauza gehiago, baina ez dugu emaitza esanguratsurik lortu.

BALIARRAIN

AZALERA: 2,8 km² | **BIZTANLEAK:** 145 | **UDALBATZAREN OSAERA:** Herritarrak (5)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

OLATZ IRIARTE (Alkatea)

INTERNET SAREA UDALERRIAN

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 37 (21 emakumezko, 16 gizonezko)

GAIA:
KOMUNIKAZIOAK

Tolosaldea eskualdean kokatutako eta Goierri eskualdearekin muga egiten duen Gipuzkoako landa eremuko herri txiki honek, bere kokapenagatik eta ezaugarriengatik telefono eta Internet sarea hedatzeko zailtasunak ditu. Teknologien garaia bizi dugun honetan, herriko gazte eta haurrentzat batik bat, oinarrizko zerbitzua bihurtu da egun Interneterako sarbidea. Arazo honi irtenbidea bilatzeko abiatu zuen Baliarraingo Udalak parte hartze prozesu hau.

Egoerari irtenbidea bilatu nahian *Gipuzkoa Share* proiektuarekin bat egin zuen Udalak. *Gipuzkoa Share*k helburu du, hain zuzen ere , informazio sare eta azpiegitura irekien garapena bultzatzea eta diskriminaziorik gabe eta era unibertsalean herritar ororen eskura baliabide hauek jartzea. Udalak, beraz, helburu bikoitza zuen abiatutako prozesuan: landa eremuan nahiz herrigunean zerbitzu honen gabeziari irtenbideak bilatzea, batetik, eta wifi sare irekiak sustatzea, bestetik.

Horretarako, lehendabiziko pausoa baserri eta etxe bakoitzaren beharrak eta nahiak ezagutzea izan zen, ondoren, etxe edo baserriaren kokapena kontuan hartuta irtenbide tekniko egokiena bilatzeko. Beharren azterketa hori egiteko langile bat kontratatu zuen Udalak eta telekomunikazioetarako eskualdean dagoen aholkularitza zerbitzuaren laguntzarekin egindako azterketaren emaitzak txosten batean jaso ziren. Bilera eta jarduerak ordezkari politikoek gidatu zituzten eta herritarren parte hartzea eraikitzailea izan zen.

Udalaren kezka nagusia zerbitzua udalerri guztian eskaintzeko aukera izatea zen. Prozesuan zehar eskaera gehienak herrigunean jaso ziren eta landa eremutik egindakoak gutxi izan ziren. Azken hauen eskaerei erantzuna emateak zailtasun handiagoak zituen.

Prozesuak bere helburuak lortu zituen hein handi batean. Herritarren beharrak eta kasu bakoitzaren baldintza teknikoak ezagutu eta jaso ziren. Gainera, herrigunean eta herriko ostatuan ere wifi librea jartzea lortu zen. Zerbitzu sarea hobetzea ere posible izan zen, herriguneko zenbait etxeetan zuntz optiko eta wifi bidezko zerbitzua jartzea lortu baitzen. Landa eremuko zenbait etxeetara ere iritsi zen zerbitzua, baina, esan bezala, eremu hauetan zailtasunak handiagoak izan ziren. •



OLATZ IRIARTE
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Hobetzeko asko izan arren, oso prozesu positiboa izan da. Telekomunikazioen gaia jarri genuen gazteek parte hartu zezaten, baina asko ez ziren ohartu ere egin eta ez diote kasurik egin.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Helburua zen Baliarraingo baserri guztietara Interneta iristeko aukera eskaintzea.

Zein metodologia erabili duzue?

Lehendabizi Udalak eragile desberdinen bitartez informazioa jaso zuen. Jarraian, lortutako informazio hori herritarrei azaldu zitzaien bi bilera orokorretan. Gainera, langile bat kontratatu genuen etxez-etxe joateko bakoitzean elkarrizketa bat egin zezan.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Orokorrean harrera ona izan du. Hirugarren adineko pertsonek eta helduek oso parte hartze maila handia eta txukuna dute, baina gazteekin hutsune handia dago.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Ondorio nagusia da merezi duela parte hartze prozesuak egiten jarraitzea. Alde batetik, herrian dauden arazoei irtenbidea bilatu eta, bestetik, etorkizunean egin behar diren ekintzetan herritarrek ere euren iritzia eman dezaten.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Alde batera utzi behar dira herritarren artean dituzten liskarrak. Aurrera egiten jakin behar da horrelako gai interesgarri batzuk herriaren beharrei egokitu daitezen.

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
Abaltzisketa
Aduna
Baliarrain
Orendain
Tolosa
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

Zer hobetuko zenukete?

Gazteen parte hartzea hobetu beharreko kontu nagusia da. Bestalde, jendeak patxadaz hitz egin behar du, beraien arteko liskarrak alde batera utzita.

ORENDAIN

AZALERA: 6,4 km² | **BIZTANLEAK:** 196 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (5)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

GORKA EGIA (Alkatea)

UDALEKO AURREKONTUEN PARTE-HARTZEA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 53 (28 emakumezko, 25 gizonezko)

GAIA:
AURREKONTUAK

Orendaingo Udalak azken urteotan ohitura bilakatu du herritarren parte hartzea Udal aurrekontuak egiteko. Parte hartze horrek helburu du Udaleko aurrekontuen egitura eta balioak herritarrei ezagutzera ematea, Udalak dituen ahalmenak eta ahuleziak ezagutaraztea eta Udalaren gastu finkoaren eta ez finkoaren berri ematea. Era berean, herritarrei inbertsioetako atalean parte hartzeko aukera ematen zaie herriarentzat beharrezkoak diren eginkizunetan adostasunera iristeko helburuarekin.

Prozesuak hiru fase izan ohi ditu:

- Herritarrak informatu eta galdetu.
- Ekarpenak jaso eta baloratu.
- Herri batzarrean emaitzak aurkeztu.

Beraz, Gipuzkoa ekialdeko herri txiki honetan herritarrei Udal aurrekontuetan erabakiak hartzeko abagunea eskaintzen zaie.

Esan bezala, lehenengo urratsa herritarrei informazioa banatze eta galdetegia etxeetara bidaltzea izan zen. Herriko etxe bakoitzetik gutxienez erantzun bat lortzea zen Udalaren helburua eta 2016. urtean etxeen %85etik jaso zen galdetegia erantzunda.

Bigarren urratsa, Udalak galdetegien bitartez jasotako ekarpenen bideragarritasuna baloratu ondoren horiek hurrengo urteko aurrekontuetan txertatzeko aukera aztertzea izan zen.

Azkenik, abenduko bigarren igandean herri batzarra antolatu zen udaletxean prozesuaren berri emateko. Batzarrean, lehenik eta behin, teknikariak prozesuaren aurkezpena egin zuen eta, ondoren, herritarrek parte hartzeko aukera izan zuten. Saio horren helburua aurrekontuetan barneratu behar ziren ekintza edo inbertsioak erabakitzea zen. Prozesuaren fase honetan 43 orendaindarrek parte hartu zuten.

Prozesuan zehar egin beharreko komunikazioak euskaraz egiteak ez zuen zertan eraginik izan Orendain bezalako herri batean parte-hartzaileen aniztasunean. Hala ere, hizkuntza aniztasuna errespetatzeko eta parte hartzea ahalik eta gehien sustatzeko helburuarekin, galdeketak banatzen direnean erantzuteko laguntza pertsonalizatua eskaintzen zaie euskara ulertzeko arazoak dituzten herritarrei. Gainera, herri batzarretan ere hitz egindakoaren laburpena egiten da gaztelerara itzulita eta, horrela, ulertzeko arazoak dituzten herritarrei parte hartzea errazten zaie. •



GORKA EGIA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Alkatea

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Oso arrakastatsua, erantzun oso ona jaso dugu. Herriaren funtzionamenduaren oinarria da. Gainera, herrian egingo dena herritarrek erabakitzen dutenez Udalak bere burua babesteko ezinbesteko tresna da.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Gure helburua herria bizia izatea da eta horrek herritarrek herriko ekintzetan parte hartzea eskatzen du. Ikastaroak, hitzaldiak... antolatzen dira. Horretarako, jendeari galdetzen diogu zer ikasi nahi duen edo zeren inguruko hitzaldiak jaso nahi dituen.

Zein metodologia erabili duzue?

Lehenengo galdetegia bidaltzen dugu etxe guztietara. Lehenengo orrialdean aurreko urtean onartutako ekintzak aurkezten dizkiegu eta lehentasun mailaren arabera sailkatzeko eskatzen diegu. Proposamen berriak jasotzeko atal bat ere badugu. Galdetegia baloratzeko atal bat ere bada eta horren arabera urtez urte galdetegia moldatzen goaz herritarrentzat egokiena dena bilatzen. 2016an herritarren %95ak bete zuen, 16 urtetik gorako ia guztiek. Bigarren fasea herri batzarra da. Pasa den urtean 44 pertsona hurbildu ziren. Helburua ez da bete, izan ere, etxe bakoitzetik gutxienez pertsona batek parte hartzea nahi dugu, baina %50-60 bitartean gaude. Bertan, alde batetik, galdetegiko emaitzen berri ematen diegu eta, bestalde, urteko kontuak aurkezten ditugu, horrela, gardentasun ariketa eginda. Era horretan, Udalaren egunerokotasunaren berri ematen diegu: aurrekontuen proiekzioa, espero den gerakina, gastuen justifikazioa, lizitazioak, martxan dauden proiektuak... Gainera, bilera horretan auzolanean egingo dena erabakitzen da.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Denetik jasotzen dugu, era guztietako kritika, iritzi pertsonalak eta ekarpenak. Orendainen ez zegoen parte hartzeko ohiturarik. Hori dela eta, parte hartzea ahalik eta modu indibidualistenetik sortzen saiatu gara eta, noski, badugu zertan hobetu. Herritarrak parte

Nabigatu KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
Abaltzisketa
Aduna
Baliarrain
Orendain
Tolosa
UROLA KOSTA
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

hartzearekin pozik daudela esan daiteke beraiek hartutako erabakietan oinarrituta gauzak egiten ari garelako. Egiten ari garen gauza guztiak herritarren eskakizunetan oinarrituta daude.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Ezinbestekoa da. Orendaingo Udaletxeak ezingo zuen gaur egun bezala funtzionatu parte hartzerik ez balego. Udal bezala ezinbestekoa dugu herritar guztien artean hartutako erabakiak aurrera eramatea. Objektiboki esatea dago Orendainen parte hartze kultura sustatzen ari dela pixkanaka. Herritar guztien artean hartutako erabakien arabera funtzionatzen dugu Orendainen.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Parte hartzea da nik demokraziaz ulertzen dudanaren lehenengo pauso bat. Hori sustatzen jarraitu behar dugu, eta hurrengo pausoa da herritarrek ekarpenak modu indibidualean egiteaz gainera modu kolektiboan ere egitea.

Zer hobetuko zenukete?

Hausnarketa kolektiboa da falta zaiguna. Galdetegiak banatu aurretik edo banatu ondoren hausnarketa mahai batzuk irekiko ditugu proposamenak baloratzeko eta benetan beharrezkoa zaiguna identifikatzeko.

TOLOSA

AZALERA: 37,9 km² | **BIZTANLEAK:** 19.041 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (9) EH Bildu (7) PSE-EE (1)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

JOSEBA ORMAZABAL (Partaidetza zinegotzia)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
Abaltzisketa
Aduna
Baliarrain
Orendain
Tolosa
UROLA KOSTA

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

2026 PLAN ESTRATEGIKOA ETA AGENDA 21 EKINTZA PLANA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 259 (111 emakumezko, 148 gizonezko)

GAIA:
PLAN ESTRATEGIKOA

tolosatzen

Tolosako Udalak parte hartze prozesu bat jarri zuen abian Udal aurrekontuetako proiektu estrategikoak eta datozen zortzi urteetarako lan lerro nagusiak zehazteko. Beraz, herritarrei 2026 urtera arteko hausnarketa estrategikoan parte hartzeko aukera eman zitzaien. Proiektu horri "Tolosatzen" izena eman zitzaion.

Herritarrak ez zeuden bakarrik hausnarketa horretan, izan ere hiru lan-esparru sortu ziren horien guztien arteko sinergiaz baliatuta erabakiak hartzeko.

Alde batetik, gobernu taldeko eta oposizioko politikariek Jarraipen Taldea osatu zuten, bestetik, udal teknikariek Lankidetza Mahaia osatu zuten eta, azkenik, herritarrek Talde Sustatzailea eta Mahai Sektorialak osatu zituzten. Hiru parte hartze eremu horietaz gainera bestelako tresnak ere sortu ziren eta horien bitartez, adibidez, Tolosako kaleetan zein web orrialdean inkestak erantzuteko aukera eskaini zen.

Beraz, herritarren parte hartzea politikarien eta teknikarien parekoa izan da. Horretarako, lehenik eta behin Talde Sustatzailea eratu zen. Talde horren osaerarako gonbita 2016ko martxoaren 17an antolatutako bilera irekira hurbildu zirenei luzatu zitzaien. 35 pertsona inguruko taldea sortu zen eta horrek herriaren errealitate sozialaren eta ekonomikoaren ordezkari izateko funtzioa zuen. Betebehar nagusietako bat udalerriaren erronka nagusiak formulatzea izan zuen. Lan-talde horren egitasmoa Mahai Sektorialen egituraketa eta mahai bakoitzean jorratu beharreko gaiak proposatzea zen, ondoren Lankidetza Mahaiekin eta Jarraipen Batzordearekin osatu eta adosteko.

Gaien arabera lau Mahai Sektorial antolatu ziren, eta bakoitzaren bileren helburua gai zehatzen hausnarketa eta eztabaida aberatsa egitea zen.

Eztabaida mahaien gaiak

- Pertsonak: osasuna, ongizatea, 3. adina, gazteak, etorkinak, emakumeak, ezgaitasuna, bizikidetza eta kohesioa eta bizi-kalitatea.
- Kultura eta hezkuntza: euskara, kulturartekotasuna, hezkuntza, kirola, kultura eta elkarteak.
- Ingurumena eta lurralde antolamendua: hirigintza eta etxebizitza, natur baliabideak, ingurumen naturala eta mugikortasuna.
- Ekonomia: enplegua, baldintza sozioekonomikoak, ekintzailetza, merkataritza.

Horien lana ekintza zehatzak eztabaidatzea eta proposatzea zen eta, horretarako, ezartze-fasean udal aurrekontuen lanketan parte hartu zuten.

Faseak

Laburbilduz, herritarren parte hartze prozesu honetan bost fase nagusi bereizten dira. Lehen fasean, diseinu fasean, Talde Sustatzaileak lan egin zuen prozesuaren artikulazioan, herritarren parte hartzearen jarraibideak eta irizpideak definitzean eta adostean eta lan-esparru nagusiak identifikatzean.

Bigarren fasea, argazki partekatuaren fasea izan zen. Fase horretan aurrekoan identifikatutako eremu estrategikoen arabera antolatu eta udalerriko egoeraren ikuspegi partekatua lortu zuten Mahai Sektorialek. Horretarako, eremu bakoitzaren lehentasunak identifikatu eta modu partekatuan adostu zituzten. Ordura arte Mahai Sektorialek gai bakoitzaren inguruan egindako lanaren ondorio aipagarrienak honakoak ziren:

- Pertsonak: gizarte sektore desberdinak udalerrian inplikatu behar dira eta horien parte hartzea sustatu behar da. Batez ere, haur eta gazte eta 3. adinekoena.
- Kultura eta hezkuntza: ikastetxeek irekiagoak izan behar lukete eta herriari begira egon behar lukete, horretarako zentro desberdinak elkarlanean arituta.
- Ingurumena eta lurralde antolamendua: landa eremuak sustatu behar dira lehen sektorea bultzatzeko.
- Ekonomia: tokiko produktuak, gastronomia eta kultura ardatz izango dituen kalitatezko turismoa bultzatu behar da.



Orain arte azaldutakoa prozesuan zehar burututakoa da eta aurrerantzean hirugarren faseari ekingo zaio. Hirugarren fasean, formulazio estrategikoa egingo da 2030. urtera begira udalerriak hartu behar dituen erronkak eta xedeak definitzeko eta adosteko.

Laugarren fasea planaren definizioa eta ekintzen karakterizazioa da eta datozen zortzi urteetara begira Ekintza Plan berri bat definituko da. Ekintza horiek partekatuak izango dira eta guztien artean eztabaidatuko dira.

Azkenik, 5. fasea segimenduaren definizioa da. Planaren ezartze faseari begira jarraipen plana diseinatuko da eta jarraipen planean parte hartze mekanismoen eginkizuna adostu eta balioztatuko da.

Horrela, 2018tik aurrera parte hartze prozesuaren bitartez osatutako Plan Estrategikoaren jarraipena besterik ez da egingo 2025. urtera arte, azken hau ere barne. •





ELKARRIZKETA



JOSEBA ORMAZABAL
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Zinegotzia

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

2016an Plan Estrategiko berria egiten hasi behar genuen eta, beti bezala, herritarrekin egin behar genuen. "Tolosatzen" proiektuan plangintza bat definitu genuen, hau da, norabide bat zehaztu, eta ekintza batzuk zehaztu genituen. Baina, ekintza horiek betetzeko egin beharreko jarduerak nolabait irekita utzi genituen urtez-urte herritarrekin elkartu eta elkarrekin erabakitzeko aukera izan genezan. Beraz, 10 urteko proiektua da eta urtero elkartu beharko gara.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Plan Estrategikoa zehaztu nahi da herritarrekin batera. Beraiekin nolabait gardentasuna eta partaidetza sustatu nahi dira. Aldi berean, kontu emate hori landu nahi dugu. Gu gobernu bezala lau urte gaude udaletxean eta Plan Estrategikoak begirada luzeagoa du, berezko gobernu batena baino luzeagoa. Halaber, Plan Estrategikoak ez du Udalarena bakarrik izan behar, baizik eta herritar guztiena izan behar du.

Zein metodologia erabili duzue?

Hasteko, herritarrekin Talde Sustatzailea eratu genuen modu irekian proiektuaren helburuak eta jarraitu beharreko irizpideak zeintzuk ziren definitzeko. Beraz, proiektuaren diseinua ez zen udaletxe barruan egin, baizik eta herritarrekin egin zen. Erabaki zen lau Mahai Sektorial egongo zirela eta, horietan, edonork parte hartu zezakeela. Talde Sustatzaileak ikuspegia sortu zuen, hau da, zer nolako Tolosa irudikatzen dugun 2030ean.

Ondoren, herritarrei deitu zitzaien parte hartzeko mahai horietara eta lehenengo lana diagnosia egitea izan zen. Alde batetik, datu bilketa egin zen Tolosako biztanleriaren inguruan eta, bestetik, tolosarrei eskatu zitzaien modu kualitatiboan, datuetatik haratago, herrian zeuden gabezien argazkia osatzeko. Hurrena, Plan Estrategikoaren definizioa zen. Horretarako, herritarrekin batera lau ildo estrategiko zehaztu ziren eta ildo bakoitzaren barruan ekintza batzuk definitu ziren.

Hemendik aurrerantzean, herritarrekin urtero elkartu behar gara proiektuko ekintzak zehazteko eta aurreko urtean hartutako konpromisoen betetze maila ezagutzeko.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Hasiera batean mesfidantza apur batekin parte hartzen dute. Kezka sortzen die politikariek parte hartze prozesuari emango dioten erabilerak. Beraz, gerturatzen dira, bai, baina zalantzekin. Zalantza sortzen die euren esfortzuak eragina izango duen. Herritarren konfiantza irabazten ari garela esan daiteke, horretarako ahaleginak egiten ari gara behintzat. Indarra ematen ari gara kontu emateari. 10 urteko proiektua da hau eta oraindik ez da nahikoa denbora pasa herritarrak proiektuan nahasten diren hala ez ikusteko. Orain arteko partaidetza irregularra izan da, batzuetan handia eta besteetan txikia. Faktore asko daude kontuan hartu behar ditugunak herritarrek parte hartu dezaten, batik bat, programazio kultura.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Beharrezkoa da Udalaren, herritarren eta eragileen arteko lankidetza indartzea eta sustatzea. Horrek dakar du Udalaren ekimenak eta jarduerak herritarrekin lantzea eta ezinbestekoa da horrelako tresna bat edukitzea. Aldi berean, udal barruan parte hartzeko kultura ez dugu eta herritarrek ere ez dute, hori landu behar da. Prozesua abiaraztean gabeziak ikusten dira. Ez gaude ohituta horrelako mahai batean behar pertsonalei erreparatu gabe ikuspegi zabalgo batekin lan egitera. Horrek herritar bezala ikasi egin behar dugula suposatzen du, baita Udal bezala lan egiteko kultura aldatu behar dugula. Partaidetza handia lortzeko eragileekin harremanetan jarri behar dugu, izan ere, ezin ditugu deialdiak komunikabideen bitartez bakarrik egin.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?


Geroz eta gehiago entzuten dugu elkar. Ez bakarrik norberaren beharrak, baizik eta ondokoaren beharrak beste ikuspuntu batetik adosten ikasi dugu. Komunitate ikuspegia lantzen ari gara. Baina, ikasi dugu herritar guztiek ez dutela erritmo berean lan egiten eta ez dituztela behar berdinak. Horren arabera, lan-saio kopuruak desberdinak izan daitezke batzuen eta besteen artean. Hurrengo urteetan ez dugu lan egin behar orain arte egin dugun moduan bakarrik, baizik eta bilerak txikitu eta zabaldu egin behar ditugu errealitate guztiei erantzuna emateko.

Zer hobetuko zenuke?

Udal barruan talde bat sortu zen proiektu hau martxan jartzeko eta talde hori arduratu da proiektuaren lidergoaz. Lortu beharko genuke Udal sail guztiak elkartzea eta lidergo amankomuna edukitzea sailek zuzenduta, talde berezi bat sortu gabe hau bideratzeko ardurarekin. Orain arte, sailek proiektuan parte hartzen dute eta lortu beharko genuke sailek lidergo horretan egotea. Izan ere, Udal sailak proiektuaren lidergoan egonda lehenago identifikatuko genituzke proiektuak berak dituen zailtasunak. Baliteke horrela gehiago kostatzea proiektua martxan jartzea, baina luzera begira zailtasun gutxiago sortuko litzaizkiguke.

UROLA KOSTA

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezil, Getaria, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaia





HERRIAK

11

BIZTANLEAK

43.500 (gipuzkoarren %6,13)

AZALERA

327,2 km² (Gipuzkoaren %16,5)



ETORKIZUNA ERAIKIZ

Eskualde honen iparreko muga itsasoa da. Ekialdean Donostialdearekin eta Tolosaldearekin egiten du muga; hegoaldean Goierrirekin; eta mendebaldean Deba Garai eta Beherearekin. Guztira 327,2 km²-ko lur eremua dauka, hau da, Gipuzkoakoaren %16,5 eta bi ibaiek zeharkatzen dute, Urola ibaiak eta Oria ibaiak. Hamaika udalek osatzen dute eskualde hau. Zarautz eta Azpeitia dira hirigunerik garrantzitsuenak. Zarautzen eraginpean daude itsasaldeko herriak: Aizarnazabal, Aia, Zumaia, Getaria eta Orio; azken herri hori oso lotua dago Donostiari. Azpeitiak bere eraginpean ditu barrualdeko herriak: Azkoitia, Zestoa, Errezil eta Beizama.

Komunikazioak, W-E norabidean, errepide hauen bitartez egiten dira: A-8 (Bilbao-Behobia) autobidea; N-634 kostaldeko errepidea; eta Elgoibar, Azpeitia, Azkoitia, Errezil eta Tolosa lotzen dituen GI-2634 errepidea. Bestalde, norabide berean, Gipuzkoa eta Bizkaia lotzen dituen bide estuko trenbidea dago. Urolako arroarekin lotura GI-631 errepidearen bitartez egiten, da (Zumaiatik Zumarragaraino doana), eta Goierrirekin berriz GI-2635 errepidearen bitartez (Azpeititik Beasaineraino doana). Urolako trenbidea azken errepide horren alboz albo zihoan, baina urte luzeen ondoren 80ko hamarkadan zerbitzua kendu eta trenbidea deuseztu zuten. Azpeitiko geltoki zaharrak Trenbidearen Euskal Museoa gordetzen du egun.

Zerbitzuen sektoreak eta industriak dute pisu gehien, baina lehen sektoreak beste eskualdeetan baino pisu nabarmenagoa dauka hemen; bereziki herri txiki batzuetan: Getarian, Aian , Beizaman, Errezilen eta Orion. Getarian eta Orion arrantzak duen pisuak eragin handia izan dezake lehen sektore horretan hainbeste langile izateko. Turismoari lotutako jarduerak garrantzi handikoak dira kostaldean, batez ere Zarauzko hondartzaren eta Zestoako bainuetxearen inguruan. Oporretako bigarren etxeak eta udaldiko alokairuzkoak ugariak dira Zarautzen. Azpeitia epai barrutiko burua da; barruti horretan eskualdeko herri guztiak, eta orobat ere Tolosaldeko Bidegoian sartzen dira.

AZPEITIA

AZALERA: 69,4 km² | **BIZTANLEAK:** 14.812 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (10) EAJ-PNV (7)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

ESTITXU ELDUAIEN (Zinegotzia)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
Azpeitia
Getaria
Zarautz
Zestoa

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

DENON ARTEAN PARTE HARTZE PROZESUA 2017

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 2017 (106 emakumezko, 111 gizonezko)

GAIA:
PLAN ESTRATEGIKOA

Azpeitiko Udalak 2016an egindako prozesuak bi helburu zituen; alde batetik, 2017ko aurrekontuen bitartez herritarren beharrei erantzutea horien ekarpenak, ideiak eta proposamenak kontuan hartuta eta, bestetik, 2015-2025 Plan Estrategikoaren baitako zenbait arlo eguneratzea eta egokitzea.

Udalak hiru postontzi iraunkor ditu (liburutegian, igerilekuan eta udaletxean) eta bertan herritarrek euren ekarpenak egiteko aukera izan zuten etxez etxe banatutako galdetegiak erantzunez eta postontzi horietan utzita. Baina hori ez zen izan ekarpenak egiteko bide bakarra, izan ere, Udalaren webgunearen bitartez, parte hartzea sustatzeko espresuki sortutako web orrialdearen bitartez, telefonoz, Twitter edo Facebook sare sozialen bitartez edota posta elektronikoz ere ekarpenak egiteko aukera izan zuten herritarrek. Gainera, 2016ko azken hilabeteetako parte hartzearen gorakada zela-eta kalean postontzi bereziak jarri ziren.

Horretaz aparte, Udalak auzoetako batzarrak eta arlo desberdinen inguruko batzarrak antolatu zituen, horietan ekarpenak jaso eta herritarren beharrei hobeto erantzuteko.

Auzo-alkateen lana gehitu behar zaio horri, izan ere; Lasao, Matxinbenta, Urrestilla, Nuarbe, Aratz-Erreka eta Elosiaga auzoekin elkarlana indartzen ari baita Udala.

Bilerak herritarrentzat ohikoak diren guneetan egin ziren eta, horrela, udal ordezkariak izan ziren herritarrengana hurbildu zirenak. Saioak urte bukaeran izan ziren, hain zuzen ere, azaroan: auzoka sei eta arloka zortzi. Arlokako bileretan landutako gaiak hurrengoak izan ziren: kirola, kultura, euskara, aniztasuna, hirugarren adina, enpleguaren eta ekonomiaren sustapena, gazteria eta klima aldaketa. Bileretan Udalak 2017rako arlo bakoitzean zituen proiektuak aurkeztu zituen lehendabizi eta, ondoren, gaiaren inguruko eztabaida sustatu eta ekarpenak jaso zituen.

Parte hartze prozesua egonkortzen ari da Azpeitian, izan ere, herritarrek eta eragileek bileretan modu aktiboan parte hartzen dute ekarpenak egiten, eta bertaratu ezin dutenek postontzia erabiltzen dute horretarako. Guztira 100 ekarpen inguru jaso ziren 2016an eta 100 azpeitiar baino gehiagorekin bildu zen Udala. Herritar horiek adin eta jatorri desberdinetakoak izaten saiatu zen prozesua zabalagoa, irekiagoa, anitzagoa, aberatsagoa eta zuhurragoa izan zedin. Abenduaren 23an Udalak, herritarrekin egindako bilera zabal batean aurrekontuen zirriborroa aurkeztu zuen, bertan, azken proposamenak egiteko eta, horrela, urtea amaitu aurretik aurrekontuak onartzeko. •



ESTITXU ELDUAIEN
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Zinegotzia

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Azpeitian parte hartze prozesua 2012tik dator. Urteetako eskarmentua dugu eta badaude mahai batzuk egonkorrak direnak: kultura-mahaia, kirol-mahaia, eta euskara-mahaia, esaterako. Badaude mahai batzuk herriko eragileekin eta, horietan, urtean zehar antolatzen diren ekimenak beraiekin hitz egiten eta adosten ditugu. Hori egonkortuta dago. Gainera, herriari eta udal politikari dagozkion gai desberdinak herritarrekin hitz egiteko eta erabakiak hartzeko foroa dugu. Baina, urtero udazkenetik urte bukaerara aurrekontuak daude eta, 2012tik aurrera, ahalegin berezia egiten dugu proiektu horretan. Alde batetik, hori egin zen epe motzean, 2017ra begira, zer nolako herria nahi genuen eta zein proiektu gauzatu nahi genituen erabakitzeko. Bestalde, epe luzera begira ere lan egin dugu. 2013an egin zen Azpeitian Plan Estrategikoa, hau da; herriko eragileekin, herritarrekin, udal teknikariekin eta politikariekin parte hartze prozesu bat egin zen 2025eko Azpeitiari begira. Orduan krisi garai garrantzitsuan ginen eta ekonomia politikari eta babes sozialari garrantzia handia eman zitzaion, horrela, beste arlo batzuk gutxiago landuta. 2016an ikusi zen azken 3 urteetako egoera hobetu zela eta, orduan, Plan Estrategikoa eguneratzeko helburua hartu genuen. Bi prozesuak une berean egin genituen eta biek galdera berdinei erantzuna eman behar zioten. Bien arteko aldea epeari zegokion: aurrekontuena 2017ra begira zen eta Plan Estrategikoarena 2025era begira.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Azpeitiko herritarren, eragileen eta politikarien artean epe laburreko zein luzeko Azpeitiaren beharrak identifikatzea, horien inguruko erabakiak hartzea eta helburuak zehaztea.

Zein metodologia erabili duzue?

Aurrekontuen kasuan mahai batzuk egituratuta daude gai desberdinen inguruan. Udal sail bakoitzaren arabera mahai bat dago eratuta eta horiek bi hilabetean behin edo hilero elkartzen dira. Horiek, bilerak antolatu zituzten eta argazki partekatua lortu zen. Plan Estrategikoaren kasuan prozesua luzeagoa eta konplexuagoa izan zen. Horretan egon ziren 2013an parte hartu zuten herritar eta eragileek osatutako mahaiak eta mahai-politikoak eta mahai-teknikoak parte hartu zuten prozesuan. 2013an egin zen prozesua

Nabigatu KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
Azpeitia
Getaria
Zarautz
Zestoa
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

errepikatu zen: lehenengo teknikariekin aztertu zen Plan Estrategikoak zer jasotzen zuen eta noraino zegoen beteta, zertan huts egiten zen eta zer zegoen zaharkituta. Gero, herritarrekin Plan Estrategikoaren lau alor garrantzitsuenak landu ziren. Lau bilera egin ziren. Teknikariekin eta herritarrekin egindako bileretatik ateratako ondorioak hartuta politikarien mahaia antolatu zen eta, horrela, Plana eguneratu zen.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Gure kasuan nahiko ohiko bihurtu da. Batez ere eragileek dute bileretan parte hartzeko ohitura. Egoeraz jabetuta daude eta beraien ekarpenak probetxuzkoak direla ikusten dutelako etortzen dira. Norbanakoei gehiago kostatzen zaie. Talde baten ordezkari bezala gutxiago kostatzen zaie parte hartzea, baina norberaren izenean gehiago kostatzen da. Hori ikusita buzoi batzuk ditugu herrian zehar galdetegi batekin eta online erantzuteko aukera ere eskaintzen da. Bide horretatik erantzun asko jasotzen dugu.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Gure irakurketa da asko dugula hobetzeko, baina Azpeitian pixkanaka parte hartzeko kultura sortzen ari dela eta herritarrek betebeharra ikusten dutela ekarpenak egiteko orduan.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Partaidetza prozesua martxan jarri zenean politika modu desberdin batean egiteko ametsa zen. Ez genekien jendeak nola erantzungo zuen eta prozesua nola irtengo zen. Egiten dugun balorazioa da bide hauek egitea askotan neketsua dela, baina merezi duela herritarrei eta eragileei ekarpenak egiteko aukera ematea. Horrela, herria denon artean egiten dugu eta aberatsagoak izan gaitezke. Guk Udaletik ikuspuntu bat izan dezakegu, baina herritarrek beste ikuspuntu bat izan dezakete eta, azken finean, herritar guztientzat egiten dugu politika.

Ikasi dugu honetan sakontzen joateko pausoak emateak merezi duela eta urtez-urte aurrera egin behar dugula. Bide egokia da eta emaitza onak lortzen dira.

Zer hobetuko zenukete?

Parte hartzeak ezin du zerbait puntuala izan. Ikusi dugu momentu puntual batean gauza bat eginda ez direla parte hartze eta elkarlan politikak bermatzen. Urte osoan egin behar den zerbait da. Ahalik eta foro egonkor gehien sortu behar dira herritarrekin eta eragileekin elkarlanean gauzak hitz egin eta erabaki ditzagun. Ezin da zerbait puntuala izan, baizik eta zeharkako zerbait izan behar du; egunerokoan ahalik eta eremu gehienetara zabaldu behar da.

GETARIA

AZALERA: 10,6 km² | **BIZTANLEAK:** 2.791 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EH Bildu (7) EAJ-PNV (4)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

IBON GEREKA (Parte hartze zinegotzia)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
Azpeitia
Getaria
Zarautz
Zestoa

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

POTZUAGA PARKEKO PARTE HARTZE EGITASMOA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 190

GAIA:
HIRIGINTZA

Getariako Udala

Getariako Udalak, Potzuagako jolaslekuaren berritzea, parte hartze prozesu baten emaitza izatearen aldeko apustua egin zuen, eta lortutako emaitzarekin pozik daude, bai parte hartu zuten herritarrak zein agintariak.

Jolastokia eraiki zezaketen hornitzaileekin harremanetan egon ostean, Udalak sare sozialen bitartez herritarrei proiektu honetan parte hartzeko informazio kanpaina helarazi zien. Horren ondorioz, bilerak izan zituzten auzokide, guraso eta umeekin, iritzi eta ekarpenak jaso eta horien beharretara egokitutako diseinu urbanistikoa lantzeko. Horretaz gain, Iturzaeta herri eskolarekin elkarlan estuan aritu ziren Udal arduradunak.

Jolastokiko erabiltzaile izan litezkeenak izan ziren parte hartze prozesuaren azken urratseko protagonistak; haurrak, alegia. Iturzaetako ikasleek ikastetxean bertan eta herriko gainontzeko haurrek udaletxe azpian ipini ziren mahai batzuetan bozkatzeko aukera izan zuten. Guztira 190 boto jaso ziren eta 2017ko ekainean zabaldu zen parte hartze prozesuaren ondorioz herritarrek erabakitako jolastoki berria. •








IBON GEREKA
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Zinegotzia

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Potzuagako jolastokia berritzeko parte hartze egitasmoa udal aurrekontu parte-hartzailetik abiatu zen, hau da, ideia ere parte hartzean oinarrituta zegoen. Guretzat modu profesionalean egiten genuen aurrenetako parte hartze prozesuetako bat izan zen eta ikasteko balio izan zigun. Herritarrak horrelako parte hartze prozesuetara ohitu behar direla ere ikusi genuen. Parte hartze prozesuak aurrera eramatea gauza berria da Getarian eta arazoak bideratzeko prozedura egokia dela ikusi dugu.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Hasierako helburua zen aurrekontuetatik atera zen ideia hori gauzatzea. Horretarako haurren parte hartzean oinarritutako prozesua egin nahi genuen, haurrak izango zirelako parkearen erabiltzaileak. Orduan, beraiek nolakoa izango zen erabakitzea bidezkoa iruditu zitzaigun.

Zein metodologia erabili duzue?

Lehenengo informazioa zabaldu genuen, batez ere haurretan zentratuta. Gurasoekin bilerak egin genituen jolastokiaren beharrak jasotzeko. Ostera, informazio hori pleguetara pasa genuen. Aurrekontu itxi batekin bi enpresek proposamenak egin zituzten. Proiektu horiek 3D panel batzuetan aurkeztu zitzaizkien parkea erabiliko duten haurrei eta horien gurasoei. Iturzaeta Ikastetxearekin landu genuen bozketa egiteko modua, izan ere, bozka gehien jasotzen zituen proiektuari esleituko zitzaion parke berria eraikitzea. Bozka emateko aukera luzatu genien Getariako ikastetxean ikasten dutenei eta herrikoak izanik kanpoan ikasten duten haurrei ere. Egun bat ezarri genuen, haurrek bozkatu zuten eta kontaketa egin ostean proiektua esleitu genuen. Obra egin zen eta dagoeneko haurrek parkean jolastu dezakete.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Umeen artean momentu horretan harrera oso ona izan zuen ekimenak. Jendea oso ondo aktibatu zen. Herritarrak ere parte hartzera animatu ziren. Hain harrera ona izan zuen eta herritarrek horrenbesteko gogoz hartu zuten Euskadi Irratian elkarrizketa bat egin zigutela gaiaren inguruan galdezka.

Nabigatu KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
Azpeitia
Getaria
Zarautz
Zestoa
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Ateratzen ditugun ondorioak oso positiboak dira. Are gehiago, konturatu gara parte hartze prozesuak izan daitezkeela herri barruan elkarbizitza sustatzen laguntzeko eta tentsioak alde batera uzteko bide bat. Hau da, herrian sortzen diren eztabaidei irteera adostu bat emateko balio dute.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Ikasi dugu parte hartze prozesuak oso ondo diseinatu behar direla, eta funtzionatu dezaten oso helburu zehatzak ezarri behar dira. Oso ondo finkatu behar dira egiten diren bilera edo saio bakoitzaren helburuak, baita ere nori zuzenduta dauden. Zalantzarik gabe diseinuak oso zehatza izan behar du, bestela landu beharreko gaitik aldendu gaitezke.

Zer hobetuko zenukete?

Zerbait hobetu beharrean epeak hobeto zehaztu beharko genituzke. Hasi aurretik epe batzuk finkatu eta horiek bete behar dira prozesuak bere horretan aurrera egin dezan bestelako eragozpenik gabe.

ZARAUTZ

AZALERA: 14,3 km² | **BIZTANLEAK:** 23.040 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (10) EH Bildu (7) PSE-EE (2) Irabazi (2)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

NEREA OLLOKIEGI (Partaidetzako teknikaria)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
Azpeitia
Getaria
Zarautz
Zestoa

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

HERRITARREN PARTE HARTZERAKO ZARAUZKO UDALAREN 2016KO PLANA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 243 (100 emakumezko, 143 gizonezko)

GAIA:
PARTE HARTZEA

Herritarren parte hartzerako Zarauzko Udalaren Planaren baitan, 2016an hainbat ekintza garatu zituen Zarauzko Udalak.

Erakundearen barruan beharrezkoak diren aldaketak sustatzeko Udalaren kudeaketan parte hartzearen eta elkarlanaren kultura indartzeari begira, sailen barruko funtzionamenduaren koordinazioa hobetu, lankidetza sustatu eta efizientzia handitzeko interbentzioak egin ziren. Gainera, hainbat sailekin partekatutakoa izango zen parte-hartze proiektu pilotua (Gaztematika) diseinatu, monitorizatu eta sistematika estandarizatzeko planteamendua egin zen.

Herritarren parte hartzea sustatu eta garatzeko xedeari begira, Udal gobernuaren eta Udalbatza osoaren jarduerak gidatu eta partaidetzazko aurrekontuen prozesu iraunkorrerako planteamendua diseinatu zen. Herritarren parte hartzearekin loturiko ekintza guztiak planifikatzeari eta antolatzeari begira, aldiz, parte hartze egitasmoen urteko plana egiteaz gain, partaidetzazko aurrekontuen prozesu iraunkorra eta parte hartze egitasmo puntualak egin eta kalitatea eta koordinazioa bermatzeko monitorizazioa egin zen.

Herritarrak parte hartzera bultzatzeko, komunikazioa hobetu, kanalak eta euskarriak birdiseinatu eta parte hartzearen inguruko emaitzak agerikoago egiteko, parte-hartze iraunkorra bermatuko zuten Kontseiluak, Mahaiak eta Aholku Batzordeak elikatu, eraginkorrago egin eta berriak sortu ziren. Gainera, herritar norbanakoen parte hartzerako formulak sortu ziren: on-line partaidetza eta bestelako komunikaziorako estrategiak arduradunarekin batera. Gainera, auzo elkarteen dinamika jarraitzeko eta 2016an Gazteen parte hartzea sustatzeko eta egonkortzeko ahalegin berezia egin zen.

Aipatutako parte hartze ekimen zehatz horiez gain, Zarauzko Udalak hainbat parte hartze foro iraunkor sortu edo eta elikatuko zituen:

- Kultur Mahaia
- Emakumeen kontseilua
- Euskara Aholku Batzordea
- Plangintzako Aholku Batzordea
- Hirugarren Adinekoen Mahaia
- Inmigrazio Mahaia

Halaber, gardentasun politikekin lotuta, udal webgune korporatiboa berritu zuen Zarauzko Udalak eta herri partaidetzaren alorrean Zarauzko Udalak azken urteetan egindako ibilbidea jasotzen zuen memoria osatu zen. Aurreko urteetan bezala, 2016an ere Zarauzko Udalak parte hartze teknikariaren dedikazioak dakarren kostua bere gain hartu zuen, batez ere herritarren partaidetzaren inguruko ekintza planaren diseinu, garapen eta jarraipena egin zezan.

Partaidetzazko aurrekontuen prozesu iraunkorra

Arestian aipatutako partaidetzazko aurrekontuen prozesu iraunkorraren baitan, Zarauzko Udalak 2017 urteko aurrekontuak aurrera eramateko herritarren parte hartze prozesua jarri zuen martxan, izan ere, haiengan eragin zuzena zutenez egin zitzaketen ekarpenek balio handia zuten.

Horretarako, bost bilera antolatu ziren herritarrekin eta zinegotziak ibili ziren dinamizatzaile lanetan. Saioak udaletxean, kiroldegian, San Pelaioko Zaharren Egoitzan, Urteta Auzoan eta Azken Portun izan ziren, auzoetatik gertuago egon eta parte hartze maila handiagoa lortzeko asmoz. Horrela, gainera, auzo bakoitzeko herritarrek gainontzeko auzokoen arazoen berri izan zuten, eta honek, bide batez, herri sentimendua lantzen lagundu zuen.

Prozesuaren berri emateko, prentsaurrekoa eskaini, prentsa-oharra bidali eta webgunean prozesuari buruzko informazioa igo zen albiste formatuan. Ahalik eta ekarpen gehien jasotzeko asmotan, herrian zehar postontziak jarri ziren urriaren 26tik azaroaren 12ra bitartean eta e-posta helbide bat ahalbidetu zen.

Guztira 52 ekarpen jaso zituen Udalak eta horiei esker gobernuak bereak ziren proposamen batzuk zalantzan jarri eta identifikatu gabe zeuden beharrak hauteman zituen, ondorioz, hasieran egin zuten planteamenduan aldaketak egin eta aurrekontuak hobetzea lortu zen.

Gainera, esan bezala, erabilitako metodologiak, auzo desberdinetako herritarren arteko lotura sendotzeko balio izan zuen, baita herritarren erantzukidetasuna handitzeko ere. •

ZARAUZKO UDALA



NEREA OLLOKIEGI
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Teknikaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Udal honek badu ibilbide bat eginda parte hartze prozesuetan, beraz, herritarrak ohituta daude, nolabait, urte bukaeran Udala bere eraikuntzatik ateratzera eta auzo guneetan galdezka ibiltzera. Horretara ohituta daude eta bilerak nahiko informatiboak izaten dira.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Helburua zen kontu ematea herritarrei eta, bestetik, ahal den neurrian, Udal aurrekontuak janztea herritarren ekarpenekin.

Zein metodologia erabili duzue?

Auzoetan egiten diren bileretan azaltzen zaie aurreko urtean dirua zertan gastatu den, Udalaren egoera ekonomikoa egun nolakoa den eta hurrengo urteetarako zein asmo dauden. Auzokideek hutsuneak ikusten badituzte hurrengo urterako azalpenean ekarpenak egiten dituzte eta akta batean jasotzen dira. Horretaz gain, webgunean eta epealdi horretan herritarrei espresuki ematen zaien e-posta batean ekarpenak egin ditzakete. Gainera, herriko sei gunetan buzoiak jartzen dira. Ostera, ekarpenak dagozkion departamentuari bideratzen zaizkio.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Denetik egon da. Kopuruan jaisten ari da herritarren parte hartzea, baina parte hartzearen kalitatea hobea dela esango nuke. Zein zentzutan? Ohitura bat dagoela sumatzen da, badakite zertara doazen. Dinamika ezagutzen dute eta ekarpen gehientsuenak errealak izaten dira.

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Herritarra ez dagoela entzuteko prest bakarrik, ekarpenak egiteko gogoarekin gerturatzen dira bileretara. Batzuei nahikoa zaie entzutea Udala zertan dabilen eta ze asmo dituen, baina beste askorentzat hori ez da nahikoa, gustatuko litzaieke gehiagotan parte hartzeko aukera ematea.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Herritarren parte hartzea ahalik eta handiena izateko bideak erraztu behar dira; online bidez edo Udaletxera gerturatzeko aukerak hobetuta. Gainera, behin parte hartzen dutenean erantzuna jasotzea garrantzitsua da.

Zer hobetuko zenukete?

Ekarpenak egiteko jartzen ditugun bideak edo kanalak eta ekarpen horien jarraipena hobetu behar dugu. Askoz tresna gehiago eduki beharko genituzke ekarpen horiei erantzuna eman ahal izateko, eta hori da hobetu beharrekoa.

Nabigatu KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
Azpeitia
Getaria
Zarautz
Zestoa
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

ZESTOA

AZALERA: 43,7 km² | **BIZTANLEAK:** 3.740 | **UDALBATZAREN OSAERA:** EAJ-PNV (6) EH Bildu (5)



PARTE HARTZEAREN ARDURADUNA:

LEIRE OTAEGI (Arloko teknikaria)

Nabigatu KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
Azpeitia
Getaria
Zarautz
Zestoa

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK

GAZTELEKUKO ERABILTZAILEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 51 (33 emakumezko, 18 gizonezko)

GAIA:
HAURRAK-NERABEAK-GAZTEAK

Zestoako Udaleko Gaztelekuak aurrera eramaten dituen ekintzak erabakitzeko bertara hurbiltzen diren haur eta nerabeekin (6 urtetik gora) parte hartze prozesua egin zen. Horrela, haien proposamenak zuzenean jaso eta, bide batez, ideien sorkuntza eta hedapena suspertu eta ahalbidetu ahal izan zen.

Prozesu honetako protagonisten adina kontuan hartuta haientzat lan egiteko modu erakargarriak sortu behar ziren. Hori dela eta, paper zurrun eta pegatinak izan ziren parte hartze dinamikak aurrera eramateko erabilitako tresnak. Ostera, egitaraua jolas, tailer eta eskulanekin osatu zen.

Orokorrean prozesuko dinamizatzailearen eta nerabeen arteko harremana aurrez aurrekoa izan arren kasu batzuetan Whatsappa erabili zen.

2016koa ez zen izan lehenengo parte hartze esperientzia Gaztelekuko haur eta nerabeentzat, eta urtetik urtera parte hartze maila handiagoa lortzen ari ziren, gazteen artean parte hartze kultura sustatzen. Gainera, Gaztelekuko urteko programazioan subjektu aktibo senti arazita ekintzetan parte hartze maila handitzen doa apurka-apurka.

Esperientziak erakutsi du nerabe-kuadrila bakoitzak parte hartze maila desberdina duela, eta bakoitzari bere mailan eskatu behar zaiola prozesua zuzentasunez aurrera ateratzea lortzeko. Bestalde, ikasturte hasierak zailtasunak beregan ekartzen dituela ohartu dira Gaztelekuan, izan ere, ikasturtearekin batera nerabe kinta berria sartzen da bertan eta zaharrenen asistentzia ere gutxitu egiten da. Horregatik, ez da garai egokia parte hartze prozesu bat egiteko, epe hori harremanak egonkortzeko baita garrantzitsua.

Prozesu honen bitartez bi alderdien gogobetetasun-maila handia izatea lortu zen. Nerabeek proposatutako ekintzak urteko egitarauan barneratu zirelako Gaztelekuan horien asistentzia handituz. •





AUZOETAKO BATZARRA EGONKORTZEA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 9 (9 emakumezko, 0 gizonezko)

GAIA:
AUZOAK

Zestoa herri txikia izan arren eremu handia hartzen dute bere lurrek eta badira auzo batzuk hirigunetik aldenduta daudenak. Horien artean batzarrak egiten dira herriko jardueren nondik norakoa erabakitzeko.

Beraz, kasu honetan, parte hartze prozesua auzoetan hasten da, izan ere, auzo bakoitzean bertakoak biltzen dira ordezkariak hautatzeaz gainera interesatzen zaizkien ekintzen proposamenak egiteko. Prozesuak auzoen arteko batzarrarekin jarraitzen du eta bertan ordezkariek euren auzotarren proposamenak gainontzeko auzokoekin partekatzen dituzte. 2016ko apirilean ospatu zen urteko batzar bakarra, eta besterik egin ez bazen zestoarrek beharrik ikusi ez zutelako izan zen.

Lan egiteko modua bilerak dira, nahiz eta elkarrizketak ere egin ohi diren eta telefono deiak eta Whatsappa ere batzarrean parte hartzen dutenen baliabideak diren.

Horrela, parte hartze prozesu honen ondorioz Arroabea, Iraeta, Aizarna, Lasao eta Arroagoiako auzotarrei egokitutako hurrengo ekintzak jarri ziren martxan: sormen tailerra, patinaje ikastaroa, sendabelar tailerrak, yoga tailerrak eta robotika tailerra. Bide batez, auzoak dinamizatzea eta ikusgarri egitea lortu da, auzo desberdinetako haur eta gurasoen harremanak sustatuta eta, era berean, Udalarekin duten harremana landuta.

Auzotarrek parte hartze dinamika hau barneratuta zutela ikusi zen 2016an, eta ekintzak beraiek proposatutakoak izan zirenez, inplikazioa maila handia erakutsi zuten.



HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ARRETAREN KOORDINAZIOA SISTEMATIZATZEA

PARTE-HARTZAILEAK:
Guztira 171 (90 emakumezko, 91 gizonezko)

GAIA:
HAURRAK-NERABEAK-GAZTEAK

Zestoako Udalak, haurrak adin txikietatik parte hartze prozesuetan integratu nahi ditu eta, hori dela eta, **ZESTOA, HERRI HEZITZAILE** proiektua jarri zuen martxan.

Proiektu horrek hiru urrats izan ditu. Lehenengoa, hiru saiotan herritarrei proiektua aurkeztea izan zen. Bigarrena, proiektua aurrera eramateaz arduratuko ziren hiru talderen osaera (Arroabea, Aizarna eta herrigunea). Hirugarren urratsa izan zen taldeek haurren parte hartzea sustatzea. Horretarako, proiektuak identifikatu, garatu eta proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egin zen.

Beraz, parte hartze prozesuan herriko haurrak izan ziren protagonista. Haurrekin lan egiteko dinamika parte hartzaileak egin ziren, horrela haien iritziak emateko. Lan horretarako erabilitako tresnak marrazkiak, eskuekin erabiltzeko materiala (plastilina eta gusanitoak…), paper zurruna, pegatinak, argazkiak eta ekintzen izenak izan ziren. Horiek ziren haurrek euren nahiak ezagutarazteko zituzten tresna erosoenak, izan ere, egunero jolasean erabiltzen dituzte. Baina, eztabaidarako uneak ere izan zituzten Zestoako txikienek, helduen antzera.

Haurrekin egindako saioetan asistentzia oso altua izan zen eta giro onean igaro ziren.

Aizarnako lan-taldeak haurren iritzia kontuan izan zuen bertako parkea berritzerakoan eta maiatzeko pazko jaietan eta abuztuko amabirjinetan haurrei zuzendutako ekintzak antolatzeko garaian. Herriguneko lan-taldeak iraileko amabirjinetako ekintzak antolatzeko haurrei iritzia eskatu zien, baita uztaileko udaleku irekiko hiru egun antolatzeko ere. Azkenik, Arroabeako lan-taldeak ikasturte berrirako eskolaz kanpoko ekintzak antolatzeko haurren parte hartzea baliatu zen.

Beraz, nahiz eta egindako urratsak txikiak izan, Zestoan, apurka apurka, haurrei eragiten dieten kontuetarako txikienei ahotsa ematen eta haiei entzuten hasi dira eta hauek parte hartze prozesuetan murgiltzen hasi dira. •





LEIRE OTAEGI
Parte hartze prozesuaren arduraduna. Teknikaria

Nola deskribatuko zenuke aurrera eramandako parte hartze prozesua?

Zestoan gaztelekura etortzen diren nerabeekin hainbat ekintza egin dira: surf irteera, eskalada, sukaldaritza, patinaje tailerra, robotika tailerra... Parte hartze prozesua, ekintza horiek guztien artean (haurren, nerabeen, gazteen eta gurasoen artean) erabakitzeko erabiltzen dugun dinamika da.

Zeintzuk izan dira helburuak?

Helburuak auzoak dinamizatzea eta haur, nerabe eta gazteen parte hartzetik beraiek erabakitako ekimenak burutzea ziren. Gaztelekua herriaren erdigunean kokatuta dago, baina badira lauzpabost auzo haur taldetxo bat dutenak, orduan, auzo horietako guraso elkarteekin urtean zehar bilera batzuk egiten dira gurasoekin erabakitzeko zein ekintza jarriko diren martxan auzoa dinamizatzeko. Bestalde, gurasoen arteko harremana sustatu nahi dugu.

Zein metodologia erabili duzue?

Alde batetik, gurasoekin bilera presentzialak egiten ditugu. Bestetik, gaztelekuan haur eta nerabeekin erabiltzen den metodologia da proposamenak post-iten bidez egitea. Jaietako egitaraua osatzeko egun baterako deialdia egin genuen eta, bertan, jolasak egin genituen proposamenak egin zitzaten. Proposamenak jaso eta bigarren egun batean guraso elkartearekin elkartu eta proposamen horietatik sailkapen bat egin genuen zein ziren bideragarri eta zein ez identifikatzeko. Sailkapen horren baitan aukera eman genien haurrei pegatinen bidez burutu nahi zituzten ekintzak aukera zitzaten.

Parte-hartzaileen aldetik zer moduzko harrera izan du ekimenak?

Gurasoen elkartetik oso harrera ona izaten du parte hartze prozesuak. Haurrek ere erantzun ona eman zuten, baina festen egitaraua egitean esango nuke ez direla guztiz kontziente zertan ari diren. Gaztelekuaren egunerokoan errazagoa izaten da proposamenak jaso eta ekintzen garapena egitea, izan ere, ez da denboran horrenbeste luzatzen. Urtero egiten dugu eta pixkanaka barneratzen ari dira.

Nabigatu KLIK batean
HITZAURREA
UDALERRIAK
BIDASOA
DEBA BEHEA
DEBA GARAIA
DONOSTIALDEA
GOIERRI
TOLOSALDEA
UROLA KOSTA
Azpeitia
Getaria
Zarautz
Zestoa
GFA
ELKARTEAK
AURKIBIDEAK

Zein ondorio atera dituzue parte hartze prozesuari esker?

Oraindik gehiago landu beharreko gaia da. Parte hartze prozesuetara ez gaude ohituta eta haurrak horietara txikitatik ohitzea garrantzitsua da.

Zer ikasi duzue etorkizuneko parte hartze prozesuetarako?

Haur eta nerabeen parte hartzea bultzatuz gero, erantzuten dute. Pixkanaka lanean jarraitu beharra dago parte hartzeko ohitura txikitatik barnera dezaten. Horrela, etorkizuneko prozesuak errazten dira.

Zer hobetuko zenukete?

Udal mailan politikoen kontzientzia, izan ere, umeen benetako parte hartzea landu daiteke. Arlo honetan lan egiteko, hau da, aisialdian lan egiteko, askatasun guztia dugu, baina hirigintzako gai bat ukitu nahi badugu ateak itxita ditugu, edo aurrekontu parte-hartzaile batzuk planteatzea oso urruti dagoen zerbait da. Kultura eta Gazteria gaietan mugitzen garen bitartean, eta gure aurrekontuen barruan mugitzen garen bitartean, ez dago arazorik. Beraz, hobetu beharrekoa da haur, nerabe eta gazteen parte hartzea Udaleko beste gaietan ere lantzea da.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ERAIKIZ



PROIEKTUAK

- Aurrekontu Irekiak 2017
- Berrikuntza palankak 2016
- Partaidetzako Foru Arauaren berritzea
- Zarauzko Udalaren Gazteria Zerbitzua
- Gipuzkoan Jarduera fisikoa bultzatzeko proiektua
- Kultur proiektuen eragina
- Lankidetza politikak 2017an
- 1. sektorearen etorkizuneko erronkak
- Marko estrategikoaren inguruko prozesua
- Pasaiako Portuko Plan Bereziaren kontrastea
- GFAn telelanaren txertaketa

BIZTANLEAK

709.532

AZALERA

1.980,3 km^2


AURREKONTU IREKIAK 2017

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aurrekontu Irekiak partaidetza ekimena abiatu zuen 2016an, 2017ko aurrekontuetarako herritarren ekarpenak jaso eta hauek aurrekontuetan txertatzeko konpromisoari heltzeko asmoz. Prozesua 2016ko abuztua eta abendua bitartean garatu zen eta helburu zuen herritarrek era garden eta zuzenean gure lurralde historikoaren kudeaketan parte hartzea.

Zentzu horretan, herritarren partaidetzak era askotako aukerak eta abantailak dakartza, eta oso lagungarria da Foru Aldundi moderno, eraginkor, garden eta, batez ere, herritarrekiko gertu bat erdiesteko. Beraz, honakoak lortu nahi dituen prozesu batez ari gara:

- Herritarrak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin konektatzea, bere eginkizuna eta kudeaketa ezagutaraziz.
- Gipuzkoarren lehentasunak eta beharrak ezagutzea eta guztion benetako eskaerekin bat datozen konponbideak eskaintzea.
- Gipuzkoaren egunerokoan gizartearen protagonismo aktiboa bultzatzea eta horri esker herritarrak lurraldeko bizitza publikoaren ikusle hutsak izan ez daitezen lortzea.
- Herritar ahaldunduekiko kudeaketa publikoan eraginkor, arrazoizko, efiziente eta gardena den Foru Aldundia sendotzea.
- Hausnarketa aktiboa, eztabaida eta elkartasunerako bideak irekitzea, herritarren eta Foru Aldundiaren arteko elkarrizketa zein komunikazioa hobetzeko.
- Aurrekontu irekiak, herritarrek, ordezkari politikoek zein teknikariek kontrastatuak, onartzea.

Aurrekontu Irekien partaidetza prozesuak honako bost fase hauek izan zituen:



Gipuzkoako 16 udalerritan jarritako karparen bidez herritarrek beren ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Gainera, Aurrekontu Irekiak 2017 ekimena hainbat topaketetan aurkeztu zen, herriz herriko kanpainarekin batera, 13 ekitaldi publiko antolatu ziren eta 542 pertsonatik gora izan ziren parte-hartzaileak, profil ezberdinetakoak.

Gipuzkoako herritarrek, 16 urtez gorakoak eta lurralde historikoan erroldatuak izanez gero, aukera eduki zuten jarduera-ildoak lehenesteko eta hainbat proiektu politikoren artean gogokoen zituztenak adierazteko.

Ondoren zerrendatzen dira jarduera-ildoak eta proiektu politikoak aukeratzeko ezarri ziren partaidetza-bideak:

- Xede horretarako banatu ziren 285.000 liburuxken bitartez.
- gipuzkoa.eus/irekia/partaidetza webgunearen bidez.
- Aurrez aurreko partaidetzarako karpen bitartez.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sare Sozialen bitartez (Facebook eta Twitter).
- Foru Aldundiko Erregistroan, Toki Erregistro publikoetan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzan.

2017ko Aurrekontu Irekien partaidetza prozesua 2016ko irailaren 1etik urriaren 14ra bitartean gauzatu zen herritarren partaidetzarako fasean. Kanpainak herritarrengan eragin nabarmena izan zezan lortu nahi izan zen eta horretarako herri-sorta batean herritarrei partaidetzarako aukera eman zitzaien bai bide birtualak erabiliz (teknologia-arloan gaitasuna duten gizarte-mailei zuzenduta bereziki) bai aurrez aurrekoak erabiliz, partaidetzarako karpen bitartez (16 egunez jardunean).

Ondoren, prozesuan zehar partaidetzarako abian jarri ziren karpen zerrenda zehaztuko da; horien bitartez, Gipuzkoan erroldatutako bi pertsonatik batengana heltzeko aukera izan zen.

DATA	UDALERRIA	BIZTANLERIA (Eustat 2015)
26 – 09	Zumaia	9.718
27 – 09	Azpeitia	14.822
28 – 09	Eibar	27.204
29 – 09	Errenteria	39.813
30 – 09	Zarautz	22.915
01 – 10	Donostia	180.291
03 – 10	Urretxu	6.958
04 – 10	Andoain	14.883
05 – 10	Billabona	5.737
06 – 10	Arrasate	21.933
07 – 10	Ordizia	9.483
08 – 10	Tolosa	18.993
10 – 10	Oñati	11.202
11 – 10	Bergara	14.949
12 – 10	Irun	59.624
13 – 10	Elgoibar	11.468
GUZTIRA		**469.993 (% 66,2)**

Karpak bideratzeaz arduratu ziren partaidetza arloan lan egiten duten adituak. Horrez gain, Imanol Lasa Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioko diputatuak eta Joseba Muxika Partaidetza zuzendariak hartu zuten parte. Goizez eta arratsaldez (10:00 – 19:00) egon ziren jardunean karpak; han prozesuan interesa zuten herritarrei honako gaiak helarazi zitzaizkien:

- Zer diren Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontuak.
- Zergatik aukeratu ziren oraingo data honek partaidetza prozesua gauzatzeko.

- Aurrekontuak herritarrekin kontrastatzea dakarren ekimenari ematen zaion garrantzia.
- Partaidetza gauzatzeko antolatu ziren bideak.
- Herritarrek honakoei lotuta zituzten zalantzak argitu ziren: prozesua, jarduera-ildo politikoen lehenespena eta proiektuen aukeraketa.
- Laguntza eskaini zen galdera-sortak azaltzen zituen ariketak betetzeko.
- Adore eman zitzaien herritarrei kontraste-prozesu aberasgarri eta ireki honetan parte hartzeko.

Informazio-guneak, edota partaidetzarako karpak, erabiltzearen osagarria da lurralde historikoko biztanleei prozesuan parte hartzeko aukera emateko helburu esplizitua. Hori dela eta, 285.000 liburuxka banatu ziren postontzietan lurralde osoan, partaidetzarako karpak jarri ez ziren udalerrietan partaidetza ahalbidetzeko asmoz. Era berean, partaidetza-liburuxka, Aurrekontu Irekien ariketa barnean zuela, postontzietan banatzeak bide eman zien herritarrei tokiko erregistro publikoetara, Foru Aldundiko erregistrora eta partaidetza-karpetara liburuxka helarazteko.

Labur esanda, partaidetzarako hainbat teknika eta modu (bereziki aurrez aurrekoa eta on line) bateratzeak aukera eman zuen herritarrak 2017ko Aurrekontu Irekien prozesura errazago hurbil zitezen hainbat bideren bitartez. Horrek bermatzen du Gipuzkoako gizartea osatzen duten maila sozial desberdinetarako diskriminatzaile izango ez den partaidetza eraginkorra lortzea.

Zuzendaritza Nagusiek, aldez aurretik, prozesu honen baitan zehaztu edota garatu ahal ziren beren eskumeneko proiektuak identifikatu eta aukeratu zituzten. Oro har, aintzat hartu zen Aurrekontu Irekiak 2017 ekimenean gauzatutako herritarren partaidetza-prozesutik jaiotako proiektu guztiek erabateko koherentzia izan behar zutela 2015-2019 epealdiko Kudeaketa Plan Estrategikoaren helburu eta estrategia-ildoekin. Ondoren, Foru Aurrekontu Irekiak kudeatzeko Lan Taldeak, proiektu guztietatik behin betiko 16 proiektu aukeratu zituen, irizpide kuantitatibo zein kualitatiboei jarraituz eta herritarrek **Proiektuak aukeratu** ahal izan zituzten

Herritarrek, **jarduera-ildoak lehenesteko aukera** ere izan zuten. 2015-2019 epealdiko Kudeaketa Plan Estrategiakoaren alorrean 50 helburu ezarri ziren eta lehentasunezko 175 jarduera-ildo, Gipuzkoako Foru Aldundiaren gobernu-jarduera bideratzeko adierazle gisa baliagarri izango zirenak.

Zehazki, Aurrekontu Irekien prozesuaren bidez herritarrek 10 jarduera-ildo lehenetsi ahal izan zituzten, ildoei 1etik 10erako puntuazioa emanez ("1" lehentasun handiena adierazten zuelarik). Halaber, webgunearen bitartez parte hartu zuten lagunek jarduera-ildoak lehenetsi ahal izan zituzten aurrekontua euren lehentasunen arabera antolatuz.

Proiektuak aukeratu eta jarduera-ildoak lehenesteaz gain, herritarrek zuzenean helarazi ahal izan zizkioten Gipuzkoako Foru Aldundiari euren **iradokizunak, gomendioak, ideiak edota proposamenak**.

Emaitzak alorrez-alor

Prozesu honen bidez, beraz, 2017ko aurrekontuetarako proiektuak aukeratu, jarduera-ildoak lehenetsi eta ekarpenak egiteko aukera izan zuten herritarrek. Jarraian ikus daiteke prozesuak alorrez alor izandako emaitzak proiektuei eta jarduera-ildoei dagokienean:

DIPUTATU NAGUSIAREN ALORRA

HERRITARREK AUKERATU ETA BALIOETSITAKO PROIEKTUAK

Bizikidetza Lantzen: bakea, bizikidetza eta giza eskubideak sustatzeko foru-programaren ezarpena udal-mailan.
Jakitun: Berdintasunerako oinarrizko prestakuntza gauzatzeko Gipuzkoan egiten den eskaintza sendotu eta koordinatzea.

LEHENETSITAKO JARDUERA-ILDOAK

Herritarrak: Euskara, genero-berdintasuna, komunikazioa, bizikidetza eta giza eskubideak.

KULTURA, TURISMO, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

HERRITARREK AUKERATU ETA BALIOETSITAKO PROIEKTUAK

Udalekuak naturan, kirola eta kultura: naturarekin, kirolarekin eta kultura-jarduerekin harremanetan ikastea.
Kultura Bonua: bonuak berriro herritarren eskura jartzea eta, horien bidez, kultura-kontsumoa sustatzea, sorkuntza eta eskaintza lokalean eragina izateko.
Besarkadak: Gipuzkoan bizitzera etorri diren migratzaile eta errefuxiatuak sustatu eta aitortzea, horien gaitasunak nabarmentzeko eta pertsonen arteko lankidetza ahalbidetzeko.

LEHENETSITAKO JARDUERA-ILDOAK

Enpresa-lehiakortasuna eta berrikuntza: turismoa sustatzea.
Herritarrak: Garapenerako lankidetza
Kultura, Gazteria eta Kirolak: kultura, ondare artistikoa, artxiboak eta museoak, gazteria eta kirolaren sustapena

GOBERNANTZA ETA GIZARTEAREKIKO KOMUNIKAZIOKO DEPARTAMENTUA

HERRITARREK AUKERATU ETA BALIOETSITAKO PROIEKTUAK

Administrazio elektronikoa: Administrazio elektronikoa ezartzea foru-administrazioaren izapide guztietan.
Leihatila Europarra: aholkularitza teknikoa, Udalek, Foru Aldundiak eta eskualdeko garapen-agentziek diru-laguntza europarrak eskura ditzaten.

LEHENETSITAKO JARDUERA-ILDOAK

Herritarrak: Herritarren Partaidetza

EKONOMIA-SUSTAPEN, LANDA-INGURUNE ETA LURRALDE-OREKAKO DEPARTAMENTUA

HERRITARREK AUKERATU ETA BALIOETSITAKO PROIEKTUAK

Txekin eta Emekin: enpresa berriak sortzea, arreta berezia emanda emakume ekintzaileei eta langabetuei.
Nekazari gazteentzako enpresak: nekazaritza sektorea gaztetzea eta belaunaldi-txandakatzea bermatzeko finantzaketa.
4.0 industria eta tailerrak: industria aurreratua, tailerren bitartez, aztertu eta sustatzea, ETE-ek euren lehiakortasuna hobetu dezaten.
Langileen partaidetza: enpresa-antolamendurako modu berriak sustatzea, langileak erabakiak hartzeko prozesuetan trebatzera bideratuta.

LEHENETSITAKO JARDUERA-ILDOAK

Enpresa-lehiakortasuna eta Berrikuntza: lehiakortasuna eta nazioartekotzea sustatzea, baita zientzia, teknologia eta berrikuntza ere.
Lurralde Oreka: udalerri txikiei laguntzea.
Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendiak: landa-garapena, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreak sostengatzea, analisiak eta kontrolak, mendizaintza eta habitaten kudeaketa.

MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETARAKO DEPARTAMENTUA

HERRITARREK AUKERATU ETA BALIOETSITAKO PROIEKTUAK

Mugikortasun jasangarria Gipuzkoan: Bizikleta-bideen erabilera, eskualde-mailan, ezagutzea, sustatzeko eta izan dezakeen ustiapen turistikoa aurrera eramateko.

LEHENETSITAKO JARDUERA-ILDOAK

Mugikortasun jasangarria: Bidegorriak eta garraio publikoaren antolaketa.
Lurralde Oreka: hiri-berroneratzea, lurzoruaren kudeaketa eta lurraldearen antolaketa.

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

HERRITARREK AUKERATU ETA BALIOETSITAKO PROIEKTUAK

Iruzurraren aurkako borrokarako programa: zerga-iruzurraren aurkako borrokara zuzendutako baliabideak, materialak nahiz informatikoak, hobetzea.

LEHENETSITAKO JARDUERA-ILDOAK

Zergak, zorra eta iruzurraren aurkako borroka: zergak eta zerga-politika, herritarrekiko sostengua eta arreta, aurrekontuak, finantza-kudeaketa eta zorraren ordainketa.

BIDE AZPIEGITUREN DEPARTAMENTUA

HERRITARREK AUKERATU ETA BALIOETSITAKO PROIEKTUAK

Antzuola-Bergara tartearen obra: gaitasun handiko bidea, Gipuzkoako edozein tokitatik sartzeko 15 km baino gutxiagoko tartean.

LEHENETSITAKO JARDUERA-ILDOAK

Garraio-azpiegitura: Gipuzkoa osoko errepideak eta garraio-azpiegiturak eraiki, mantendu eta hobetzea.

GIZARTE-POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

HERRITARREK AUKERATU ETA BALIOETSITAKO PROIEKTUAK

Mendekotasunerako zentroak: mendekotasunari arreta emateko zentro eta zerbitzu berriak zabaltzea Gipuzkoan.

LEHENETSITAKO JARDUERA-ILDOAK

Gizarte Zerbitzuak: Pentsioak, gizarte-prestazioak, desgaitasuna, adinekoentzako arreta, genero indarkeriaren biktimentzako arreta, haurren babesa eta gizarteratze-arloa.

INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETARAKO DEPARTAMENTUA

HERRITARREK AUKERATU ETA BALIOETSITAKO PROIEKTUAK


Agenda 21 garatzea: ekimen publiko zehatzak gauzatzea, ingurumeneko politiken kudeaketaren arloan pedagogia-esperientziak garatzeko helburuz.

LEHENETSITAKO JARDUERA-ILDOAK

Ingurumena eta uraren kudeaketa: hondartzak garbitzea, esparru narriatuak leheneratzea, energia-eraginkortasuna, jasangarritasuna, hondakinak biltzea, uraren kalitatea, azpiegitura hidraulikoak.

2017KO AURREKONTUEN LABURPENA

Parte hartze prozesu honek bere isla izan zuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuetan. Bereziki azpimarragarria da, herritarrek Gizarte Politikako Departamentuaren jarduera-ildo eta proiektuak lehenetsi zituztela eta ondorioz, 2017ko aurrekontuetan, Gizarte Politikako Departamentua nabarmendu zen 2017rako aurrekontu-hornidura handiena zuen arlo gisa. •



EUSKALGINTZAREN BERRIKUNTZA PALANKAK 2016

Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiak, euskalgintza berritzeko palankak identifikatzeko aukera emateko, parte hartze egitasmoa sustatu zuen. Lan horretan, etengabe jardun zuten hurrengo galdera erantzun nahian: "Euskararen biziberritze prozesua sustatzen ari garen erakunde eta eragileok, zer egin behar dugu diferente eraginkorrago izateko?"

Parte hartze prozesu honen helburu nagusia, beraz; euskararen biziberritze prozesua indartzeko euskalgintzak datozen urteetan zer gauza berri egin behar duen eta nola jokatu behar duen hausnartzea zen.

Horretarako, 2016ko udaberrian parte-hartze egitasmoa martxan jarri zen aurkezpen ekitaldi batekin, eta jarraian hiru lan-saio burutu zituzten bi asteko maiztasunarekin. Saio bakoitzean jarduera bereziak egin zituzten parte-hartzaileen ekarpenak sustatzeko. Guztira 30-40 lagun inguru bertaratu ziren sormen-saioetara.

Proiektuaren antolakuntzari dagokionez, hainbat pertsona eta egitura egon ziren. Alde batetik, talde sustatzailea GFAko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak eta Parte Hartze Zuzendaritza Nagusiak osatzen



zuten, eta horien lana egitasmoaren finantzazioan, kontratazioetan, zabalkundean eta jarraipenean beren ardurak betetzeaz gain, modu aktiboan parte hartu zuten saio presentzialen antolaketan eta dinamizazioan. Bestetik, talde eragilearen osaketan talde sustatzaileko kide batzuez gain, Modernizazio, Berrikuntza eta Berdintasun Saileko ordezkari bana eta Soziolinguistika Klusterreko eta EMUNeko ordezkariak zeuden.

Honakoa izan zen kronograma:

Proiektua abiatzea
[2016-03-11]

Aurkezpen ekitaldia
[2016-04-06]

01 sormen-saioa
[2016-04-20]

02 sormen-saioa
[2016-05-04]

03 sormen-saioa
[2016-05-18]

Euskararen Foroa
[2016-06-16]



Aurkezpen saio horretan, Antonella Broglia adituak hitzaldi bat eskaini zuen bertaratutako euskalgintzako eragileek datorren gizarte-ereduaren inguruko zantzuak jasotzeko, euskalgintza eta bere jarduna horretara egokitzen joateko arrastoak bistaratzeko.

Jarraian zetozen hiru lan-saiotan ideiak jaso, sortu, konektatu eta partekatu zituzten partaideek, honela backcasting sormen-prozesu emankorra osatu zuten. Saioen amaierarako etorkizuneko gizartean euskara eta euskalgintzaren lekua irudikatu zuten eta, ostean, gogoeta egin zuten posizio horretarantz joateko euskalgintzak zer egin behar duen desberdin ikusteko.

Backcasting prozesuaren nondik norakoa hurrengoa da: etorkizun desiragarri bat definitzetik hasi eta etorkizuna egungo abiapuntuekin lotuko dituen erronka, egitasmo eta formatuak definitzea.



Lan-saioak:

1. Sormen saioa: euskara eta euskalgintza 2030an



Hainbat adituk eta prospekziok 2030erako aurreikusitako bizimoduaren eremu anitzeko ezaugarriak helarazi zitzaizkien parte-hartzaileei ideia-sormenerako input gisa, gogoeta egin zezaten 2030eko testuinguru horretan euskara eta euskalgintza nola ikusten edo ikusi nahi zuten irudikatzeko eta horren bueltako ideiak sortzeko. Horren ondorioz sortu ziren ideietako asko Open Space edo Gune Irekian jaso ziren. Gune Irekian parte-hartzaileek zazpi aztergai hauek zituzten: komunikabideak, hezkuntza, hirigintza eta lurralde-antolamendua, aisialdia, teknologia, identitateak eta lan-mundua. Parte-hartzaileak zazpi gai horietako bakoitzari zegokion panelen inguruan sakabanatu ziren eta talde bakoitzeko bozeramaile batek ideia deigarrienen berri eman zien gainontzeko partaideei. Amaitzeko, talde bakoitzak zegokion gaiaren inguruko "2030eko egunkariaren" azala osatu zuen, taldean sortutako ideia guztiak sintetizatu eta lerroburuetara ekarrita.

2. Sormen saioa: 2030>2020 etorkizunerako erronkak eta ispilu-ariketa



Lehen saioko lana berreskuratu eta gaur eguneko egoeratik abiatuta konponbideak eta erronkak antzematen saiatu ziren "etorkizuneko historia" dinamikan. Taldeek etorkizunerako zenbait erronka identifikatu zituzten, baita detektatutakoen artean lehentasunak markatu ere. Saioaren bigarren zatian, euskalgintzaz kanpoko bestelako dinamika eta esperientziak erabili zituzten ispilu-lana eginez euskalgintzarako baliagarri izan litezkeen analogiak sortzeko. Feminismotik, ekonomia kolaboratibotik, Internet eta sare sozialen bidezko aktibaziotik eta gaur egungo diskurtso-estrategietarako proposamenetik ikasgaiak atera zituzten taldeka eta talde bakoitzaren ondorioak ezagutarazi ziren plenarioan.

3. Sormen saioa: pertsonak eta berrikuntza palankak



Saioaren lehen zatian "pertsonak" dinamika erabili zen. Profil desberdineko sei pertsonekin enpatia-mapak osatu eta parte-hartzaile pertsona horri begirako hainbat galdera egin zitzaizkien guztiei. Bigarren zatian, berrikuntza palankak bistaratzeaz gain, parte-hartzaileei azken lan bat proposatu zitzaien, galdera honen aitzakiarekin: "Zein dira zure etxera eramango dituzun gakoak?" Ariketa horrekin bi gako zituzten antolatzaileek: batetik, parte-hartzaileen lanaren emaitza ziren berrikuntza palanka batzuk ikustea eta horien atzean zeuden ideiez jabetzea, eta, bestetik, egitasmoan zehar bizitakoak euskalgintzako norbere eremuan zabaltzeko euskarria eskaintzea.

Prozesuaren amaieran parte-hartzaileek sortutako ideiekin eta beren konbinazioekin guztira 31 berrikuntza palanka identifikatu ziren. •

PARTAIDETZA FORU ARAUA BERRITZEKO PROZESUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, herritarren parte hartzearen inguruko 1/2010 Foru Araua berrikusteko, partaidetza prozesu bat aurrera eramatea erabaki zuen. Prozesu honek helburu zuen, hain zuzen ere, metodologia eraginkor baten bidez, diagnosi elementuak eta hobetze proposamenak identifikatu eta arau berri baten erredakzio eguneratua ahalbidetuko zuen dokumentu bat sortzea.

Prozesuaren helburu zehatzak

- GFA-ak herritarren partaidetzari buruzko 1/2010 foru arauaren eduki eta egiturak berrikustea ahalbidetzeko parte-hartze prozesua aurrera eramatea, mantendu beharreko eta aldatu, ordezkatu, zuzendu, zabaldu edota gehitu beharreko aldeak identifikatuz.
- Lanerako proposamen eraginkorrak identifikatzea, dokumentu eraginkor baten bidez, egungo Foru Araua eguneratzeko erredakzio lanak kontrastatu ahal izateko.
- Gipuzkoako gizartearen aniztasuna islatuko zuen lanketa prozesua abiatzea, zeharkako ikuspuntuak barneratuta.

2016ko azken hiruhilekoan prozesua aurrera eramatea ahalbidetuko zuen metodologia zehatza diseinatu zen, bai epe aldetik, baita eragile aldetik ere.



Proiektua abiatzeko, Sinnergiak taldearen eta Parte Hartzearen Zuzendaritza Nagusiaren arteko bilera bat egin zen, eta horretan, pertsona partaideak identifikatzeaz gain, metodologia proiektura egokitu zuten. Horrela, parte hartze proiektua lau lan-talderekin egingo ziren lau lan-saiotan banatu zen. Lan taldeen egitura hurrengoa zen:

- EAEko teknikari publikoak
  - Udalerrietatik: EUDEL, parte-hartze prozesuetan esperientzia duten udaletxeak, …
  - Lurralde historikotik: GFAko sail arduradunak teknikoak.
  - Euskaditik: Eusko Jaurlaritzako Organismo eta Zuzendaritzak.
- Adituak
  - Unibertsitatetik: EHU, UD eta MUko adituak.
  - Administrazioan adituak.
  - Beste aditu batzuk.
- Talde politikoak
- Talde sozialak
  - Arlo desberdinetako erakundeak.
  - Foro eta kontseilu zehatzak.
  - Beste organizazio batzuk (auzokoak, …)

Prozesuaren lehenengo urratsa parte-hartzaileei gonbita luzatzea zen. Horretarako gonbit-gutun ofizialak egin ziren eta GFAk bidali zituen, prozesuaren garrantzia berretsi eta parte-hartzaileek zuzenean instituzioarekin identifika zezaten. Jarraian, Sinnergiak taldeko teknikariak harremanetan jarri ziren parte-hartzaileekin korreoz jasotako informazioa handitzeko, metodologia azaltzeko eta egutegia aurkezteko.

Hurrena inplementazioa izan zen. Horretarako, lau lan-saio antolatu ziren lan-talde bakoitzarekin. Lehenengoan aurkezpen tekniko eta metodologikoa egin zen; bigarrenean, eraldaketa eta sendotze puntuen diagnosia; hirugarrenean, eraldaketa-proposamenen garapena; eta laugarren, eta azken, bileran emaitzen aurkezpena. Saio bakoitzak bi orduko iraupena izan zuen eta bi asteko maiztasunarekin elkartu ziren GFAk Donostian dituen guneetan.

Bilera bakoitzaren aurreko astean partaideek euren etxean saioetan landuko ziren gaien inguruko informazioa jaso zuten. Horrela, hausnarketarako eta proposamen zehatzak egiteko informazioa eskuragarri zuten saioen aurretik, baita partaide bakoitzak bere erakunde barruan informazio jaso eta proposamenak adosteko aukera ere eman zitzaien.

Beraz, prozesuaren une horretan identifikatuta zeuden foru araua aldatzeko proposamenak, eta azken urratsa, izaera eraginkorra izango zuen amaierako dokumentu bat idaztea zen. Lan hori Sinnergiakeko teknikariek egin zuten parte hartze prozesuan bildutako informazioaz baliatuta. Txostena amaitutakoan, bilera batean emaitzak GFAri aurkeztu zitzaizkion ondorioak azaldu, zalantzak argitu eta txostenaren ematea eginda. •

ZARAUZKO UDALAREN GAZTERIA ZERBITZU BERRIA DISEINATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zarauzko Gazteria Zerbitzua definitzeko herriko gazteen parte hartzea sustatu zuen. Horretarako, prozesua fase desberdinetan banatzea erabaki zen:

Lehen fasean lanean hasteko bi atal bereizi ziren; alde batetik, Udaleko sail guztiekin landu zen eta, bestetik; Zarauzko gazteak ezagutzeko landa lana egin zen. Gainera, Udalarekin azken aldian motaren bateko harremanen bat izan zuten zenbait gazte identifikatu eta horiekin egin ziren lehen harremanak. Udalean egindako lana gazteak ezagutzeko baliatu zen, eta, hortik abiatuta, elkarrizketatuak izan zitezkeen pertsona egokiak identifikatu eta horiekin harremanetan jarri ziren. 68 pertsonak osatutako zerrenda bat egin zen, baina horietako 52rekin bakarrik harremanetan jarri ahal izan zen eta, proiektuarekiko interesa ia gehienek erakutsi bazuten ere, talde motorreko kide izateko prest 5 gazte besterik ez ziren egon.


Fase honen amaieran, bilera-tailer ireki bat egin zen. Egoeraren argazkia osatzea eta prozesuaren oinarriak zehaztea zen helburua, horrela, hurrengo faseetarako estrategiak definituta. Bigarren faseari aurre egiterako, prozesuaren diseinua eta kronograma zehaztuta zeuden, baita diskurtsoen mapa ere.

Bigarrena, autodiagnosiaren fasea zen. Fase honen hasierarekin komunikazio kanpaina sakondu zen. Bestalde, talde teknikoaren gidaritza lanak bigarren plano batera pasa ziren gazteei protagonismoa emanda.

17 gazteri egin zitzaizkien elkarrizketa sakonak. Emun aholkularitzako kideek horietako 11 egin zituzten eta gainontzeko 6ak zarauztarrek egin zituzten. Elkarrizketen xedea izan zen Zarauzko gazteen bizipenak eta uste eta iritziak jasotzea.

Horrekin batera, "Moskeo" kanpaina martxan jarri zen gazteengan interesa pizteko eta egitasmo honen berezitasunez kontzientziarazteko. Kanpainak bi fase zituen bere baitan: lehena, euskal jaietan, festa giroan, mahai bat jartzea zen, baina arazo teknikoak tarteko bertan behera gelditu zen. Bigarrena, herritik "eta gure modura egingo bagenu?" leloa zuten pegatina batzuk kokatzea zen, baina udaleko ordenantza batek ekintza hau alde batera uztea behartu zuen. Egoerari buelta emateko, urriaren 15ean, Zarauzko koadrilen egunean, photocall bat antolatu zen elkarrizketetatik ateratako esaldi esanguratsuenekin, nahiz eta honek ere ez zuen arrakasta berezirik lortu.

"Moskeo" kanpainarekin ez zen lortu espero zen arrakasta, eta prozesuarekin jarraituz tailer irekiak egiteko txanda




iritsi zen. Saioen zabalkunderako hiru bide erabili ziren: elkarrizketetan parte hartu zuten lau gazteekin egindako bideo labur bat sare sozialetan zabaldu zen, gazteak mugitzen diren guneetan eskuorria zabaldu zen diagnosiaren ordenarekin eta hitzorduekin, eta gazteak mugitzen dituzten talde eragileei mailinga egin zitzaien.

Lehen bileran, azaroaren 17an, 4 zarauztar gaztek parte hartu zuten. Asistentzia txiki horrek prozesua birmoldatzea ekarri zuen, horrela, hurrengo bilera abenduaren 16an egitea erabaki zen, tartean zeuden biak bertan behera utzita. Egoera horretan, saioen arteko epean proiektuan zuzenean inplikatuta ez zeuden pertsonekin hitz egitea erabaki zen ikusteko ea zein zen Zarauzko gazteen pertzepzioa proiektuaren inguruan; hurrengo ondorioak atera ziren: komunikazio aldetik ez da asmatu, prozesua ez da deigarria edo ez ditu euren beharrak erantzuten, eta gazteak mobilizatzea ez da erraza.

Abenduaren 16ko saioarentzat lanketa berezia egin zen komunikazio aldetik. Beste bideo labur bat prestatu zen eta 18-30 urte bitarteko zarauztar orok jaso zuen etxeko postontzian bilerarako gonbidapena. Bilera antolatu zen proiektuarekin aurrera egiteko oinarririk bazegoen jakiteko intentzioarekin, eta horretara ere lau pertsona besterik ez ziren azaldu. Hori zela eta, erakunde sustatzaileek erabaki behar zuten hortik aurrera nola jokatu prozesuaren hurrengo fasean.

2017ko otsailean hasi eta martxoan amaitu zen proposamen fasea. Prozesuaren aurreko faseetan ikusitakoaren arabera hurrengo erabakia hartu zen; herriko gazteekin hiru saio ireki eta Udaleko ordezkariekin beste bi egitea. Ordura arte inplikazioa erakutsi zuten herritarrekin harremanetan jarri ziren prozesuan parte hartzen jarraitzeko eta, aurrerantzean, prozesuarekin engaiatuta daudenek herriko gainontzeko gazteengan eragina izateko asmoarekin.

Lehen saioa otsailaren 11ean izan zen eta 6 lagunek parte hartu zuten. Saioaren ariketa nagusia izan zen sormen lanketa egitea, ondorengo galdera ardatz hartuta: Zeri erantzun behar lioke Zarauzko Gazte Zerbitzuak?



Bilera horretan landutakoa Udalera eraman zen Udal ordezkariekin antolatutako lehen bilerara, eta, horretara, gazteekin egindako bilerako bi kide bertaratu ziren. Saio horretan, otsailaren 16an, gazteek landutakoaren berri eman zitzaien gainontzeko partaideei. Gainera, sormen ariketako emaitzetatik eratorritako proposamenen azterketa egin zen eta udal baliabideak zerrendatu ziren.

Hurrengo saioa gazteekin antolatu zen martxoaren 4an, baina gazte bakar bat bertaratu zenez bertan behera utzi eta hurrengoa, martxoaren 24koa, azken saioa izatea erabaki zen. Azken horretan, alde batetik, ekintzen arteko lehentasunak ezarri ziren gazte zerbitzua izango dena irudikatzen laguntzeko eta, bestetik, parte hartze prozesuaren balorazioa egin zen.

Proposamen faseari amaiera emateko hilaren 30ean udal ordezkariekin azken saioa egin zen eta Gazte Zerbitzuaren antolaketarako proposamenaren zirriborroa egin zuten. Eragin beharreko arloak identifikatu eta aurrera egiteko oinarriak finkatu ziren. Izan ere, prozesuaren ondorio nagusietako bat izan da Zarautzen Gazteria Zerbitzua osatzeko aukera gauzagarria dela. Bestalde, zerbitzua osatzeko osagai zentraltzat hartu da gazteak eta Udala elkartuko lituzkeen foroa, izan ere, horrek elikatuko lituzke landutako arlo guztiak eta prozesuaren motorra izango litzateke. Udalaren asmoa da foroaren sorrerarekin Gazteria Zerbitzua eraikitzen hastea, eta horretarako prestutasuna duela adierazi zuen. •

GIPUZKOAN JARDUERA FISIKOA BULTZATZEKO PARTAIDETZA PROZESUA



Gipuzkoako Foru Aldundiak, lurraldean jarduera fisikoa sustatzeko proiektua abiatu eta proiektu horren baitan proposatu beharreko esku-hartzeak biztanleriaren beharretara ahalik eta hobekien egokitzeko helburuarekin, gipuzkoarren pertzepzioak ezagutzeko azterketa kualitatiboa egiteko beharra ikusi eta gipuzkoarrekin parte hartze prozesu bat martxan jartzeko erabakia hartu zen.

Hiru talde sustatzaile osatu ziren: adin goiztiarrak (0-8 urte), bateratzea (20-55) eta adinekoak (55etik gora). Egitasmoa *design thinking* metodologia jarraituta eraman zen aurrera, hau, izan ere; ideia berritzaileak sortzeko metodologia da, eta zeregin nagusia zen erabiltzaile edo parte-hartzaileen beharrak ulertu eta horiei konponbidea ematea.

Herritarren parte hartzea, beraz, bileretara mugatu zen. Alde batetik, banakako elkarrizketak egin ziren, eta bestetik, taldekako elkarrizketak edo eztabaida taldeak. Azterketa kualitatiboak bost urrats izan zituen: elkarrizketak egitea; taldeen osaera zehaztea eta saioak antolatzea; taldeetan parte hartuko zutenak aukeratzea eta harremanak bideratzea; taldeak dinamizatzea eta moderatzea; eta datuak aztertzea eta txostena egitea.

Lehenengo urratsean banakako elkarrizketak egin ondoren, bigarrenean, taldekako lanari ekin zitzaion. Aurretik azaldutako hiru talde sustatzaileak izan ziren bigarren urratseko oinarria, baita proiektuko parte hartze prozesukoak ere. Adin goiztiarren kolektiboari dagokionez, bi azpitalderekin lan egin zen: gurasoekin (24 parte-hartzaile), batetik, eta ikastetxeetako edo

haur-txokoetako irakasle edo hezitzaileekin (30), bestetik. Bigarren biztanleria-taldean (20) profil ezberdineko lau talde egin ziren, eta talde bakoitzaren osaera honakoa izan zen: herri-tamaina handi edo ertaineko emakumeak, herri-tamaina handi eta ertaineko gizonak, herri-tamaina txikiko emakumeak eta herri-tamaina txikiko gizonak. Adinekoen kolektiboan (39), herrien araberako lau lan talde antolatu ziren.



Talde bakoitzean gutxienez sei kide eta gehienez hamabi izan ziren, nahiz eta salbuespen batzuk izan ziren tarteko. Saio bakoitzak bi orduko iraupena izan zuen eta guztira 15 lan-saio egin ziren talde guztien artean.


Hirugarren urratsa partaideak aukeratzea eta harremanak bideratzea izan zen. Horretarako, saio bakoitzean hurrengo gidaliburua jarraitu zen: ongietorria eman, partaideak prozesuan kokatu eta, elkar ezagutzeko dinamika egin ondoren, etapa bakoitzeko lanketa abiatu. Landutako etapak (arloak) hurrengoak izan ziren: ni eta kirola, enpatiaren mapa, beharren matrizea eta berrikuntza-matrizea.

Saioen ostean, herritarren parte hartzetik eratorritako informazioa sailkatu eta datuak aztertu ziren jarduera fisikoa sustatzeko proiekturentzat baliagarriak ziren proposamenak eta ekarpenak atera zitezen. •

KULTUR PROIEKTUEN ERAGINA NEURTZEKO
PARTAIDETZA PROZESUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritzak kultur proiektuen ekarpena neurtuko duen sistema definitzeko parte hartze egitasmo bat abiatu zuen. Gipuzkoako Udalek, kultura arloan egiten duten inbertsiotik bueltan jasotzen den ekarpena edo emaitza kuantifikatzen lagunduko duen sistema eratu nahi zen. Izan ere, ondorio positiboak ditu herritarren bizi-kalitatean, ekonomian, gizartean eta ingurumenean. Horregatik, GFAk eskatu zion Emun aholkularitza taldeari proposamen tekniko bat egin zezan. Izan ere, kultur jardunak informazioan eta analisian oinarrituta egon behar du, horrek laguntzen duelako erabakiak hartzen, norabideak markatzen eta, funtsean, kultur politikak definitzen.

PROZESUAREN FASEAK



LAN TALDEA

Proposamen horri jarraiki, 2016an proiektuaren lehen fasea burutu zen; kultur jardunak duen balio soziala agerian jartzeko adierazleak proposatzea. Lan hori egiteko 8 laguneko lan-taldea osatu zen: Uhaina Atxotegi, Orioko Udaleko kultur teknikaria; Laura Landa, Errenteriako Udaleko kultur teknikaria; Imanol Galdos, Donostia Kulturako Zuzendaritza Laguntzarako teknikaria; Ramon Martin, Gipuzkoako Protokoloen Artxibo Historikoko artxibozaina; Soko Romano, Donostiako Untzi Museoko Zuzendaria; Lide Arana, Gipuzkoako Foru Aldundiko kultur teknikaria; Garbiñe Aramendi, Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaidetzarako teknikaria eta Uxune Alustiza, Emuneko aholkularia.

Horrez gain, Talde Eragile batek proiektuaren jarraipena egiteko funtzioa izan zuen, honako bost partaideekin: Aldundiko Kultura Saileko Zuzendari Maria Jose Telleria eta bere laguntzaile Antton Azpitarte, Herritarren Partaidetzarako Zuzendari Joseba Muxika, Herritarren Partaidetzarako teknikari Iñaki Elizegi eta Emuneko aholkulari Uxune Alustiza.

Hirugarren eragile bat ere kontuan izan zen proiektua gauzatzerakoan: xede-taldea. Proiektuaren emaitzaren hartzaileak ziren, eta Kultura Saretzen programaren parte ziren, kultur teknikari, museo, artxibo eta ondare arloetako pertsonak. Horiek guztiekin, Kultura Saretzen programaren urteko Batzar Orokorrean adierazle sistemaren edukiak kontrastatu ziren, online ekarpenak egiteko aukera eman zitzaien eta jasotako ekarpenak azken emaitzan txertatu ziren.

3 DIMENTSIO

Zein dimentsio aztertu, neurtu eta baloratu behar ditugu gure kultur jardunaren ikuspegi sozial hori agerian uzteko? Nola ekarriko ditugu termino horiek gurera? Zer baloratu nahi dugu horien guztien artean? Galdera horiei erantzutea zen helburua. Horrela, adierazleekin baloratu beharreko 3 dimentsioen proposamena egin zen: Parte hartzea, pertsonen heziketa eta tokikotasuna.

Parte-hartzea

Dimentsio honetan, kultur jarduna modu parte hartzailean egiten den eta herritarrei erraztasunak ematen zaizkien neurtu nahi zen. Gizarte demokratikoago bat sortzeko bidea da parte hartzea sustatzea, eta horretan eragin nahi da kulturatik ere. Horrek guztiak lan egiteko modua aldatzea dakar: herritarrengandik gertuago egotea esan nahi du, erraztasunak emateko bideak ezartzea, eta herritarren eskura parte hartzeko tresnak jartzea.

Pertsonen heziketa

Pertsonen garapena bultzatzen duten kultur jardunak, proiektuek eta eskaintzak kulturaren balio hezigarria bistarazten dute, eta hori aztertu nahi zen dimentsio honetan: jardunak duen eragina gizartearen heziketa eta garapenean. Pertsonen heziketan eraginez, sorkuntzan eta zaletasunean eragingo da. Kulturaren balio kate guztia kontuan izatea da gakoa, sorkuntzatik produktura, prozesuan pertsona zentroan jarrita.


Tokikotasuna

Kultur jardun guztiak toki batean gertatzen dira, ingurune batean, eragin esparru batean. Bakoitzarena desberdina izango da, baina denetan garrantzitsua da tokiko ikuspegi jasangarri batetik burutzea jarduna, kultur politikek tokiko ikuspegia izatea. Ikuspegi hori aintzat hartzen dela ziurtatu nahi zen dimentsio hau neurtuta; ingurune hurbilean positiboki eragin, tokiko kultura eta identitatea sustatu eta indartu eta modu jasangarrian eta erantzukizunez jokatuko baita horrela.

EMAITZAK

Markoan definitutako 3 eremuak neurtzeko adierazleen deskribapena ekarri zuen prozesuak, guztira 28 adierazle. Kultur jarduna baloratzeko erremintak izatea zen helburua, gizarte ekarpenari dagokionez zein egoeratan gauden neurtu, eta horren arabera helburuak, norabidea eta politikak definitzen lagundu. •

2017KO LANKIDETZA POLITIKAK DEFINITZEKO PARTAIDETZA PROZESUA



Gipuzkoako Foru Aldundiak garapenerako lankidetza politika berria egin nahi zuen, ahalik eta bide ireki eta parte-hartzaileenetik, herritarren eta eragileen parte hartzean oinarrituta. Proiektu honen emaitza bezala, jasotako ekarpen eta ekimenetatik abiatuta, lankidetza-politika 2017tik aurrera martxan jartzea lortu nahi zen. Prozesu honen bitartez, "Gipuzkoako Foru Aldundiaren garapenerako lankidetza jarduketaren Erreferentziako Esparru Estrategikoa" ezarri aurretik lankidetza munduarekiko interesa duten gizarteko agente eta sektore guztiek dokumentuari buruz duten iritzia bildu nahi zen.

Horretarako, prozesuaren nondik norakoaz arduratzeko, koordinazio-talde bat sortu zen honako kideekin: Garapenerako Lankidetzako Zuzendaritza Nagusia (Fernando San Martín, Michel Sabalza eta Patxi Arratibel), Partaidetzarako Zuzendaritza Nagusia (Joseba Muxika, Iñaki Elizegi, Sergio González eta Joxe Piñas) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Zuzendaritza. Horien funtzioak hurrengoak izan ziren: bileretarako deialdiak egin, deialdietara joango ziren erakundeak identifikatu, saioetako logistikaz arduratu, tailerretako dinamikak prestatu, saioetan eskuratutako informazioa sistematizatu, proposatutako hobekuntzak erantsi ala ez erabaki, eta gizon eta emakumeen arteko genero berdintasuna bermatu.

Prozesu honetan parte hartu zuten garapenerako lankidetza helburu nagusi zutenek edo euren gaitasunak

desberdintasuna murrizteko baliatu zitzaketen eragileek. Parte hartze prozesua herritar ez-antolatuei ere irekita egon arren, hurrengo erakundeen partaidetza bilatu zen bereziki: udaletxeak, GKEak, eskualdeen garapenerako erakundeak eta udal-elkarteak.

Prozesuak bost fase izan zituen. Bere horretan hasi aurretik, 2016ko ekainaren bigarren hamabostaldian Udalei gutunak bidali zitzaizkien prozesua martxan jartzeko intentzioari buruz berri ematen eta, honela, Udalek horren berri eman ziezaien eragileei. Gainera, azaroko lehen hamabostaldian beste gutun bat bidali zitzaien, bai Udalei zein eragileei, prozesuaren programa gutunean erantsiz parte hartzera gonbidatuta.

Prozesuaren lehen fasea aurkezpena zen, eta azaroko bigarren hamabostaldian egin zen. Sei aurkezpen egin ziren guztira, bat eskualde bakoitzeko (Debagoiena eta Debabarrena, Urola Garaia eta Goierri, Donostia, Tolosaldea, Txingudi, eta Urola Kosta). Saio horietako bakoitzean prozesua aurkeztu eta, lortu nahi ziren helburuak aurkezteaz gain, talde txikitan eztabaidatu zen lankidetzaren eta bakoitzak jokatu zezakeen rolaren inguruan. Amaitzeko, eztabaidatutakoa gainontzekoekin partekatu zen.

Fase horri amaiera emateko, eta bigarrenari hasiera, ekarpenak eta aldaketak egiteko epea ireki zen abenduko lehen hamabostaldian. Lehen fasetik bigarrenera hamar eguneko tartea utzi zen Interneten ahalbidetutako plataforma baten bitartez erakunde bakoitzak egin beharreko proposamenak egin zitzan.


Proposamen horiek sistematizatu eta jaso ostean, 2017ko abenduaren lehen hamabostaldian, hirugarren faseari ekin zitzaion; ekarpenen eta proposamenen hausnarketa. Oraingo honetan hiru lan saio egin ziren (Donostia, Irun eta Beasain), eta aurreko bileretan zein plataforman jasotako proposamen eta ekarpenen inguruan hausnartu zen, horiek marko estrategikoari egingo zioten ekarpen kontzeptual eta praktikoa aztertuta.

Prozesuaren une horretan lan-saio guztiak amaitutzat jo ziren, eta prozesua laugarren fasean sartu zen: ekarpenen sintesia eta behin-betiko onarpena. Fase honek bi lan izan zituen ardatz nagusi. Batetik, egin ziren proposamen praktikoak aplikagarritasun eta egokitasun ikuspuntutik laburbildu eta baloratzea, eta, bestetik, Lankidetza Zuzendaritzak egoki zeritzon aldaketak dokumentuan barneratzea, ostean, Gobernu Kontseiluan bigarren onarpena jaso zezan.

Prozesuaren azken urratsa itzultze- eta ebaluatze-prozesua izan zen. Parte hartu zuten eragileei egindako proposamen eta ekarpenei emandako trataera azaldu zitzaien eta, bide batez, prozesuaren ebaluazioa egin zuten Donostian antolatutako saio batean.

Prozesu honen emaitza gisa lankidetza politika 2017an praktikan jartzea aurreikusi zen, bilduko ziren ekarpenetatik eta planteatuko ziren ekimenetatik abiatuta. •

LEHEN SEKTOREAREN ETORKIZUNEKO ERRONKAK DEFINITZEKO PARTAIDETZA PROZESUA



Ekonomian geroz eta indar gutxiago izan arren lehen sektorea garrantzitsua da Gipuzkoan, izan ere, lurraldearen %22,1 nekazal azalera erabilgarria da Eustaten datuen arabera. Gipuzkoako Foru Aldundiak lehen sektorearen etorkizuna bermatu nahian parte hartze prozesu bat aurrera eramatea erabaki zuen, etorkizuna eragile guztiekin modu partekatuan irudikatu eta agertoki horretara iristeko ekintza-plan bat zehazteko. Gainera, GFAren eta eragileen arteko elkarlanerako espazioa egituratzeko lehen urratsak ematea espero zen. Eragile nagusi horiek honakoak dira: ENBA eta EHNE sindikatuak, Hazi, landa garapen elkartea eta gestio-zentroak.

Parte hartze prozesu honetan eragileei eman zitzaien indarra eta ardura, beraz, haiek izan ziren protagonista nagusiak. Lan-taldea profil desberdineko (azpi-sektore, sexu, adin…) 20 pertsonak osatu zuten, baina horiek ez ziren lehen sektoreko ordezkari izan, sektorean dagoen aniztasunaren adierazgarri baizik. Baina, lan-taldea

elkartu aurretik bilera bat egin zuten GFAk eta ENBA eta EHNE sindikatuek, bertan, prozesuaren berri emateko eta gardentasunez jokatzeko konpromisoa hartu zuten, eta; sektorearen adierazgarri diren profil eta diskurtso ezberdinak identifikatu eta horien arabera parte-hartzaileak zeintzuk izango ziren adostu zuten.

Lau bilera antolatu ziren eta, lan-taldeaz gain, EUROGAPeko bi pertsonak eta GFAko nekazaritza-teknikariz osatutako talde batek ere parte hartu zuten. Saio guztiak Laurgainen (Aia) izan ziren eta bakoitzak hiru orduko iraupena izan zuen. Bilerak urria eta azaroa bitartean antolatu ziren, bi astean behin, eta bakoitzean eduki zehatz batzuk aztertu zituzten.

Bileren fasea amaitzean, argi zegoen erronka nagusiak eta azpi-sektoreen erronkak zeintzuk ziren. Azpisektoreak eta horietako bakoitzean definitutako erronka hurrengoak izan ziren:

- **Haragia**: lur sail handiagoak eta sail-kontzentrazioa, hobekuntza genetikoa eta sentsibilizazioa.
- **Esnea**: lur antolakuntza, *discount* produktua izatetik atera eta balio erantsiko produktua ekoiztu eta administraziotik laguntza lortzea ustiaketa-lekuak mantentzeko.
- **Artzaintza**: lur poltsa bat sortu, administrazioko tramiteak egiteko teknologia eguneratu eta dibertsifikazioa bultzatzeko (osasun arloan batez ere) araudia ekoizle txikietara egokitu.
- **Ortugintza**: produktuen kalitatea bermatu, barietate anitzak ekoiztu eta ekoizpen ekologikoa garatu.
- **Basogintza**: lurraren kudeaketa egokia, jabetza pribatuen araudia egokitu, dakartzan onurak nolabait agerian jarri eta araudi mailan abantailak lortu, partaidetza merkatu bat sortu eta ikerketa areagotu.

Horiek abiapuntutzat hartuta EUROGAPek ekintza-plan zehatza prestatu zuen, arduradunak eta epeak adierazita. Ekintza-plan hori GFAri aurkeztu zitzaion, eta oniritzia jaso ostean parte hartzaileei aurkeztu zitzaien.

Prozesuaren emaitza izan zen hiru erronka nagusi identifikatzea (errentagarritasuna, komunikazio plana eta kudeaketa) eta parte-hartzaileak horien araberako hiru lan-talde txikitan banatzea. 2017rako plangintza bat adostu zuten lanean jarraitzeko eta, horren arabera, urtean zehar lan-talde txikiek erronka bakoitza lantzeko sei bilera adostu zituzten, baita komunean jartzeko beste hiru bilera egitea ere.

Laburbilduz, 2016an prozesuaren lehen fasea gauzatu zen eta guztien artean 2017an bigarren faseari heltzeko giltzarriak adostu zituzten, era horretan, etorkizunean administrazioaren eta eragileen arteko lankidetzarekin jarraitzeko asmotan. •

MARKO ESTRATEGIKOAREN INGURUKO PROZESUA

Azkenaldian, instituzio eta foro nazional zein internazional esanguratsuenetan, agerian geratzen ari da herritarren partaidetza zuzenerako formak bultzatzeko beharra, hain zuzen ere, instituzioetan demokrazia ordezkagarriaren osagarri modura eta gure gizarteen izaera demokratikoa sakontzearren. Egoera horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat parte hartzea marko estrategikoaren puntu garrantzitsu bat den heinean, parte hartze prozesuak ahalik eta era egokienean aurrera eramateko asmotan, horren inguruan lan egingo zuen parte hartze prozesu bat martxan jarri zuen GFAk.

Prozesuaren lehen urratsa barne analisia egitea izan zen. Horretarako, GFA barneko 11 kideekin lan-talde bat antolatu zen, horien ideia eta ekarpenekin AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak) egiteko. Lan horri jarraipena emateko, Herritarren Partaidetzarako Foru Zuzendaritzak testuinguruaren analisia egin zuen; erreferentziako lege-esparrua eta kanpo eta barne testuinguruak aztertuta.

Prozesuarekin jarraituz, kanpo analisia egiteko *focus group* teknikaz baliatu ziren. 6 saio antolatu ziren parte hartzeari buruz zer esana zuten interes-talde, eragile eta adituekin. Horren ostean, Javier Asín kontraste lanaz arduratu zen.

Lehen lan-saioa 8 udaletako ordezkariekin egin zen, eta hauek parte hartze prozesuetan Udalak jokatu beharreko paperaren inguruan lan egin zuten, parte hartzerako gako batzuk identifikatuta, GFAri zuzendutako eskaera zerrenda bat eginda eta erronka batzuk definituta. Parte-hartzaileak honakoak izan ziren: Irene Calvo (Irungo Udala), Nerea Ollokiegi (Zarauzko Udala), Nagore Alkorta (Urnietako Udala), Miren Castillo (Urretxuko Udala), Elixabete Manterola (Beasaingo Udala), Ainhoa Etxezarreta (Elgoibarko Udala), Onintza Andres (Oñatiko Udala) eta Amaia Agirreolea (Donostiako Udala). Proposatutako erronken artean zeuden, esaterako; metodologia bateratuak sortzea eta herritar guztiei iristea, gazteak barne.

Bigarrenean, parte hartzean adituak diren aholkularitza enpresetako 6 arduradun elkartu ziren, beraien papera zein zen zehaztu, gakoak eta gabeziak identifikatu eta erronkak finkatu zitzaten. Partaideak hurrengoak izan ziren: Denis Elortza (EMUN aholkularitza), Zorione Aierbe (Prometea), Jon Abril (Elhuyar aholkularitza),

Itziar Eizagirre (Mirua 21), Antxon Gallego (Ibatuz) eta Nice Lazpita (Norgara). Proposatutako erronketako bat izan zen parte hartze prozesuak epe ertain-luzerako izanez, beste alderdi politikoekin adostea eta lankidetzea.

Jarraian, 5 adituri elkarrizketak egin zitzaizkien parte hartze prozesuetan eragina duten hainbat aspekturen eta erakundeek hartu beharreko jarreraren inguruan galdetuta. Elkarrizketatutako adituak hurrengoak izan ziren: Alfonso Unceta (EHU), Quim Brugué (Gironako Unibertsitatea), Juanjo Álvarez (Globernance), Alberto Lopez Basaguren eta Asier Blas.

Laugarren *focus groupa* teknologian aditu diren 11 lagunek osatu zuten. Parte hartze prozesuetan teknologiari ematen zaion erabileraren inguruan jardun ziren, egungo joerak eta aukerak ikertu eta erronka zehatz batzuk proposatu zituzten. Hurrengoak izan ziren talde honetan parte hartu zuten kideak: Akixe Otegi (SGSmap), Leire Bardají (EUROHELP), Paul Gurmendi eta Eukene Riezu (TECH FOR SOCIETY), Ray Fernandez eta Fran Manzano (IGARLE), Elixabet San Juan (IZFE), Xabier Uriarte eta Iker Martinez (TECNALIA), Roberto García (DINYCON) eta Carlos Peña (INNOBASQUE). Talde honen proposamenetako bat izan zen streaminga erabiltzea saio presentzialak edozein tokitatik jarraitu ahal izateko.

Bostgarren saio batean, Gipuzkoako garapen agentzietako 10 kidek lan egin zuten, agentziek zertan lagun dezaketen identifikatuta. Kasu honetan, partaideak honakoak izan ziren: Itziar Abarisketa (Iraurgi berritzen), Itziar Salaverria (Uggasa), Isabel Otxandorena (Bidasoa Bizirik), Andoni Egia (Beterri), Igor Iturain (Urola kosta), Garbiñe Mendizabal (Tolosaldea garatzen), Juan Angel Balbás (Debegesa), Patxi Arrazola (Oarsoaldea), Ainhoa Unamuno (Goieki) eta Ainhoa Aldasoro (Donostiako Sustapena). Proposaturiko erronketako bat izan zen GFAren eta eragile sozioekonomikoen arteko bitartekariak izan daitezkeela garapen agentziak.

Seigarren eta azken *focus groupa* 5 alderdi politiko nagusietako ordezkariek osatu zuten. Parte hartze prozesuen egoeraren diagnosi partekatua egin zuten eta, diagnosi hori abiapuntutzat hartuz, ekintza batzuk proposatu zituzten aurrera eramateko konpromisoa hartuta. Partaideak hurrengoak izan ziren: Patricia Gete (Podemos), Juan Carlos Canos (PP), Maria Jesus Egido (PSOE), Judith Garcia (EH Bildu) eta Xabier Ezeizabarrena (EAJ). Politikarien focus grouparen proposamenetako bat izan zen herritarrek euren interesen araberako parte hartze prozesuak modu irekian eska ditzaten sustatzea.

Focus groupetan landutakoa Javier Asín Semberoiz Nafarroako Herritarren Partaidetza saileko zuzendariak kontrastatu zuen. Kontraste lanaren emaitza izan zen 10 puntuko gidaliburu bat osatzea, hau, etorkizunean egin beharreko parte hartze prozesuetan kontuan izan zedin. •

PASAIAKO PORTUKO PLAN BEREZIAREN **INGURUKO** KONTRASTE PROZESUA

Pasaiako portuaren berrantolaketarako Plan Berezia zela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiak herriko elkarteen iritziak eta ikuspuntuak ezagutu nahi zituen, guztien ekarpenak jasota plana ahalik eta osatuena izan zedin. Horretarako, bertako eragile nagusiekin elkartu eta hausnarketarako espazio bat sortu zuen, proposamen nagusiak kontrastatuz lan egiteko guztien artean. Era horretan, GFAk ekarpenak egiteko informazioa eta argudioak eskuragarri izango zituen eta, bide batez, eragileei errazten zitzaien hobekuntza proposamenak egitea.



Proiektuak hiru fase izan zituen. Lehenik eta behin, parte hartze prozesuan nola lan egingo zen definitu zen, horrela prozesuaren diseinua eginda. Eragileen mapa bat eginez erabaki zen partaideak nortzuk izango ziren, baita bileretan jarraituko zen lan eskema ere.

Bigarren fasea prozesuaren garapena izan zen. Horretarako, 17 lagunez osatutako lan-talde bat sortu zen eta horiekin hiru lan-saio egin ziren. Lehen bileran prozesua aurkeztu eta azalpen nagusiak eman ostean, lanari ekin zitzaion ezagutzeko zeintzuk ziren eragileek positiboki identifikatzen zituzten aspektuak, zeintzuk ziren hobetu beharrekoak eta hobetu beharrekoen inguruko proposamenak zeintzuk ziren.

Bigarren saioan, lan horrekin jarraitu zen, eta hirugarrenean, azkenekoan, aurreko lantegien emaitzetatik ateratako ideia nagusien irakurketa eta laburpena egin zen. Alde batetik, identifikatu ziren balorazio positiboa jaso zuten Plan Bereziko alderdiak eta, bestetik, hobetu zitezkeen kontuen inguruko proposamen eta ekarpenak azaldu ziren.

Proiektu honen azken fasea azken komunikazioa egitea zen. Horretarako, alegazioak aurkezteko epea amaitu ostean, GFAk gutun bana bidali zien partaide guztiei Plan Bereziari Diputazioak egindako ekarpenak zeintzuk ziren azalduta. Urrats horren bitartez prozesuari gardentasun handiagoa eman zitzaion.



Halere, prozesu honetan parte hartzea eragileez osatutako lan-taldetik haratago eman zen, izan ere; 2016ko apirilaren 4tik 16ra bitartean inkesta bat egin zen herritarrek Plan Bereziaren eta instituzioen lanaren inguruan zuten iritzia ezagutu zedin. Inkesta hori abiapuntutzat hartu zen lan-taldeak egindako ekarpen eta proposamenak herritar gehienentzat ahalik eta baliagarrien izan zitezen. Inkesta egiteko Pasaia udalerriko barrutiak hartu ziren kontuan (Trintxerpe, Antxo, San Pedro eta Donibane) eta guztira 629 lagunek erantzun zuten.

Parte hartze prozesu honen emaitza dira Portuko egoera hobetzeko identifikatutako alderdi batzuk, Plan Berezia onartzerakoan GFAk kontuan izan beharrekoak, hala nola; Euskadi Etorbidetik kamioiak igarotzea Pescaderia kalera iristeko, Herrera Iparreko lurzoruak, portu/hiri elkarbizitza eta portuko trafikoa kontrolatzeko garita biribilgunera aldatzea. Gainera, erakundeen arteko konpromisoa islatzen du Trintxerpeko geltokiko obrak hasteko Eusko Jaurlaritzaren eta Portuko Agintaritzaren artean sinatu zen hitzarmenak; lan horretarako 5 milioi euro bideratu dira.

Bestalde, prozesuaren emaitza izan dira ere Plan Berezian positiboki baloratu dituzten hainbat aspektu identifikatzea. Horien artean daude: baldintza oneko arrantza-lonja egiteko saiakera, lurpeko aparkalekuak egiteko proposamena eta Plan Berezian onartzen den premia zerbait egiteko Pasaiako birsorkuntzaren inguruan. •

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN TELELANA **TXERTZATZEKO** PARTAIDETZA PROZESUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Funtzio Publikoko Zuzendaritzak telelana martxan jartzeko intentzioa du bere langileen artean, beste erakunde batzuetan egin den moduan, hala nola; Eusko Jaurlaritzan edota Bizkaiko Foru Aldundian, baita zenbait enpresa pribatutan ere.

Telelana zerbitzuak emateko modalitate ez presentziala da, enplegatu publikoei beren lanaldia etxetik edo lantokia ez den beste lekuren batetik betetzeko aukera ematen diena, betiere informazio-teknologiek ahalbidetzen badute, eta lan arriskuen prebentzioa, gizarte segurantza eta datuen babes eta pribatutasuna direla eta ezarri beharreko baldintzak bermatuta. Telelanak onura nabarmenak ditu, adingabeak, zaintzak behar dituzten adineko pertsonak edo desgaitasun nahiz gaixotasun larriren bat duten senitartekoak beren kargura dituzten langileentzat.

Enplegatu publikoaren oinarrizko Estatutuak aipatzen duen eskubidea da norberaren bizimodua, lan-arlokoa eta familiartekoa elkarri egokitzeko neurriak hartzea, eta zentzu honetan planteatzen da ekimena. Baina, lan modalitate hau ezingo da aplikatu GFAren lanpostu guztietan, horregatik, ezinbestekoa izan da baloratzea zein lanpostu egokitu daitezkeen antolaketa eskema berri honetara.

Hori gauzatzea posible dela egiaztatzeko, parte hartze prozesu bat martxan jartzeko erabakia hartu zuen, bai prozesuaren diseinurako zein ezarpenerako ere.

Lehenik eta behin proba pilotu bat abiatu zen, telelanaren funtzionamendua ikuskatzeko eta aukerak aztertzeko.

Prozesuaren jarraipena egiteko, eta gardentasuna bermatzeko, motor-talde bat eta jarraipen batzorde bat eratu ziren. Motor-taldea langileen parte hartze prozesua diseinatzeaz eta sustatzeaz arduratu zen eta, jarraipen batzordea, aldiz, behin prozesuari buruzko informazioa jasota, ekarpenak egiteaz.

Diseinu fasean parte hartzeko, langileek bi bide izan zituzten: telematika (intranetaren bitartez) eta aurrez aurrekoa (bileren bitartez). Behin prozesuaren diseinua erabakita proba pilotuan nortzuk parte hartuko zuten erabakitzeko ere langileek izan zuten erantzukizuna, eta irizpide zehatz batzuk jarri ziren. Horiek GFAri eman zitzaizkion eta, ondoren, diseinuan parte hartu zutenei euren ekarpenetatik ateratako azken emaitzen berri eman eta proba pilotua arautzen zuen dokumentua aurkeztu zitzaien.

Telelan egunetan betetako galdetegietatik eta proban parte hartu zutenen aurrez aurreko elkarrizketetatik ondorioak atera eta telelana bideragarria den ala ez zehaztuko da. •

HERRITARREN ELKARTEAK



ELKARTEAK

BAI TXO! ELKARTEA (TOPAGUNEA)

ZUHATZA EUSKARA ELKARTEA (TOPAGUNEA)

EUSKO IKASKUNTZA

LANDETXA

KALE DOR KAYIKO

SAN AGUSTIN

AIREZ

POLITKI

TXATXILIPURDI

JAM ESPRESIO KULTURALAREN PROMOZIOA

ZERAINLAB

BAI TXO! ELKARTEA - Mutrikuko Euskaltzaleen Jabekuntza



Mutrikun euskararen eta herriko euskaldunen egoera ezagutzeko, eta bide batez bultzada bat emateko, Bai Txo! Elkarteak parte hartze egitasmo bat martxan jarri zuen Euskaltzaleen Topagunearen laguntzarekin. Herritarren partaidetzan oinarrituta, helburua zen euskaltzaleak batzea guztien artean hausnarketa egiteko, batez ere, euskararen erabilera bultzatzeko uneak eta guneak sortzeko helburuarekin.

Bai Txo! Elkartearen eta Euskaltzaleen Topagunearen arteko lankidetzan talde eragilea osatu zen, eta talde horrek prozesuaren helburuak eta behin-betiko kronograma adostu zituen. Talde eragilearen lanaren ondorio izan ziren otsailean eta martxoan antolatu ziren hiru lan-saioak.

Ekintza planaren nondik norakoa honakoa izan zen: 2016ko azaroaren 11ean prozesua adosteko bilerak egin ziren. Jarraian, abendu bukaerara arte prozesuaren diseinua eta komunikazio euskarrien prestaketa egin zen. Prozesuaren inguruko komunikazio lanak 2017ko urtarrilean eta otsailean egin ziren, eta otsailaren 14an prestaketa bilera bat antolatu zen. Herriko euskaltzaleekin parte hartze saioak otsailaren 18an eta martxoaren 4an eta 18an izan ziren. Hiru lan-saio horien helburua euskaldunek herrian ikusitako erronka eta premia nagusienak identifikatzea zen, guztien artean adosteko horiek martxan jartzeko bideak.

Horrela, otsailaren 18an, lehen saioan, Mikel Ozaitak (Euskaltzaleen Topaguneko kideak) azalpen soziolinguistiko laburra eman zuen, oinarrizko irizpideetan partaide guztiak bat etor zitezen abiapuntuan. Gero, taldeka banatu ziren euskararen egoeraz hitz egiteko eta ekarpenak jasotzeko.

Martxoaren 4an izan zen bigarren saioa, eta horretara bertaratuek horman panel batzuk aurkitu zituzten Mutrikuko euskararen egoerari buruz aurreko saioan



ateratako puntuak azalduta. Ondoren, guztien artean bereziki bi eremutan lan egiteari lehentasuna eman zitzaion:

- Kontzientziaren transmisioa
- Hiztunak irabaztea

Azken saioan, aurretik landutakoaren gainean sakontzeko panel bat jarri zen. Parte-hartzaile bakoitzak puntu bidez adierazi zuen zein zen beretzat eginkizun egingarriena, zein gustukoena eta zein eraginkorrena.

Gainera, antzeko parte hartze prozesuak eman diren beste herriekin elkarlanean informazio trukaketa egin zen, horrela parte hartzearen kultura Mutrikuko herritik haratago zabalduta. Azkenik, jarraipen bilera martxoaren 14an egin zen eta prozesuaren ebaluaketarena apirilaren 4an.

Hiru lan-saioetan erabilitako metodologia Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea izan da eta prozesua koordinatzea talde eragilearen ardura izan da une oro.

Parte hartze prozesuari esker hiru lantalde martxan jartzea lortu da:

- Euskaltzaleen antolakuntza eta saretze lantaldea (taldearen egitura eta funtzionamendua adostuta).
- Berriketan egitasmoa indartzeko lantaldea (mintzapraktika egitasmoa indartzeko 3 ekimen proposatu dira).
- Kontzientzia eta praktikan eragitea (3 ekintza zehatz hobetsi dira, baita horma irudia, 1. hitza euskaraz eta mugikorreko aplikazioa egitea ere). •

ZUHATZA EUSKARA ELKARTEA - Debako Euskaltzaleen Jabekuntza

Deban euskararen eta herriko euskaldunen egoera aztertzeko eta bultzatzeko Zuhatza Euskara Elkarteak parte hartze egitasmo bat abiarazi zuen. Proiektuaren xedea izan da komunitate mailan euskaltzaleak batu eta elkarren artean hausnarketa egitea, eta horretarako, ezinbestekoa zen herritarren partaidetza. Horrela, herritarren beharrak identifikatu nahi ziren eta, guztien arteko lanaren emaitza bezala, behar horiei aurre egiteko ekintzak erabaki eta gauzatzeko oinarria adostu nahi zen.

Parte hartze prozesua antolatzaileek aurreikusi bezala joan zen eta herritarrekin hiru saioak urria eta azaroan egin ziren, espero baino parte hartze handiagoarekin. Proiektua otsailean jarri zen martxan prozesua adosteko bilera batekin eta, horren ostean, martxoan Zuhatzako Batzar Orokorrean aurkeztu zen. Hurrengo hilabeteetan prozesuaren diseinua egin zen. Uda ondoren, irailean eta urriaren hasieran, parte hartze prozesua herrian ezagutarazteko komunikazio lanak egin ziren.

Behin debarrek prozesuaren berri zutela parte hartze saioak antolatu ziren urriaren 22an eta azaroaren 5ean eta 12an.

Lehen bileran, urriaren 22an, prozesuaren aurkezpenarekin batera, euskararen diagnostikoa egin zen eta etorkizunean euskararen egoera nolakoa izan beharko lukeen irudikatu zuten.

Azaroaren 5ean, Zuhatzak bere egitasmoak aurkeztu zituen. Era berean, bigarren bilera horretan, euskara elkarteak bere lan ildoak lehenetsi zituen.

Azken batzarrean, azaroaren 19an, ekintzak zehaztu eta nola antolatu erabaki zen. Horrela, Deban euskararen erabilera handitzeko helburuarekin bat egiten zuten herritarrek aurrerantzean euskararen alde lan egiten jarraitzeko aukera izan zuten.

Parte hartu zuten 38 lagunen lanaren emaitza izan zen hiru lantalde eratzea. Honako hauek, hain zuzen ere:

- Zuhatzaren koordinazio taldea: nork parte hartu eta nola antolatu erabaki zen.
- Komunikazio lantaldea: Debako euskaldunen komunikazio beharrak ardatz hartuta, kanal berriak martxan jartzea eta nola antolatu erabaki zen.
- Ekintza berria lantaldea: ez zen adostasunik lortu, baina taldeko kide batzuk elkartzen jarraitzeko erabakia hartu zuten.

Hiru saioetan lanerako baliatu zen metodologia Ikerketa Ekintza Parte hartzailea izan zen. Metodologia honen bitartez, parte-hartzaile guztien ahotsa modu berdintsuan jaso zen. Bestalde, prozesua koordinatzeaz talde motor bat arduratu zen une oro.

Zuhatza Euskara Elkarteko kideak, hau da, egitasmoaren antolatzaileak, oso gustura amaitu zuten parte hartze prozesuaren nondik norakoarekin, izan ere, espero baino partaide gehiagorekin lan egiteaz aparte hiru lantalde abian jartzea lortu zen. •



EUSKO IKASKUNTZA - Etorkizuneko Gipuzkoa

Gipuzkoar gizartearen etorkizunaz elkarrekin, eta era antolatuan, hausnarketa egiteko, hiritarren partaidetza foroetan oinarriturik etorkizuna denon artean eraiki asmoz, Eusko Ikaskuntzak urteak daramatza herritarren parte hartzea sustatzen. Lan horri jarraipena emanez, 2016an bi foro antolatu zituen Gipuzkoan; Zerainen eta Bergaran, hain zuzen ere.

Zeraingo foroak etorkizuneko herri txikien inguruan lan egin zuen eta Bergarakoak, aldiz, ezagutzaren gizartearen inguruan. Saio horietan herritar 'arruntak' zein adituak izan ziren; gizarte-jatorri, bizipen eta adin desberdinekoak. Guztiek, planteatutako gaien inguruan hausnartzeaz eta etorkizuneko agertoki desiragarriak amesteaz gain, balizko irtenbideak eta eman beharreko pausoak ere proposatu zituzten.

Zeraingo prozesuan 40 parte-hartzaile elkartu ziren Santa María de la Asunción parrokian, eta horiek lau taldetan banatuta lan egin zen. Bestalde, Bergaran egin zen prozesuan bi taldetan lan egin zen. Alde batetik, euskarazko taldea osatu zen 7 kiderekin eta, bestetik, gaztelerazkoa lan talde bat 11 kiderekin. Dinamizatzaile lanak Koro Muro Arrietek eta Jean-Michel Larrasquetek egin zituzten.

Bi foroetan lan egiteko era berbera izan zen, izan ere, *Design Thinking* metodologia zuten oinarri. Lehenik eta



behin, saioen sustatzaileek sarrera-hitzaldi bat eskaini zieten partaideei prozesua azaltzen eta, bide batez, eztabaida abiarazita. Ostean, dinamizatzaileen laguntzarekin, taldekako lan dinamika burutu zuten proposatutako gaien inguruko eztabaidaren eta hausnarketaren bitartez ideia berriak zein berrikuntza iraunkorrak, bideragarriak eta desiragarriak sortuta. Sustatzaileen lana izan zen prozesuan sortutako ekarpenak jasotzea, partaideekin ideiak adostuta eta proposatu ziren agertokien elementu edo puntu nagusiak eta arriskuak zehaztuta. Amaitzeko, birformulazioa egin zen, ondorioak aterata eta sintesia eginda.

Foro horien bitartez lortu zen jendartea bizikidetzan, elkarrizketan eta errespetuan trebatzea. Horrela, emaitza nagusiak foroak berak izan ziren: pertsonen elkarlana, gogoeta konpartitua eta hausnarketa kolektiboa bizikidetzarako bidean jorratuta. Baina, horretaz aparte, planteatutako bi gaien inguruan ere, neurri eta ekimen konkretuak plazaratu ziren, erakunde ofizialek kontuan izan zitzaten euren politiken garapenean.

Beraz, parte hartzearen ondorioz lortutako emaitzak, lagungarri izan dira jorratzen diren eremuen gainean ikuspuntu desberdinak eta osagarriak jasotzeko, etorkizuneko ikuspegia eskainiz. •



LANDETXA - Ametsa: Guztion Auzoa Artearen Bidez Eraikitzea



Landetxa auzo elkarteak auzoa auzotar guztien artean eraikitzeko intentzioarekin abiarazi zuen parte hartze prozesu hau. Horretarako, Giza Eskubideak ezagutzea eta lantzea ezinbestekotzat jo eta horien inguruan lan egiteko parte hartzean oinarritutako tailerrak antolatu zituzten. Horietan, auzoko edozein bizilagunek parte hartu zezakeen.

Prozesua aurrera eramateko talde eragile bat osatu zen. Talde horrek argi ikusi zuen 2015ean hasitako lanaren emaitza izan zitekeela auzoko espazio batzuetan GGEE eta bizikidetzaren inguruko artelanak egitea, eta horren inguruko erabakiak hartzeko auzotarren parte hartzea oinarrizkoa zen.

Giza Eskubideak oinarri hartuta auzoa artelanen bitartez edertzeko erabakiak hartzea auzotar guztien arteko lanaren emaitza izan behar zuen. Horretarako, honako prozesua jarraitu zen:

Hasteko, Giza Eskubideak bere osotasunean ezagutarazteko tailerrak eman ziren. Behin GGEEak landuta, auzoko espazio egokiak bilatu eta aukeratu zituzten. Bi espazio aurreikusi baziren ere, horietako bat lehenetsi zen. Jarraian, hartutako erabakiarekin Udalera jo zen beharrezko baimenak eskatzera. Udalaren baiezkoa jasota, margotu nahi ziren irudi eta mezuak lantzeko prozesua hasi zen.

Prozesuaren fase horretan, parte-hartzaileen ideia zaparradatik hiru ekimen burutzea erabaki zen, batetik, hiri kakorratza, bestetik, auzo elkartearen egoitzan dagoen harrerako pareta eta zutabeak margotzea eta, azkenik, barruko kristalak edertzea. Beraz, GGEEak landu ostean eta Udalaren baimenak eskuan izanik, proposamen bakoitzaren bozetoak aurkeztu zituzten auzotarrek, gerora gauzatu ziren proiektuak adostuta.

Landetxako auzotarren parte hartze prozesu honen ondorioa kalean ikusi daiteke, izan ere, hiru ekimenak gauzatu ziren.

Horietako bati esker, auzoko toki desberdinetan emakumeek kakorratzaz egindako eskulanek protagonismoa izan zuten eta, horrela, emakumeen presentzia eta ekarpena publikoki gehiago baloratzea lortu zen. Auzo elkarteko sarrerako pareta eta zutabeak margotzeari dagokionez, urriaren 12an bizilagun guztien artean burutu zuten ekintza. Elkarteko sarreraren itxura aldatuz, guztien artean adostu ziren bizikidetzarako mezuak jaso ziren bertan.

Azkenik, barruko kristalen edertzeari dagokionez, bizilagun batek auzoko baserrien historia biltzen zuenez, hortik abiatuta, artista batek baserrien argazkietatik eta auzoko beste toki berezietatik irudiak atera zituen, ondoren elkarte barruko geletan itsatsita. •



KALE DOR KAYIKO - Deman Thaj Letu!! (eman eta jaso!!)



Ijitoak gizarteko kide diren heinean, gainontzeko etnietako kideek bezala, parte hartze prozesuetan integratu behar dute. Kale Dor Kayiko ijito elkarteko kideak jakitun dira ijito komunitateak ez duela inoiz gizarte eta auzolan prozesuetan parte hartu eta aldentzeko eta baztertzeko joera izan duela beldur eta desberdintasun ugari tarteko. Egoera hori aldatzeko asmoarekin jarri zen martxan Deman Thaj Letu!! parte hartze prozesua, izan ere, haur eta nerabe ijitoak parte hartze prozesuetan integratu eta parte hartze kultura sustatu nahi da.

Parte hartze prozesu hau, 9 eta 20 urte bitarteko haur eta nerabe ijito eta ez ijitoak parte-hartzean hezteko prozesua izan da. Prozesua bi eskualdetan garatu zen, Bidasoan eta Goierrin, eta 350 haur eta nerabek parte hartu zuten.

2016ko maiatzean bi eskualde horietako hezkuntza zentroetan parte hartze prozesua garatzeko ideia zabaltzea izan zen lehen urratsa. Ekainean, mintegi bat eman zitzaien lan-saioak dinamizatzeaz arduratuko ziren hiru emakumeei (bi ijito eta ijito ez zen bat). Hilabetea amaitu aurretik, eta haur eta nerabeek udako oporrak hasi aurretik, lan-taldeak antolatu ziren honako bi irizpideen arabera: adina (10-15 eta 16-20 urte) eta kokalekua (Bidasoa eta Goierri).

Irailetik aurrera prozesuaren lehen eta bigarren faseak garatu ziren, hain zuzen ere, sentsibilizazioa eta ametsa. Lehen fasean, lan-taldeek bi ordu eta erdiko bi lan-saio burutu zituzten parte hartzearen garrantziaren inguruan hausnarketa eginda eta, bigarrenean, gainera, ikastetxeetan izan dituzten bizipen positiboak partekatu zituzten elkarrekin talde bakoitzeko haur eta nerabeek.

Bigarren fasearen helburua zen partaideek gustuko luketen ikastetxea bistaratzea, eta horretarako, bi orduko lan-saio bat izan zuten. Lan hori burutzeko abiapuntua izan zen partaide bakoitzak zuen amets bat gainontzeko kideekin partekatzea.

Horrela, urriaren amaieran eta azaroa osoan hirugarren fasea landu zuten, hau da; lehentasunen aukeraketa eta plangintza. Lan-taldeekin saio ugari antolatu ziren bigarren faseko amets horiek gauzatzeko aurrera eraman behar ziren ekintzak argituta.

Parte hartze prozesuaren hiru fase horiekin amaituta, bildutako ekarpen eta proposamenak aztertu zituen elkarteak proposamen horien bideragarritasuna kontuan izanda.

Beraz, parte hartze prozesu honek zuen helburu nagusia bete da eta hurrengo urtean antzeko beste prozesu bat sustatzeko ideia dute Kale Dor Kayiko elkartean. Parte hartze kultura ijitoentzat ezezaguna izatetik horrek duen garrantziaz jabetzera eraman ditu haur eta nerabe ijitoak eta, bide batez, ijito eta ez ijitoen arteko harremana bultzatu da etorkizunerako onuragarri izango den parte hartze kultura errotuta. •

SAN AGUSTIN - Guztion arteko sorkuntza

Proiektu honen helburua zen, Azpeitiko eta eskualdeko kulturgintzaren inplikazio aktiboaren bidez, etorkizuneko Soreasu Kultur Sormen Guneko proiektuaren beharrak eta ardatz nagusiak aztertzea eta zehaztea. Hain zuzen ere, aztertze eta zehazte prozesu hori aurrera eramateko egin zen herritarren parte hartze egitasmoa hau.

Parte hartze prozesuaren lehen urratsa parte hartuko zuen taldearen prestaketa eta aurreko lanak egitea zen. Horrela, prozesua aurrera eramateaz arduratu zen taldea osatu zen; talde eragilea, alegia. Horien lehen lana prozesua doitzea izan zen, ahalik eta baldintza egokienetan aurrera eraman zedin. Herritarren parte hartzea eskatu aurretik, prozesuan parte hartu zuten biztanleria taldeak identifikatu ziren prozesuaren ekimen, ekitaldi eta fase guztietan talde horien guztien partaidetza bermatuta. Biztanleria taldeez gainera, herriko eragileak ere identifikatu ziren. Azkenik, komunikazio planaren diseinua egin zen, talde eragilearen eta herritarren arteko komunikazioa bi norabideetan egin zedin.

Parte hartzeari bidea eman aurretik, informazio eta datu bilketa egin behar zen prozesua zein egoeratik abiatuko zen ezagutzeko, eta horretarako, 2015an egindako Azpeitiko kulturaren argazkiaz baliatu ziren. Behin egungo egoera errealaren diagnosia eskuan edukita, parte hartze prozesua aurkeztu zen.

2016ko maiatzaren 14an batzar irekia egin zen. Hemen, sormen gunean aurreikusitako eremuak (arte eszenikoak, hitza, irudia, soinua eta transmisioa) azaldu, eta hauei buruz hausnartu zuten taldeka banatuta.

2016ko ekainaren 22an, berriz, Soreasuko ate irekien jardunaldia egin zen, herritarrei eraikina nola zegoen ikusteko aukera eskainiz. Ondoren, beste bizpahiru aldiz ere errepikatu zuten bisita, herriko zenbait talde eta norbanakorekin.

2016ko uztailaren 13ko batzarra uda aurretiko azken urratsa izan zen, prozesuan jasotako ekarpenetatik abiatuta, Soreasuko sormen gunearen oinarriak aurkezteko hain justu. Eta uztail amaieran erabaki garrantzitsu bat hartu zen: Soreasuko eraikineko 0 solairuan hutsik eta erabilgarri zegoen espazioa atontzea eta lanekin ekitea. Hori horrela izanik, abiatze faseari ekin zitzaion udako oporretatik bueltan.

2016ko udazkenean harremana zuzenagoa izan zen taldeetako ordezkari zein norbanakoekin, eta informalagoa aldi berean. Hainbat lagunekin banakako elkarrizketak egin ziren, aurrez bileretan hitz egindakoa osatzen joateko.

Parte hartze prozesua aurrera zihoan bitartean, antzeko espazioak ezagutzeari ere eskaini zitzaion denbora. Behar-beharrezkoa da antzeko ereduak eta proiektuak ezagutzea, horien indarguneen eta ahulguneen berri izateko, espazioaren antolaketa eta kudeaketa ezagutzeko… baina bereziki, sarea osatzeko eta harremanak eraikitzen hasteko.



Horrez gain, udalak atondutako espazioan emanaldi batzuk antolatu ziren, jendeak lekua ikusteko aukera izan zezan eta, bide batez, giroa sortzen joateko. Azaroaren 2an egin zen Dinamoaren irekiera, izen hori eman baitzaio Soreasuko sormen guneari.

2017ko urtarrilaren 11n egindako Kultur Mahaiko Kulturzale Elkarteko bazkideen urteko ohiko batzarrean, 2016aren errepasoa egin eta 2017rako erronkak aurkeztu ziren. Bestetik, kultur taldeek luzatutako galdetegien erantzunak aurkeztu ziren. 21 taldetik 19k erantzun zuten; honakoak izan ziren galderak eta emaitzak:

- Behar al du zure taldeak lokal propioa Soreasun?

  5 BAI / 14 EZ

- Onartzen al du zure taldeak Kultur Mahaiak aurkeztutako proiektua?

  16 BAI / 1 EZ / 2 Ez daki, ez du erantzun

2017ko martxoan, berriz, eremukako bilera saio bat egin zen berriro, talde eta norbanakoek Soreasuko sormen gunean ikusten zituzten beharrak ezagutu, zehaztu eta espazioen banaketa fisikoa bera ere definitzen hasteko.

Azkenik, eskualdeko eragileak batzarretan elkartu ziren elkar ezagutzeko, elkarren berri izateko, elkarrengandik ikasteko eta sorkuntza beste txokoetatik nola ikusten zen ezagutzeko. Prozesuarekin amaitzeko, landutako guztia txosten batean jaso zen, hori interpretatu eta ondorioak atera zitezen. Horrela, Azpeitiko herritarrek eta eragileek Kultur Sormen Guneari buruz zuten iritzia ezagutu zen, baita ere zein oinarri eta helburu izan behar zituen, nolako funtzionamendua izan behar zuen eta zein proiektu eta dinamika komeni ziren martxan jartzea. Prozesuaren antolatzaileak ohartu ziren prozesua luzeegi joan zela eta, hori dela eta, azkenerako jendeak nekez hartu zuen parte hartze prozesua hau. Halere, oso ekarpen mamitsuak egin ziren. •

AIREZ - Bergara elkarrekin blai-blai prozesua

"Bergara Elkarrekin, blai-blai" prozesua haurren partaidetzan oinarrituz Bergarako espazio baten behin behineko eraldaketa ahalbidetu zuen prozesu berritzailea izan zen. Hiri antolamenduak haurren aisialdian eta hezkuntzan duen eragina aintzat hartuta, komunitate guztia kontuan hartuko duen herria sortzea beharrezkoa da eta bide horretan inflexio puntu bat izateko helburua izan zuen prozesu honek, haurrak ingurune naturalarekin harremanetan jarri eta jolas egiteko aukera anitzak dituen espazioa sortu zen; alegia, helduen interesen gainetik haurrek pentsatu, proposatu, diseinatu eta egindako espazioa.



2016ean Bergaran ospatutako Kilometroak jaiaren baitan sortu zen espazio hau, ibilbideko 2.guneko Arrizuriagako parkean kokatutako Haurren Basoa. Konfiantzan, oinarritutako harremanak bultzatu nahi izan ziren, errespetuz eta eskuzabaltasunez jokatuz. Jolaserako pentsatutako espazio bat izanik, bakoitzak nahi bezala eta nahi duenarekin jolas zezan eta ezinezko izanik gaizki jolastu edo irabaztea. Demasa egunerako prestatutako Basoaren diseinua Bergara elkarrekin Blai-Blai parte hartze prozesuaren bitartez jasotako ondorioen arabera egin zen,beraz.

Prozesuan kolektibo desberdinek parte hartu zuten, zirkulu eta profil desberdinetako jendearen iritzia ezagutzea beharrezkoa zelako, azken finean Kilometroak moduko jai batek herri osoan eragiten baitu. Saio desberdinak antolatu ziren haur, guraso eta zaintzaileak, irakasle eta herritarrekin. Baina prozesuaren protagonista nagusiak HH5 eta LH3ko ikasleak bilakatu ziren beraiekin lanketa sakonago bat egiteko aukera izan baitzen. Iraunkorki 73 haurrek parte hartu zuten, nahiz eta gehiagok ere parte hartzeko foro irekiak egin ziren. Airez taldea arduratu zen prozesuaren koordinazioaz eta dinamizazioaz, nahiz eta, irakasleek eta gurasoek ere lan horietan lagundu zuten.



Prozesua 3 fase nagusitan banatu zen eta beharraren arabera bakoitzean kolektibo desberdinekin saio desberdinak burutu ziren.

Lehen fasea, ekimenaren zabalpena egitea eta interes taldeen atxikimendua bilatzea zen. Jarraian, talde horien kezkak eta behar nagusiak identifikatu ziren, horrela, diagnostikoa burutuz. Horretarako, honako jarduerak gauzatu ziren: ekimenaren berri emateko bilerak eragile eta kolektiboekin; aurkezpen publikoa eta, horrekin batera, hainbat hedabideetan elkarrizketak egin proiektua azalduz; bitarteko komunikatibo propioen sorrera, hala nola, prozesuaren kartela, triptikoa eta egutegia egin ziren; herri-foroa (haurren esku ez dauden gainontzeko erabakiak hartzeko eta prozesuaren ebaluazio iraunkorra eta ekarpenak egiteko espazioa) eta haur-foroa (haurrekin egindako bi saiotan jolas-guneen inguruko gogoeta bultzatu zen espazioaren mugak eta sumatzen zituzten beharren arteko hutsuneak identifika zitzaten). Beraz, lehen fase honetan hiru lan saio egin ziren: Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleekin bat, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleekin beste bat eta foro herritarra. Bigarren fasean, aurrez adostutako baldintza eta beharren baitan, espazioaren diseinua egiteko proposamenak jaso ziren. Lan horretan, haurrekin bi bisita egin ziren jolas-gunea eraikiko zen tokira, horrela, espazioarekin harremanetan jarrita, proposamenak errealagoak izan zitezen. Gainera, proposamen gehiago jasotzekotan kutxak instalatu ziren eta, jasotako ekarpen guztietatik abiatuta, proposamenaren diseinua egiteko maketa-tailerra antolatu zen. Ideia-kutxak erabiltzeaz gain, proposamen fase honetan bost lan saio egin ziren, bana Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleekin, Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleekin, Txapligu Elkartearekin, guraso eta zaintzaileekin eta herritarrekin (foro herritarra). Hirugarren fasean, diseinatutako gunearen egikaritzea burutu eta prozesu guztiaren balorazioa egin zen. Diseinua adosteko Haur Hezkuntzako 5 urteko ikasleekin eta Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleekin lan saio bana egin zen. Azken lan horietarako, muntaketa egunerako behar zen guztia prestatzeko lan-taldea martxan jarri zen. Horretaz aparte, irailaren 30ean auzolan eguna antolatu zen prozesuaren bitartez lortutako emaitzarekin atxikimendu handiagoa lortu zedin. Demasa egunerako, hau da, Bergarako Ikastolak antolatutako Kilometroak egunerako, azken ukituak emateko saioak izan ziren eta azkenik, urrian, prozesuaren balorazioa egin zen, jarraian, egindako guztia txosten batean bilduta.

Parte hartze prozesu honen ondorioz, erabilerarik ez zuen espazio batean aisialdirako, jolaserako eta deskantsurako aukerak sortu ziren. Baina, emaitza horretatik haratago prozesuak izan duen potentzial hezitzailea da benetan balorean jartzen dena. •



POLITKI - Guneak Zabaltzen Donostian







Politki Elkarteak, mota guztietako eragileak eta herritarrak harremanetan jartzeko testuingurua sortzeko beharra antzeman zuen; batez ere, instituzioen eta herritarren arteko harremana landuko zuena. Helburu horrekin abiarazi zen Guneak Zabaltzen Donostian proiektua.

Proiektuak sei hilabeteko iraupena izan zuen eta hiru bilera ireki antolatu ziren. 2017ko martxoaren 11ean eta 12an Egiako Aitor Ikastolan egindako saio horietan helburua bete zela esan daiteke. Proiektuaren fase horretan 32 pertsonak parte hartu zuten eta horien erantzukizuna, lan-talde txikietan antolatuta, agendaren edukia zehaztea eta landutakoa txosten batean biltzea izan zen.

Antolatzaileek parte hartze handiagoa espero bazuten ere, lortutako emaitzak oso positiboak izan ziren, izan ere, bertaratuen ordezkaritza nahikoa izan zen Donostian eragina duten zenbait gai sakonen eta konplexuen inguruan elkarrizketa eta eztabaida sortzeko. Alde horretatik, bertaratuen parte hartzea eta inplikazioa handia izan zen, eta horren adierazle da 19 gai proposatu izana.

Lanerako *Open Space* metodologiaz baliatu ziren eta, horrela, topagunean eztabaidatutako gaien agenda partaideek osatu zuten. Gainontzeko lanez proiektuaren koordinazio taldea arduratu zen: logistika, bilerak, komunikazioa eta bileren dinamizazioa kudeatzeaz, alegia.

Lehenengo eguneko eztabaida gaiak honakoak izan ziren: Giza Eskubideak eta haurraren eskubideak; Tabakalera; Donostia, bizitzeko hiria, ez negoziorako; Hiri patogenoa da?; kale ekintzak; gazteriaren galera; bizikletak hirian; esparru politiko-instituzionalean parte hartzea; ahalmen urritasuna duten haurrentzat Donostia inklusiboa; indarkeriari buruzko hausnarketa; permakultura + ekonomia urdina; eta 40 urtetik gorakoen artea nola zabaldu. Gai hauen inguruan hausnarketa eta eztabaida egin zen, lehenengo talde txikitan eta, gerora, talde osoan. Gainera, kasu batzuetan, aurrera eraman beharreko ekintza batzuk zehaztu ziren.

Bigarren eguneko saioan lantzeko zazpi ekintza proposatu ziren eta martxoaren 12ko bileran horiek jorratu zituzten, jarraian, guztia txosten batean bilduta. Gainera, Donostiak duen dibertsitatea eztabaidan islatuta geratu zen, hiritarrez gain, instituzioetako ordezkariak eta mugimendu sozialetako kideak parte hartu baitzuten. Egun eta erdiko lan-saioa burutu ondoren, lan-taldeak itxiera zirkuluarekin amaiera eman zion Guneak Zabaltzen Donostian proiektuaren fase honi.

Egun batzuk beranduago, martxoaren 21ean, lehen topaketa horren balorazioa egiteko Impact Hub Donostian elkartu zen. Balorazioa osatuagoa izan zedin "fazilitazio" taldea, antolatzaileak eta pare bat parte-hartzaile ere gerturatu ziren. Horretan, lehen topaketaren balorazioa egiteaz gain hurrengo topaketa bat egitea hitzartu zen. Lehen topaketan parte hartu zutenek bigarrenean ere partaide izateko gonbita jaso zuten, eta gainontzeko hiritarrei ere gonbita luzatu zitzaien azaroaren 11 eta 12ko topagunean parte hartu zezaten. •









TXATXILIPURDI - Arrasatek Hezi



Txatxilipurdi Elkarteak Arrasateko herri antolamendua modu parte-hartzaileenean egiteko asmoarekin abiarazi zuen egitasmo hau. Bide beretik, oztopo arkitektonikorik gabeko herria lortu nahi zen, baita benetako konfiantzazko gune eta zerbitzuak ezartzea ere.

Horretarako, gauzatze fasearen lehenengo urratsa eman zen: aurreko faseetan (aurreko ikasturteetan) identifikatutako ekintza lerro guztietan oinarrituta bi lantalde sortzea. Lantalde bakoitzak helburu zehatz batzuk zituen. Batak, oztopo arkitektonikoen inguruan lan egin zuen, eta, besteak, herriko gune eta zerbitzuak konfiantzazkoak izateko lan egin zuen.

Lantalde bakoitzak bere egitura propioa izan zuen. Oztopo arkitektonikoen lantaldearen osaketa hurrengoa izan zen: gizarte eragileen izenean Goyeneche eta Aspace; hezkuntza ez-formaleko eragileen izenean Txatxilipurdi; eta hezkuntza formaleko eragileen izenean Arizmendi Ikastola eta Herri Eskola. Bestalde, konfiantzazko guneak landu zituen taldea honakoa izan zen: gizarte eragileen izenean Goyeneche, Ekin Emakumeak eta Aspace; hezkuntza ez-formaleko eragileen izenean Txatxilipurdi; eta hezkuntza formaleko eragileen izenean Arizmendi Ikastola, HHI eta Institutua.

Lan talde bakoitzak bere helburuen baitan lan egin ostean garapenerako plangintzak diseinatu eta garatu zituen. Lantaldeek bi bilera orokor egin zituzten eta, gerora, bakoitzak zazpina saio. Saioez gain, ekintza zuzeneko saioak ere antolatu ziren. Saio hauetan elkarren arteko bisitak egin ziren, horrela, batzuek besteen egunerokoa ezagutu

zuten, izan zitzaketen zailtasunak identifikatzeko bideak erraztuta. Herri Eskola eta Aspaceren artean, bisita bana egin zen, Aspaceko kideak Herri Eskolara LH4. mailako ikasleengana joan ziren eta ikasgelan elkarrizketa saio bat eta jolastokian kirol egokituen inguruko beste bat egin zituzten. Bestalde, Herri Eskolako HH3ko ikasleak Aspaceren egoitzan izan zien bisitan. Goiza elkarrekin pasa zuten, Aspaceren instalazioak ezagutu eta bertan egiten dituzten zenbait ekintza probatu zituzten. Aspaceko kide batek Arrasateko Gaztegunera ere egin zuen bisita bertan 12-16 urte bitarteko nerabeekin solasaldi bat partekatu zuelarik. Bisitez gain, lan ildoaren helburu nagusietako bati zuzenean erantzuteko, hau da, herrian dauden oztopo arkitektonikoak identifikatzea, ibilbideak egin ziren Arrasatek Hezin parte hartzen duten eragileen egoitzen inguruan eta herriko hainbat zonaldetan. Ibilbide horiek eskolen kasuan irakasleek ikasleekin egin zituzten, ludoteken kasuan hezitzaileek haurrekin eta Aspace eta Goyenechekoen kasuan bertako zerbitzuen erabiltzaileen lan talde espezifiko batek hezitzaileez lagunduta. Azken lan honetatik Udalean aurkeztu zen txosten bat osatu zen eta hirigintza proiektuan txertatu zen guztiontzako irisgarriagoa izango den herri bateranzko urratsak emateko asmoarekin. Bestetik, konfiantza guneen lan taldean harrera onerako gida landu zen ikasturte osoan zehar. Gida honek Arrasate hezitzaileago bat izateko bidean ekarpen xume baina garrantzitsu bat egin nahi zuen. Herriko zerbitzuetan, Udal zerbitzu, nahiz komertzio edo eragileen egoitzetan, herritar guztiek harrera egoki bat izan dezaten hainbat gomendio jaso ziren bertan.

Parte hartze prozesu honen ondorioak aberasgarriak izan ziren, izan ere, lantalde bakoitzak bere helburua betetzeaz gain, herriko eragileen arteko harremana sakontzea eta elkar babesteko sareak osatzen hastea ahalbidetu zuen. •



JAM ESPRESIO KULTURALAREN PROMOZIOA - KA

Kultura Alternatiboa (KA) 2014an sortu zen plataforma da; eta helburu du partaidetza, elkartasuna eta ikusgaitasunaren bitartez, kultura alternatiboa eta oinarrizko kultura sustatzea. 18 batzar nagusi antolatu ostean 300 kide baino gehiagok osatzen dute plataforma, eta hilero topaketa bat antolatzen dute. Edozein herritar hurbildu daiteke saio horietara, izan ere, guztiz irekiak dira, eta horietan proiektu desberdinak garatzen dira. Guztiz irekia denez, edozein diziplinako artistak, eragilek eta norbanakok parte hartu dezake.

KA Gune Ireki (Open Space Technology) batean jaio zen eta, izaera ireki horrekin jarraituz, gune ireki izaten jarraitzen du; hau da, auto-kudeatua, irekia eta iraultzailea da, besteak beste. Hilean behin egiten














dituzten saio horietan KAren egungo egoeraren eta etorkizuneko erronken inguruan eztabaidatzen da. Parte hartu nahi dutenek ezin badute saioetara aurkeztu korreoz edo bestelako euskarrien bitartez proposamenak bidaltzeko aukera dute.

Saio orokor horiez gain, proiektu zehatzak garatzeko lantaldeak osatzen dira gaien arabera. Bilerak elkarrizketa kolektiboan oinarritzen dira. Saio orokorretan KA plataformak jarraituko dituen estrategiak erabakitzen dira guztien artean eta, ondoren, diziplina ezberdinetako lantaldeek erabakitako estrategiak jarraituz era autonomikoan lan egiten dute plataformaren helburuak lortzeko ideiarekin. Besteak beste, honako proiektuetan banatzen dira taldeak: euskara, webgunea, diseinua, 100KA, fanzinea.

Saioak Donostiako Kafe Antzokian egiten hasi baziren ere, ezagutarazteko ideiarekin leku desberdinetan elkartzen joan dira: Altxerri, Txondorra Elkartea, Bukowski, Zuloaga Plaza, M-Etxea...

Topaketak egiten jarraituko dute eta erronka nagusiak dira partaide gehiago lortzea, proiektu artistikoak aurrera eramatea eta bidegabekerien aurrean kritikoago izatea. •

ZERAINLAB - Zerain etorkizunari begira

Zeraingo herrian Zerainlab Elkarteak, Aztiker ikergunearen aholkularitzari jarraituz, parte hartze prozesu bat aurrera eramatea erabaki zuen, herrian etorkizunera begirako gogoeta prozesu ireki bat bultzatzeko helburuarekin. 2015eko hauteskundeen ondorioz herrian tentsio giroa zegoen, beraz, tentsio giro horren arrazoiak ezagutzea eta irtenbideak bilatzea zen parte hartze prozesu honen betebeharra.

2016ko urtarrilean egin zen partaidetza prozesu honen lehen urratsa, aurkezpena, alegia. Ahalik eta herritar gehienengana iristeko, eta horrela arazoari irtenbideak bilatzeko, gutun pertsonalak bidali zitzaizkien zeraindarrei. Gainera, ekitaldi ireki batean prozesuaren berri eman zitzaien.

Urtarriletik martxo amaierara arte, Aztikerrek gidatutako hiru lan-saio antolatu ziren. Horietan 50 pertsonak parte hartu zuten, hau da, herritar helduen %25ak, eta guztien artean egin zen azken urteetan herrian gertatutakoaren diagnosia. Saio bakoitzean metodologia desberdina erabili zen, baina, oro har, taldean parte hartzeko dinamiken eta ariketen bitartez gauzatu zen hausnarketa fasea.

Horrela, herritarren gogoetatik ateratako ondorioak landu ziren, Zerainek eta zeraindarrek aurrera begira hartu beharreko erabakiak adostuta eta proposamenak zehaztuta. Ekainaren amaieran aurkeztu ziren etorkizunerako herriak hartu zituen erronka berriak, hain zuzen ere, zeraindarren elkarbizitza berriro bideratuko zituztenak.

Prozesu hau, parte hartze kultura indartzeko gune izateaz batera, elkarren arteko topagune ere izan zen, izan ere, herritarren arteko arazoei aurre egiteko herritarren arteko hausnarketa sustatu zen. Beraz, parte hartze prozesu honen emaitzak honakoak izan ziren: azken urteetan herrian gertatutakoari buruzko diagnosia egin zen eta aurrera begira lanketa zein arlotan egin erabaki eta zein ildo lehenetsi ezarri zen. •

Herrietako esperientzien

AURKIBIDEAK

HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

HERRIA	ESPERIENTZIAREN IZENA	ESPERIENTZIA MOTA	ORRIALDEA
Abaltzisketa	Herriko hondakinen azterketa	Hondakinak	**144**
Aduna	2013-2020 Plan Estrategikoaren Kudeaketa	Plan estrategikoa	**148**
Altzaga	Altzagako Agenda 21eko ekintza-planaren berrikuspena	Agenda 21	**88**
Arama	Araman herritarren partaidetza sustatzeko proiektua	Hirigintza	**94**
Aretxabaleta	Aretxabaletako parte hartze ordenantza definitzeko prozesua	Parte-hartzea	**32**
Arrasate	Kulturola Proiektua	Kultura	**38**
Azpeitia	Denon Artean Parte Hartze Prozesua 2017	Plan estrategikoa	**168**
Baliarrain	Internet Sarea Udalerrian	Komunikazioak	**152**
Beasain	Euskara eta generoa uztartuz, kirol arloko diagnosi kualitatiboa	Berdintasuna-Euskara-Kirola	**100**
Donostia	Donostiako Klima Estrategia 2050	Ingurumena	**56**
Elgeta	Elgeta, danon artian, danon herrixa	Parte-hartzea	**42**
Elgoibar	Elgoibarko Gizarteratze Mahaia	Gizarteratzea	**18**
Eskoriatza	Hiriberritze Plana	Herrigintza	**48**
Getaria	Potzuaga parkeko parte hartze egitasmoa	Hirigintza	**172**
Hernani	Hernaniko 2017ko udal aurrekontu parte-hartzaileak	Aurrekontuak	**62**
Irun	Aurrekontu parte-hartzaileak	Aurrekontuak	**10**
Itsasondo	Itsasondo, haurren herria	Haurrak-Nerabeak-Gazteak	**106**

HERRIAK ETA ESPERIENTZIAK

HERRIA	ESPERIENTZIAREN IZENA	ESPERIENTZIA MOTA	ORRIALDEA
Lazkao	Gurutzeko berrurbanizatzearen definizioa	Hirigintza	**110**
Legazpi	Legazpiko Agenda 21eko Herritarren Foroak	Agenda 21	**116**
Legorreta	Partaidetzako oinarriak finkatzen eta sendotzen	Parte-hartzea	**122**
Oiartzun	Herritarren partaidetza sustatzeko udal sistema osoa eraikitzea	Parte-hartzea	**68**
Ordizia	Hondakinen bilketa eredua aukeratzeko herri galdeketa	Hondakinak	**128**
Orendain	Udaleko aurrekontuen parte hartzea	Aurrekontuak	**156**
Pasaia	Pasaiako haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko plana	Haurrak-Nerabeak-Gazteak	**74**
Segura	Segurako partaidetza prozesuen proiektu integrala 2016	Parte-hartzea	**134**
Soraluze	Ludoteka eta Gaztetxokoa margotzen	Haurrak-Nerabeak-Gazteak	**24**
Tolosa	2026 Plan Estrategikoa eta Agenda 21 Ekintza Plana	Plan Estrategikoa	**160**
Urnieta	Parte Hartuz	Proiektuak lehenestea	**80**
Urretxu	Gobernu irekirako estrategiaren barnean herritarren parte hartzea	Parte-hartzea	**138**
Zarautz	Herritarren parte hartzerako Zarauzko Udalaren 2016ko plana	Parte-hartzea	**176**
Zestoa	Gaztelekuko erabiltzaileen parte-hartzea sustatzea	Haurrak-Nerabeak-Gazteak	**181**
Zestoa	Auzoetako batzarra egonkortzea	Auzoak	**182**
Zestoa	Haur, nerabe eta gazteen arretaren koordinazioa sistematizatzea	Haurrak-Nerabeak-Gazteak	**183**

HERRIETAKO ESPERIENTZIAK ESPERIENTZIA MOTAREN ARABERA

ESPERIENTZIA MOTA	HERRIA	ESPERIENTZIAREN IZENA	ORRIALDEA
Agenda 21	Altzaga	Altzagako Agenda 21eko ekintza-planaren berrikuspena	88
Agenda 21	Legazpi	Legazpiko Agenda 21eko Herritarren Foroak	116
Auzoak	Zestoa	Auzoetako batzarra egonkortzea	182
Aurrekontuak	Hernani	Hernaniko 2017ko udal aurrekontu parte-hartzaileak	62
Aurrekontuak	Irun	Aurrekontu parte-hartzaileak	10
Aurrekontuak	Orendain	Udaleko aurrekontuen parte hartzea	156
Berdintasuna-Euskara-Kirola	Beasain	Euskara eta generoa uztartuz, kirol arloko diagnosi kualitatiboa	100
Gizarteratzea	Elgoibar	Elgoibarko Gizarteratze Mahaia	18
Haurrak-Nerabeak-Gazteak	Itsasondo	Itsasondo, haurren herria	106
Haurrak-Nerabeak-Gazteak	Pasaia	Pasaiako haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko plana	74
Haurrak-Nerabeak-Gazteak	Soraluze	Ludoteka eta Gaztetxokoa margotzen	24
Haurrak-Nerabeak-Gazteak	Zestoa	Gaztelekuko erabiltzaileen parte hartzea sustatzea	181
Haurrak-Nerabeak-Gazteak	Zestoa	Haur, nerabe eta gazteen arretaren koordinazioa sistematizatzea	183
Herrigintza	Eskoriatza	Hiriberritze Plana	48
Hirigintza	Arama	Araman herritarren partaidetza sustatzeko proiektua	94
Hirigintza	Getaria	Potzuaga parkeko parte hartze egitasmoa	172
Hirigintza	Lazkao	Gurutzeko berrurbanizatzearen definizioa	110

HERRIETAKO ESPERIENTZIAK ESPERIENTZIA MOTAREN ARABERA

ESPERIENTZIA MOTA	HERRIA	ESPERIENTZIAREN IZENA	ORRIALDEA
Hondakinak	Abaltzisketa	Herriko hondakinen azterketa	144
Hondakinak	Ordizia	Hondakinen bilketa eredua aukeratzeko herri galdeketa	128
Ingurumena	Donostia	Donostiako Klima Estrategia 2050	56
Komunikazioak	Baliarrain	Internet Sarea Udalerrian	152
Kultura	Arrasate	Kulturola Proiektua	38
Parte-hartzea	Aretxabaleta	Aretxabaletako parte hartze ordenantza definitzeko prozesua	32
Parte-hartzea	Elgeta	Elgeta, danon artian, danon herrixa	42
Parte-hartzea	Legorreta	Partaidetzako oinarriak finkatzen eta sendotzen	122
Parte-hartzea	Oiartzun	Herritarren partaidetza sustatzeko udal sistema osoa eraikitzea	68
Parte-hartzea	Segura	Segurako partaidetza prozesuen proiektu integrala 2016	134
Parte-hartzea	Urretxu	Gobernu irekirako estrategiaren barnean herritarren parte hartzea	138
Parte-hartzea	Zarautz	Herritarren parte hartzerako Zarauzko Udalaren 2016ko plana	176
Plan estrategikoa	Aduna	2013-2020 Plan Estrategikoaren Kudeaketa	148
Plan estrategikoa	Azpeitia	Denon Artean Parte Hartze Prozesua 2017	168
Plan Estrategikoa	Tolosa	2026 Plan Estrategikoa eta Agenda 21 Ekintza Plana	160
Proiektuak lehenestea	Urnieta	Parte Hartuz	80

GIPUZKOAKO **HERRIAK** AZALERAREN ARABERA

HERRIA	azalera(km²)
Arama	1,33
Ikaztegieta	2
Altzaga	2,53
Berrobi	2,77
Baliarrain	2,8
Irura	2,99
Belauntza	3,4
Anoeta	4,1
Hernialde	4,17
Ibarra	5,03
Lasarte-Oria	5,4
Ordizia	5,65
Orexa	5,85
Larraul	5,9
Leaburu	5,9
Gaintza	5,96
Orendain	6,4
Aizarnazabal	6,55
Ormaiztegi	6,9
Olaberria	6,92
Aduna	7
Alegia	7,59

HERRIA	azalera(km²)
Urretxu	7,9
Legorreta	8,62
Mutiloa	8,8
Itsasondo	8,94
Gaztelu	9,15
Segura	9,2
Altzo	9,8
Orio	9,8
Zerain	10,37
Getaria	10,6
Pasaia	11
Abaltzisketa	11,2
Zumaia	11,3
Lazkao	11,4
Alkiza	11,9
Lizartza	12,33
Albiztur	12,9
Lezo	12,9
Bidania-Goiatz	13,37
Soraluze	14,22
Zarautz	14,3
Leintz-Gatzaga	14,7

HERRIA	azalera(km²)
Gabiria	14,88
Zizurkil	15,4
Zaldibia	16,2
Beizama	16,55
Asteasu	16,6
Elgeta	16,9
Astigarraga	17,15
Villabona-Amasa	17,74
Zumarraga	18,2
Amezketa	20,6
Ezkio-Itsaso	21,2
Eibar	22
Urnieta	23
Usurbil	24,9
Elduain	25,07
Mendaro	25,4
Aretxabaleta	26
Andoain	27,17
Mutriku	27,7
Antzuola	27,9
Hondarribia	28,63
Idiazabal	29,5

HERRIA	azalera(km²)
Beasain	29,9
Errenteria	31
Errezil	32,46
Arrasate	34,2
Zegama	35,07
Tolosa	37,9
Elgoibar	39,2
Eskoriatza	40,4
Legazpi	41,8
Hernani	42
Irun	42,8
Zestoa	43,7
Berastegi	45,83
Deba	52
Aia	55,27
Azkoitia	55,4
Ataun	58,9
Oiartzun	60
Donostia	61,5
Azpeitia	69,4
Bergara	77,05
Oñati	108,2

GIPUZKOAKO **HERRIAK** BIZTANLERIAREN ARABERA

HERRIA	biztanleria
Orexa	114
Gaintza	122
Beizama	125
Ormaiztegi	133
Baliarrain	145
Gaztelu	165
Altzaga	173
Orendain	196
Arama	210
Elduain	243
Mutiloa	244
Leintz-Gatzaga	245
Larraul	246
Belauntza	255
Zerain	258
Albiztur	309
Hernialde	313
Abaltzisketa	314
Alkiza	346
Altzo	358
Leaburu	360
Aduna	465

HERRIA	biztanleria
Ikaztegieta	484
Gabiria	507
Bidania-Goiatz	514
Berrobi	599
Errezil	608
Ezkio-Itsaso	622
Lizartza	638
Itsasondo	657
Aizarnazabal	754
Amezketa	921
Olaberria	945
Berastegi	1.064
Elgeta	1.099
Legorreta	1.485
Asteasu	1.493
Segura	1.498
Zegama	1.521
Zaldibia	1.566
Ataun	1.696
Irura	1.750
Alegia	1.760
Anoeta	1.996

HERRIA	biztanleria
Aia	2.022
Mendaro	2.039
Antzuola	2.223
Idiazabal	2.333
Getaria	2.791
Zizurkil	2.935
Zestoa	3.740
Soraluze	3.877
Eskoriatza	4.097
Ibarra	4.177
Mutriku	5.325
Lazkao	5.426
Deba	5.427
Villabona-Amasa	5.768
Astigarraga	5.901
Orio	5.901
Lezo	6.002
Urnieta	6.169
Usurbil	6.223
Urretxu	6.850
Aretxabaleta	6.987
Legazpi	8.438

HERRIA	biztanleria
Ordizia	9.488
Zumaia	9.786
Zumarraga	9.820
Oiartzun	10.211
Oñati	11.275
Elgoibar	11.481
Azkoitia	11.852
Beasain	13.863
Azpeitia	14.812
Andoain	14.827
Bergara	14.905
Pasaia	16.587
Hondarribia	17.092
Lasarte-Oria	18.494
Tolosa	19.041
Hernani	20.013
Arrasate	21.903
Zarautz	23.040
Eibar	27.158
Errenteria	39.905
Irun	59.673
Donostia	180.179

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

ETORKIZUNA
ERAIKIZ

Nabigatu
KLIK batean

HITZAURREA

UDALERRIAK

GFA

ELKARTEAK

AURKIBIDEAK